


55

Gerra Zibila Otxandion

Zigor Olabarria Oleaga







Lankidetzan

55

Gerra zibila Otxandion

Zigor Olabarria Oleaga



Azaleko argazkia: Milizianoak guardian. Otxandioko kanpandorrean.

Olabarria Oleaga, Zigor

Gerra Zibila Otxandion / Zigor Olabarria Oleaga. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2011.

238 or. : ir. ; 24 cm. – (Lankidetzan ; 55)

ISBN: 978-84-8419-217-6

I. Olabarria Oleaga, Zigor II. Bilduma III. Tit.

Eusko Ikaskuntzak eta Otxandioko Udalak eskertzen diote liburuki honen egileari eta, elkartearen tradizioaren arabera, haren irizpide eta uste guztiak errespetatzen dituzte, nahiz horrek ez duen esan nahi bereziki haietako ezein berean gain hartzen dutenik.

ISBN: 978-84-8419-217-6

L.G.: XXXXX

Fotokonposaketa: Imanol Tapia - Donostia

Inprimaketa eta koadernaketa: Michelena artes gráficas – Astigarraga (Donostia)

Hitzaurrea.....	9
Sarrera.....	11
Gure Nagusiei Esker Onez.....	13
Elkarrizketatuak	15
Eskerrak.....	19
1. Errepublika garaiko Otxandio. Gerra aurreko Otxandio	23
1.1. Otxandioarrak: lurraren eta tailerraren artean	23
1.1.1. Egitasmo garrantzitsuen garaia: trenbidea Otxandion	26
1.1.2. Langabeak eta pobreak	27
1.2. Gizarte tentsioak	29
1.3. Otxandio, Errepublikaren eta Estatutuaren alde.....	30
2. Altxamendua	49
2.1. Lehen egunak Otxandion	50
3. Bonbardaketa.....	65
3.1. Zalantza ugari.....	65
3.2. Bonbardaketa.....	69
3.3. Erreakzioa.....	77
3.4. Hildakoak.....	81
3.5. Oihartzuna eta ondorioak	87
3.6. Zergatik?	91
4. Gerra	99
4.1. Bilakaera militarra Legutioko Batailara arte	99
4.2. Salbuespen egoeraren eta normaltasunaren artean.....	102
4.2.1. Herri militarizatua.....	104
4.2.2. Milizianak (¿Mujeres de la vida?).....	112
4.2.3. Egunerokotasuna bonben azpian.....	114
4.2.4. Otxandio: iheslarien pasabide, espioen lanerako toki	126
4.3. Legutioko Bataila.....	131
4.3.1. Porrotaren zergatiak eta ondorioak.....	135
4.4. Errepresio errepublikanoa Otxandion.....	140
4.4.1. Otxandio, antiklerikalismoaren ikur.....	147

5. Bizkaiaren gaineko ofentsiba: Otxandio Francoren pean	161
5.1. Estatu eta nazioarte mailako garrantzia.....	161
5.2. Ofentsibaren prestaketa.....	162
5.2.1. Goikoetxearen traizioa.....	164
5.3. Hegazkineria, arma erabakigarria.....	166
5.4. Martxoaren 31tik apirilaren 4ra: gerraren gordina.....	167
5.4.1. Bi ejerzito aurrez aurre.....	167
5.4.2. E eguna: H ordua.....	170
5.4.3. Matxinoak Otxandioko kaleetan.....	177
5.4.4. Otxandio, hondamendiaren erdigune.....	180
5.5. Hildakoak eta lehergailuak nonahi: ofentsibaren urteetako ajea.....	183
6. Otxandio eremu matxinoan	203
6.1. Otxandiora buelta: etxe apurtuak, lapurretak eta elkarlana.....	206
6.2. Egunerokotasuna berreraikitzen.....	208
6.2.1. Agintari berriak.....	209
6.2.2. Gosea.....	211
6.2.3. Errepresio frankista Otxandion.....	213
Azken Hitza.....	231
Bibliografia.....	233
Argazki kredituak.....	237
Bibliographic Section.....	238

HITZAURREA

1936ko uztailaren 22a otxandioar guztion oroimenean geldituko da. Francoren altxamendua gertatu eta 4 egun bakarrik igarota, gure herriak inoiz ahaztuko ez duen sarraski mingarria sufritu zuen. Andikonako bonbardaketa penintsulan jendarte zibilaren aurka egindako lehenengo bonbardaketa gisa ezagutzen da, eta, hainbat historialarik esaten dutenez, nolabaiteko entsegua izan zen ondoren etorriko ziren Durangoko eta Gernikako bonbardaketetarako. Azken datuen arabera, 61 pertsonak galdu zuten bizia Andikonako plazan, horietako asko umeak, eta gure herria betiko markatuta utziko zuen aro ilun baten hasiera izan zen. Aro ilun eta neurri handi baten ezezagun hori da, hain zuzen ere, esku artean duzun liburu honetan Zigor Olabarriak aztergai duena.

2006ko uztailaren hartu zuen Otxandioko Udalak memoria historikoa berreskuratu eta herritarrei ezagutarazteko konpromisoa. Bonbardaketaren 70. urteurrenean izan zen, bonbardaketa nahiz ondorengo urte ilunak bizi izan zituzten ehunka lagunuen aurrean. Eta eskuartearen duzun ikerketa lan hau da, hain zuzen ere, konpromiso horren emaitzarik esanguratsuen.

Askotan aipatu izan dut bere iragana ezagutzen ez duen herriak nekez asmatuko duela bere etorkizuna eraikitzeke lanean. Edo, beste modu batera esanda, nondik gatozen jakin behar dugula nora joan nahi dugun erabaki baino lehen. Eta testuinguru honetan hartzen du, hain zuzen ere, memoria historikoak bere balio osoa. Gure herriari iraganaren berrirakurketa kritiko bat zor diogu, ez zauri zaharrak berriro zabaltzeko, baina bai galtzaileen ahots isildua ezagutarazi, biktima guztien errekonozimendu eta erreparazioari bide eman, eta trantsizioaren gabezia eta hutsuneak agerian jartzeko.

Ezin deitu dakiok trantsizio demokratikoa herriak aukeratutako ordezkarien aurka altxatu ziren militar zein politikariak epaitu ez zituen trantsizioari, guda zibilaren eta frankismoaren urte ilunetan egindako krimenak ikertzeari uko egin zion trantsizioari, edo frankismoaren oniritzi eta babesaren izan zuen gaur egungo estatu ereduaren inposatu zuen trantsizioari. Frankismoaren babespean ezarritako estatu ereduak errepublikaren baloreak traizionatu, eta penintsulako nazioen eskubide politiko eta historikoak preso utzi zituen konstituzioaren atzaparretan.

Gure memoria historikoaren berreskuratze prozesuak agerian utzi du bigarren trantsizio baten beharra, frankismoaren oniritziaren ezarritako estatu ereduaren ezbaian jarri, eta penintsulako nazio guztien eskubide politiko, kultural eta ekonomikoak aitortuko dituen benetako trantsizio demokratiko baten beharra.

Hori dela eta, guda zibilarekin hasi zen biolentzia eta sufrimendu aroak Euskal Herrian oraindik ere bizirik dirauen testuinguru honetan, herri zahar honek nazio giza egitura-tzeko, bere etorkizuna libreki eta inolako kanpo ingerentziarik gabe erabakitzeke eta bakean bizitzeko eskubidea duela ozen eta tinko aldarrikatu beharra daukagu.

Andikonako bonbardaketaren 75. urteurrenarekin batera aro berri bat abiatuko dugu gure herrian, iraganera begiratu eta etorkizunerako ikasgaiak ateratzea helburu zuen ziklo bati amaiera emanda. Berreskuratutako memoria historikoa gizarteratzea izango da hurrengo erronka, Otxandio bakerako giza eskubidearen sinbolo gisa ezagutzera emanez. Horrekin batera, etorkizuna eraikitzeari ekingo diogu, Otxandion eta Euskal Herrian. Denon artean, eta denontzat.

Askatasuna, justizia, bakea.

Haritz Otxandiano
Otxandioko alkatea

SARRERA

Gizakiak gizaki denetik gerra izan du bidelagun. Animaliangandik bereizten gaituzten ezaugarrien artean dago gure hurkoa erasotzeko eta akabatzeko grina. Mendez mende gerrak arautzeko, mugatzeko eta desagerrarazteko ahalegin ugari ezagutu baldin baditugu ere, eguneroko errealitatearen zati izaten jarraitzen dute. Horrek ez du esan nahi, hala ere, gerren nondik norakoak aldatu ez direnik. Izan ere, etengabe berritzen dira borroka-tresnak –gero eta eraginkorragoak dira–, baina borrokatzeko arrazoiak eta moduak ere sarri aldatu dira historian zehar.

Gure inguru hurbilean, Europa modernoan hain zuzen, bazirudien erregeen joko bilakatu zela gerra eta antzera prestatutako bi armaden arteko norgehiagoka antolatuetara mugatzen zela. Aitzitik, oso desberdina zen armada horien jarrera Afrikako edo Asiako herrien aurka aritu behar zutenean: arau gutxi jarraitzen zuten, ez zuten zibilen eta militarren arteko bereizketarik egiten eta indarkeria handiaz hartzen zuten esku mendebaldeko armadek. Frantziako Iraultzak (1789-1815) eta Estatu Batuetako gerra zibilak (1860-1864) bi aldaketa garrantzitsu ekarri zituzten: berriz agertu ziren faktore ideologikoak eta izugarri garatu zen teknologia militarra. Horren ondorio izan zen gatazka horien izaera odoltsua. Estatu Batuetan, esate baterako, XX. mendeko gerra guztietan baino jende gehiago hil zen lau urte haietan. Lehen Mundu Gerra izan zen bilakaera horren gailurretako bat. Are gehiago, biztanleria zibilaren aurkako erasoak oso nabarmenak izan ziren hainbat herrialdetan: Serbiako herritarren zapalkuntza eta Turkiako armeniarren genozidioa dira gertakari ezagunenak. Harrezkero, XX. mendeko gerra gehienetan, militarrek baino zibil gehiago hil dira. Herritarrek makurraraztea dugu egungo armaden ezaugarrietako bat.

1936ko uztailaren 22an, militarren altxamenduak porrot egin ondoren Gerra Zibila hastear zegoela, Otxandiok bonbardaketa latz bat jasan zuen eta haren ondorioz, han zeuden zenbait soldadu errepublikarrek eta, bereziki, herritar ugarik heriotza aurkitu zuten. Gernikan, Durangon, Madrilen, Bartzelonan eta beste hainbat tokitan errepikatu zen Otxandiokoa. Aipaturiko gerraren bilakaeran, ez zen salbuespena izan Espainiako Gerra Zibila. Hamarkada berean Etiopian, italiarren eskutik, edo Txinan, japoniarren eskutik, gertatzen ari zen fenomeno baten parte izan zen. Espainiak berak ez zuen erreparorik izan aurreko hamarkadan arma kimikoak erabiltzeko Marokoko kabilen aurka. 1939tik aurrera, Bigarren Mundu Gerran antzeko gorabeherak ikusi ahal izan ziren nonahi, orduan mila aldiz biderkatuta. Baina gertaera horiek ugaritzeak ez liguke ahaztarazi beharko funtsean gertatu zena: gizaki batzuek beste gizaki batzuk hiltzea erabaki zuten, eta aurretik gorroto-giroa sortzea eskatzen zuten erabaki horrek. Hainbeste aldiz errepikatu arren, ez-ohiko fenomenoaren izaten jarraitzen du gerrak eta haren larritasunak arrasto sakonak uzten ditu borrokaldia bizi dutenen artean.

Ikuspegi horren adierazle ezin hobea dugu Zigor Olabarriak idatzi duen liburu hau. Lana ez da mugatzen uztailaren 22ko bonbardaketara. Ekintza horren inguruan dau den datuak bildu, berriak aurkitu eta ikuspegi zabalagoa eta aberatsagoa emateaz gain, herritarrek 1936ko uztailetik gerraren amaiera arte jasandakoaren berri zehatza ematen du. Horretarako Otxandioko nondik norakoak azaltzen ditu Errepublikako ur-

teetan; altxamenduaren lehen egunak deskribatzen ditu; bonbardaketaren eta kalteen berri zehatza eskaintzen du eta, bereziki, gerraren egunerokotasuna agertu eta ezagutarazten digu.

Bi dira, nire iritziz, lan honen meritu nagusiak. Lehena, bonbardaketaren ingurukoak argitzea, historialariok eta herritarrek maiz zehaztasun gutxirekin esandakoak bakoitza bere tokian jartzeko. Bigarrena, gerrak nola eragin zuten otxandiarren bizimoduan azaltzea. Azken puntu horrek hartzen du liburuaren zatirik handiena: hiru ataletan banatuta dago eta ondo erakusten du gerraren eragina eguneroko bizimoduan, bai Otxandio errepublikarren esku egon zenean, baita 1937ko apiriletik aurrera ere, frankisten kontrolpean geratu zenetik aurrera, hain zuzen. Nik uste lan honek bikain azaltzen duela gerraren konplexutasuna eta irakurlea erraz jabetuko dela Otxandioko biztanleek urte latz haietan bizitako uneez. “Gerrak ez dakar onik / Iñundik iñora” idatzi zuen Muñagorri eskribauak gerra karlista gogoan zuela. Antzeko zerbait diote Zigorrek bildu dituen lekukotza ugarik, hitz potoloen eta letra larrien ordeztan, eguneroko sufrimenduak (txikiak eta handiak) direlako liburu honen ardatza. Orrialde horiek ez dute eragotziko gerra bat errepikatzea, baina harekiko lilura murrizten badute beren funtzioa ondo beteko dutela pentsatzen dut. Hala bedi.

Mikel Aizpuru
Euskal Herriko Unibertsitatea

GURE NAGUSIEI ESKER ONEZ

Liburu eta forma hartu duen lan hau gure nagusien kontakizunen gainean eraiki da. Agiritegietako dokumentuak, orduko prentsa eta gerraren inguruko bibliografiak garrantzi handia hartu dute ere. Baina lehentasuna Otxandioko aitite eta amamen memoria jasotzea izan da, hau zen gure helburu nagusia proiektua jaio zen une beretik.

Bakoitzaren aurkezpenetan irakurri ahal den moduan, elkarrizketatu gehienak oso gazteak ziren 1936an. Umeak asko, gazteak eta nerabeak ere ugari. Batzuk informazio gehiago eman digute orduko Otxandiori eta Otxandioarrei buruz, beste batzuk gutxiago. Aldagaiak asko dira: orduko eta egungo adina, herrian izan ziren edo ez eta noiz, bakoitzak bizi izan zituen gertakariak eta beste.

Noski, gure nagusien kontakizunak subjektiboak dira. Gerra garaiko Otxandioren historia hau osatzeko erabili ditugun gainontzeko liburu, prentsa-artikulu eta dokumentuak bezain subjektiboak behintzat. Horregatik entzun ditugu gure herrikideak, zentzu hone-tan, dokumentu idatziak irakurri ditugun modu berean: kritikoki, zalantzen aurrean gainontzeko iturri eta lekukotasunekin alderatuz, eta, kasu gutxi batzuetan, badaezpada, kontatua orriotatik kanpo utzita.

Plazera izan da hainbestetan isilduak izan diren gertakizun eta sentimenduak entzutea. Are plazer handiagoa, hamarkadetan zehar mututuak izan direnen ezpainenatik entzutea. Gerra garaiko akorduak birgogoratuz, beraiekin batera gozatu eta sufritzeko pribilegioa eman izana eskertu nahi diegu.

Eskerrik asko.



Otxandioko plaza nagusia Andikonako bonbardaketaren 70. urteurrenean. 2006.7.22. (Argazkilaria: Peru Ajuria)

ELKARRIZKETATUAK



KOLDO PILDAIN GONZALEZ DE LANGARIKA. 5 urte zituen gerra hasi zenean. 6 neba-arrebako familia bateko gazteena. Aita bizkaitarra zuen, eta anaia nagusia sozialista. Azken hori miliziano moduan aritu zen gerran eta langile batailoietan gerra ostean. Gerra osteko errepresio giroa eta gosea ondo gogoan ditu.



FERNANDO ARRIZABALAGA ARRUABARRENA. 1913an jaioa. Gerra hasi zenerako 23 urte beteak zituen jada. Miliziano sartu zen, Otxandioko gidarien sekzioan. Legutioko Batailan Albertian aritu zen, eta Otxandion bizitzen jarraitu zuen, ofentsiban herria matxinoen eskuetan geratu arte.



JUAN JOSE GARMENDIA GARMENDIA. Ferminen anaia. Andikona plazan bertan bizi zen familiarekin, eta bonbardaketa gertatzean 5 urte soilik zituen. Bertan galdu zituen 10 anaia-arrebetatik bi. Bonbardaketa ostean ere Otxandion bizitzen jarraitu zuen familiak; ofentsibaren egunean alde egin, eta ondoren berriro ere bueltatu ziren.



FERMIN GARMENDIA GARMENDIA. Juan Joseren anaia. Berak bezala, beraz, bi anai-arreba galdu zituen Andikonako bonbardaketan. Zortzi urte zituen 1936ko gerra hastean.



ANGELA URIGOITIA AJURIAGERRA. Angelak hogeita bat urte zituen 1936an. Hamahiru neba-arreba ziren etxean. Aurrera egin ahal izateko, horietako batzuk Aramaion aritu ziren mirabe, etxe ezberdinetan. Neba-arrebetan gazteena, Cruz, gerra bitartean hil zen.



SANTOS IRASUEGI GOROSTIZA. Aita zein ama, biak otxandioarrak zituen. 1926. urteko martxoaren 17an jaioa, hamar urte zituen Andikonako bonbardaketa gertatzean. Anaia bat eta arreba bat galdu zituen bertan. Bizkaiaren gaineko ofentsiba hastean Otxandion zen, eta martxoaren 31n pasatako beldurra du gogoan Andikonako bonbardaketa bera baino biziago. Egun horretan euren etxea birrinduta suertatu zen.



ELOY LARREA LASTRA. 1924ko abenduaren batean Otxandion jaioa. Aita zuena bi aldiz ezkondu zen, eta bera bigarren andrearen semea zen. Lehendabiziko ezkontzatik hiru anaia zituen, eta haietatik bi, Angel eta Francisco, karlistak ziren. Frentean galdu zuten bizitza, erreketeeekin borrokan.



LOURDES KAPANAGA ELORZA. Santi eta Bittorren arreba. Familia aberzalea zuen. Aita gerra hasi baino bi urte lehenago hil zen. Sei urte zituen orduan; gerra hastean, zortzi. Bonbardaketa ostean herritik alde egin zuen, eta 1937ko martxoaren hasieran bueltatu. Andikonako bonbardaketan hiru lehengusu eta izeko-osabak galdu zituen.



SANTI KAPANAGA ELORZA. Lourdes eta Bittorren anaia. Hamaika urte zituen Andikonako bonbardaketaren egunean. Egun horretan plazan bertan zen, eta berarengandik metro gutxira hilda jausi ziren bere hiru lehengusuak eta izeko-osabak. Ondoren Otxandiotik Berrizera alde egin eta ama eta Lourdes arrebarekin batera bueltatu zen herrira, ofentsiba hasieran berriro ere alde egiteko.



BITTOR KAPANAGA ELORZA. Lourdes eta Santiren anaia. Bonbardaketa ondoren, Lourdes eta Santi ez bezala, herria frankisten menpe geratu eta frentea urrundu arte ez zen bueltatu Otxandiora. Gerra hastean hamar urte zituen.



SEBASTIAN ASTOLA AJURIAGERRA. 1918an jaiotakoa. Sei neba-arreba ziren. Bonbardaketa ondoren, familia Bilbora joan zen, Otxandion bera eta aita geratuz. Miliziano aritu zen ia gerra hasieratik, lehendabizi mandazain eta sukaldean, gero armak hartuta. Santanderretik barkuan Frantzia aldera ihes egin eta gero, Kataluniatik Estatuan sartu eta borrokan jarraitu zuen. Gerra galtzean urteak pasa zituen Langile Batailoietan Burgosen, Aiako Harrian, Marokon...



BIXENTE AMONDARAIN ARRUABARRENA. Bixente Amondarainek aita zeanuriztarra zuen, mirabe moduan etorria Otxandioko Etxatxo auzora. Ama, aldiz, Gordobil auzunean jaio zen. Sei neba-arreba ziren. Berak hamasei urte zituen altxamendua piztean. Gerra garai osoa egin zuen Otxandion.



ANDRESA LOPEZ DE LETONA ARRUABARRENA. Mekoletarra. Familia bertan egon zen gerrak iraun zuen denbora guztian. Gurasoak bizkaitarrak zituen. Gerra hastean zortzi urte zituen. Milizianoekin batera ibiltzen zen bere ahizparekin, sukaldean eta bulegoetan, laguntzen eta jolasean.



FLORENCIA LOPEZ DE LETONA ARRUABARRENA. Andresaren ahizpa nagusia. 1925. urtean jaio zen. Altxamendua gertatzean hamaika urte zituen.



TOMAS LOPEZ DE LETONA ARRUABARRENA. Andresa eta Florenciaren neba. 1923ko azaroaren hemeretziaren jaio zen, Mekoletan. Gerra garaian, ama eta arrebak Mekoletan geratu ziren bitartean, berak Oromiñon eman zuen denbora asko aitarekin, artaldea zaintzen.



BASILI URIGOITIA ARRUABARRENA. 1927. urteko martxoaren 22an jaio zen, Otxandion. Bost neba-arreba ziren etxean. Bonbardaketa ostean familiak egun batzuk kanpoan eman bazituen ere, Oletan eta Abadiñon, egoera pixka bat lasaitzean atzera ere herrira bueltatu zen. Ofentsiba garaian berriro ere Otxandiotik ihesean irten zen.



EMILIO DONADO URIGOITIA. Gerra hasi zenean zazpi urte zituen Emiliok. Anaia bakarra zuen, bera baino gazteagoa. Aita Zamorakoa zen, maisua, eta familia guztia eskolan bizi zen. Andikonako bonbardaketaren ostean Otxandiotik alde egin zuten, eta ez ziren bueltatu ofentsiba pasatu eta herria matxinatuen menpean egon arte. Familia “apolitikoa” zela diosku.



FLORIAN KAPANAGA GONZALEZ DE LANGARIKA. 1926an jaio zen, Otxandion. Amak hamaika ume izan zituen baina horietariko bost jaioberritan hil ziren; sei neba-arreba izan ziren, beraz. Bonbardaketa ostean Mañarian egonkortu ziren, baina ofentsiba egunetan atzera egin behar izan zuten. Barkuan Belgikara bidali zuen amak, eta urte batzuk eman zituen hango familia baten etxean bizitzen.



JON LASUEN GOIKOLEA. Zazpi neba-arreba ziren, eta aita udaletxeko idazkaria zen. Andikonan aita bera, hiru lehengusu eta bi anaia galdu zituen. Honen ondoren Bilbora alde egin zuen. Urtarrilean Otxandiora bueltatu eta ofentsiba hastean berriz ere Bilbora buelta. Aita gabe, gerra ostean beharizan handia izan zuen, “eskerrak etxekoei”.



JUAN PADILLA ARRUABARRENA. 1924an jaio zen, Otxandion, baina hortik lasterrera Mekoletara bizitzera joan zen familia. Ardiekien artzain ibili zen gerra garaian, Gordobilen eta inguruetan. Ofentsiban ere bertan egon zen, eta Mekoletan bizitzen jarraitu zuen.



MARI CARMEN URIGOITIA ETXANOBE. 1926. urteko maiatzaren 21ean jaioa. Bi neba-arreba zituen, Juana eta Hilario. Andikonako gertaeren ondotik familia osoa Bilbora joan zen, eta ondoren Zaramillon finkatu zen. Otxandiora buelta, ofentsiba pasata egin zuen.



MARCOS IBARRONDO ORUE. Altxamendu egunean bederatzi urte zituen Marcosek. Mekoletarra, gerra denbora bertan egin zuen. Zazpi neba-arreba ziren, aita "bizkaitarra baina karlista" zuen baina familia zabalean gehiago ziren karlistak. Anaia bat frentean ibili zen. Hasieran errepublikanoekin, eta preso jausi eta gero erreketeeekin. Matxinoekin ari zela hil zuten, Belchiten.



MARIA PILAR OLASO OLABARRIA. Maria Pilarrek bi urte zituen gerra hasi zenean. Gerra garaiaz oroitzapen propio gutxi du beraz, gehiago gerra osteaz. Aitaren aldetik familia karlista zuen eta amarenetik abertzalea. Aita lehendabiziko egunetan behartu zuten herritik alde egiten, Cabo-Quilates barku-presondegian fusilatu zuten Emilio Olaso otxandioarra osaba zuen.



JOSE LUIS OLASO UNZALU. 1928ko urtarrilean jaioa, etxean zazpi neba-arreba ziren. Familia herrian geratu zen gerra osoan. Aita errepublikaren aldekoa zen, eta Emilio Olaso osaba zuen.



PEDRO ORUE ERRASTI. Pedro Mekoletan jaio zen, 1930. urteko urrian. Anaia bakarra zuen. Aitaren aldetik, inguruko familia karlista esanguratsuenetako baten partaide. Karlistak ziren aita Ambrosio, Lorenzo eta Pablo osaba abadeak, eta Miguel osaba, frankismopeko lehenengo alkatea.

ESKERRAK


Esku artean duzun liburu hau talde-lana duzu. Askoren arteko talde-lana gainera. Zereginak askotarikoak izan dira: Elkarriketak grabatu, testuaren inguruko gomendioak egin, hau zuzendu, elkarriketak DVDan bildu eta antolatu, gestio ezberdinak, dokumentuak eskuratu eta abar luze bat.

Albaro, Bea, Xabi, Esther, Tino, Iratxe, Irati, Andikona 1936 Elkarteko Txomin, Mikel, Josu eta Carlos... Eskerrik asko guztiei.



Otxandio eta inguruak

1. Errepublika garaiko Otxandio. Gerra aurreko Otxandio



1.1. Otxandioarrak: lurraren eta tailerraren artean

1936ko uztailaren 18an Espainiar Estatuko eskuina botere legalaren kontra matxinatu zen. Estatu kolpe azkar bat aurreikusi zuten altxatuek, baina gertaerek altxamendua gerra bilakatu zuten, hiru urte luzeko gerra. Liburu honetan, Otxandioko herriak eta bertoko bizilagunek gerra sasoi horretan sufritutakoak jaso nahi dira. Baina zer nolako herria zen orduko Otxandio? Nolako herriari eta nolako herritarrei eragin zien gerrak? Azter ditzagun, azaletik bada ere, gerra aurreko giroa, ezaugarriak eta nondik norako nagusiak.

1930eko hamarkadako Otxandio herri jendetsua zan garairako: 1929ko erroldak 1.360 biztanle zenbatu zituen; 1935ekoak, 1.479¹. Herri lasaia zen, euskalduna, soziologiaren ikuspuntutik kontserbadorea eta naturari lotua bizi zena. Abeltzaintza eta nekazaritza ziren familien bizimoduaren oinarria, baina burdingintzari loturiko industriak ere bazuen pisua bertako ekonomian.

Esan bezala, garai hartan euskara zen otxandioarrek euren arteko harremanetarako erabiltzen zuten hizkuntza.

Nik erdaraz ikasi nuen eskolan, zazpi urtegaz. Erdaraz ez nekien nik. Futbol partiduak ematen zituztenean, orduantxe entzuten egoten ginen, Fondan. Athleticek Madrilgaz olgetan zuenean eta. 30ean edo 31n edo. (...) Kanean erdararik ez zen entzuten, kanpotarrei bakarrik. JON LASUEN.

Kaleko hizkuntza euskara izanagatik ere, hizkuntza instituzionala, Udalarena barne, gaztelania zen. Udaleko bileren aktak eta herritarrei zuzendutako idatziak gaztelaniaz jasotzen ziren; Aldundira bideratutako eskaerak edo aurrekontuak ere gaztelaniaz idazten ziren.

Jarduera ekonomikoari dagokionez, inguruko herriek ez bezala, Otxandiok burdingintzari loturiko tradizioa zuen. 1930eko hamarkadan, industria garatze bidean zegoen. Herriko lantegi handienak Omega, Hijos de Vicinay eta Sucesores de Lopez de Heredia ziren. Baina 1933. urterako, errementaritza arloko dozena erdi tailerretik gora ere bagenituen. Garatzen ari zen industria hura, bertako herritarrak lantegira eramateaz gain, etorkinak ere erakartzen ari zen.

Orduan Omega fabrika etorri zen, 30ean edo 32an. Krisia egon zen Eibar aldean eta etorri ziren beharginak hona. Asko etorri ziren. De la Fuente... Beharginak, e?, Kualifikatuak. Otxandioarrak ere sartu ziren lanean, Langarika, Ugarte... Orduan mugimendua egoten zen. JON LASUEN.

1. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1931-3-15; 1935-9-3.

Industria gero eta gehiago, kanpotik jendea zetorren, kanpotarrez betetzen zen. Elizaren aginte gogorra zegoen. BITTOR KAPANAGA.

Herriko gizonen egunerokoa, kasu askotan, tailerreko eta baserriko lana uztartzea zen:

Otxandion, gerra aurrean, jendea lanean ibiltzen zen tailerrean. Eta gero, tailerretik kanpora, denek edukitzen zituzten behiak, 3-4 edo 1-2. Tailerrean behar egiten zuten denek edukitzen zuten ganadua. Tailerretik irten eta lanera. Jateko edukitzeko, erein egin behar zen: artoa, patata, baba, dena ereiten zen hemen. (...)

Eibartarrak egoten ziren asko, Eibarko jendea asko. Badakizu, Omega. Gerran apurtu zen gero. Baina, orduan, Otxandio beteta egoten zen, etxe guztiak egoten ziren jendez beteta. TOMAS LOPEZ DE LETONA.

Edonola ere, abeltzaintza eta nekazaritza ziren famili ekonomiaren zutabeak, orduko bizi eredu nagusia etxerako eta autokontsumorako produkzioan oinarritzen baitzen. Horregatik dio Udalak 1932an argitaratutako memoria batean, basoak hobetzea eta basoberritzea dela udal batek dituen arduren artean garrantzitsuenetakoa, *por cuanto es una de las bases más fijas y más positivas, para la creación de una riqueza segura*². Basoen bidez, aparteko diru sarrerak lortzen zituen Udalak aurrekontuak osatzeko, nagusiki egur salmentari esker. Herri-basoek, gainera, abeltzaintzarako ezinbestekoak ziren iralekuak eta larreak ematen zituzten, baita egurra ere, etxe eta baserriak berotzeko eta sukaldean erabiltzeko. Azkenik, basoak bizimodua ateratzen ere laguntzen zien herritar askori, aldizkako lanak eginez bazen ere (zuhaitz gazteak landatu, ira batu, mendietarainoko pistak egin...).

Herri-lurrek hiru erabilera zuten. 30eko hamarkadaren hasieran, Udalak erabilerok sistematizatzea erabaki zuen, orduko beharrianak zein etorkizunekoak asetzeko³. Batzuk, zuhaitzak landatu eta basotarako gorde ziren; alde batetik, etxeetarako egurra bermatzeko, eta, bestetik, Udalaren diru-sarrerak handitzeko, egurra salduta. Azken helburu honekin, esaterako, 1930 eta 1931. urteetan 10.800 haritz amerikar landatu zituzten Motxotegin. Presagutxieta eta Olazar ere garai hartan basoberritu zituzten. Bigarren lur mota, ganaduarentzako larreak izatea zehaztu zuen Udalak, Korostondon, esaterako. Azkenik, iralekuak sortu ziren hirugarren lur taldean (Korostondon bertan, Marinbidietan, Mendikurkun eta Martalarran). Egurrarekin eta irekin sortak egiten ziren, otxandioarrei merke saltzeko. Datu moduan: 1933ko aurrekontuetan kalkulatu zen mendi ustiakuntzatik 4.900 pezetako sarrerak izango zirela, aurrekontuaren ehuneko hamar⁴; 1934koetan, 5.900 pezeta, aurrekontuaren ehuneko hamabi⁵; zoritxarreko 1936an, 10.350 pezetako sarrera, aurrekontuaren ia ehuneko hogeit⁶. Kasu guztietan, zergetako diru sarreraren atzetik, bigarren partida izan zen garrantzi mailan.

2. Otxandioko Udala. *Memoria de los trabajos verificados por el Ilustre Ayuntamiento de Ochandiano*. 1932; 3. or.

3. Otxandioko Udala. *Memoria de los trabajos verificados por el Ilustre Ayuntamiento de Ochandiano*. 1932.

4. Bizkaiko Foru Agiritegia / AR01493/001.

5. Bizkaiko Foru Agiritegia / AR01493/002.

6. Bizkaiko Foru Agiritegia / AR01493/003.

Hiru erabilera mota orokor horiez gain, Udalak herri-lurrak errentan eman edo saldu egiten zizkien herritarrei, ortu moduan erabiltzeko, esaterako. 1935eko azaroan, lurrrak errentan bakarrik ematea erabaki zuen udalbatzak, lurren jabetza ez galtzeko⁷.

Denda eta negozio txiki asko ere bazegoen Otxandion. 1933ko dokumentu batean, zergak jasotzeko “aberastasun industrialia” zerrendatzean, 69 jarduera agertzen zaizkigu. Horien artean, sei bizartegi, sei taberna, konfiteria bat, zapata-denda eta zapatarriak, hainbat janari-denda, arropa-dendak, baserrirako gaiak saltzeko dendak, bederatzi tailer txiki (aroztegi eta kategintza arlokoak), hiru mediku (tartean Jose Antonio Maurologoitia udal medikua), botika bat... Horiek guztiak erakusten digute herri bizia zela Otxandio.

Ikusten ari garenen arabera, hortaz, bi ziren otxandioarren sostengurako oinarri nagusiak: norbere ortu edo lurrei eta norbere ganaduari ateratako etekina, batetik, eta lantegiko edo familia-negozio txikietako lana, bestetik. Lantegira, gizonak joaten ziren, eta beste zenbait ofizio ere eurei “zegozkien” (arotz, errementari...).

Emakumeek etxe barruko lanen ardura zuten, eta nekazaritza edo abeltzaintzako zereginak ere egiten zituzten, gizonekin batera. Batzuek, bestalde, negozio txikiak eramanen zituzten. Noski, ugaltze-arloa ere, hau da, haurrak hazi eta zaintzea, euren zeregina zen. Baita etxeko nagusiez arduratzea ere.

[Lan egin] Andreek, gizonak beste edo gehiago igual. Gizonak batzuk tailerrean egoten ziren eta holan, baina guk beharra egiten genuen asko baserrian, bai, bai, bai. Beharra egin barik ez gaude. ANGELA URIGOITIA.

Esparru publikoan, orduko gizartean ohikoa zenez, eta are nabariagoa Otxandio moduko landa-guneetan, emakumeak ez zuen presentziarik. Argi ikusten da udal aktetan. Kargu publikoetan (zinegotzi, alkate, idazkari, aguazil, mediku...), ez zen emakumerik, eta aztertutako bost urteetako udal bilkuren aktetan, emakume bakarra joan zen udal-letxera esparru publikoarekin zerikusia zuen zerbaitetarako⁸. Ez da harritzekoa ere. Gogoan izan dezagun, erreferentzia gisara, 1933ko hauteskundeetan eman zitzaizela emakumeei lehenengoz boto eskubidea Espainiar Estatuan. Eta ez ika-mikarrik gabe; ezkerrean ere ez.

Umeei dagokienez, esan beharreko lehenengo gauza da ume asko zegoela, gaur egungo adin-piramidearekin alderatuz gero. 1935ean, Otxandion erroldatutako 1.479 bizilagunetatik 221 zeuden eskolan izena emanda (sei eta hamabi urte artean, beraz). Urte bat geroago, oso antzeko bizilagun kopuruarekin, hauteskundeetan boto eskubidea zeukaten otxandioarrak 719 ziren. Gainontzekoak, ondorioz, 23 urtez azpikoak ziren, biztanleriaren erdia baino gehiago.

1932. urterako, Udalaren esanetan,

7. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1935-11-14.

8. Maria Luisa Canal, udaleko areto nagusia eskatuz ongintzako kultura ekimen baterako.

Se puede afirmar sin temor a rectificación de ningún género, que hoy en día no existe ningún niño que comprendido en la edad escolar, no asista a las escuelas y que tampoco existe ninguno de edad de 10 a 12 años que no sepa leer ni escribir⁹.

Eskolatzeko arazo nagusia hainbat umek eskolara joateko egin behar zituzten ibilaldi luzeak ziren. Bide gogorra zen, batez ere Otxandioko negu luzean. Udalak konpondutzat eman zuen arazoa 1932an, Mekoleta auzunean Otxandioko hirugarren eskola eraiki zutenean¹⁰ (beste biak Anteparaluzetan eta herrigunean zeuden). Halere, 1935ean egindako bisita baten ondoren, Irakaskuntzako inspektoreak ikasleentzako baldintza hobekak bermatu behar zirela ebatzi zuen. Haren gomendioak betearazteko, Udalak beste eraikin baten beharra ikusi zuen, lau eskola berri izateko, *dos para niñas y dos para niños*¹¹. Lan horiek luze jo zuten. Udabatzak diru-laguntzak eskatu, ezetza jaso, eta eraikitzea erabaki zuenerako 1936ko apirila zen. Eskola berria zabaldu orduko, gerra hasiko zen.

1.1.1. Egitasmo garrantzitsuen garaia: trenbidea Otxandion

Errepublikara garaian hainbat egitasmo egon ziren herri-azpiegituren arloan. Batzuk gauzatu egin ziren, beste batzuk bidean galdu, eta besteren bat gerrak zapuztuko zuen.

Gauzatuakoen artean, aipatutako Mekoletako eskolaren eraikuntza eta Anteparaluzetakoaren erreforma daude. Gainera, Errepublikara garaian erabaki zen ordura arte egurrez egindako bide eta zubiak hormigoizko berriekin ordezkatzeari pixkanaka-pixkanaka, gehiago irautean azkenean merkeago aterako zirelako¹².

Gerra aurreko proiekturik garrantzitsuena, dena dela, Urbina-Legutio-Otxandio trenbidearen egitasmoa izan zen, bai aurrekontuagatik, bai herriaren izaeran izango lukeen eraginagatik. Proiektuak egindako bidea arraroa izan zen. Izan ere, 1932. urteko abuztuaren 4ko udal bilkuran aipatu zen lehenengoz. Egitasmoa bultzatzeko batzorde bat sortu zen, eta Udalak trenbideak zeharkatu beharreko Otxandioko lur komunal zein pribatuak doan emateko asmoa azaldu zuen. Bi urtean apenas gaiaren berririk izan eta gero, 1934ko irailaren 25ean Ministro Kontseiluak trenbidea egiteko 400.000 pezetatiko diru-laguntza onartua zuela jakinarazi zen udal bilkuran. Berri ona zela eta, erromeria antolatu zuten hurrengo egunerako. Diru-laguntza hau Ardoaren Gerra esan zioten sasoi gatazkatsuan heldu zen, zinegotzi abertzaleek euren karguei uko egin eta udaletxean karlistak soilik zeudenean. Azpiegitura honen azkenengo aipamena aste-bete geroagokoa da. Orduan, alkatetza gestioak egiten ari zela besterik ez zen jaso. Hortik aurrera, inongo berririk ez. Onartu eta gero, atzera bota ote zuen Ministro Kontseiluak diru-laguntza? Ala esleitu aurretik “saldu” zuen publikoki, eta gero kontrako erabakiaren berririk eman ez? Testuingurua ikusita, propaganda hutsa ote? Nahiz eta

9. Otxandioko Udala. *Memoria de los trabajos verificados por el Ilustre Ayuntamiento de Ochandiano*. 1932; 11. or.

10. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1932-11-16.

11. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1935-9-3.

12. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1935-9-3.

guk berririk ez izan, bere bidea egiten jarraitu ote zuen egitasmoak, gerrak bazterrean utzi arte? Ez dakigu.

Plangintzarik handiena trenbidearena izan bazen ere, otxandioarren bizimodua hobetzeko garrantzitsuena etxeetara ura ekartzeko egitasmoa izan zen. Eta, hau bai, gerrak zapuztu zuen bete-betean. 1932. urterako ezinbesteko egitasmotzat zeukan Udalak, eta ur hornidurarako Oletako Apietako iturburua erabiltzea zegoen aurreikusita¹³. Otxandioarrek ura hiru iturritatik hartzen zuten garai hartan: Urigoiena eta Uribarrena kaleetan bana zeuden, eta hirugarrena, Vulcano, Arrese Beitia plazan. Obra egiteko proiektuaren arabera, iturri horietan, *la comodidad y aún la higiene dejan mucho que desear*¹⁴. Handik urte batzuetara, 1936ko otsailean, Ministro Kontseiluak lanak egiteko diru-laguntzak onartu zituen. Aldundiak, aldiz, ez zuen txakur txikirik eman, eta horrela ezinezkoa zen proiektua aurrera ateratzea¹⁵. Azkenerako, eta Aldunditik ez zela dirurik helduko onartuta, Otxandio, Ubide eta Legutioko Udalak mankomunitatean batu eta Estatuaren diru-laguntzarekin bakarrik aurrera egitea erabaki zuten uztailaren hasieran. Lau egun geroago berretsi zuten aurrekontua: 208.214 pezeta eta hamahiru zentimo. Uztailaren hamaika zen. 20 eguneko epea zabaldu zen proiektuak aurkezteko eta irabazlea publikoki jakinarazi behar zen, noiz eta uztailaren 27an. Ordurako gerra hasita zegoen, eta Otxandio ankerki bonbardatuta.

1.1.2. Langabeak eta pobreak

Gure lekukoek gose edo estatusunik aipatzen ez badigute ere –gosea eta beharra ezagutu zutenek gerra ostean izan zela diote– udal aktetatik ondorioztatu dezakegu gerra aurreko Otxandion ere bazegoela pobrezia.

Udalak urtero osatzen zituen “behartsuen zerrendak”, eta zerrenda horien bitartez zehazten zen ze herritarrek har zezaketen laguntza bat edo beste. 1932. urtean “pobres de solemnidad” deitzen zitzaien¹⁶. 1934ko abenduaren 18ko udal aktan, hurrengo urteari begira zerrenda osatu beharra aipatzen da, eta jendaurrean ipiniko zutela zortzi egunez, inork erreklamaziorik egin nahi izanez gero ere. Zerrendan agertzen zirenek farmaziako botikak doan zituztela esaten da zeharka. Pena da zerrenda haiek desagertuta egotea, baina gaia tratatzeko moduagatik, gizarte-laguntzek udal aurrekontutik hartzen zuten diru kopuruagatik¹⁷ eta hainbestetan aipatzen diren langabe ugariengatik, ez dirudi zerrendak oso motzak izango zirenik.

Otxandion ospitalea ere bazegoen, behartsuentzako aterpetxea. 1932an berrantolatu zuten, eta orduko agirietan pobrezia azaleratzen zaigu berriro ere. Ospitalearen ardura

13. Otxandioko Udala. *Memoria de los trabajos verificados por el Ilustre Ayuntamiento de Ochandiano*. 1932; 8-9. or.

14. Bizkaiko Foru Agiritegia / GV-DC-1706.

15. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1936-2-18.

16. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1932-4-5.

17. 1933ko aurrekontuetan ongintza atalak 6.600 pezeta hartzen zituen, aurrekontu osoaren %13. 1936koetan ongintzak eta gizarte-laguntzak batera 7.472, %14. (Bizkaiko Foru Agiritegia / AR01493/001 eta AR01493/003).

eta administrazioa maitasun miseriakorditsuenaren esklaboen ordenako mojen eskuetan geratu zen;

(...) para de esta forma poder llevar a cabo una gran labor benéfico-social como el cuidado de los niños párvulos, comedor económico para facilitar raciones a las personas pobres o que se encuentren en paro forzoso, cuidado y educación de los asilados etc¹⁸.

1935ean, Udalak Gizarte Laguntzarako Patronatuaren batzordearekin zuen harremana zehaztu zuen: mojek independentzia osoz lan egingo zuten, eta Udala batzordean ordezkatuta egongo zen, bi zinegotziren bitartez. Beharizanean zeudenei laguntzeko gastuez (egurra, janaria...) Udala arduratuko zen. Eta, behin ospitaleko zerbitzua antolatuta eta lehen aipatutako etxe behartsuetarako laguntzak zehaztuta, eskean ibiltzea galarazita zegoen: *queda prohibida la mendicidad en este municipio*. Hain zuzen ere, agirian esaten da, inor eskean ibiliz gero, udal langileek babesetxera eramango dutela. Azkenik, akordio hau herritarrei bando bidez jakinaraztea eta limosnarik ez ematea gomendatzea adostu zen. Otxandioko kaleetan, beraz, ez dakigu ze neurritan, baina baziren eskekoak.

Behartsuen zerrendaz gain, langabeenak ere osatzen zituen Udalak (pentsatzekoa da izen batzuk bi zerrendetan agertuko zirela). Zerrenda horien funtzio nagusia zen hortik hartzea beharginak Udalaren ardurapeko lanetarako: basoberritzea, zubi edo errepideak konpontzea... Are gehiago, Udala bestelako erakundeekin adostutako lanetan parte hartzen saiatzen zen, bertako langileak enplegatzeko. Esaterako, Aldundiak sustatuta karea egiteko eraikin bat egin behar dela eta, baldintza bat jarri zuen Udalak, herri-lurak doan eman zituela argudiatuta: *Que la mitad de los jornaleros que se empleen los facilite el ayuntamiento de la lista de obreros en paro*. Egoerak larritasun pixka bat izan behar zuen, bilkura berean Otxandio-Oleta errepidearen proiektua gauzatzeko eskatu baitzitzaion Aldundiari, *puesto que en caso contrario, habrá necesidad de gestionar algún otro proyecto para conseguir la ocupación de los numerosos obreros que se hallan en paro*"¹⁹. Gehiagotan ere aipatzen da jende asko zegoela behar barik.

Dirua sobran ez zegoen seinale da gerra aurretik herrian izan zen arazo nagusietako bat: Oletan, Araba izanik, 2 kiloko ogia Otxandion baino 20 zentimo merkeago saltzen zen. Jendearen kexuei erantzunez, herri-ordezkaritza bat osatu zen probintziako Batzorde Arautzailera joan eta prezioa berdindu zezatela eskatzeko²⁰.

Otxandioarren pobreziatik harago, Otxandioko Udalak berak pobrezia argudiatu zuen hainbatetan, diru-laguntzak eskatzeko edo legez zegokiona baino gutxiago ordaintzeko. Dena den, beharbada Udalaren eskaerak ez dira irizpide nahikoa pobrezia horren errealitatea baloratzeko. Adibidez, 1935eko irailaren 10ean, Udalak eskola berriak eraikitzea eskatu zion Aldundiari, Otxandioko Udalak ordaintzeko modurik ez zeukala argudiatuta. Urte erdi geroago, ordea, Aldundiak erantzun zion ez zegoela halako

18. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1932-10-25.

19. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1932-10-18.

20. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1936-5-26.

pobrezia egoeran, eta eskola nahi izanez gero, lege zegokion ehuneko hamabosta ordaindu beharko zuela²¹. Udalak onartu egin zuen.

1.2. Gizarte tentsioak

Garaioko giro politiko gatazkatsuak bestelakorik pentsatzera eraman bagintzake ere, pobrezia eta langabezia ez zuten protesta edo borroka esanguratsurik sortu, antza. Udal bilkuren akten arabera, herrian ez zegoen istilurik edo "ordena" arazorik. Are gutxiago arrazoi politikoekin edo gizarte mailako arazoekin zuzenean loturik. Gure zaharrek ere ez digute honen inguruko aipamenik egin. Otxandion lasaitasuna zen nagusi.

Salbuespen puntual batzuk badaude, azkar batean zerrendatu daitezkeenak eta kasu guztietan 1932-1933 urteei dagozkienak. 1932ko apirilaren 19ko aktan irakurri dezakegu, bost egun lehenago miñoiak herriko hiru gazteri tratu bidegabea eman zirela, salaketa eta 200 pezetako isuna ipinita. Udala gazteen alde azaldu zen. Nolabaiteko tentsioaren adierazle izan liteke, bestalde, egitekoak ziren hauteskunderen harira eta *normaltasuna bermatzeko* Guardia Zibilaren presentzia eskatzea herrian. Baina, edonola ere, guk dakigula, Otxandion ez zen inongo istilurik gertatu, ez hauteskunde horietan, ez aurreko edo ondorengoetan.

Herrian gatazka motaren bat adierazi lezakeen akta bat bada, 1932ko azarokoa:

Aprobar el bando anunciado por la alcaldía a fin de que se hagan cumplir las ordenanzas municipales para imponer el debido respeto y serenidad, requiriendo del señor comandante del puesto de miñones sea cumplimentada por todos sin distinción alguna²².

Baina ez dago testuingururik; beraz, ez dakigu zeintzuk ziren errespetatzen ez ziren udal ordenantzak, ez eta zergatik urratzen ziren ere. Agian lau hilabete lehenagoko kontu honekin lotuta egongo zen:

A fin de evitar el que por las noches de los domingos y días festivos se produzcan riñas y discusiones, se requiera la presencia de la Guardia Civil a fin de que se obligue a los trasnochadores a que se conduzcan con la debida formalidad, retirándose cada cual a su casa y que en caso de que con esta medida nada se consiguiese se tratará de adelantar la hora del cierre de los establecimientos²³.

Badakigu jakin gau parteko arazo horiek ez zirela berehalakoan konpondu. Handik urtebetera, ikusirik ezorduetako kantuak eta oihuak galarazteko udal bandoa alferrik zela, Udalak miñoien komandantziarekin hitz egiteko erabakia hartu zuen. Edonola ere, Otxandio herri bizia bazela ere adierazten du horrek.

Bazen beste gatazka bat, ostera, luze jo zuena, otxandioar asko inplikatu zituena eta udal mailako arazo handien iturburu izan zena. Ez zen herri barrukoa, herri artekoa

21. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1936-4-12.

22. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1932-11-16.

23. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1932-7-5.

baizik. Aramaio eta Legutioko herriekin aldizka sortzen ziren tirabirez ari gara, ganadua-
rentzako larreen mugak zehazten dituzten limitaduen harira. Konpontzeko ahaleginak
eta borrokaldiak etengabeak izan ziren garai hartan. Aramaiorekin noizean behin, Le-
gutiorekin gehiagotan. Adibide gisara, orduko gertaeretatik ziurrenik larriena izan zena
ekarriko dugu orriotara. 1934ko uztailaren 15ean, ohiz kanpoko udal bilkura egin zen,
*motivado por la prendaria de 480 cabezas de ganado lanar llevado a cabo por órdenes
de aquella alcaldía, de la propiedad de vecinos de esta villa.* Eta bertan adostutakoa:

Vista la prendaria de ganado llevada a cabo por órdenes del ayuntamiento de Villarreal
de Alava, propiedad de los vecinos Ceferino Goicoechea, Ignacio Pujana y Tomas Arrua-
barrena y teniendo en cuenta que es un asunto que se halla pendiente de resolución en
el Tribunal de lo Contencioso, sobre los derechos que puedan asistir a los vecinos del
ayuntamiento de Ochandiano, para que sus ganados puedan pasturar libremente en los
terrenos de dicho ayuntamiento sin pago de cantidad alguna, se acuerda hacer constar
la protesta del ayuntamiento por dicho proceder y que se faculte al Teniente de Alcalde
D. Lucio Arrese para que practique las diligencias necesarias (...) con la garantía de
que el ayuntamiento se compromete en todo caso a responder de las responsabilidades
que los referidos vecinos hayan podido contraer que se comprobará del correspondiente
expediente que la alcaldía de Villarreal ha de tramitar ²⁴.

Ikusten denez, ordurako gaia epaitegietan zegoen, baina ez dakigu noiztik. Hortik au-
rerrerakoan, Arabako Aldundiaren bitartekari lana sustatu zen. 1934ko uztailaren 31n
batzar bat egin zuten Aldundiak eta Legutioko eta Otxandioko udalek. Aldundiko mendi
ingeniariak aurkeztu beharreko proposamenaren zain geratu ziren bi aldeak²⁵. Biga-
rren bilera bat egin zen 35eko otsailean, eta orduko hartan Otxandiok eta Legutiok
konpromisoa hartu zuten, bi udalen arteko adostasuna egon ezean, Aldundiaren arbi-
trajea onartuko zutela²⁶. Hilabete geroago, ordea, eta Otxandioko Udalaren arabera,
Legutiok atzera egin zuen Aldundiaren bitartekaritzaren kontu horretan²⁷. Arazoak ber-
din jarraitu zuen. Gerra hasi aurreko azken arrastoa 1935eko azarokoa dugu: Otxan-
diok ordezkari batzuk bidali zituen Arabako Aldundira, gaia tratatzeko²⁸.

1.3. Otxandio, Errepublikaren eta Estatutuaren alde

II. Errepublika 1931ko estatu mailako hauteskundeen ostean heldu zen. “Biarreteko Au-
rerrerakoa” deitutakoaren ostean, 1933ko azaroko hauteskundeetan eskuinak Estatu
Espainolean nagusitasuna eskuratu, eta “Biarreteko Beltza” hasi zen. 1936ko hautes-
kundeetan ezkerria irten zen garaile. Orduan, eskuin erreakzionarioa matxinatu eta
joko-arau demokratikoen garai laburrari azkena eman zion, uztailaren 18ko altxamen-
duaren bitartez.

24. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1934-7-15.

25. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1934-8-2.

26. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1935-2-19.

27. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1935-3-12.

28. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1935-11-26.

II. Errepublikaren garairako, Euskal Herria sakonki itxuralduta zegoen aurreko hamar-kadetatik. Jarduera industrial nabarmen gora eginda zegoen, eta behera nekazari-tzari loturikoak²⁹. Horrek gizarte mailako eraldaketa sakonak ekarri zituen Otxandion, hirietan baino erritmo motelagoan izan bazen ere.

Politikoki, berriz, hiru ziren espazio politiko nagusiak Gerra Zibilaren aurretik. Ezkerra –PSOEk eta ezkerreko errepublikanoek ordezkatzan zutena–; EAJren zentro-eskuina, eta Comución Tradicionalistaren inguruan biltzen zen eskuin karlista.

Errepublikaren hasieran, abertzaleak eta karlistak elkarrengandik hurbil ageri ziren (31ko hauteskundeetan zerrenda bateratuak osatzeraino). Eskuina, karlismoa, Estatutuaren alde zegoen sasoi hartan. Baina indar errepublikanoak Estatutua onartzeko prestago azaldu ahala, karlismoa aldarrikapen haietatik aldenduz joan zen pixkanaka, azkenerako kontra azaldu arte. Tradizionalisten bilakaera horrek EAJ ezkerreko indarretatik gertuago jarri zuen. Modu honetan, Errepublikako 1936ko azken hauteskundeetan emaitzetan, Gerra Zibila lehertu zeneko mapa bera aurreikusi dezakegu: Gipuzkoan eta Bizkaian, Fronte Popularra eta abertzaleak nagusi; Araban eta Nafarroan, eskuina³⁰.

Euskal Herrian, beraz, errepublikanoek eta matxinatuek Estatutuaz zuten jarrera faktore erabakigarria da adostasunak eta desadostasunak zehazteko orduan, Errepublikaren urteetan zein Gerra Zibilean. Ze jarrera zuen Otxandiok horren aurrean?

Otxandio herri tradizionalista eta kontserbadorea zen 30eko hamarkadan. Orokorrean, bi multzo handitan banatu ditzakegu biztanleak: *Hemen egoten ziren karlistak eta abertzaleak* dio Jon Lasuenek. Abertzaleak, orduan ia denak EAJk ordezkaturak, ‘bizkaitarrak’ ziren:

Orduan bizkaitarrak eta karlistak. Bizkaitarrak bota eta akabo. Orain diferente da, hainbeste zer dago! Bateko Herri Batasuna, besteko bestea... Gura adina politika ez dago, ba? Orduan bizkaitarrak bizkaitar eta karlistak karlista. Orain ere, pentsatzen dut karlistek gehiago agintzen dutela. Gura dute, behintzat³¹.

Bi multzo horiek ziren udalean ordezkariak zuten bakarrak. Errepublikako urteetan abertzaleek sei zinegotzi zituzten, hiru karlistek. Hauek ziren gerra hasteko unean: EAJren aldetik, Remigio Gonzalez de Langarika alkatea, Lucio Arrese, Manuel Gonzalez de Langarika, Santiago Olabarria, Bertoldo Uribe eta Candido Zabala; karlisten aldetik, Jose Ignacio Olaso, Julian Garaigordobil eta Lorenzo Ruiz de Azua. Idazkaria Jesus Lasuen Magunazelaia zen.

Bi hauteskunderen emaitzak hartuko ditugu otxandioarren lehentasun politikoen adierazgarri. Jo dezagun lehenik 1933. urteko udal-hauteskundeetara:

29. Bizkaian nekazaritzako biztanleria aktiboaren portzentajea 1900an % 51,6 izatetik 1930an %21,5 izatera pasatu zen.

30. MAJUELO GIL, Emilio. “II. Errepublika Euskal Herrian”. In: ERRAZKIN AGIRREZABALA, M. eta AGIRRE-MAULEON, J. *1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*, 1. arg. Bilbao: UEU, 2009; 17-28. or.

31. Elkarrizketa. Andresa Lopez de Letona.

1. koadroa: 1933ko apirilaren 27ko hauteskunde emaitzak

HAUTAGAIA	BOTO KOPURUA
Remigio Gonzalez de Langarika	381
Lucio Arrese	375
Candido Zabala	367
Jose Ignacio Olaso	223
Lorenzo Ruiz de Azua	221
Meliton Usaola	208
Mario Gorostiza	51
Jose de la Fuente	43
Patricio Casamayor	38
Domingo Bengoa	7
Remigio Gonzalez de Audikana	1
Boto zuria	1

Iturria: Bizkaiko Foru Agiritegia/AR00347/004.

Ikusten dugunez, alkateak, Remigio Gonzalez de Langarikak, lortu zituen boto gehien. Hiru zinegotzi karlistak ziren Jose Ignacio Olaso, Lorenzo Ruiz de Azua eta Meliton Usaola, gerora Julian Garaigordobilek ordezkatu zuena. Egungo ikuspegitik, aipagarria da parte hartze tasa. Botoa eman zezaketen 675 otxandioarretatik 641ek eman zuten. Antzeko datuak izan ziren Errepublika osoan.

Hiru urte geroago Gorteetarako hauteskundeak izan ziren, Madrilera joango ziren diputatuak aukeratzeko. Hain zuzen ere, ezkerak irabazi eta eskuina matxinatzea ekarriko zuten hauteskundeak.

2. koadroa: Gorteetarako hauteskundearen emaitza. 1936ko otsailaren 16a. (Lehendabiziko itzulua)

HAUTAGAIK	BOTO KOPURUA
Jose Antonio Agirre	368
Heliodoro de la Torre	364
Jose Luis Gaitan de Aiala	225
Santiago Martinez de las Ribas	135
Paulino Gomez	44
Alfredo Espinosa	40
Julio Jauregi	2
Manuel Azaña	0
Marcelino Domingo	0

Iturria: Bizkaiko Foru Agiritegia/AJ02098/014.

EAJko hautagai nagusiak irabazi zituen hauteskundeak, eta ia horrenbeste boto atera zituen bere alderdikide Heliodoro de la Torre. Lehenengo hautagai karlistak, Gaitan de Ayalak, 225 boz lortu zituen. Ezkerreko hautagai bozkatuena 44 boto eskasetan geratu ziren. Ordukoan ere partaidetza oso altua izan zen, deituta zeuden 719 herritarretatik 701ek eman zuten botoa.

Bi hauteskunde hauen datuetatik ondorioztatu dezakegu abertzaleak karlistak baino nabarmen gehiago zirela (Errepublika garaiko gainontzeko hauteskundeek antzeko emaitzak erakusten dizkigute), eta aurrerago aipatuko dugun ezkerrean presentzia txikia adierazten digute. Datu horiek gure nagusiek elkarrizketetan kontatu digutena-rekin bat datoz, baina euren hitzek aditzera ematen digute emaitzok pixka bat erlatibizatu behar direla. Jon Lasuen II. Errepublika ekarri zuten 1931ko hauteskudeez ari zaigu:

Orduan kotxe asko ez zen egoten, jeneralmente egoten ziren alokatuta. Oletan, Mekoletan ere, gehienak Medikutuarenak edo bestearenak edo... Ekarri egiten zituzten eta botoa bota, obligatu egiten zituzten botoa euri ematen. Denok. Medikuenak eta karlista handiak ziren, hemen Malenenak, Biziola eta horiek denak. Migel "Txatue" lehenengo alkatea zu! (...) Botoak, erosi ez, obligatu... pelea bat egoten zen hauteskundeetan orduan! JON LASUEN.

Andresa Lopez de Letonak ere antzeko oroitzapena kontatu digu. Bizi ziren etxea errentan hartuta zeukaten, eta jabea karlista zen:

Akordatzen naiz, "geuri botatzen ez badiguzue botoa, irten egin beharko duzue etxetik". "Bueno, ba, topatu egingo dugu beste etxe bat. Botoa neurea da, eta neuk gura dudari botako diot". Hori beti esaten zuen osabak: "Neure botoagaz, zuek agindu behar duzue?" ANDRESA LOPEZ DE LETONA.

Lortutako testigantzetan, karlistek botoa behartzen zutelatik ikusi dugu, baina ez dakigu bizkaitarrek ere berdin jokatzeko zuten, ezta zenbatetan gertatzen ziren horrelakoak ere. Edonola ere, ez du ematen bi kasuok bakarrik gertatuko zirenik. Dena dela, eta datu zehatzen fidagarritasuna gorabehera, gizartearen azaleko argazki bat egiteko baliagarriak zaizkigu datuok.

Hauteskundeetako zenbakietatik aparte, eta tradizioz karlisten eta bizkaitarren artean banatutako herria izanagatik ere, ezkerreko indarrek bazuten presentziarik Otxandion, herrian gertatzen ari zen "industrializazio" txikiarekin lotuta. Bernardino Bengoak Omegako langile batzuk ditu gogoan, *ezker muturrekoak*³². Jon Lasuene eta Bixente Amondarainek ere aipatu dizkigute ezkertiarak:

31ko apirilaren 14an Errepublika izan zen. Orduan hauek bastante gogorrak ziren, komunistak edo horrelakoren bat, Cordero eta. JON LASUEN.

Herrian gehienak bizkaitarrak ziren, PNV gehiena. Karlistak ere bazeuden, baina bizkaitarrak asko ere gehiago. Komunistak eta, gutxi. BIXENTE AMONDARAIN.

32. In: IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 79 or.

Hain zuzen ere, Omega lantegiko 80 langileetatik, 8 Alderdi Komunistako kide ziren. Sindikatuei dagokienez, Langileen Batasun Orokorrak (UGT) Otxandion talde bat zuela ere badakigu³³. Eta Udalari zuzenduriko eskaera pare baten harira jakin dugu ELAk ere bazuela nolabaiteko egiturarik. Beharbada gutxi zirelako edo, guganaino ez da heldu klase borrokaren edo ezkerreko aldarrikapen politikoen ildotik protestarik izan zenik. Dena dela, kontuan hartu behar dugu oso garai gatazkatsua eta aldarrikatzailea zela bai Estatuan bai Euskal Herrian, Otxandion oihartzun esanguratsurik lortu ez bazen ere.

Udalaren eta herritarren osaketa honekin, ze jarrera hartu zuen Udalak Errepublikaren eta Estatuaren aldarrikapenaren aurrean? Nagusi ziren bi indar politikoak oso ezberdinak ziren batetik, baina biak atzerakoiak... Bada, jarrera, Errepublikaren zein Estatuaren aldekoa zen argiro. Estatuari dagokionez, aho batez, eskuina Estatuaren alde azaldu zen bitartean. Gerora, bozketa guztietan, aldeko sei boto eta kontrako hiru. Udalbatzaren jarrera argien azaltzen duena, ziurrenik, 1931ko apirilaren hamaseian ezohiko batzarrean adostutako puntu bakarra da:

Que reconociendo como demócratas la manifestación popular de España en pro de la República y afirmando ser ésta un hecho desde el domingo último doce de abril de 1931 saludamos en esa voluntad a la reciente República Española y en relación al País Vasco proclamamos la Personalidad Vasca integral de Euskadi de aquende el Pirineo y en particular la personalidad histórica demócrata de Vizcaya y sentamos en consecuencia su derecho a la propia gobernación y a convocar sus Juntas Generales con todas sus genuinas facultades mediante la reunión inmediata de los delegados de todos los ayuntamientos recientemente elegidos. Saludamos pues a la República Española y acclamamos a nuestra República Vasca³⁴.

Udalbatza Errepublikaren aldekoa zela Maria Luisa Canal bizilagunaren eskariari emandako erantzunean ere ageri da. Maria Luisak udaletxeko gela nagusia erabiltzeko baimena eskatu zuen ongintzako ekimen kultural bat egiteko asmoz. Baimena eman zitzaion, baldintza batekin: *siempre y cuando no tenga matiz monárquico ni de hostilidad a la República*³⁵.

Era berean, baina, Errepublika kalterako zela pentsatzen zuten otxandioar askok, zalantzarik gabe. Gorrien gobernu, kristautasunaren etsaiena, balore tradizionalen gainbehera, monarkiaren akabera... Jon Lasuen eskolaz oroitzen da, Errepublikaren jaiotzaz galdetzean:

Akordatzen naiz, 31ko apirilean Errepublika etorri zen. Ni mutiko, orduan eskolan nengo hemen Don Alfredorekin (...) Don Alfredo monarkikoa izango zen nik pentsatu, eta kuadroa zegoen bere atzean eskegita, Alfonso XIII.arena, eta negarrez hartu eta kendu egin zun: "No se qué del Rey...". JON LASUEN.

Estatuari gagozkiolarik, Otxandioko Udalak, aldeko "iritzia" ez ezik, aldeko jarrera aktiboa ere hartu zuen. Izan ere, Estatuaren inguruko aldarrikapenak udaletan izan

33. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 8. or.

34. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal bilkuren aktak / 1936-4-16.

35. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1932-9-24.

zuen akuilu nagusia, eta Otxandiokoak prozesu horretan hartu zuen parte. Udalbatza Estatutuaren aldeko batzarretara agertu ohi zen, alkatea buru. 1933ko uztailean, esaterako, honakoa erabaki zen udal bilkuran:

Se acuerda designar al Sr. Alcalde D. Remigio G. De Langarika para que represente al ayuntamiento en la asamblea que tendrá lugar en Vitoria el día 6 de agosto para tratar de la aprobación del Estatuto y que se emita voto favorable para su aprobación³⁶.

1933. urteko azaroan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeetan Estatutuaren inguruko referenduma deitu zen. Otxandiok parte hartu zuen, eta, lehenengo begiratu batean behintzat, emaitzak harrigarriak izan ziren. Herriko zinegotzi karlistek ordurako Estatutua babesteari utzi zioten –referenduma egitearen kontra bozkatu zuten Jose Ignacio Olasok, Lorenzo Ruiz de Azuak eta Julian Garaigordobilek–, eta espero zitekeen, beraz, herriko karlistek ere berdin jokatzea. Baina aldeko botoak ehuneko ehun izan ziren:

3. koadroa: Estatutuaren inguruko referenduma. 1933-11-5

Boto eskubidea zuten herritarrak	642
Botoa eman zuten herritarrak	642
Aldeko botoak	642

Iturria: Bizkaiko Foru Agiritegia/AJ02282/025.

Azalpena sinplea da. Hauteslekuetan presente zegoen indar bakarra EAJ zen. Karlistek deialdia boikoteatu egin zuten, eta bizkaitarrek iruzur egiteko aprobetxatu zuten. “Putxerazoa”, beraz.

Bien bitartean, udaletxeko eguneroko martxa, ordura arte lasaia, egoera politiko orokorrekina batera ozpinduz eta gaiztotuz joan zen. Zinegotzi abertzaleen eta karlisten arteko harremanaz ari gara, sei eta hiru horien artekoaz. Nolabait, bilakaera politikoa orokorraren adierazletzat hartu dezakegu.

Errepublikako hasierako urteetan, ez dugu udal aktetan tentsio zantzurik aurkitu, eta ia erabaki guztiak aho batez hartzen ziren. Gogoratu behar da sasoi hartan eskuina Estatutuaren alde zegoela, ezkerreko gobernua ahultzeko estrategia hutsa bazen ere. 1933tik aurrera, ordea, gero eta erabaki gehiago hartzen ziren gehiengoz, eta ez aho batez. “Sei alde, hiru kontra” formula ugaltzen ikusten dugu pixkanaka, eta ez soilik zuzenean Euskal Herri edo Estatu mailako gai politikoei zerikusia duten gaien inguruan. Akte tentsioa, giro txarra transmititzen dute. Bide honetan, Ardoaren Gerra inflexio puntutzat hartu dezakegu. Berriz ere, udaletxeetatik eraiki eta bultzatutako mugimendu hark ezkerria eta abertzaleak elkarlanean jarri zituen eskuinaren aurrean. Otxandio Euskal Udalen Batzarrean sartu zen, ekimen municipalistaren alde eginez:

36. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1933-7-28.

(...) para cumplir los acuerdos de la Asamblea de Municipios Vascos celebrada en el ayuntamiento de Bilbao el día 5 de julio de 1934 y siguiendo las instrucciones acordadas en su virtud por la comisión interna de los ayuntamientos el día 29 de julio último, procede a la designación de los miembros del comité definitivo de municipios de Vizcaya para la defensa del Concierto Económico y los derechos del País³⁷.

Ez zen nolanhiko erabakia. Alkatetzak proposatuta, badaezpada, idazkariak Udalaren erabakian inongo erantzukizunik ez zuela jasotzen du aktak. Bilkurak amaiera adierazgarria izan zuen: *En este ayuntamiento se presenta la fuerza de miñones y ante su requerimiento se dió por terminado el acto.*

Euskal lurraldeetako beste udal askotan bezala, irailaren 4a haustura unea izan zen Otxandion ere. Mugimendu municipalistaren Lurralde Batzordeek adostutakoarekin bat eginez, ordezkari politikoen atxiloketa eta polizi oldarraldien testuinguru batean, alkateak eta gainontzeko zinegotzi abertzaleek euren karguari uko egin zioten. Hutsune horren aurrean, mugimenduaren kontra zegoen eskuinak kargu horiek hartzea erabaki zuen. Otxandion, irailaren 20ko bilkuran gauzatu zen hori, Jose Ignacio Olaso, Lorenzo Ruiz de Azua eta Julian Garaigordobil bilduta.

(...) con el fin de cumplimentar la circular del Exmo. Sr. Gobernador Civil de la provincia del 16 de los corrientes, disponiendo se declare el cese de los concejales que presentaron la dimisión de sus cargos el día 4 de los corrientes y que en las localidades donde estuviesen vacantes la alcaldía y existan concejales de elección popular, a los de mayor votación de ellos correspondía desempeñar interinamente los cargos de alcalde y teniente con arreglo a lo dispuesto en la ley municipal, en consecuencia tomaron en el acto posesión de sus cargos de alcalde y de teniente alcalde D. Jose Ignacio Olaso y D. Lorenzo Ruiz de Azua respectivamente, recibiendo las insignias de los cargos³⁸.

Egoera bideratu, eta luze gabe zinegotzi abertzaleak euren karguetara bueltatu baziren ere, geroztik abertzale eta karlisten arteko ezadostasunak koska bat harago azaltzen zaizkigu. Une batzuetan ezinikusi pertsonalengatik hartutakoak diruditen erabakiak edo tentsioak ageri dira, eta zeresanik ez “sei alde, hiru kontra” formula, behin eta berriro: izendapenengatik, Udalak ordaindu beharreko gastuengatik, Aldundiari egindako eskaeren aurrean... Errepublika hasieran banaketa sortzen ez zuten gaietan. Azken erakuslea 1936ko otsailekoa da. Jesus Lasuen idazkariak kexa publikoa agertu zuen zenbait zinegotzik askotan akta sinatzeari uko egiten ziotelako³⁹. Zehazki, hiru ziren akta sinatzeari utzi zioten zinegotziak.

37. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1934-8-10.

38. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1934-9-20.

39. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1936-2-25.

Laburbilduz, Gerra Zibilak Otxandio lasai antzean aurkitu zuen. Herriko bizitzaren gora-beheretatik pentsaezina zen Gerra Zibila etorriko zenik, baina Euskal Herri eta Estatu mailako gertaerek baldintzatu eta aztoratu zuten giroa, noski. Otxandioarrek ere bizi izan zituzten eraginak, ezinbestean. Gerrak konpondu barik edo amaitu barik utzi zituen udal gaien artean, bestalde, garrantzitsuena ura etxeetara ekartzeko lanak izan ziren. Otxandion ogiaren prezioa Arabakoarekin berdintzeko ekimena ere bertan behera geratu zen, Legutiorekin limitaduen inguruko arazoa konpontzeko ahaleginarekin eta eskola berriak eraikitzeko asmoarekin gertatu zen bezala.



Neska taldea, Karnezeria kalean. 1920ko hamarkada. (Argazkilaria: E. Guinea)

Etheen
eta ibaien
ikuspegia



Uribarrena
kaleko azken
etxeak, iturria
eta garbilekua.
1920ko
hamarkada.
(Argazkilaria: E.
Guinea)





Arte kale. 1920ko hamarkada. (Argazkilaria: E. Guinea)



Andrazkoak kartetan, Artekaleko atarte batean. 1920ko hamarkada. (Argazkilaria: E. Guinea)



Karnezeria kalea. 1920ko hamarkada. (Argazkilaria: E. Guinea)





Uribarrena kalea, elizpetik. 1920ko hamarkada. (Argazkilaria: E. Guinea)





Uribarrena kalea. 1920ko hamarkada. (Argazkilaria: S. Verafajardo)

Presupuesto ordinario (1)

Ayuntamiento de Chuchun

Año de 1934

RESUMEN GENERAL DEL PRESUPUESTO

INGRESOS	CRÉDITOS PRESUPUESTOS			
	Ordinario	Extraordinario	Adicional	TOTAL por Capítulos
	PESETAS CTS.	PESETAS CTS.	PESETAS CTS.	PESETAS CTS.
Propios	205,00			205,00
Montes	590,00			590,00
Impuestos	39300,00			39300,00
Beneficencia				
Instrucción pública				
Corrección pública				
Extraordinarios	3390,00			3390,00 - 340
Resultas				
Recursos legales para cubrir el déficit				
	48795,00			48795,00 - 480
GASTOS				
Gastos del Ayuntamiento	13382,38			13382,38
Policía de seguridad	1727,00			1727,00
Policía urbana y rural	7300,00			7300,00
Instrucción pública	4724,60			4724,60
Beneficencia	6200,00			6200,00
Obras públicas	2450,00			2450,00
Corrección pública	100,00			100,00
Montes	1230,00			1230,00
Cargas	11275,72			11275,72
Obras de nueva construcción				
Imprevistos	206,30			206,30
Resultas				
	48795,00			48795,00

1934. urteko aurrekontuak

2. Altxamendua



1936ko uztailaren 18ak eman zion hasiera Espainiako Gerra Zibilari. Iñaki Egañaren hitzetan, *frankismoa interes politiko, ekonomiko eta sozial askoren batuketeta* izan zen. Zehazki, 1936ko otsaileko hauteskundeak galdu zituztenen indar-batuketeta: *oligarkia, banka, armada eta eliza*⁴⁰. Hauteskundeetako irabazleen kontra matxinatu zirenek estatu kolpe azkar bat jotzea zuten buruan, ez gerra zibil luze batean sartzea. Baina gauzak ez zitzaizkien nahi zuten moduan irten.

Euskal Herrian gerrak ezaugarri bereziak izan zituen. Zalantza batzuk tartean izan arren, eskuin abertzalea Errepublikaren alde jarri zen. Estatutuak eta euskaldunen herri nortasunak gatazka zeharkatu zuten, eta Espainiar Estatutik bereiztu.

Ñabardurak gorabehera, Euskal Herrian Gerra Zibilak hiru epealdi izan zituela onartzen da⁴¹. Lehenengoa, uztailaren 18tik urriaren 1era artekoa litzateke. Epealdi hone-tako ezaugarriak gobernu-indarren kohesio politiko eskasa eta matxinatuek EAJ bere magalera erakartzeko egindako saiakerak dira. Irailerako, EAJren ezetza garbia izan zen. Alderdi hau Madriliko gobernuan sartu zen, eta Gorteek Estatutua onartu zu-ten aipatutako egunean, urriaren 1ean. Arlo militarrean, gerra zutabeetan oinarrituta zegoen, eta antolaketa defentsa-junten esku geratu zen (Bizkaian bakarria zegoen; Gipuzkoan, lokalak eta sakabanatuak). Bigarren epealdia, Estatutuarekin hasi eta Bizkaia-aren gaineko ofentsibarekin amaitu zen. Egunerokotasuna normaldu egin zen eta kontzentrazio gobernu-eratu zen, EAJren nagusitasunarekin. Euzko Jaurlaritza osatzearekin batera, Euzko Gudarostea ere jaio zen, Euskadiko armada. Horrek ekarri zuen militarri aginte bakarria egotea eta miliziak militarizatzea. Edonola ere, armada alderdien araberrako batailoietan antolatu zen, ez dibisio eta brigadetan, Espainian egiten zen moduan. Tarte horretan izan zen Legutioko Bataila. Lehenengo epealdiak izaera ezkertiarra erakutsi bazuen, bigarren hau abertzale eta euskaldunagoa izan zen⁴². Azken epealdia, ofentsibatik Bilbo galdu arte doa. Euskal Herria Gerra Zibilaren erdigune estrateragiko bilakatu zen, matxinatuek Madrilen porrot egin ondoren. Otxan-dio, hirugarren fasearen estreinako egunetan geratu zen indar frankisten eskuetan.

Euskal Herrian, matxinoen altxamenduaren bat-bateko emaitzak ez ziren denean ber-dinak izan. Labur-labur: Araban eta Nafarroan, militarrek eta erreketek hartu zuten kontrola (Gasteizen egoera pixka bat nahasiagoa izan zen hasieran). Gipuzkoan, Erre-

40. EGAÑA, Iñaki. "Frankismoaren izaerari buruzko zenbait gogoeta". In: ERRAZKIN AGIRREZABALA, M. eta AGIRRE-MAULEON, J. *1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*, 1. arg. Bilbao: UEU, 2009; 105-114. or.

41. TUÑÓN DE LARA, Manuel. "El País Vasco durante la guerra". In Malefakis, E. (arg.), *La guerra de España, 1936-1939*, Madril: El País, 1986. 21-43 or. ; CHUECA, Josu. "Gerra Euskadin. Bilakaera historikoa". In: ERRAZKIN AGIRREZABALA, M. eta AGIRRE-MAULEON, J. *1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*, 1. arg. Bilbao: UEU, 2009; 29-48. or.

42. FUSI, Juan Pablo. "El País Vasco durante la guerra". In. Malefakis, E., *La guerra de España, 1936-1939*, 1. arg. Madril: El País, 1986. 43-50 or.

publikaren aldeko indarrak nagusitu ziren, nahiz eta Donostian ika-mikak luzatu. Bizkaian gailendu ziren errazen errepublikanoak. Garellanoko militarren arrisku kolpista indargabetuta, indar abertzale eta ezkertiarrekin osatutako zutabeak antolatu ziren Errepublikaren defentsarako.

Hasiera nahasi horietan jada Otxandio agertzen zaigu. Euzkadiko Buru Batzarrak Errepublikaren alde egin zuen publikoki *Euzkadi* egunkariaren bitartez, baina Araba Buru Batzarra zalantzati zegoen:

Ez zegoen Gasteiz eta Bilbo telefonoz harremanetan jartzeko aukerarik, horregatik, Julian Agirre, Santiago Pagalde eta Gumer de Miguel, Antero Gonzalez de Audikanaren autoan joan ziren Otxandioraino. Hara helduta, Otxandion jaiak igarotzen ari ziren Juan Ajuriagerra (Bilboko semea zen baina gurasoak otxandioarrak zituen) eta Jesus Solauekin jarri zen harremanetan. Denak Urkiolara joan ziren, bertan batzartu eta Araban zer egin pentsatzen aritu ziren⁴³.

Azkenerako, gertakizunen zurrunbiloak behartuko zituen posizioa hartzera.

1.1. Lehen egunak Otxandion

Altxamendua gertatu zenean, herriko jaiak ziren Otxandion. Santamañetako ospakizunak ziren eguneroko normaltasuna apurtzen zuten bakarra. Mukuru zegoen herria. *Santamañak ziren Otxandion. Gerra zela jakin arte, egun normala* akordatzen da Juan Padilla. Kontakizunaren xehetasunak batzuen eta besteen ahotan zer edo zer aldatzen badira ere, gure nagusiek ondo gogoan dute nola izan zuten otxandioarrek altxamenduaren berri:

Eran las fiestas patronales del pueblo y se suspendieron los partidos de pelota, así como la vuelta ciclista a Motxotegi, porque no permite la guardia civil el paso por Villarreal. Al atardecer aparece Cortazar "Otxandi" en medio de la plaza con la gente expectante y atemorizada porque había estallado una insurrección militar; Otxandi gritaba como un energúmeno vivas al Rey que provocaron la irritación de algunos obreros de la fábrica OMEGA que eran de extrema izquierda. Ante el temor de lo que se avecinaba el alcalde nacionalista Remigio Langarica con unos compañeros de su partido, se lo llevan por la fuerza a la cárcel del pueblo y propician que se escape. Esto sucedió el día de las fiestas del pueblo, el 18 de julio. BERNARDINO BENGOA "KAMINERO"⁴⁴.

Tenía 14 años y era un gran ciclista, pero se suspendió la carrera ciclista que se hacía todos los años por estas fechas y que consistía en dar la vuelta a Motxotegi...

El 18 de julio, en plena fiesta patronal, apareció en la plaza un tal Cortazar gritando vivas a España, al Rey Don Carlos y mueras a la República. Ante la agresividad del hombre que parece estaba cargado de copas, y para evitar incidentes lo llevaron a la cárcel que era la planta baja del ayuntamiento...

43. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkartea, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 13-14. or.

44. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkartea, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 79. or.

Al día siguiente al llegar algunos milicianos procedentes de la zona minera de Gallarta y enterarse de lo sucedido pidieron al ayuntamiento que entregasen a “Otxandi”. Estos se negaron y ante el problema que se avecinaba el alcalde Remigio y los concejales nacionalistas lo sacaron de la cárcel, lo subieron al camarote del ayuntamiento para que por el tejado se escapara salvándole la vida... JUANITO AXPE “ZAPATERO”⁴⁵.

Kortazar zaharra etorri zen taxi batean Bitariatik, txapel gorri bat eskuan eta “Viva Cristo Rey!”. Mecagüen hiru-lauk oratu zioten, eta desagerrarazi ensegida. TOMAS LOPEZ DE LETONA.

Ni hantxe nengoen, iturri ondoan. Jendea holantxe, pelotalekuan, ze pelota hasteko zegoen. 16:30etan heldu zen. Salto egin zuen, zoro baten moduan, e? “¡Viva Cristo Rey!”, txapel gorri handi bategaz. Jende guztia holantxe. Oratu zioten mutil gazte batzuek, eta bota zuten lurrera ensegida. Langarika 30 metrora, etxe aurrean kafea hartuta koparekin, berbetan koadrilatxoa. Ni iturri izkinan beste lagun batzuekin. Hartu eta arineketa joan zen Langarika. Ostera manejatuko zuten bertan. Hartu eta kartzelara, derrepentean.(...)

Gauean, kartzelak atea aurrera begira zeukan eta jendea, zarataka... Zer egin zuten? Teilatutik atera, hartu, eta Bilbora eroan zuten. Ostera manejatuko zuten baten batzuek ze, badakizu, jendeak edan ere gehiago egiten du egun horietan. JUAN PADILLA.

(...) Agertu zen Kortazar, “Txapelaundi”, eta “¡viva el rey!” “¡carlistas!”. Eta hartu zuten eta kartzelara sartu zuten. Orduan egoten ziren hemen Omegako langileak, De La Fuente eta horiek, eta horiek hartu zuten eta gorde zuten. Orduan Erremigio zen alkatea. Eta gero, ez dakit utzi zioten martxatzen edo martxatu egin zuen... Baina atera zuten herritik. JON LASUEN.

Plazan agertu baino ordu batzuk lehenago, Eloy Larrearen etxean ari zen bazkaltzen “Txapelaundi”:

Hori gizona gurean zegoen bazkariten (...) Laurak-bostak inguruan edo, bastante betetakoan, etorri zen motorista bat, eta galdetu zuen por Francisco Kortazar. Irten genuen guk, eta “pues aquí está”, erdaraz. Belarrian zeozer esan zion (...) “Bueno, Bitoriara joan behar dut, eta etorriko naiz”.

Han egon ginen, eta handik gerotxoago, ordu bira edo, etorri zen plazara, “¡Viva Cristo Rey!” deiadarka eta txapel gorri handi bategaz. ELOY LARREA.

Esan bezala, ezberdintasunak daude kontakizunetan. Jon Lasuen eta Bernardino Bengoak Kortazar Omegako langileek hartu zutela dute gogoan. Juan Padillak ez daki nork zehazki, baina kanpotarrak zirela bai. Juan Padillak, gau berean irtenarazi zutela kartzelatik eta herritik. Eta Juanito Axpek, aldiz, hurrengo egunean, Gallartako miliziano batzuen presioaren aurrean.

Hainbeste urte pasata, ezberdintasunak normalak dira, baina diferentzietatik harago, guztiek egiten dute bat funtsezkoenean: Kortazar “Otxandi”-k eman zuen herrian altxamendu militarren berri; ondoren, giroa gaiztotzen hasi zela eta, kartzelan sartu zuten Kortazar, babesteko asmoarekin; eta azkenik, amaiera lazgarri baten beldurrez, ihes egiten lagundu zioten udal arduradunek.

45. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 80. or.

Pasadizo hau gertatuta ere, Otxandion lasaitasuna zen nagusi uztailaren 19an. Nola-bait esatearren, oraindik ez zegoen gerrarik. Inork gutxik aurreikusitako abailduko zen hiru urte luzeko gerra zibila, eta, zer esanik ez, hiru egunen buruan sufrituko zuten bonbardaketa ankerra.

Urduriago egongo zen agian otxandioarren bat. Durangaldean 200 karlista baino gehiago altxamendurako militarri prestatzen ibiliak zirela uste da⁴⁶. Otxandioarren bat tartean egotea logikoa litzateke. Horrela bada, altxamendua nagusitu zen guneetara alde egin ote zuten 18an bertan eta hurrengo egunetan? Ala herrian bertan geratu ote ziren gertaeraren zain? Ez dugu erantzun osatu bat emateko adina daturik. Baina Otxandio frankisten eskuetan gelditzean edo gerra bukatzean dominak eta lanpostuak eskatuz zenbait herritarrek egindako idatziak irakurrita, matxinoekin borrokatutako zenbait otxandioarren berri heldu zaigu. Ez dakigu hauek diren bakarrak edo gehiago ere izan ziren, ezta, gehiago izatekotan, zenbat gehiago:

- Domingo Iribarren Zumelzu, altxamendua gertatu eta jarraian aurkeztu zen boluntario. Arabako Erreketeen 8. Konpainian aritu zen uztailaren 19tik aurrera, eta, besteak beste, Bizkaiko Ofentsiban hartu zuen parte. Domina Militar Kolektiboa jaso zuen Legutition egindako operazioengatik. Baita Kanpaina Domina, Gerra Gurutzea eta Gurutze Gorria ere⁴⁷.
- Justo Pujana Goikoetxea, 1936ko uztailaren 24tik 1939ko ekainaren 7ra arte ibili zen ejerzito matxinoan, 12. Artilleria Errejimentuko 19. Baterian. Fusilari boluntario moduan Bermeon egin zuen borrokan, baita Solluben ere, Gezi Beltzen Brigada italiarretan. Kanpainaren Domina eta Meritu Militarren Gurutze Gorria jaso zituen gerra ostean⁴⁸.
- Segundo Garces Iturzaeta, San Marcial Infanteriako Errejimentuko VI. Batailoian aritu zen⁴⁹.
- Juan Azkargorta Bengoa, jaiotzez otxandioarra, nahiz eta Galdakaon izan bizilekua. Erreketeen Nuestra Señora de Begoña tertzioan egin zuen gerra⁵⁰.
- Julian Ugarte. Falangistekin egin zuen borrokan, eta frontean hil zen⁵¹.
- Francisco Larrea Goikolea. Nuestra Señora de Begoña Tertzioan egin zuen gerra, 1937ko apirilaren 10etik. Urte bereko ekainean hil zen, Santo Domingoko batailan⁵².

46. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbo: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 13. or.

47. Bizkaiko Foru Agiritegia / AJ02253/039.

48. Bizkaiko Foru Agiritegia / AJ02257/043.

49. Bizkaiko Foru Agiritegia / AJ02247/025.

50. Bizkaiko Foru Agiritegia / AJ02262/056.

51. Bizkaiko Foru Agiritegia / AJ02262/056.

52. Bizkaiko Foru Agiritegia / AJ02255/052.

- Bere anaia Angel, Flandes Errejimentuko Bigarren Mendi Batailoiko 4. Konpainian hasi zen, 1937ko azaroaren 4ean. 1938ko abenduaren 10ean hil zuten, Artesa de Segren⁵³.
- Marcos Ibarrondoren anaia nagusia erreketekin borrokatu zen. Motxotegin parapeoak prestazen ari zela, matxinoek preso hartu eta kartzelan denboraldi bat eman ondoren, derrigortuta joan zen frontera. Belchiten hil zen. Aita eta osaba bat haraino joan ziren, gorpua herriratzeko asmoz, baina ez zuten aurkitu⁵⁴.

Marcos Ibarrondoren anaiaren kasuan ageri denez, matxinoekin borrokatu ziren guztiak ez ziren haien aldekoak, eta berdin gertatu zen beste aldean ere. Zerrendatu ditugunen artean, ziurra da Domingo Iribarren eta Justo Pujana boluntario joan zirela gerrara. Oso litekeena da Francisco eta Angel Larrea anaiak boluntario borrokatzea frankisten lerroetan, karlistak baitziren⁵⁵. Segundo Garces, Juan Azkargorta eta Julian Ugarteri dagokienez, ez dugu zentzu batean edo bestean baieztapenik egiteko nahikoa daturik.

Bien bitartean, uztailaren 19. hartan ikusi zuen otxandioar askok hegazkin bat lehenengo aldiz bere herriko zerua zeharkatzen. Matxinatuen estreinako propaganda ekin-tza izan zen Otxandion:

Recuerdo que el 19 viene una avioneta como las que pasan con anuncios tirando octavillas incitando a la rebelión con los fascistas. Los obreros rojos de OMEGA las recogen y no dejan leerlas al pueblo... BERNARDINO BENGOA "KAMINERO"⁵⁶.

20an, gerra egoera agerikoagoa egin zen. Lehenengo milizianoak heldu ziren Otxandiora. Bezpera goizaldean Bilbotik irten zen zutabea, militarrez eta zibilez osatuta. Jon Lasuen Otxandion zen, eta heltzen ikusi zituen. *Hogeian etorri ziren milizianoak esko-petekin-eta, autobusez etorri ziren*. Autobusetan, kamioietan, kotxeetan... Hurrengo egunean, 21ean, bigarren zutabe bat abiatu zen Bilbotik. Gobernadore Zibilak komunikabideei pasatu zizkien oharren arabera, helburua Gasteiz menpean hartzea zen. Uztailaren 20ko goizetik bertatik hasi zen esaten indar errepublikanoak Gasteiz ondoan zeudela, Gasteiz hartzeaz, eta hurrengo egunetan ere gezurrari helduko zion⁵⁷. Besteren artean, Felix Padun miliziano anarkista etorri zen boluntario autobusean. 20tik 21erako gauean kokatzen du bere bidaia, baina 19tik 20rakoan izan behar zuen:

En la noche del 20 al 21 de julio salimos de Bilbao unos 40 voluntarios en un autobús de La Unión... Al mediodía del 21 llega (a Otxandio) la primera columna expedicionaria, que venían con fusiles, etc. más organizados que nosotros... En el cementerio nos organizaron. Nos dieron ropa, buzo, botas y mosquetones... El grupo lo mandaba un compañero

53. Bizkaiko Foru Agiritegia / AJ02255/052.

54. Elkarrizketa. Marcos Ibarrondo Orue.

55. Elkarrizketa. Eloi Larrea Lastra.

56. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkartea, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 79. or.

57. *La Tarde*. 1936-7-20; 1936-7-21; 1936-7-22.

de Bilbao, pero nos pusieron un militar como asesor para aprender al manejo del arma, a hacer fosas y trincheras... FELIX PADUN GALLO⁵⁸.

Zaila da Otxandiora heldu ziren miliziano eta militarren kopurua zehaztea. Gehienak bi zutabetan abiatu ziren, 19ko goizaldean eta 21eko goizean, baina ez dago zehazterik nola zeuden osatuta. Talde asko bere kabuz antolatu ziren: zutabeek bidean aurrea egin ahala, igarotzen zituzten herrietako bizilagunak batzen zitzaizkien. *Noticiero*-k 21eko arratsaldean bere kabuz antolatutako boluntario kamioi gehiagoren berri eman zuen, Arabako muga helburu zutela⁵⁹. Aguirregabiria eta Tabernillaren arabera, Bilbotik 1.000 miliziano eta militar inguru abiatu ziren, Joaquin Vidal teniente koronelaren agindupean. Ez dakigu lehenengo irten zen zutabeaz ari den ala ordurako Otxandion elkartu ziren gutzietz. Edonola ere, honakoa da zutabearen osaketa:

- Garellanoko metrailadore sekzio bi.
- Eraso Guardiako sekzio bat (30 lagun).
- Guardia Zibilaren sekzio bat, Juan Ibarrola buru (18 gizon).
- 180 bat laguneko miliziano taldea, PSOE eta UGTkoak. Nagusia, Fulgencio Mateos.
- Meatzaldeko Alderdi Komunistako milizianoak, gerora Perezagua batailoia izango zenaren hazia.
- EAJ eta ELAko miliziano taldea, zenbait mendigoizalerekin batera.
- ANV eta Izquierda Republicanako zenbait talde⁶⁰.

20ko eguerdian zutabea Otxandiora heldu zen, eta herria asaldatu. Elizan, arimen aldeko elizkizuna ari ziren egiten. Han ziren Lourdes eta Bittor Kapanaga neba-arrebak, beste hamaika herritar bezala:

Meza amaieran sartu zen norbait elizan, igo zuen pulpitora, eta esan zuen: “Bueno, entzun ondo, elizkizuna amaitu da”. Gauza arraroa zen. “Orain, denok etxera!” (...)
Gu bizi ginen Bilbotik sarreran lehenengoko etxean, kalean, eta ordurako han zetozen blindatuak eta... Irten nuen balkoira, begira. BITTOR KAPANAGA.

Hantxe geundela, ama eta biok egon ginen atzeko partean eta nire nebak, Santi eta Bittor, aurrean. Ensegida sartu zen jendea eta esan zigen, “irten ensegida elizatik, baina mantillak eta gorde. Bidean zoazten moduan irten” (...) Irten genuen elizatik eta egon zen kalea, bete-bete, milizianoz beterik. Denok sustatuta etxera, eta gero etxean balkoira arineketan, ea zer ikusten genuen. Kamioiak zetozen zerez beterik, milizianoz eta soldaduz beterik. LOURDES KAPANAGA.

58. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 79. or.

59. *El Noticiero Bilbaino*. 1936-7-22.

60. AGUIRREGABIRIA, Josu M. eta TABERNILLA, Guillermo. *El frente de Álava. Primera parte. De la su-
blevación a vísperas de la batalla de Villarreal*, 1. arg. Bilbao: Ediciones Beta, 2006; 20-21. or.

Ez zen Lourdes, artean umea, beldurtu edo gutxienez asaldatu egin zen bakarra. Ehunka miliziano eta soldadu bat-batean herrian, askotariko jatorri ideologikoekin, batzuk oso arrotzak otxandioar gehienentzat... Gainera, heldu eta jarraian, hain herri elizkoian, elizara jo zuten milizianoek. Atea itxita topatu zuten, ordea, Lorenzo Orue abadea giltzaz zerratu eta etxera joana baitzen. Miliziano talde bat gerturatu zitzaion atarira, elizan kanpatu behar zutela eta giltzen bila. Baina abadeak giltzak Matxin Iribarren sakristauak zituela erantzun zien. Azken honek milizianoak hurreratzen ikustean etxe ostetik ihes egin eta Gasteizerako bidea hartua zuen. Emazteak giltzak eman, eta milizianoek elizan hartu zuten ostatu⁶¹.

Beste batzuk, beldurtuta baino gehiago, haserre zebiltzan. Jesus Axpek bizitakoaz ari gara. Luzetxoa bada ere, kontakizunak merezi du:

No menos me asustaba y terriblemente por cierto, lo que nos hubiera ocurrido a los de casa, a mis dos tíos curas, a la tata Petronila y a mí mismo, en casa de los cuales ve-raneaba; si llegan a actuar aquellas dos fieras del carlismo que eran mi tío Don Aurelio, sacerdote carlista hasta la extremaunción, veterano de aquellas “partidas” carlistas después de la retirada del cura de Santa Cruz, gran admirador de mis 13 años; y, mi tío Don Elías, hermano menor suyo, también carlistón, admirador de las aventuras de su hermano héroe. También estaba la tata Petronila, la bondad personificada, bajita, gorda, con bigotes bien marcados en su cara redonda y llena de pecas, con abundante culo caído, pero limpia como un coral. Ante mí, en la plaza, la “columna” armada por guardias civiles, guardias de asalto, soldados de Garellano, voluntarios civiles y algún militar uniformado todos entremezclados, unos procedentes de la fábrica Omega ubicada en Ochandiano con obreros procedentes de Eibar, Mondragón y demás comunidades socialistas de los alrededores, así como los voluntarios reclutados en los batzokis, tanto fueran del JEL como de Acción Nacionalista o Mendigoisales, o de ELA. Recuerdo que yo me acercaba a estos últimos porque encontraba protección en ellos, dadas mis ilusiones nacionalistas vascas. Pero no me bastaba para tranquilizar mi conciencia este arrimarme a los nacionalistas, porque la noche anterior podía haber intervenido yo, en la grandísima tragedia: mi tío Don Aurelio el mayor de los dos hermanos curas, el de las “partidas” carlistas, el guerrillero típico de la última carlistada, nos había reunido la noche anterior en la cocina de la casa, situada frente al Ayuntamiento del pueblo del cual nos separaban solamente los quince metros de anchura de la carretera, que con su voz cascada seca y autoritaria, pero tajante y dominante nos ordenó: tú, Elías, saca el baúl de las municiones de las escopetas, tú, Petronila prepara la mesa grande limpia y otra mesa pequeña ante la chimenea, tú, Jesusito toma el rebordeador para cargar cartuchos, que ya sabes hacerlo.

Nadie rechistamos hasta que su hermano Elías le preguntó: para qué. En mala hora, porque hecho una fiera le dijo que era para cargar cartuchos, todos los que se pudieran en aquella casa de cazadores, con balas y postas de jabalíes, para que desde las ventanas de la casa, uno en cada ventana poder disparar contra todas las tropas anti fascistas que había agrupadas en los soportales del Ayuntamiento, porque tenéis que saber que “fascio” quiere decir construir, del verbo facere latino y “destrucio” es destruir; todos esos que están abajo son “destrucio” de nuestra religión y de nuestros fueros. Quedé con los ojos súper abiertos, asustado por lo que había oído y la furia con que lo había dicho, creo que pensé en meterme debajo de la mesa y callar. Las reacciones de mi tío Elías y de Petronila fueron totalmente sumisas, no hubo réplicas. Abrió tío Elías el

61. Universidad de Valladolid. *Informe sobre la situación de las provincias vascongadas bajo el dominio rojo-separatista*, 1. arg. Valladolid: Universidad de Valladolid, 1938; 237-238 or.

arcón donde estaban todas las municiones: cajas de cartuchos vacíos y nuevos para rellenarlos en casa a nuestro gusto, cajas de tacos para separar la pólvora sin humo “Diamon” que era la mejor de los tiempos, pistones para recargar los cartuchos vacíos recuperables, bolsas de una libra de postas, balas, y perdigones de distintos calibres, la maquinilla usada para rebordear la boca del cartucho taponándola con un taco y no escaparan los perdigones, todo, todo, sobre unos periódicos viejos sobre la mesa limpia de la cocina y no se perdiera un gramo de pólvora; y en la mesa pequeña bien ajustado al rebordeador. Nos hizo cargar los primeros cartuchos con balas para jabalíes, cuando las terminamos, con postas para truchas, después con el perdigón del cinco para aves frías; con mi edad, los 13 años de aquellos tiempos, no dudé en obedecer al guerrillero de “las partidas” que tenía enfrente. Petronila manifestaba claramente su disgusto, se levantaba continuamente de la mesa para darles café y una copita de pacharán a mis tíos. A mí me traía leche blanca. Nos hizo llevar en procesión macabra, toda aquella munición a la parte delantera de la casa cuyas ventanas caían sobre la planta baja del Ayuntamiento. He dicho que aquel traslado de la munición desde la cocina hasta las ventanas parecía una peregrinación macabra y lo era. Petronila se plantó. Con su pequeño tamaño, sus bigotes, su cara redonda mofletuda llena de pecas pero arrugada en aquel momento, dándose cuenta del desquiciado acontecimiento que se preparaba, se levantó y con más poderío del que llenábamos los dos hombres y el chavalito, chilló acalorada y con voz metálica arremetió contra la locura que se pretendía hacer: están Vds. locos, eso no es cristiano, eso es matar. Yo creo que influyó muchísimo ante el ardor de Don Aurelio y la intranquilidad de Don Elías.

Yo, por supuesto, no jugaba en aquella barbaridad que se proyectaba de insensatez guerrillera, organizada por un caduco clérigo con el morral cargado de batallitas sangrientas al final de la última guerra carlista. Ella, Petronila, toda autoritaria nos mandó a todos a la cama. A la mañana siguiente yo no había dormido nada, mis tíos no fueron a decir misa a la iglesia del pueblo, la dijeron en la capilla que teníamos en la casa. Supongo que recapacitaron sobre el estrago que habían pretendido consumir la noche anterior. Bajo el Ayuntamiento los milicianos pretendían agruparse en escuadras militares bajo las ventanas de nuestra casa. Pero unas horas antes no había ocurrido una bárbara masacre. Había pasado la mala película. JESUS AXPE⁶².

Agi denez, gutxigatik ez zen gertatu uztailaren 20ko gau hartan sarraski bat. Kasualitateak eta emakume baten jenioak eragotzi zuten odol isuria. Gertatu izan balitz, ondorioak odoltsuak izango ziren seguru, eta ez bakarrik milizianoentzat. Oso litekeena da hortik aurrerantzean karlisten eta abertzaleen arteko giroa eta harremana herri mailan asko okertzea, eta abertzaleek hartu zituztenak baino neurri askoz zorrotza-
goak hartzea matxinoen kontra.

Metro batzuetara gertatzen ari zenaren ez jakitun, uztailaren 20ko iluntze hartan, miliziano eta soldaduak herrian zehar sakabanatzen eta gaua igartzeko tokia bilatzen hasiak ziren. Sukalde nagusia Andikona plazan ipini zuten, talde batzuk elizan kokatu ziren, etxeren batean beste batzuk, eta gehienak kontzejupean. Pentsatzekoa da lehenengo orduetan antolaketa handirik ez zela egongo. Ehunka miliziano eta soldadu heldu ziren bat-batean Otxandiora, ordu batzuk lehenago elkartuta, matxinatuen kontra egiteko. Artean ez ziren antolaketa egituratu baten parte. Batzuk militarrek eta besteak milizianoak; soldaduak, guardia zibilak, abertzaleak, sozialistak, komunistak eta anarkistak, guztiak nahas-mahasean, elkarrekiko mesfidantza handiarekin askotan,

62. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 87-89. or.

ezinikusiak edo gorrotoak tarteko... Juan Ibarrola kapitaina, esaterako, gerra guztian hartu zuten mesfidantzaz eta bere autoritatea ukatu, Guardia Zibilekoa izateagatik, batez ere milizianoek⁶³. Antzera gertatu zen orokorrean kargu militarren eta milizianoan artean. Kontuan hartu behar da gorputz horiek hainbat errepresio ekintzatan parte hartutakoak zirela, historian zehar orokorrean, eta 30eko hamarkadan, bereziki. Gainera, altxamendua militarrena zen. “Logikoa” zen, beraz, militar oro “susmopean” egotea. Ezinikusia eta ezinbesteko elkarlana, biak nahasi ziren. Gogoratu Felix Padunek kontatua, nola bere milizianoen talde anarkistari militar bat jarri zioten aholkulari armak erabiltzen, lubakiak egiten eta halakoak erakusteko. Mesfidantza eta ezinikusi hauek denborak eta beharrak gastatuko ditu pixkanaka, baina estreinako une haietan, altxamendua zertan geratuko zen ziurtasunez jakiterik ere ez zegoela, zaila zen ordena ezarriko zuen autoritate bat eta antolaketa orokor bat egotea.

20an Otxandio sarraskitik libratu zela esan dugu, baina 20an bertan heldu zen gerra garaiko lehen heriotza. Mutikotxo bat; zibila, beraz. Horrelakoak asko gertatu ziren hasierako egun haietan. Istripuaren berri ematen digu Jose Luis Olasok:

Santamañak ziren. Eta gelditu zen hemen txurroak egiten zituena, eta semea ibiltzen zen geugaz. Eta pelotalekura etorri ziren Garellanoko soldaduak Bilbotik. Ipini zituzten fusilak bata bestearen ondoan hormaren kontra. Jausten da fusil bat, jotzen du buruan, eta hil egin zen mutila (...) Egon zen abade bako enterrua Otxandion, ze abadeek ihes egin zuten. JOSE LUIS OLASO.

Uztailaren 21a Legutio hartzeko eguna zen. Hori zen Bilbotik irtendako zutabearen lehenengo eginbeharra. Azken helburua, ordea, handinahiagoa zen. Legution, Gipuzkoatik abiatutako bigarren zutabe batekin elkartu, eta Gasteizi erasotzea zen asmoa. Matxinatuen kontrolpean zegoela jakitun, Legutio hartzeko zutabea bitan banatzea erabaki zuen Vidalek. Ibarrola, Fulgencio Mateos eta haien gizonak Barazarretik hurbilduko ziren. Gainontzekoak, Otxandiotik zuzenean.

Jesus Axpe otxandioarra zutabearekin abiatu zen Legutiorantz:

Había muchísima gente en la plaza del pueblo (...) Ante mí, en la plaza, la “columna” armada por guardias civiles, guardias de asalto, soldados de Garellano, voluntarios civiles y algún militar uniformado todos entremezclados, unos procedentes de la fábrica Omega ubicada en Ochandiano con obreros procedentes de Eibar, Mondragón y demás comunidades socialistas de los alrededores, así como los voluntarios reclutados en los batzokis, tanto fueran del JEL como de Acción nacionalista o Mendigoisales, o de ELA. Recuerdo que yo me acercaba a estos últimos porque encontraba protección en ellos, dadas mis ilusiones nacionalistas vascas. (...)

Estaban intentando hacer pequeñas agrupaciones y encuadrarse en pequeñas unidades separadamente: los guardias de asalto, los guardias civiles, los soldados de Garellano, civiles con buzos azules y siglas de UGT, FAI, ELA, y unos magníficos mendigoixales vestidos con camisa blanca, pantalones de mil rayas y botas montañeras de clavos en

63. Juan Ibarrola bera honen kexu zen. Inposatzeko eta milizianoen konfiantza irabazteko zituen arazoez hitz egiten digute hainbatek: Aguirregabiriak eta Tabernillak, Apraizek bere oroitzapenetan, Urgoitiak. Adibide moduan: Bilbotik abiatutako lehen zutabe honen banaketatik sortuko zen Ubideko zutabearen bera zen nagusia teorian, baina praktikan Fulgencio Mateos milizianoak zuen agintea, milizianoen artean itzal handikoa baitzen.

la suela, pero con un escudo del Saspi Era Bat en el lado izquierdo del pecho sobre el corazón, y encima de una ikurriña, una cruz chiquitita blanca; estos últimos no se me olvidan por su prestancia, seriedad y orden en la agrupación; entre ellos estaban los chicarrones del pueblo con el alcalde a la cabeza. Dos de estos chicarrones, uno de ellos primo carnal mío, Carlos Axpe, habían venido por la mañana a requisar las armas de caza por orden del comandante militar de la plaza. Con toda educación se enfrentó mi primo Carlos a sus dos tíos curas carlistones y a Petronila que no era menos peligrosa y requisaron las armas dejando un comprobante. (...) Así se llevaron las cinco escopetas, una de tipo La Fuche de mi abuelo, una Purdi inglesa de mi padre, la chimberita mía de 12 mm. Y las de mis tíos. Juro que sentí muchísimo la entrega de aquellas escopetas pero lo que más sentí en mi alma fue la requisa de la chimberita. Viendo como lloraba yo, fue Petronila la que me consoló y enrollándole un trozo de cinta aislante con una cinta de hiladillo blanco en el guardamanos, entregué la escopeta y podría reconocerla siempre porque llevaba las cintas blancas enrolladas, porque yo creía que algún día me la devolverían. La reconocí inmediatamente entre la columna que se estaba formando en la plaza con muchísima pompa y algarabía. Allí nació mi sentido de la propiedad personal. Decidí seguir al miliciano chiquitito hasta donde fuera y lo hice en bicicleta. La tropa salió a la conquista de Villarreal, a siete km. de Ochandiano. Y, yo con ellos. Aquello era un montón de amigotes divididos en secciones, cantando, y junto a ellos iba yo con mi bicicleta. Le seguía al miliciano chiquitín como si fuera su limaco, pero guardando las distancias para que no sospechara. Llegamos a la entrada de Villarreal sin sobresalto ninguno por la parte del cementerio.(...) Como me había ido retrasando por precacución a las últimas filas de la columna, llegué de los últimos a la plaza del pueblo. Así como cuando entrábamos se hablaba de que en la entrada del pueblo había guardias civiles que nos esperaban a tiros, ahora no se hablaba más que de guardias civiles que no habían hecho resistencia, y se habían rendido con el oficial que les mandaba. Tengo idea de que sonó algún tiro, creo que contra la torre de la iglesia por si había resistencia. Pero supongo que no pasó nada. Llegué a la plaza donde encontré un gran revuelo y algarabía. Aparecieron algunas botellas de vino, algunos bocadillos no sé de dónde y sí recuerdo mi participación en el asalto al estanco: todo el mundo entraba en el estanco y también yo. Era una tienda que hoy me recuerda a las del Oeste, había botas de monte colgadas del techo, botas de vino, botellas, latas y tabaco, sobre todo tabaco. Alargué la mano a la estantería más cercana entre culos, sobacos y juramentos y cogí un paquete de tabaco. Pero lo que son las circunstancias, si yo no fumaba, por qué lo cogí como ellos. Recuerdo que uno que mandaba, dijo que cada uno que cogía algo tenía que hacer un vale y entregarlo. Del pobre dueño no recuerdo más que su cara de espanto. Salí atropelladamente de aquella jauría de jabalíes y me fui al grupo de mendigoisales, con su escudo, ikurriña y crucecita blanca encima. Remordiéndome la conciencia les conté mi robo, se rieron y les entregué el paquete de tabaco. Comprendieron mi susto y me acogieron entre ellos, me aseguraron que reclamarían mi escopetita y volvimos a Ochandiano. Yo con mi bicicleta llegué antes que la columna. No vi más mi escopetita. JESUS AXPE⁶⁴.

Lekukotasun horrek informazio asko ematen digu. Hasteko, lehen egun horietan jada Otxandioko zenbait herritarrek Errepublikak defendatzeko jarrera aktiboa hartu zutela uzten du agerian. Herriko zenbait gazte abertzale, eta hauekin alkatea, Legutiorantz abiatutako zutabera batu ziren. Baita Omegako langile ezkertiar batzuk ere. Otxandioarrak ziren, halaber, aginte militarren esanak betez 21eko goizean etxez etxe su-armak konfiskatzen zebiltzanak. Bigarrenik, Jesus Axpek marraztutako koadro ho-

64. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarteak, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 87-92. or.

netan, ejerzito batetik baino lagun koadrila ezberdinen nahasketatik hurbilago dagoen pertsona multzoa ikusten dugu; hil edo biziko gerra egoera batean aurkitzen den giza talde bat barik, oraindik “serioa” izatetik urrun dagoen eta jolas trazak hartzen dituen egoera: *Aquello era un montón de amigos divididos en secciones, cantando, y junto a ellos iba yo con mi bicicleta*. Nola ulertu, bestela, 13 urteko mutiko bat armez herri bat hartzera doan zutabe militar bati laguntzea, bizikletan, “bere txinbera” berreskuratu nahi duelako, inork etxera bidali gabe? Ez da anekdota hutsa edo aparteko gertakaria. Sebastian Astolak hainbat aldiz aipatzen du hasierako egun horietako ezjakintasuna eta inuzentekeria. Besteak beste, eta adibide moduan, Legutiorako irteera aipatzen digu, hain zuzen ere. Nola zihoazen denak oinez, *manifestazioan, bandidoen moduan*, arma banaka batzuk soilik zituztela⁶⁵. Jon Lasuenek 14 urte zituen orduan eta antzeko gauzak kontatzen ditu:

14 urte neukazan urte hartan... Ni urtean zehar Bilbon nengoen ikasketak egiten eta Bilbon bizi nintzan, izeko baten etxean. Udan, oporretan, etortzen nintzan Otxandiora. Nire familia hemen bizi zan, nire aita –Jesus Lasuen– udal idazkaria zan. Lehenengo milizianoak etorri ziran autobus batean eta gero etorri ziran militarrek... 21ean hartu zuten Villarreal, ni ere oinez joan nintzen eurekin. Orduan Villarrealen harripaketa batzuk egin ziren... JON LASUEN⁶⁶.

Pentsatzekoa da ez zirela bakarrak.

Kontakizunera bueltatuz, milizianoek Legutio tiro bakar bat bota gabe hartu zuten, herrian zeuden guardia zibil bakanak Gipuzkoarako bidean jarri baitziren zelatan, Pagotxikin, handik etortzekoa zen beste zutabearen zain. Ezustean harrapatu zituzten bizkarretik, eta errenditu egin ziren. Gipuzkoako zutabea ez zen ageri, ordea. Donostian militarrek matxinatu zirela eta, zutabeak buelta hartu zuen bidearen erdian, hiriburuan ordena legala berrezartzeko asmoz. Horren berri jakitean, Legutiotik atzera egin, eta Otxandio eta Ubiden ezartzea erabaki zuten. Gerora, erabaki hau akats larritzat jo izan da. Kontrolpean zeukaten eta estrategikoki garrantzitsua zen herria ezin izango zuten berriz ere menpean hartu gerra osoan.

Bada hemen datu interesgarriak. Atzera egiteko erabaki kaltegarria Garellanoko Santamaria kapitainak hartu zuen. Santamariak berak azaldu zion zergatia *Euzkadi*-ko korrespontsalari, Legutio utzi aurretik: (...) *había sido cumplido el objetivo perseguido en el día*⁶⁷. Dena dela, ordurako kontrako iritziak ere bazeuden erabakiaz.

Tomamos Villarreal y podíamos haber tomado Vitoria pero el capitán Santamaria, que estaba con los sublevados, decidió que ya habíamos hecho la acción del día y nos mandó retirarnos a Otxandiano generando una gran pérdida. FELIX PADUN GALLO⁶⁸.

65. Elkarrizketa. Sebastian Astola.

66. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 82. or.

67. Euzkadi. 1936-7-22.

68. AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 79. or.

Bada, bi asteren buruan, Fernández Yarza osasun alferezak arrazoia emango zion Felix Padun milizianoari bere salaketan. Abuztuaren 4an, Bilbotik ihes egin ostean, *etsaiaren inguruko informazioa* eman zien Fernández Yartzak Nafarroako Brigadei. Besteren artean, gorri-abertzaleen eremuan zeuden militarren artean *gureak* (beretarrak, Francoren aldekoak), *etsaiak* edo *zalantzakorrak* ziren zenbait ofizialen berri ematen du. Santamaria kapitaina *beretarra* zen⁶⁹. Otxandioko zutabeko arduradun nagusiak azaroaren 10ean Euzko Jaurlaritzako Defentsa sailburuari zuzendu zion idatzi bategatik badakigu ordurako Santamaria kapitaina kartzelan zegoela.

Bien bitartean, uztailaren 21eko egun hura, mugitua bai, baina aparteko gorabehera barik joan zen Otxandion. *Euzkadi*-ko berriemailea zutabe militarra Legution zegoela heldu zen Otxandiora, jadanik paisaiaren parte bihurtu ziren errepide-kontrolak gaindituta. Horrela deskribatzen du Otxandion aurkitzen duen giroa:

En la villa de los ferrones la animación es realmente extraordinaria, Su amplia plaza se encuentra totalmente ocupada y rebosante de público, aparte de la enorme cantidad de automóviles que reúne en su recinto (...)

Y desde luego, que podemos comprobar que en todo momento ha reinado la más absoluta tranquilidad, pues no se ha disparado ni un sólo tiro⁷⁰.

Berriemaileak dagoeneko osasun postu bat ezarri zela azaltzen digu, Jose Antonio Maurologoitia udaleko medikuaren ardurapean. Berarekin lanean mediku gehiago zeuden, batzuk boluntario Bilbotik etorriak, baita erizainak ere.


Bada aipatu beharreko beste gertaerarik arratsalde hartan. Hegazkin txiki batzuek zeharkatu zuten herriko zerua. Jon Lasuenen ustez, *inspeksio modukoa* egin zuen. Felix Padunek, 19an egin bezala, propaganda bota zutela du gogoan. Berdin Miren Libe Lasuenek ere: *habían pasado unos aviones lanzando unas octavillas, en las que creo que ponía: “Ochandianeses, rendíos”*. Juan Padillaren hitzek hurrengo eguneko bonbardaketaren izaera makabroaren arrastoan jartzen gaituzte:

Bezperan etorri ziren baju-baju-baju aeroplanoak. 2 edo 3, txiki-txikiak. Botako ote zuten karamelorik edo, jendea begira. Zelan sekula inoiz ez zuen holakorik ikusi, herri guztia begira. Jendeak: “gorrienak dira, onak”. JUAN PADILLA.

69. AGMAV, C.1536, Cp. 5, D.1.

70. *Euzkadi*. 1936-7-22.

Lehendabiziko mugimendu militarrek eta frontearen egonkortzea.



Milizianoak Otxandioko Frontean.



JULIO
22
Miercoles



Bilbao, 1936

Año XXIV

Redacción y Administración: Correo, 17, 1.º

Apartado

Noticias oficiales

En Bilbao y Bizkaya la t

En Otxandiano y Villarreal

Con la columna expedicionaria



Soldados, Guardia civil y el elemento civil armado fraternizan en la plaza de Villarreal, luego de conseguido el objetivo perseguido por la columna expedicionaria, de la que este grupo forma parte. (Foto Galkortzes)

Euzkadi egunkaria, 1936.7.22

3. Bonbardaketa



1936. urteko uztailaren 22ko goizean, bederatzia eta bederati eta erdia artean, Otxandion bere historiako bonbardaketarik krudelena sufritu zuen. Izango ziren bonbardaketa gehiago hurrengo hilabeteetan, izango ziren heriotzak, suntsiketa, samina. Baina lehenengo bonbardaketa hura ondorengo guztiak baino gordinagoa eta ankerragoa izan zen. Gerraren laugarren egunean gertatu zen, euskal lurretan operazio militar esanguratsurik egin barik zegoela, eta ekintza odoltsurik gertatu barik. Bonbardaketan hildako gehienak zibilak izan ziren, otxandioarrak, eta horietatik asko umeak. Ondo zekien hori bonbak bere eskuz lurrera erortzen utzi zituenak, hegazkina Andikona plazatik distantzia laburrera zegoen eta. Ikusi zuen, beraz, ondoko Vulcanoko plaza milizianoz beterik zegoela, eta jakingo zuen ziurrenik non zeuden Omega lantegia eta halako azpiegiturak. Baina ez zuen han eraso, nahiago Andikona. Ez zen gaur egun Mendebaldetik demokraziaren izenean esportatzen ditugun bonbardaketa “garbi” horietako bat, pilotuaren “jomuga” pantailan aurpegirik gabeko puntu bat den erasoaldi horietako bat. Pilotuak edo pilotuek, plaza gainetik pasada batzuk egin, bertan zeudenak agurtu, eta haien konfiantza irabazi eta gero, bonbak eskuetan hartu, apuntatu eta ahalik eta jende gehien hiltzeko asmoz bota zituzten. Ume bat baino gehiago hurreratu ziren arineketan, gozokiak edo paperak botatzen ari zirelakoan. Jose Luis Olasok adierazi moduan, *Paperak! Paperak! Paperak!... Paperak bai!* Dozenaka gorpu eta gorpu-zati plazan barreiatuta, familia osoak minutu batzuetan desagertuta, zaurituen oinaze oihuak, ehunka pertsona noraezean korrika, izu-ikarak hartuta... 1936ko uztailaren 22ko egun traumatiko hura, buru-bihotzetan iltzatuta gelditu zitzaion otxandioar belaunaldi oso bati.

3.1. Zalantza ugari

Bonbardaketaren izaera bera eta eragindako heriotzak eta sufrimendua dira garrantzitsuena, zalantzarik gabe. Edonola ere, orriotan gertatua ahalik eta datu eta zehaztasun handienarekin jaso nahi dugu, eta ez da lan erraza. Ziurtasunak gutxi dira eta zalantzak ugari. Ziurtasunak: 1936ko uztailaren 22ko 9ak aldera hasi eta ordu erdi inguru iraun zuen bonbardaketak; hegazkina edo hegazkinak Breguet XIXak ziren, Logroñoeko Recajo-Agoncillo aireportutik etorriak. Zalantzak: hegazkin bakarra aritu zen ala bi izan ziren? Nor edo nortzuk ziren pilotuak? Bonbardatzeaz gain metrailatu ere egin zuten? Ba al zeramaten abioiek ikurrik edo bereizgarririk?

Zalantza nagusia hegazkin kopuruarena da. Nahasketa handia da, ez baitago adostasunik ez bibliografia mailan, ez orduko prentsan, ez otxandioarren testigantzetan. Prentsaari helduz, eremu errepublikanoko *El Noticiero Bilbaíno*⁷¹, *Euzkadi*⁷² eta *El Nervión*⁷³

71. *El Noticiero Bilbaino*. 1936-7-23.

72. *Euzkadi*. 1936-7-24.

73. *El Nervión*. 1936-7-23.

bi hegazkinez ari dira. *Noticiero*-ren kontakizuna pixka bat ezberdina da. Lehenengo hegazkin bat agertu zela esaten digu, horrek alde egin, jendea plazan zaurituei laguntzen hasi, eta orduan agertu zela bigarrena, bonbak jaurtiz hura ere, baina erdigunetik urrunago eta heriotzarik eragin gabe. *El Liberal*-ek aldiz hegazkin bakarra aipatzen du⁷⁴. Matxinatuen aldeko *El Pensamiento Alavés*-ek, iturri moduan Gasteizko Koman-dantzia Militarra aipatuta, *la aviación* esaten du, zehaztasun gehiagorik eman gabe⁷⁵. Bibliografiaren alorrean beste hainbeste. Iñaki Egaña⁷⁶, Jesus Salas Larrazabal⁷⁷, Tebib Arrumi⁷⁸, Koldo Azkue⁷⁹, George L. Steer⁸⁰ eta Vicente Talon⁸¹ euren liburuetan eta Sabino Apraiz⁸² bere oroitzapenetan hegazkin bakarraz ari zaizkigu. Talonek gainera esaten du hegazkin hark Gasteiztik irtendako beste batzuen laguntza izan zuela, baina horrelakorik aipatzen duen bakarra da. Jon Irazabalek⁸³ bi Breguet XIX aipatzen ditu, eta berdin diote Aguirregabiria eta Tabernillak⁸⁴ *El frente de Álava* liburuan, 23. taldekoak zirela zehaztuz. Lekukotasunen eta testigantzen iturriek ere ez digute zalantza argitzen. *Euzkadi*-n Jose Antonio Maurolagoitia medikuaren testigantza irakurri dezakegu, eta bere kontakizunean bi hegazkin agertzen zaizkigu⁸⁵. Irazabalek Carmelo Bernaolak urte batzuk geroago gogoratutakoa jasotzen du, eta bakarra aipatzen du. Liburu berean, Jesus Axpek *un avión* dio, Felix Padunek *la avioneta*⁸⁶. Elkarrizketekin jarraituz, Lourdes Kapanagak eta Andresa Lopez de Letonak *aeroplanoak* esaten dute, pluralean. Pluralean ere Florian Kapanagak, *saludatu egiten zutela* baitio.

Kopurutik harago, hegazkinak edo hegazkinek bonbardatzeaz gain metrailadore tiroak ere egin ote zituzten zalantzak ditugu. Gehienek ez dute horrelakorik aipatzen, baina ezeztatu ere ez dute egiten. Baieztatzen dutenak Tebib Arrumi eta Vicente Talon historialariak eta Jesus Axpe otxandioarra dira. Azken honek bere erantzuna argudiatzen du:

74. *El Liberal*. 1936-7-23.

75. *El Pensamiento Alavés*. 1936-7-23.

76. EGAÑA, I. eta beste zenbait. 1936. *Gerra zibila (8 liburuki)*. 1. arg. Andoain: Aralar, 1999.

77. SALAS LARRAZABAL, Jesús. *La guerra de España desde el aire*, 2. arg. Bartzelona: Ariel, 1972.

78. TEBIB ARRUMI. *La conquista de Vizcaya*, 1. arg. Valladolid: Librería Santaren, 1938.

79. AZKUE, K. *Irrintzi. Grito de libertad* (I. liburua), 1. arg. Bilbao: Editoriala, 2006.

80. STEER, George L. *El Arbol de Gernika. Un ensayo sobre la guerra moderna*, 1. arg. Tafalla: Txalaparta, 2002.

81. TALÓN, V. *Memoria de la guerra de Euzkadi de 1936* (4 liburuki), Barcelona: Plaza&Janes, 1989.

82. IRARGI / Bidasoa Funtsa / 15.04.

83. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006.

84. AGUIRREGABIRIA, Josu M. eta TABERNILLA, Guillermo. *El frente de Álava. Primera parte. De la sublevación a vísperas de la batalla de Villarreal*, 1. arg. Bilbao: Ediciones Beta, 2006.

85. *Euzkadi*. 1936-7-24.

86. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006.

Me preguntas si el avión hizo fuego de ametralladora y creo que sí; porque una anciana, Axpe de apellido, murió con un nietecillo en brazos, a las afueras del casco urbano donde estallaron las bombas y se comentó que sus heridas eran de bala. JESUS AXPE⁸⁷.

Basurtuko Ospitaleko Larrialdi postuko sarrera liburuetan, zaurituen diagnostikoetan, zenbait kasutan *herido por arma de fuego* irakurri dezakegu. Gehienetan, ordea, jarraian eta parentesi artean (*metralla*) oharra jarraitzen dio. Baina Vidal Ruiz Arroyo, Maria Cruz Irazuegui Gorostiza eta Lorenzo Gaztelumendi Bilbaoren parteetan ez dago horrelako zehaztapenik⁸⁸. Pentsatzekoa da, beraz, izan zirela bala zaurituak, metralleta-suaren ondorioz.

Bonbak bota zituen edo zituzten pilotuei dagokienez, lehenengo unetik zalantza eta gorabehera handiak izan ziren, nork gauzatu ote zuen bonbardaketa. Hasieran, Luis Lezama-Legizamon Bizkaiko Elkarte Tradizionalistaren buruari leporatu zitzaion erantzukizuna. Baia gero jakin zen ezinezkoa zela, egun hartan EAJko zuzendaritzaren ardurapeko segurtasun-etxe batean ezkutatuta baitzegoen, Arrankudiagan⁸⁹. Bere anaia Fernando ere aipatu zen, baina Irazabalek, esaterako, bataren zein bestearen parte hartzea ezeztatzen du. Jesus Axpek beste arrazoi mota batzuk ematen ditu, gordinagoak:

Me preguntas si pudo ser Fernando Lezama Leguizamon el aviador asesino: sinceramente creo que no, él no era de esa calaña. Le conocí personalmente y aquella persona jamás se habría prestado a hacerlo. Él no era aviador militar, ni tenía porque dominar un avión militar con ametralladoras tirando a dar y soltando cargas de bombas en los puntos más estratégicos. A los pocos años del bombardeo, muy pocos, él se hizo novio de Conchita Vicinay hija de Don Isidro y hermana de Jose Mari que había muerto acribillado por la metralla en la puerta de su casa; el verano de noviazgo venía todos los fines de semana a ver a su novia con la cual se casó y hacía tertulia con nosotros en la que hablábamos del bombardeo y se horrorizaba al oír comentarios sobre su posible participación, delante de su novia; yo le veía la cara de espanto y de tristeza ante tal comentario. Su novia vivía en la plaza de Andicono donde había caído la mayor masacre de metralla, al hermano de ella le habían matado achicharrado a metralla allí mismo y allá mismo en aquella casa también ametrallada se hacía el noviazgo y la boda. Imposible, totalmente imposible que hubiera hecho la salvajada, el bombardeo y hubiera entrado tranquilamente en el pueblo y en una familia con un hijo muerto desangrado. JESUS AXPE⁹⁰.

Beti ere gogoratzu hegazkin kopuruaren inguruko duda-muda, hainbat izen atera dira. Iñaki Egañak, abioi bakarraz hitz egin eta matxinatuen armadak berak emandako informazioari helduz, Jose Calderon Gaztelu seinalatzen du, 1937ko otsailean hil zen Irurritako militar bat. Irazabalek Angel Salas Larrazabal jotzen du arduradun nagusi, eta bigarren pilotua Miguel Rubio Larrañaga kapitaina izan zitekeela. Angel Salas Larraza-

87. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 84. or.

88. Santo Hospital Civil de Bilbao. B.1.2/671/G-56-4.

89. EGAÑA, I. ETA BESTE ZENBAIT. 1936. *Gerra zibila* (8 liburuki). 1. arg. Andoain: Aralar, 1999.

90. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 84. or.



Capotaga



bal geroago Franco, Mola eta gainontzeko buruzagi matxinoen arteko korreo lanetan ibiliko zen gerran. Hain zuzen ere, bere anaia historialariak, Jesus Salasek, eman zuen Angelen partaidetzaren berri *Guerra aérea 1936-1939* liburuan. Zantzu guztien arabera Otxandioko bonbardaketan parte hartu zuen militar honen bibliografia laburra ekarriko dugu orriotara, Estatu Espainolaren bilakaera politikoaren ispilu:

Angel Salas Larrazabal, Jesus Salas Larrazabal historiagile militarren anaia, 1906ko urriaren 10ean jaio zen, Urduñan. Abiazio militarreko kide zen haren 2. promozioaz geroztik; Afrikan zerbitzatu zuen, Gerra Zibilean, eta han komandante maila lortu zuen "División Azul" izenekoarekin, fronte errusiarrean. Espainiara itzuli zen, eta frankismo garaian hainbat kargu izan zituen: 40ko urteetan, agregatu militarra Erroman, Berlinen eta Lisboan; 50eko urteetan, Parisen, Dibisioko jeneral izatera iritsi zen, etab. Bizimodu militar aktiboari 1972an utzi zion. 1991n, Juan Carlos I.a Espainiako erregeak Kapitain Jeneral izendapena eman zion. 1994an hil zen⁹¹.

Hegazkinak edo hegazkinek agerian ikur bereizgarririk ote zeramaten edo ez, ez dugu erabat argitzerik izan. Izan ere, Jon Irazabalek eta George L. Steerrek hegazkinek Errepublikaren koloreak margotuta zituztela esaten diguten bitartean, Sabino Apraizek inongo bereizgarririk ez zeramatela aipatzen du. Testigantzetan lekukoek eta Otxandio-ko bizilagunek ez digute honen inguruko aipamenik egiten. Salbuespen bakarra, Santi Kapanagaren lekukotasunean dugu. Santik diosku abioi bakarra zela eta Errepublikaren koloreak zeramatzala margotuta, zirkuluan eta hego banatan⁹². Dena dela, datu honek ez du hainbesteko garrantzirik.

Azkenik, gure ustetan, litekeena da abioiak edo abioiek, bonbak jaurtiki aurretik, pape-
rak bota izana. Gure nagusiek ez dute horrelakorik adierazten, baina, lekukotasunek orokorrean hartuta, hori pentsarazten dute. Kontakizunean, askok dioskute hasieran erortzen ari zena paperak zirela sinetsita zeudela. Baxu dabilen abioi batetan, bonba batek segundo gutxi beharko luke askatzen denetik lurra jo arte. Ez luke emango, irakurriko dugun moduan, *paperak! paperak!* esateko astirik ere. Bittor Kapanagak kontatzen du abioitik zer edo zer jausten ikusi eta orduan ondoko bizilagunak paperen bila bidali zuela, bera bidean jarri zela bizilagunak bigarren aldiz agintzean, eta bide erdian zegoela hasi zirela eztandak. Denbora tarte handiegia. Gainera, Fernando Arri-
zabalagak akorduan du nola gero otxandioarrak beldurtuta zebiltzan, *bonbardaketaren erdian* esku-orri batzuk ere jaurti zirelako, bueltatuko zirela esanez. Esku-orriak bazi-
ren, antza. Eta hori guztia kontuan hartuta, logikoena da hasieran bota izana, bonben aurretik. Horrela izan bazen, are ankerkeria handiagoa adierazten du horrek, esku-
-orriak jaurtitzearen zentzu bakarra jendea inguratzea bailitzateke, bonbak botatzean ahalik eta gehien hiltzeko.

Finean, zalantzak argitu edo murriztu nahian: Otxandio Breguet XIX batek edo bik bonbardatu zuten, ez gehiagok, eta, bonbak jaurtitziaz aparte, litekeena da metrailera-
-sua ere erabili izana. Pilotuei dagokienez, uste dugu Angel Salas Larrazabalen parte hartzea ziurtzat eman daitekeela, kontuan izanda bere anaia historialaria dela iturria. Bigarren pilotua, egotekotan, Jose Calderon Gaztelu izan zitekeen. Datu hori emateko,

91. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarteak, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 40-43. or.

92. Elkarrizketa. Santi Kapanaga.

armadaren iturriak aipatzen ditu Egañak. Daukagun hirugarren izena, berriz, Miguel Rubioren, Irazabalek berak balizko moduan aipatzen du.

3.2. Bonbardaketa

Zalantzak zalantza, militar altxatuek Otxandio bonbardatu zuten uztailaren 22ko goiz hartan. Herria esnatu berri zegoen, baina ordurako mugimendu handia zegoen kalean. Herritarrak milizianoekin, soldaduekin eta santamañak pasatzera joandakoekin nahasian zebiltzan. Soldadu eta miliziano asko frontoian zeuden formaturik; beste batzuk Andikona plazan zebiltzan, intendentzia bertan ezarri zuten eta. Otxandioar asko ere bazebilen Andikonan. Herriko bizitza sozialaren puntu nagusietakoa zen plaza, bertan zegoen iturria, ondoan erreka, eta erreka ertzean, arropa garbitzeko aska. Bertan ibiltzen ziren neskato-mutikotxoak jolasean, bertatik hartzen zuten inguruko bizilagunek etxerako ura, bertan garbitzen zuten arropa herriko emakumeek. 22ko goiza antzera zihoan, gerra izanagatik ere.

Zerean negoen, Andikonan. Iturria zelan han zegoen, Andikonan ematen genuen denbora han inguruan bizi ginenak. Han, olgetan. FLORIAN KAPANAGA.

Andikonan, Vicinay-ren mutil bat, Urrejolarena eta hirurok. Eta hor plazan egoten ziren kamioi batzuk dinamitagaz eta zaintzen egoten zen guardia bat. Etorri zen eta esan zigun: – Chavales, ¿qué hacéis aquí? – Nada, estamos mirando. – Esto a mí me huele mal, ese avión... Fuera de aquí. Largaos. Besteak pasatu ziren hara, hormaren kontra. Nik hartu bizikleta eta etxera, Mekoletara. Zerran, hara ailegatu nintzenez, bunba! eta bunba! Eta haiei lagun biei ebaki egin zien. TOMAS LOPEZ DE LETONA.

Estaba en camiseta poniéndome los pantalones cortos, cuando sentí el ruido de un avión. Salí inmediatamente al mirador de casa, para ver lo que ocurría. La plaza estaba llena de tropa. Tengo idea de que había algunas fogatas donde se calentaba el café para los desayunos. Todo el mundo miraba para arriba. JESUS AXPE⁹³.

Nosotros estábamos formados en el frontón la compañía de la CNT, así como otros de la UGT, comunistas, guardias de asalto, soldados de Garellano, cuando llegó la avioneta. Creíamos que echarían papeles como la víspera, pero echaron bombas. Bajó corriendo el teniente coronel Vidal y su ayudante, un sargento, gritando: son bombas, son bombas esconderos. Nos echamos al suelo todos... Si llegan a echar las bombas en la plaza hacen una sarracina... Cuando llegamos a la plaza corría la sangre abundante hacía la carretera. Nosotros vivíamos en una casa frente a donde cayeron las bombas, aunque un poco alejado y hasta allí había cachos de cabezas, restos de personas. FELIX PADUN GALLO⁹⁴.

Yo en la plaza. El secretario con la prensa, y nosotros en corro, escuchando lo que él leía. Y en el periódico ponía el mismo día que el Ejército del Aire estaba con la República, y mira, al momento llegó el aparato. FERNANDO ARRIZABALAGA.

93. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 92. or.

94. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 79.or.

Hor goizean, etorri zen kamioi bat, Garellanoko konpainia bat, eta paratu ziren Andikonan. Erregular, plazan [Arrese Beitia plazan] ez zegoen lekurik, jende asko zegoen eta. Eta han paratu eta egon ziren armozutan, armozua egin zuten han. Eta gu, hango mutiko guztiok, pentsaizu, nobedadea zen (...). Joño, ba, nobedadea. Sua egin zuten, Andikonan, Eladia bizi zen etxe aldean, espektakulua. Hango mutiko guztiok... bueno!... denok begira. FERMIN GARMENDIA.

Bonbardeoe egunean, betiko moduan, irten genuen jolastera. 3 mutil: Carmelo Alonso Bernaola, Patxi Ugarte, beste abizena ez dakit, eta neu. Orduan ba, zelan txakurrak-eta asko ibiltzen ziren suelto, ba katu batzuk manejatu egiten zituzten beti ere. Eta katu bat topatu genuen ostekaldean hilda. Eta akordatu zitzaigun entierroa egin behar geniola (...). Hor gure ortuko sarreran zegoen hiru eskaileragaz zulo bat, labaderoa. Orain tapatuta dago. (...)

Hantxe zuloan sartu ginen. Eta han geunden katua enterratzen, geure zeremoniok egiten, eta, ezertarako zer barik, han gure ortuan jausi zen bonba. Guk ez genekien zer zen, baina lurrez beteta geratu ginela bai. Hormak salbatu gintuen. Horma geneukan, metroko horma aurrekaldean, eta hark salbatu. Han jausi zen lehenengoko bonba, geure ortuan. Gero segituan, ba segundoak izango ziren, Andikonan. KOLDO PILDAIN.

Tropa hemen egon zen, plazan. Soldadu guztiak hemen egon ziren, jada soldaduak ere etorri ziren, Garellanokoak. Ni, aita, anaia bi eta hiru lehengusugaz irten genuen Andikonara, bederatziak inguruan. Guk periodikoa hartzen genuen, "Euzkadi" (...) Periodikoa hartzen etorri nintzen, eta orduantxe bonbardeoa. Aitak esan zuen, "ea notiziak, zer datorren, eta gero Basogairantza buelta bat egingo dugu". Egon ginen hiru lehengusuak, nire anaia bi eta ni, ze besteak Ambrosiorenak, Eli eta Joseba txikitxoak ziren, eta beste nire anaiak ere, Koldo eta Jose Ramon, haiek ere txikiak. Haiek ez zuten irten. Gu Basogaira joateko pentsamenduagaz. Eta orduan bonbardeoa. JON LASUEN.

Bonbardaketa hasi eta Jon Lasuenek aita, bi anaia eta hiru lehengusu galdu zituen. Hamar minutu lehenago ibili izan balira, agian denak onik irtengo ziren. Agian bi minutu izango ziren nahikoak. Zenbat hildakoz esan daiteke gauza bera? Eta bizirik irten zirenetatik, zenbatek ez ote zuten esango kontrakoa? Hain gertaera ezustekoa eta bat-batekoa izanik, zoriak zerikusi zuzena izan zuen nor hil, nor zauritu, nor salbatzeko. Batzuetan zorionerako, besteetan zoritxarrerako. Zoritxarrekoen berri beste batzuek ematen digute, ez protagonistek, goiz hartan zoritxarrak heriotza esan nahi baitzuen.

Eran las nueve de la mañana. Mis hermanos habían salido a jugar a la Plaza Andikona, donde solíamos estar los críos. Mi padre era secretario del Ayuntamiento, y estaba de fiesta. Vino el médico a ver a mi madre, que estaba enferma; y después de estar en la visita, salió con él. Pasaba por Andikona, de casualidad, para venir a casa, cuando cayeron las bombas. MIREN LIBE LASUEN GOIKOLEA⁹⁵.

[Ambrosio Lasuener emaztea, Maria] Bonbardeoa izan zenean, bazkaria preparatu behar eta alaba nagusiari esan ei zion: "Eroaizuz hauek umeok. Hartu txaboi zati bat eta hiru -lau pañuelu eta erre kara, entretenitu daitezen, utzi diezadaten hemen zeezer egiten". Eta zer pasatu zen? Bonbardeok harrapatu zituen. Ze hor Andikonan labadero bat egoten zen gurutzea dagoen lekuan. Ba, bien bitartean izan zen bonbardeoa. Hiru ume hil ziren". MARIA PILAR OLASO.

95. BERAZATEGI, I. eta DOMÍNGUEZ, J. *1936 memoria de la guerra en Euskadi*, 1. arg. Bilbao: Radio Euskadi, 2006; 237 or.

Yo vivía en Otxandio cuando se produjo el bombardeo, ya que mi padre, José Antonio Maurologoitia, era médico allá. Si no me pillaron las bombas fue porque estábamos a 4 kilómetros del pueblo, en el baserri de Isabel, nuestra cocinera. Nos habían llevado allá la noche anterior, porque estaba poniéndose fea la cosa. Nos llevaron a mi ama, con la aya, la doncella y los cinco hermanos que éramos. Además, mi madre iba embarazada; cuatro meses después nacería mi hermana la pequeña. Habíamos desayunado cuando vimos pasar los aviones. Yo tenía seis años, y para nosotros ver pasar los aviones era como un espectáculo. Salimos a la campa y vimos que echaban... papeles, creíamos que eran papeles. De repente, las explosiones. Mi madre nos mandó entrar corriendo a la cuadra de las vacas que asustadísimas por el ruido, intentaban soltarse. BEGOÑA MAUROLAGOITIA LLANO BILBAO⁹⁶.

Aquella mañana, me mandó mi madre a por agua, para poner el puchero de alubias. Fui a la plaza Andikona, donde estaba la fuente de agua potable del pueblo. Siempre había allí mucha gente. Yo tenía 9 años, y recuerdo que incluso iban los panaderos, que tenían prioridad para coger agua: allí ponían un balde grande y lo llenaban. Bueno, el caso es que fui y había una cuadrilla grande... todos los que mataron allí... menos yo. Porque yo estuve mirándole al avión en la primera vuelta que dió sobre el pueblo... me quedé mirándolo... Y entonces, cuando iba a volver para dar la segunda, me llamó mi madre, que necesitaba el agua para poner la comida. Así que me fui a casa. A 50 metros de Andikona estaba mi portal... Y, nada más entrar al portal, ya empezó el bombardeo. Por los pelos... ROMAN BENGUA⁹⁷.

Gure ama salbatu zen koinatuagatik [Sebastian Salutregi]. Bonbardeo egunean, hau Sebastian agertu zen gibelurdi handi bategaz, ikaragarritzko gibelurdina. Ama galdarak hartu, ze etxeetan ez zegoen urik, bonbardeo egunean galdarak hartu eta joan zen Andikonara uretan. Eta Sebastian ikusi zuenean perretxiko handi haregaz, esan zion: "Sebastian (...) itxaroten baduzu pixkat tortillatxo bat egingo dizut hamarretakoa egiteko perretxiko horregaz". Eta "bai, bai, bai". Igo zen gora eta hamarretakoa gertu zion. Sebastianek tortilla jan (...) eta irten zuen Andikonarantza. Eta amak galdarak hartu eta bere atzetik, baina distantzian. Eta Sebastian harrapatu zuen bonbardeoak Andikonan. Gure ama sartu zen galdarekin Carmeloren etxera.

Sarri esaten zigun haxe: "Koinatuak salbatu ninduen. Osterantzean ni hilgo nintzen iturrian". Ze iturrian igual 8-11 andre, hori gerra ostean ikusi dut niri tokatu zait eta. Joaten ziren uretan eta igual ordu erdi edo hiru ordu lauden zain egon behar zenuen.

Bueno, ba, horiek, horiek gelditu ziren umezurtz. Ze ama ere hil zitzairen. Neba-arreba guztiak, sei edo zazpi, denak umezurtz. Bata hospiziora, bestea zerera (...) familiak apurtuta geratu ziren. KOLDO PILDAIN.

Jendeak esaten zuen. Paperak, paperak, paperak! Bai, gero eztanda egin zutenean! BIXENTE AMONDARAIN.

Bonbardaketa hasita zegoen. Zenbait otxandioar herriaren kanpoaldean zeuden, eta haietako batzuek euren begiez ikusi zuten gertatutakoa.

Ikusten ziren botatzen, txikitxoak. 3/4eko ardo botilen moduko bonbak ziren, txikitxoak. 60 edo ez dakit zenbat hil ziren! Militarrek oso gutxi, gehienak paisanoak. Gordobil aurre-

96. BERAZATEGI, I. eta DOMÍNGUEZ, J. *1936 memoria de la guerra en Euskadi*, 1. arg. Bilbao: Radio Euskadi, 2006; 237 or.

97. BERAZATEGI, I. eta DOMÍNGUEZ, J. *1936 memoria de la guerra en Euskadi*, 1. arg. Bilbao: Radio Euskadi, 2006; 237 or.

kaldetik ikusten zen botatzen, pin-pan pin-pan. Hurrengoko egunean, Ameriketatik osaba amerikanoak deitu zuen. Hara ere heldu zen bonbardeoaren berria, eta ea familiakoren bat hil den edo. JUAN PADILLA.

22.ean, hantxe, Andikonan. Joño, konturatu nintzen eskua altxatu eta saludatu egiten zutela. Nire lagun bati, Jose Ramon Lasueni, esan nion: "Goazen horra, Basogairaino, hortik hobeto ikusiko diagu eta". Igo genuen Basogaira, ez genituen eroango minutu bi edo hiru, eta ikusi genuen zelan bonbak soltatu zituzten. Bota zituzten, eta esplotatu zuten. Eta hori ikusi genuenean, han Antekilloren txabola esaten dioten lekuan gorde ginen. Eta han gaudela Dolores Pujanaren alaba edo batu zitzaigun, eta hirurok egon ginen, sustatuta. Egingo genituen, ez dakit nik, 15-10 minutu. Gero joan ginen arineketan etxerantza. Andikonatik pasatu behar genuen. Soldadu batzuk kejatzen entzun nituen, baina pasatu nuen Andikona eta ez nuen hilik zapaldu ez ezer ere. Gero bai, Tanborreren hurrengoko atartean soldadu bat zaurituta. Ni joan nintzen gora, etxera. Familian oraindik batzuk falta ziren, baina bentanak eta kontrabentanak zarratu, eta hantxe egon ginen. FLORIAN KAPANAGA.

Auzoan, Garces, Jon, ni baino urtebete gazteagoa, bizi da oraindik. Auzokoak, eta gu Andikonara gentozen, Jon eta biok. Ba, hantxe almazenera, Urrejolaren almazeneren ingurura edo heldu ginenean, brrunba! (...)

Bueno, nik ikusi nituen bonbak, airean ikusi nituen eta luzangak ziren, luzangak. Brilloa ateratzen zuten (...) Brrunba! Bonbak, grupoka, ze piloak bota zituen, piloak, banan-banan bota barik (...) Jon eta biok buelta, eta arineketan. Etxean ere ez ginen gelditu, sustatuta (...) Kruzeroan gaudela, Juliana [Ajuriagerra] soroan, alaba ere, eta soroan jorran. Andikonan gertatutakoari kasurik ez edo, eta soroan jorran. Eta gu hantxe gaudela brrunba!, bonba. Atzera buelta egin genuen, atzera herrirantza. Eta orduan etxean sartu ginen. SANTOS IRASUEGI.

Gu etxe aurrean [Mekoletan], mutikoak ginen, eta aita ezin egon. Ikusi genituen harri handiak bezalako bonbak botatzen eta aita ikusten joan zen. Eta etorri zen pasatuta. Alde batean zapata bat, bestekaldean buru zati bat... Desastrea! Otxandion asko hil ziren orduan! MARCOS IBARRONDO.

Bonbardeoa izan zenean soroan egon ginen, Zerran, aitagaz. Aeroplanoak ibili ziren bueltaka eta han hasi ziren botatzen. "Paperak! paperak! paperak, aita!", Esplotatu zuten bonbok, eta gero handik hartu eta aitak eraman gintuen Tomas "Arrati"-renera. Tomas "Arrati"-reanean egin genituen egun batzuk, eta gero handik etorri ginen etxera. JUAN JOSE GARMENDIA.

Osabak esan zigun: "Ai, ez dakizue zer pasatzen den!" "Zer pasatzen da, ba?" "Bonbardeoa egon da Otxandion, eta erdia hil da!" "Erdia? Exajeratua ez zara izango, ba!", esan zion amandreak. "Hori zelan izango da ba, hemendik pasatu dira aeroplanoak eta". "Artez joan dira Otxandiora, eta Otxandion egin dituzte inon direnak. Andikona guztia, dena apurtu eta denak egin dituzte". Gu egon ginen lau neba-arreba ohean elgorriagaz, bentanatik aeroplanoei begira. ANDRESA LOPEZ DE LETONA.

Y donde tiraron las bombas, en el mismo cantón había dos camiones con cuatro o cinco toneladas, ¡llenas de dinamita! Y en el frontón, cuatro o cinco camiones de dinamita. Y claro, al echar las bombas, había un tal ministro, un tal Albareda, solía venir aquí a veranear, porque su mujer era de aquí. Era de Madrid, Ministro de Gobernación, y enseguida dió la orden: "¡Fuera! ¡Fuera la dinamita de aquí!" Y enseguida la quitaron. Si consiguen dar uno con una bomba allí, adios Ochandiano. (...)

Ahí en Andikona donde hizo la mayor carnicería echó una caja entera [bonbena]. Más luego así a Etxatxo, a la salida de Durango, fué tirando algunas bombas allí, una o dos

cada vez, y mató también allí, a la madre de Carmelo, a la hermana que quedó manca, y a alguno más mató. FERNANDO ARRIZABALAGA.

Beste batzuek herri barrutik egiten digute kontakizuna.

El avión me pareció pequeño de tamaño. Vi cómo tiraba “pasquines” que relucían al sol al caer. Oí que comenzaron a gritar algunos soldados y otros corrían en desbandada, oí estallidos como de cohetes fuertes, repetidos, oí gritos dando órdenes, vi una desbandada atropellada de gente, vi algunos milicianos disparar su escopeta al cielo, no comprendía nada de lo que pasaba y en pocos minutos también vi cómo llegaban a la plaza los primeros heridos a hombros de sus compañeros, y otros extendidos entre dos milicianos. Petronila me arrancó del mirador y me llevó a la cocina para que le ayudara a saltar la ventana hasta el tejado de la fragua de mis abuelos. Extendió una sábana blanca sobre el tejado y la gran cruz roja, hechas con las sobrecamas antiguas rojas. Volví al mirador y vi el consejupe lleno de heridos tumbados ordenadamente en el suelo. JESÚS AXPE⁹⁸.

Abioiak zeuden Andikona plazaren gainean. “Ez! Ez dira paperak! Paketeak dira!” “Bai, baina horiek zabaldu egiten dira lurrera orduko!” Eta 25 urte inguru zeuzkan batek, alboko etxean garajea zeukan batek esan zidan: “Hi, joan hadi eta ekarri itzak paperak! Ekarki zerbait”. Nik ez nuen erakutsi gogo handirik edo, eta esan zidan: “Benga, benga! Joan eta ekarri!”. Agindua zen, eta joan nintzen arineketan. Eta ni bide erdian nindoala, paperok, edo paketeok, heldu ziren lurrera, baina... ikaragarritzko eztanda bat! Ha zen burrundara! Eta, kalean niganantza, ke beltz-beltza. Geratu nintzen... oinak lurrean jositana baneuzka moduan! Ez nintzen kapaz izan ez aurrera ez atzera egiteko. Orduan hasi ziren andre guztiak balkoietara eta irteten, eta, etxera! Eta umeei deika eta. BITTOR KAPANAGA.

Hor kozinero egon zirenak, batzuk ez ziren guztiz hil. Sartu ziren, guk atzeko atea zabalik geneukan, kortakoa, eta sartu ziren kortan. Etzanda topatu zituen aitak, etorri ziren soldaduak eta: “Tenemos frío, echarnos una manta”. (...) Bota zien aitak, baina bertan hil ziren. Zazpi soldadu Garellanokoak. ELOY LARREA.

Hubo gente que, cuando empezaron a caer las bombas, creyeron que eran otra vez papeles. El estruendo fue terrible, ¡terrible! Yo, ni miré por la ventana, tal ere el terror que sentí... Luego nos dijeron que se habían muerto todos, que estaban todos empotrados en las paredes, sin ropa... Un espectáculo horroroso en la Plaza. MIREN LIBE LASUEN GOIKOLEA⁹⁹.

Eta bonbardeoa. Ni hona etorri nintzen, udaletxera, errefugio moduan edo. Gero, aita ikusi nuen ekarki zutela. Hanka biak apurtuta zeuzkan. Gero etxera joan nintzen. Eta zegoen han Andikonan dena... hilak oraindik altxatu barik, dena apurtuta... Hau koadroa, Santirena, ba holantxe. Vicinay-ren etxea ere dena guztiz apurtuta. JON LASUEN.

Kaosari eta espektakuluaren gordinari nolabait gaina hartuta, miliziano eta militarrek erantzuten saiatu ziren. Metraileta batek eta zenbait fusilek zerura apuntatu zuten.

98. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 92. or.

99. BERAZATEGI, I. eta DOMÍNGUEZ, J. *1936 memoria de la guerra en Euskadi*, 1. arg. Bilbao: Radio Euskadi, 2006; 237 or.

Herrian sakabanatuta edo ihesean zeudenen tiro bakanez gain, udaletzeko plazatik eta kanpandorretik ere egiten zuten tiro. Batzuek Arrese Beitia plazan kokatzen dute metrailleta eta elizan fusilak¹⁰⁰, beste batzuek kanpandorrean metrailleta eta plazan fusil tiroak¹⁰¹. Dena den, denak datoz bat ezer gutxirako balio izan zutela. Gauzak horrela eta bonbardaketak irauan bitartean, ikusitakoaren kontakizuna ihesaldiaren ahaleginarenarekin nahasten da. Batzuek etxe barruetan bilatu zuten babes. Baina bonbek aise zeharkatzen zituzte teilatuak, eta modu horretan aurkitu zuten heriotza otxandioar batek baino gehiagok.

21ean aeroplanoak hasi ziren baju-baju, eta arratsalde guztia abioiei begira. Hurrengoko goiza, 22a, ohetik altxatu, eta ensegida aeroplanoak. Nik ez dakit nengoen ortozik edo zelan nengoen, orduantxe ohetik altxatu berri. Eta abioiak. Zarata haundi bat entzun genuen (...) Bittor kalerantza joan zen, ez dakit nork bialdu zuela abioiek botatzen dituzten paperak batzen. Ni barruan nengoela, zarata haundi bat entzun nuen. Irten nuen balkoira, eta begiratu nuenean Andikonarantza, Andikonan ikusi nuen dena kea (...). Irten zuen gure alboan bizi zen militar erretiratu batek, Omegan egiten zuen beharra, eta hark irten zuen etxetik 3-4 umegaz: “¡Al campo, al campo, que son bombas!”. Irten genuen etxetik. Bittor ere ensegida etorri zen, ama, Bittor eta ni. Eta joan ginen Basogaitik gora. Gure ondoan ortua zeukatzen Eloy Larrearen gurasoek, eta han zegoen anaia bat, Eloyren anaia, Ubaldo. Eta hark ere Basogaitik gora egin zuen gugaz. Han egon ginen lubagain baten, ama, Bittor eta ni eta Ubaldo. Gu hantxe seguru geundelakoan... Aurrean zegoen Matilderren Sagardoia esaten geniona. Han jausi ziren hamahiru bomba, txikiak baina hamahiru, eta metraila hanketatik zehar. Eta gure atzean soldaduak abioiei tiroka. “Hemen txarto gaude”, eta bajatu ginen arineketan. Hanka batean zapata eta bestean abarketa neramatzan. Eta, etxean sartu barik, hartu genuen Kerexarantza. Kerexaran jende pilo zegoen, arineketan martxatuta, eta handik, Irupagoetatik zehar, basorik baso Berrizera. LOURDES KAPANAGA.

Etzan nintzen ni. Ama eta arreba lehenengo, bera gero eta ni atzena. Amak deitu zidan, “Bittor, etorri hona, elkarregaz hil gaitezen”. Halako batean, bun-bun-bun! hamaika bomba bota zizkiguten inguruan. Eta gu, zangan, etzanda(...) Hiltzen. Hil behar. Eta berriro bizirik. BITTOR KAPANAGA.

La columna principal replegada a Ochandiano recibe un bombardeo de aviación justo al ir a dar las novedades el teniente coronel y encuentro en la plaza a un sargento de Asalto haciendo fuego con una ametralladora, las calles desiertas y un herido con el muslo roto y salido en la cadera que trato de socorrer y no puedo con él, grito para que socorran a otros heridos y haciéndolo escapo a ver si también han bombardeado a mi columna. JUAN IBARROLA¹⁰².

Autoridadeak hasi ziren deika, eta jende guztia kanpora bialtzen. Esan ziguten kanpora joateko, ze osterantzean atzera ere bonbardeatzen etortzen badira zertuko ginela. Ama, ni eta beste hiru anaia joan ginen, Oletarantza joateko. Oletarantza goazela atzera etorri ziren, eta korta batera sartu ginen. Apur bat alderatu zirenean, Oletarantza gu. Bidean,

100. AGUIRREGABIRIA, Josu M. eta TABERNILLA, Guillermo. *El frente de Álava. Primera parte. De la sublevación a vísperas de la batalla de Villarreal*, 1. arg. Bilbao: Ediciones Beta, 2006; 186 or.

101. Irargi / Bidasoa Funtsa / 15.04.

102. JUAN IBARROLAren testigantza, Guardia Zibileko kapitaina eta Ubideko destakamenduko nagusia. In: AGUIRREGABIRIA, Josu M. eta TABERNILLA, Guillermo. *El frente de Álava. Primera parte. De la sublevación a vísperas de la batalla de Villarreal*, 1. arg. Bilbo: Ediciones Beta, 2006; 30. or.

miliziano bat ikusi genuen Mañondon, hurriz artean, adar artean, eskopeta bategaz tiroka aeroplanoei. Zer egingo zion ba! Oletan, Fulgen eta bizi ziren lekuan egin genituen egun bat edo bi. Ha ere jendez bete zen, han ez ginen kabitzen. Joan ginen Itzara, beste baserri batera. Han ere egin genituen egun batzuk, baina han ere larjende, eta beste norabaitera alde egin behar. Joan ginen Berrizera, hamabost egun edo. Han ere kantsatu, edo hainbeste traba ez egitearren edo, joan ginen Mañairra. Senide batzuk geneuzkan, aitaren aldetik. Baina denak geratzeko ere asko ginen. Ama anaia txiki biekín geratu zen han. Gu Durangora bialdu gintuen. Ni eta nire anaia Jose egon ginen Altube pilotariarenean, aitaren laguna zen eta. Beste anaia, Juan Leon, Ezkurdin". FLORIAN KAPANAGA.

Poco después de que cesasen las bombas, pasaron coches tocando las bocinas: llevaban heridos hacia Bilbao. Mi madre estaba preocupadísima: "Y cómo estará mi marido, cómo estará..." Mi padre estaba en el lugar de las bombas, en la plaza Andikona, atendiendo a todos los que pudo. Allí estuvo. Luego nos contó que tenían que espantar a los perros, para que no cogiesen los brazos y las piernas de los mutilados. Por toda la plaza había esparcidos miembros y trozos de carne. BEGOÑA MAUROLA-GOITIA LLANO BILBAO¹⁰³.

Otxandioko bonbardaketaren deskribapenik emotiboenetakoa Jose Antonio Maurolagoitia medikuak sarraskia gertatu berritan egindakoa da. *Euzkadi* egunkariko berrie-maleak jaso zuen, uztailaren 23an. Jose Antonio Maurolagoitia Pedro Egiaren etxean zegoen, etxeoandrea gaixorik zegoela eta:

Observé que uno de los aviones lanzaba algo al espacio. Creí que serían proclamas, porque la verdad no podía imaginar otra cosa. De esta creencia me sacó el ruido horroroso de varias explosiones, verdaderamente bárbaras. En la casa del señor Eguía, las formidables detonaciones produjeron un movimiento de alarma que yo me apresuré a cortar. Hice que renaciera la calma y ayudé a transportar a la enferma a los bajos de la casa para mayor seguridad. A continuación salí a la calle dirigiéndome a la plaza Andiconna.

Nada más terrible a pesar de haber asistido, dado el carácter de mi profesión, a episodios dolorosísimos, que la visión de la plaza Andiconna. No eran los tejados desvencijados, ni las líneas eléctricas derribadas. Era algo más grave y más terrible; era el dolor humano. Gente despedazada, niños mutilados, mujeres decapitadas. Eran los gritos de los aldeanitos, en euzkera, suplicándome que los curara; era el torrente de sangre que corría hacia el agua de la fuentequilla que se levanta en la mitad de la plaza.

Requerí el auxilio de algunos, que me fué prestado urgentemente y con toda solicitud. Con sábanas, con tiras de sábanas, procedí a realizar curas urgentes. Había algunos, muchos, que por desgracia, no necesitaban nada. Habían perecido segados por la metralla bárbara de muchas bombas arrojadas dos veces.

Otros niños y niñas, con extremidades colgando, recurrían a mí con frases euzkericas que todavía tengo clavadas en mi corazón¹⁰⁴.

Beste lekukotasun gordin bat Gobernu Zibilarentzat egindako txosten batean idatzitakoa da.

103. BERAZATEGI, I. eta DOMÍNGUEZ, J. 1936 *memoria de la guerra en Euskadi*, 1. arg. Bilbao: Radio Euskadi, 2006; 237 or.

104. *Euzkadi*. 1936-7-24.

Giza gorputzadar erauziak, errai pilpiragarriak eta beren gorputzetik metrailak ebakitako buruak oraindik keinuka ari direnak, lurrean barreiatuak. Buru-muinak paretei erantsita. Hankarik gabeko haurrak edo beso baten faltan hondakinetak txintxorren artean odolustutzen, berarengana jotzen dute larri euskaraz lagun diezaiela eta salba ditzala eskatuz. Emakumeak hiltzorian beren bularraren kontra semea izan zutenaren gorpuzkinak estutuz. Hondakinen azpian garrasiak eta ahuen estuak entzuten dira. Laburbilduz: gerraren basakeria bere gordintasunean eta egiazkotasunean¹⁰⁵.

Halako batean, utzi zioten bonbak botatzeari. Egoera negargarria zen Otxandion. Plazan, hildako eta zauritu andana, euren oinaze oihiak eta umeen negarrak, odola eta gorputz zatiak edonon, etxeak zartatuta eta hormak metrailaz beterik. Plaza inguruan, jendea korrika, batzuk ihesean edo ezkutuan oraindik, beste asko jada laguntza antolatzen saiatzen, oihiak eta aginduak. Medikuek eta erizainak hara-hona, ahal zutena egiten. Gorpuak eta zaurituak Arrese Beitia plazara eraman zituzten, eta odol ospitale bat inprobisatu zuten han.

Kaosa, oinazea, ihesa, larritasuna senideen bila, hurkoari laguntzea. Denak nahasten ziren.

¡Buf la escena! Todo cristo llorando. Todos llorando, el uno por un lado, el otro por el otro... Todos llorando. Llorando, un pánico... ¡Buf! Gente de todos los sitios. Gente del pueblo, y mucha gente, como coincidían las fiestas de aquí, pues mucha gente, parientes o hijos (...) Y luego la tropa, milicianos y soldados de Garellano. Pero gente, todo lleno. FERNANDO ARRIZABALAGA.

Ikusi bazenute orduan, gu etorri ginenean hona, familia guztia, eta paratu ginenean hemen... zelako mutil piloia egon zen hilda alde guztietan! Madre-padre! JOSE LUIS OLASO.

Al salir del pueblo pasamos por la plaza de Andicono donde había estado una cocina militar repartiendo desayunos y donde algún desalmado dejó caer su carga de bombas asesinas, porque aquello fue un asesinato. En esa plaza murieron siete personas de mi apellido. JESUS AXPE¹⁰⁶.

Santi Kapanaga otxandioar margolariari buruan iltzatuta geratu zitzaion bonbardaketa osteko Andikona plazaren irudia. Ez da gutxiagorako, hamaika urterekin bizi zuena traumatikoa da. Bere kontakizuna bereziki gordina da:

Bonbak eztanda egitean atarian zegoen Santi (koadroaren erdialdean eta sakonean ageri den atarian, ondoan txakur bat duen horretan). Bere parean, lurrean botata, ke, hauts eta odol artean, izeko-osabak eta hiru lehengusu. Izekoagana doa: *Yacía. Le volví la cara para decirle a dónde había ido mi madre. Del moño le agarré, le volví la cabeza y estaba muerta.* Hilda, osaba eta hiru lehengusuak bezala. Orduan Loreto Biterik plaza erditik deitu egin dio, hurbiltzeko (iturriaren aurrean lurrean luze dauden bi emakumeetako bat da). *Santi hona*, diotso. Santi hurreratu eta, *Esan amari...* eta

105. EGAÑA, I. eta beste zenbait. 1936. *Gerra zibila* (III. liburukia). 1. arg. Andoain: Aralar, 1999; 210. or.

106. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbo: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandio Jai Batzordea, 2006; 94. or.

bertan hil zaio. Orduan, kamioi bat dator zaurituak jaso eta handik eramatera. Santi odolez blai dago, baina odola ez da berea, osabarena baizik. Kamioian sartu dute, bertatik salto egin eta plazaren beste alderantz doa. Bidean, soldadu batek laguntza eskatu dio. Beso bat moztuta dauka, zintzilik, uniformearen oihalak ozta-ozta eutsita. Plaza ondoan bizi den osaba baten etxerantz doazela, bigarren soldadu batek erregutu dio laguntza. Atzealde guztia, burutik hanketara, haragi bizian dauka. Biek bere gorputza makulu hartuta, osabarenera heldu dira. Osaba karlista da, medikua ogibidez, baina erretiratu. Zaurituak sartzeko esan ondoren, zaplaztekoa eman dio Santiri. Santi handik irten eta beste izeko-osaba batzuegana doa babes bila. Osaba atarira agertu eta beste zaplazteko bat eman dio. Alde egin, baina nora joan ez dakela ikusita bueltan dator berriz. Oraingoan etxera sartuko dute. Gaua heldu arte, odolez beteta, gela batean eman zuen eguna. Orduan berak hilda uste zuen ama agertu zitzaion bila. Garbitu eta herritik kanpora eraman zuen amak. Gerora, osabetako bati galdetu zion ea zergatik jo zuen. Erantzuna, *bizien artean baino gehiago hilen artean* zegoelako, eta erreakzionatu zezan.

Argazki hura “Andikona Zorigaitzean” izeneko koadrora eraman zuen gerora, zehaztasun handiz. 1962an pintatu zuen, bonbardaketa gertatu eta 28 urtera. Bere lehendabiziko margolana izan zen. Iturriko odola, garbitzera eramandako arropa baldekadak, militarrek, milizianoak, zibilak, haur ugari... Hildako askoren kokalekua ere gogoan geratu zitzaion. *Yo quería justificar y dejar testimonio de lo que vi aquí (...) Para no olvidar*. Guardia Zibilak hiru aldiz deitu zion kuartelera, koadroa non zegoen galdezka. Hirugarrenean sinetsi zioten koadrorik ez zegoela. Gauzak horrela, margolanak urteak eman zituen lastategi batean ezkutatuta.

Otxandiora bueltatuz, eguerdi aldera susto ederra hartu zuten berriz ere. Beste hegazkin bat pasatu zen herri gaineretik. Ordukoa, ordea, horretan geratu zen. Abioia, Bilbon esku-orriak botatzetik bueltan zetorren. Ordurako, edonola ere, otxandioar gutxi zegoen herrian¹⁰⁷. Otxandiok uztailaren 22koaren ondotik eta ofentsiba aurretik pairatu zuen bonbardaketa latzena, abuztuaren 26koa izan zen. Irundik etorritako hegazkin batek 120 kiloko 7 bonba jaurti zituen Otxandioko kaleetan, eta zulo handiak egin zituen. Orduan ez zen heriotzarik izan, agian kanpandorreko metrailadoreak garaiz jarri zirelako lanean, hegazkinei zehaztasuna eragotziz. Bonbardaketa hura ordu batzuk lehenago miliziano talde batek egindako ekintzaren erantzuna izan zen, Iñaki Egañaren ustez. Milizianoek Gasteiz hornitzen zuten ur-biltegiak leherrarazi zituzten¹⁰⁸.

3.3. Erreakzioa

Berehala hasi ziren herritarrak eta milizianoak antolatzen eta elkarri laguntzen.

Zibilen ardura nagusia senideak aurkitu, ondo zeudela ziurtatu eta oraindik herrigunean izatekotan Otxandiotik alde egitea zen. Hasierako uneetan, baita bonbardatu

107. IRARGI / Bidasoa Funtsa / 15.04.

108. EGAÑA, I. eta beste zenbait. 1936. *Gerra zibila* (III. liburukia). 1. arg. Andoain: Aralar, 1999; 211. or.

bitartean ere, irakurri dugunez, Oleta, Anteparaluzeta, Amaitermin eta Mekoletako baserri eta basoetara alde egin zuten ia denek. Beste askok urrunago ere egingo zuten ihes hurrengo ordu eta egunetan. Ahal zutenek, lagunen eta batez ere senideen etxeetara, behintzat gauzak argitu eta baretu artean.

Lehenengoko bonbardeotan, Oletara. Mañondo gainetik, galtzadatik joan ginen, arineketan. Oletan egin genituen hiru-lau egun eta handik joan ginen Abadiñora. Martxan, beti martxan. Eta puska bat lasaitu ginenean, atzera bueltan etxera. Bolalekuan egin zuten errefugioa, eta ni beti han. Amak bazkaria ere hara eramaten zidan, ze nik etxera ez nuen gura etorri eta. Beti beldurretan, bonbardeoa zela eta. BASILI URIGOITIA.

Bonbardeo ostean, arratsaldean, nire ama eta Bilbora joan ziren eta ni gelditu nintzan Otxandion... Erremigio, alkateak, CNTko kotxe batean sartu eta Bilbora bidali ninduan eta orduan Bilbon gelditu nintzan. JON LASUEN¹⁰⁹.

Bonbardaketa amaitu zenean joan ginen Mekoletara. Han familia bategaz lagunak ginen, eta egon ginen bertan egun bat. Eta hurrengoko egunean joan ginen Bilbora. Bilbon denbora asko pasatu genuen. Aita eskola barik, eta bertan. Gero egun batean nire aita izendatu zuten Arrietan, Mungia inguruan, maisu. Bertara joan ginen bizitzen. EMILIO DONADO.

Batzuek inguruko etxeetara edo senide eta lagunengana jo bazuten, halabeharrez, besteok hartu egin zituzten euren etxeetan.

Otxandio bonbardeatu zutenean, beldurra. Eta ahal izan zuenak martxatu, nahi izan zuen martxatu handik. Gurean egon ziren Luisita telefonista, bere aita Txinpas, ama Adela, eskola maisua, Luis Mari eta Don Emilio. Etorri ziren Mekoletara eta egon ziren egun batzuk, asko ez. Beldurra. PEDRO ORUE.

Egoera latza suertatu zen, alde askotatik. Zenbait etxetan jende asko pilatu zen, eta bonbardaketatik ihes egindakoak hartu zituzten familiak ez zeuden denak egoera berean, eta izaerak ere askotarikoak ziren. Herritar batzuk batera eta bestera ibili ziren egun horietan. Elkartasuna eta eskuzabaltasuna nagusitu ziren, baina tentsio unerik ere izan zen. Bixente Amondarainek horren adibide bat ematen digu. Bonbardaketa ostean familiarekin Muñegira joan zen, izeko baten etxera. Egun bakarra zeramatela bertan, izekoa eta auzokide bat hizketan:

Aldameneko horrek esan zion (izekoari):

- Juana, nor duzue hori ba?
- Hori Otxandioko koinata da.
- Bai, ez egiozu kasurik egin, ze gaur jendeak manteniduta irteten du etxetik. Bonbardeoa zelan izan zen, herriak ebakuatu eta holantxe jun ginela eta... (...)
- Amak entzun zer esan zion! Hasi zen negarrez..! Gure izekoak nahi zuen disimulatu...
- Ez dugu esan horrelakorik!
- Nik ondo entzun dut, bai, eta badakit zer esan duen horrek. Eta zuk ere entzun duzu. Zer egin zuen? Hurrengo egunean Otxandiora. BIXENTE AMONDARAIN.

109. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 82. or.

Otxandion, berriz, premiazkoena zaurituz arduratzea zen. Kontzejupera eraman zituzten, hildakoekin batera. Zaurituz bertan zeuden mediku eta erizainak arduratu ziren. Eta horiez gain, Bilboko Ospitale Zibiletik Jose Luis Oper Abadia, Jose Luis Arenillas, Lorenzo Del Hoyo, Angel Odriozola eta Alfonso GARCÍA Borreguero sendagileak etorri ziren. Gurutze Gorriak Pedro Cortes doktorea eta osasun-langile batzuk bidali zituen, eta Durangotik Felipe de Legorburu medikua iritsi zen¹¹⁰. Litekeena da sendagile boluntario gehiago etorri izana ere, Axpe kasu, irratiz berria eman eta laguntza eskaera egin baitzen. Oldargi milizianoak udaleko odol ospitalera 50 koltxoi eraman zituen kamioi batean Euskal Arropategitik; (...) *cuando llegó estaba toda la parte baja del Ayuntamiento llena de sangre*¹¹¹.

Mañarian larrialdiari aurre egiteko osasun postua antolatu zuten bien bitartean Jenaro Elorriaga eta Jose Luis Eskubi medikuek, ELAko praktikanteek eta Emakume Abertzale Batzako erizainek. Zaurituak bertara eta Durango eta Bilboko Ospitalera eramaten zituzten kamioiz, kotxez edo ahal zen moduan. Larrien zeudenak, Bilbora¹¹².

Cruz Roja edo antolatu zuten. Hil zirenak eroan eta zaurituak kotxeetan eta kamionetetan-eta eroan zituzten Bilbora eta Durangora. JON LASUEN.

Volví al mirador y vi el consejupe lleno de heridos tumbados ordenadamente en el suelo. Les atendía una enfermera alta, fuerte, muy rubia con bata blanca y un médico maduro, delgado, alto también y con bata blanca. Los gritos que se oían eran ezeluznantes, unos de dolor y aguno dando órdenes. Pedían ambulancias y coches para evacuarlos, sábanas para hacer vendas, colchones para acomodar a los que pudieran y voluntarios que supieran atender un herido. Me retiré medio mareado y cuando recuperé fuerzas y me calmó Petronila, no se cuanto tiempo había pasado: Vi ante el Ayuntamiento dos camionazos de porte nuevo que los reconocí como de transportes Olabe o transportes Zarandona, de alguno de los dos transportistas, porque pasaban dos o tres veces por semana por el pueblo ya que se dedicaban al transporte de vino de La Rioja a Bilbao. Con las cartolas abiertas se cargaba a los heridos, a la voz de un voluntario que gritaba: vivo o muerto. De esa forma se cargaban en uno u otro camión, para trasladarlos a Bilbao. Recuerdo que, viendo aquel espectáculo dantesco, apareció mi padre con su bata blanca, el fonendoscopio colgándole del cuello y brazaletes amarillo de médico.

Zarandeándome con insistencia me preguntó por la familia. Al decirle que no había víctimas se tranquilizó y con su maletín de urgencias se adentró en el consejupe para enfrascarse con los heridos. Pasado un tiempo, no sé cuánto, y muy manchado de sangre, volvió y me dijo que tranquilizara a mi madre y hermanos, que veraneaban en casa de mi tía Eleuteria. Que había venido en una ambulancia de Bilbao al enterarse por la radio en su consulta, que pedían auxilio para socorrer a los bombardeados de Ochandiano, y que cuando pudiera se acercaría a casa para abrazarnos a todos, pero que de momento no podía y que esperarán. Así lo hizo cuando creyó terminar su labor. Era ya el anochecer y él había llegado a mediodía. Habían venido abundantes cuerpos médicos desde Bilbao, que trabajaban ardiente pero ordenadamente. La cosa parecía que estaba controlada, dentro de la catástrofe. En cuanto pudo, mi padre, nos acercó a todos: mi madre, mis tres hermanos y yo a una camioneta conducida por un mendigoisale que tenía que volver

110. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 30. or.

111. Gudari Gazteena. *Vida y política de los gudarís*, (autoedizioa). 134. or.

112. *Euzkadi*. 1936-7-24.

a Bilbao, muy amable y cariñoso con mis asustados hermanos pequeños y mi madre. Se apellidaba Landeta creo, no le olvidaré jamás en la vida. Pasados cincuenta años de aquello, un día se acercó un muchacho a mi hermano y le dijo: yo soy nieto de aquel gudari y en casa se conserva aún un duro de plata que le dió el Dr. Axpe a mi abuelo, en recuerdo. Salía la camioneta para Bilbao y llevaba dos personas importantes con él en la cabina, debían de ser autoridades. Le hicieron sitio a mi madre en la cabina, bajaron la cartola trasera y nos metieron a los cuatro hermanos en ella, en esa cartola llevaban muchos trozos de metralla y algunas bombas vacías. Estábamos ateridos de frío y abrazados los cuatro hermanos. JESUS AXPE¹¹³.

Hildako asko zegoen. Identifikazioa ez zen erraza. Gorpu batzuk erabat deseginda zeuden, eta gorpu zati asko ere bazegoen. Gainera, egun haietan herrira bere kabuz joandako miliziano boluntarioak asko ziren, jaiak igarotzera kanpotik etorritakoak ere hainbat, eta askok ez zuten dokumenturik aldean. Identifikatutakoak zein identifikatu gabeak, denak hilobiratu beharra zegoen. Lan desatsegin hori egokitu zitzaion Fernandori:

En Ochandiano se enterraron los que no tenían documentación o no se podía aclarar nada de ellos. O sea que todo aquel que tenía documentación se enterró aparte. Pero muchos que no tenían ninguna acreditación de nada, acordaron hacer una tumba para todos.(...)

Después de que hicimos la tumba, ya eran las seis de la tarde, les dije yo a los compañeros: “Mira, yo no puedo resistir más”. Porque hacía un calor terrible, y luego el olor que tiraban los muertos... Les dije: “Yo no puedo más, yo me voy”. FERNANDO ARRIZABALAGA.

Hurrengo egunean herriak jenderik gabe jarraitu zuen. Bonbardaketak sortutako izua-
ren adierazletzat hartu dezakegu *Euzkadi*-ko berriemaileak jasotakoa. Otxandioko bizi-
lagunak ganaduaz arduratzeko ere ez ziren agertu:

Otxandiano, cuando llegamos, se encuentra casi vacío. Las precauciones adoptadas son enormes. La población civil continúa ausente. Por la mañana soldados y paisanos integrantes de la columna han tenido que hacerse cargo del ganado, pues este había quedado encerrado en sus cuadras y era preciso alimentarlo¹¹⁴.

Egoera honek luze jo zuen. *Euzkadi* egunkariko korrespontsal berak herriak hutsik jarraitzen zuela idatzi zuen uztailaren 26ko edizioan. Abuztuaren 1ean, ia hamar egun igarota, otxandioarek herritik kanpo jarraitzen zuten. Egun horretako udal bilkuran adostutakoaren arabera, ez zuten espero normaltasunera bueltatzea, epe laburrean ez behintzat:

Para abastecer de víveres a la población civil de esta villa, refugiada en los caseríos de Olaeta, Anteparaluceta, Amaitermin y Mecoleta, a consecuencia de los execrables y luctuosos sucesos (...) se resuelve establecer dos depósitos, uno en la taberna de Olaeta y otro en el garaje de D. Atanasio Aranguren (...) expenderán los géneros a los vecinos que lo soliciten a los precios de tasa establecidos por el Gobierno Civil llevando una

113. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 92-94. or.

114. *Euzkadi*. 1936-7-24.

relación de los mismos, para que pueda realizarse el cobro de las expenciones, tan pronto como lo permitan las circunstancias a criterio de la corporación¹¹⁵.

Ordurako, hala ere, familia gutxiago zegoen esandako lekuetan. Uztailaren 28an, EAJk ebakuazioa antolatu zuen, nahi zuenak Otxandiotik alde egin zezan. Antonio Perez Arregi izan zen arduraduna. Bost kamioitan banatuta, 50 bat familia abiatu ziren beste toki batzuetara. Gehienak, Bilbo aldera; batzuk, Emakume Abertzale Batzako kideen etxe partikularretara, eta, beste batzuk, senideengana¹¹⁶.

3.4. Hildakoak

Otxandioko bonbardaketan hildako pertsonen zerrenda osatzea ez da lan erraza. Informazio partzial txiki asko ditugu, askori galbahea pasa behar zaie, eta batzuetan, gainera, batzuk eta besteak ez datoz bat.

Datuak ematen lehenak orduko hedabideak izan ziren. *El Pensamiento Alavés*-ek 22an bertan eman zuen berria, baina daturik eskaini gabe (*La aviación causa graves daños; La aviación ha infringido esta mañana un duro castigo*)¹¹⁷. Bi egun geroago, bonbardaketaren inguruko datuak lortu zituztela esan zuen egunkari berak, baina jarraian zigorra oso gogorra izan zela baino ez zuen zehaztu¹¹⁸. Bizkaiko prentsak bai eman zituen zenbakiak eta izen-abizenak, baina ohartaraziz zerrenda osatugabea zela eta hildakoak askoz gehiago zirela. *El Nervión*¹¹⁹, *El Liberal*¹²⁰ eta *El Noticiero Bilbaíno*¹²¹ berripaperek datu berdín-berdinak eman zituzten, Basurtuko Ospitale Zibiletik eskuratuta. 8 hildako eta 24 zauritu zerrendatu zituzten, hauetariko asko oso larri. *El Nervión*-ek azaldu zuen zaurituak, Durangora eta Bilboko Ospitale Zibilera ez ezik, Erdiguneko eta Zabalguneko larrialdi postuetara ere eraman zituztela. *Euzkadi*-k informazio osoagoa eman zuen, berriemailea herrira bertaratu zen eta: 27 hil, izen-abizenekin, eta identifikatu gabeko 12 gorpu (norenak ziren jakiterik ez zegoen gorputz zatiez gain)¹²².

Bibliografiari eta agiritegietako dokumentuei dagokienez, datuen dantza izugarria da. Hasteko, gerra garaian bertan idatzitako dokumentu pare bat dugu. 1938ko uztailaren 23tik 27ra bitartean Parisen egin zuten Bakearen Aldeko eta Hiri Irekiak Bonbardatzearen Kontrako Konferentzia Handirako txosten bat idatzi zuen EAJko ordezkariak, Agustin de Alberro Pikabeak, Euskal Herriaren Parisko Delegazioak emandako datue-

115. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1936-8-1.

116. EGAÑA, I. ETA BESTE ZENBAIT. 1936. *Gerra zibila* (III. liburukia). 1. arg. Andoain: Aralar, 1999; 211. or.

117. *El Pensamiento Alavés*. 1936-7-22.

118. *El Pensamiento Alavés*. 1936-7-24.

119. *El Nervión*. 1936-7-23.

120. *El Liberal*. 1936-7-23.

121. *El Noticiero Bilbaino*. 1936-7-23.

122. *Euzkadi*. 1936-7-22.

kin. Txosten horren arabera, hildakoak 57 izan ziren¹²³. Antzeko zenbakiak eman ziren Ameriketara joandako euskaldunek 1938an egindako lan batean: 52 hildako eta zauritu ugari¹²⁴. Geroago idatzi zuen Sabino Apraiz gudariak *Otxandiano* dokumentua. Idatzi horretan, berak zuzenean bonbardaketaren biharamunean Otxandion jaso zuena eta 1955. urtean Ibarrola Guardia Zibileko kapitainak konstatutakoa batu zituen. Kontakizunaz gain, eraildakoen zerrenda osatugabea ematen du, eta egindako lehenengo zerrendan 84 hildako baieztatu zirela dio, tartean 45 ume eta Garellanoko 25 soldadu, honela ohartaraziz: *No se cuentan los desaparecidos, destrizados totalmente por la metralla y cuyos despojos no son utilizables para la identificación*¹²⁵.

Ondorengo historialarien lanei erreparatuz, ematen du hasierako datu hauek, batzuk edo besteak, erabili direla gerora oinarri moduan. Aizpuruk, Egañak eta Azkuek 80tik gorako kopuru hauek ematen dituzte euren lanetan, esaterako. Flores eta Bazterrak edo Chuecak 50 ingurukoak¹²⁶. Lanon artean, datu berri esanguratsu bakarria Egañak emandako zauritu kopurua da, 113.

Bi historialari nazionalek ematen dizkiguten datuak zuzenean propagandatzat hartu ditzakegu. Gerora Durango eta Gernikako bonbardaketekin egingo zuten bezala, gezurra erabili zuten euren alderdiaren ekintzak eta ardurak zuritzeko. Tebib Arrumik ez du hildakoen zenbatekorik ematen, baina zibil bakarrik ume bat eta emakume bat izan zirela idazten du¹²⁷. Salas Larrazabalek 23 zauritu eta 7 hildako ametitzen ditu (hildakoak emakume bat, bi neska eta lau militar)¹²⁸.

Euskal Herri mailan, gerran hildakoen izen-abizenak jasotzeko egin diren saiurik sakonena Egañaren liburua eta Aranzadi Elkarteak Eusko Jaurlaritzarentzat gidatutako lana dira. Egañak bere lanean Apraizen datuak dakartza. Aranzadiren lanak Otxandio-ko bonbardaketari dagokionez 13 pertsonaren datuak bakarrik ematen dizkigu. Baina Otxandioko herritarrek ere iturri garrantzitsua izan dira.

Orain arte argitaratutako eta idatzitakoaren artetik datu gehien eta fidagarrienak ematen dituena Irazabalen liburua da, Otxandiok Gerra Zibil garaian sufritutakoak jorratzen baititu. Zailtasunak eta hutsuneak seinlatu ostean, eraildako 55 pertsonaren datuak

123. IRARGI / Eusko Jaurlaritzaren Funtsa / GE-0052-07.

124. DE AMORRORTU, Sebastian eta Semeak. *Informe sobre la Guerra Civil en el País Vasco*. Diciembre, 1937, 1. arg. Buenos Aires: 1938; 62 or.

125. IRARGI/Bidasoa Funtsa/15.04.

126. Iñaki Egañak 84 hildako eta 113 zauritu (EGAÑA, I. ETA BESTE ZENBAIT. 1936. *Gerra zibila (III. liburukia)*. 1. arg. Andoain: Aralar, 1999.). Mikel Aizpuruk 84 hildako gutxienez (AIZPURU MURUA, M. "Gerra Zibila Euskal Herrian. Bide berriak: Legutioko erasoaldia", In: *Uztaro*. 67.zbk., 2008. 33-56. or.). Koldo Azkuek 80 hildakotik gora (AZKUE, K. *Irrintzi. Grito de libertad* (I. liburua), 1. arg. Bilbo: Editoriala, 2006.). Chuecak 55 hildako eta 40 zauritutik gora. (CHUECA, Josu. "Gerra Euskadin. Bilakaera historikoa". In: ERRAZKIN AGIRREZABALA, M. eta AGIRRE-MAULEON, J. *1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*, 1. arg. Bilbo: UEU, 2009; 29-48. or.). Flores eta Basterrak 54 hildako (FLORES, txema eta GIL BASTERRA, Iñaki. *Araba en 1936: Guerra y represión*, 1. arg. Gasteiz: Arabera, 2006).

127. Tebib Arrumi. *La conquista de Vizcaya*, 1. arg. Valladolid: Librería Santaren, 1938.

128. SALAS LARRAZABAL, Jesús. *Guerra aérea 1936-39* (3 liburuki), 1. arg. Madril: Instituto de Historia y Cultura Aeronáuticas, 1998.

ematen dizkigu Irazabalek. 55 horiei Mañarian lur emandako hamabi urteko mutiko ezezagun bat gehitu behar zaie; 56 guztira, beraz.

Hildakoen kopurua eta euren izen-abizenak jakiteko eskura ditugun iturri zuzenenak eta erabilgarrienak Otxandioko eta Mañariko udaletako erregistro zibilak dira. Iturri zuzenak dira baita Bilboko Ospitale Zibileko eta Durangoko Ospitaleko dokumentazioa ere. Otxandioko erregistroak 33 lagunen datuak ematen dizkigu, Mañarikoak 12renak, eta beste hainbeste lortu ditugu Bilboko Ospitale zibiletik. Durangoko Ospitaleko irteera eta sarreraren liburuak hildako bakarraren berri ematen digu. Izen batzuk errepi-katuta agertzen zaizkigu.

Iturriak eta aukerak aipatuta, gabezia eta hutsuneentzako txanda:

Hasteko, zaila da iturri batzuk eta besteak konparatzea. Gutxitan bada ere, zenbaitetan ageriko kontraesanekin aurkitzen gara. Gehiagotan egiten dugu topo ezberdintasun txiki ugariarekin, batzuetan pertsona berari buruz ari diren zalantzan jartzearino (abizen berdinak baina izen ezberdina, izen-abizen berdinak baina jaiolekua eta adinak ezberdinak, abizen bat ezberdina...). Gainera, iturri zuzenenak ere, nola esan, ez dira hain zuzenak eta hain argiak: Otxandioko erregistroa 1992koa da. Bertan azaltzen da 1928-1937 arteko heriotzak jasotzen zituen liburua desagertuta dagoela, eta Euskadiko Auzitegi Nagusiaren ebazpena betez egin dela kopia. Gaur egunera arte heldu zaiguna, beraz, kopiaren kopia da gutxienez. Zer gertatu zen jatorrizkoarekin? Nork egin zuen aurreko kopia? Mañariko erregistroan, bestalde, uztailearen 23an hilobiratu zituzten 12 gorpuetatik bederatzia ezezagun moduan lurperatu zituzten. Geroago, abuztuaren erdialdean, zehaztu zituzten izenak (kasu batean abenduan), 12 urte inguruko mutikoarena izan ezik. Dena den, batean edo bestean datuak erratuta daudela argi dago, erregistroen arabera lau pertsona bi lekutan, Mañarian eta Otxandion, baitaude hilobiratuta.

Ospitale Zibilaz aparte, Bilboko beste larrialdi postu batzuetara eraman bazuten zauriturik, ez dugu hauen berri. Ospitale Zibiletik abiatzen den azken arrasto bat ere galdu egiten da. Bertan ingresatutako militarrek 28an Ospitale Militarera eraman zituzten, eta ez dugu hortik aurrerakoen berririk.

Azkenik, ez dugu jakiterik hainbat iturrik ziurtatzen duten moduan gorpu asko identifikatu barik gelditu ziren ala ez. Hasieran, *Euzkadi*k 12 aipatu zituen. Baina gero Bilboko Ospitale zibilean hildako bi urteko neskato bat eta Mañarian ehortzitako 12 urteko mutikoa dira dokumentaturik ditugun identifikatu gabeko gorpu bakarrak. Hasieran identifikatu ez zirenak gerora identifikatu ziren? Kaosa gainditu eta gero, batzuk seguru identifikatu zirela. Baina denak? Bestalde, bonbek eta metrailak erabat birrindutako gorpurik egon ote zen, "identifikatu gabeko gorpu" bezala agertzeko modurik ere ez zutenak?

Nahastea ze tamainatokia den, zein zaila den batzuetan gorpuen identifikazioa, zenbait gertaerak adierazten digute. Uztailearen 23an, Garellanoko soldadu bat hilobiratu zuten, Nazario Sanchez omen. Bere aitak identifikatu zuen. Hurrengo egunean, Nazario Sanchezek berak jakinarazi zion aitari onik zegoela eta Otxandion. Orduan jakin zen ehortzitakoa Joaquin San Segundo soldadua zela¹²⁹. Juan Askorbebeitia ere hildakoen

129. *El Noticiero Bilbaino*. 1936-7-26.

artean egon zen hasieran, baina bonbardaketatik hiru egunera jakinarazi zuen egunkariaren bitartez, bere familiak jakin zezan, Urkiolan zegoela¹³⁰. Eusebio Palomar Crespo ere gaur egun arte agertu hildakoen zerrendan. Bilboko Ospitaleko agiriak irakurtzean jakin dugu bertan ingresatu bai, baina hurrengo egunean eman ziotela alta¹³¹.

Ez dago esan beharrik, beraz, zerrenda hau ez dagoela itxita.

OTXANDIOKO BONBARDAKETAN ERAILDAKOAK

Lan honetan, 61 hildakoren izen-abizenak zehaztu ahal izan ditugu. Azaldutako arazo guztiak direla eta, iturri zuzenetara jo dugu lehenik eta behin. Nagusiak Otxandio eta Mañariko Erregistro Zibilak batetik, eta Basurtoko eta Durangoko Ospitaletako sarrera-irteeren zein larrialdietako liburuak izan dira. Datu horiek guztiak aurreko paragrafoetan aipatutako prentsa, dokumentu, testigantza eta liburuetan agertutakoekin osatu eta alderatu ditugu. Eta, noski, Irazabalek eskuragarri jartzen dizkigunekin. Zalantza edo desadostasunen aurrean, aipatutako iturri zuzenak eta aipatutako hurrenkeran lehenetsi dira.

HILDAKOAK	BIZILEKUA	ADINA	IZAERA
AJURIAGERRA ARTABE, DIONISIA	DIMA	25	ZIBILA
AJURIAGERRA ETXEBARRIA, JULIANA	OTXANDIO	49	ZIBILA
ALDAI ASKORBEBEITIA, VICENTE	OTXANDIO	50	ZIBILA
ALDAI KAPANAGA, ALBERTO	OTXANDIO	10	ZIBILA
ALDAI KAPANAGA, FRANCISCO JAVIER	OTXANDIO	8	ZIBILA
ALDAI KAPANAGA, IRENE	OTXANDIO	3	ZIBILA
ASKORBEBEITIA URETA, MATEO	OTXANDIO	66	ZIBILA
ASKORBEBEITIA GOJENOLA, FRANCISCA	OTXANDIO	29	ZIBILA
ASPE BELAKORTU, MARIA	OTXANDIO	31	ZIBILA
ASPE BELAKORTU, PEDRO	OTXANDIO	27	ZIBILA
ASPE GONZALEZ DE AUDIKANA, KARMELE LIBE**	OTXANDIO	1	ZIBILA
ASPE ORTUETA, TOMAS	OTXANDIO	57	ZIBILA
BELAKORTU ARTETXE, NICOLASA	OTXANDIO	49	ZIBILA
BITERI ASPE, FELICIANA	OTXANDIO	19	ZIBILA
BITERI ASPE, MARIA LORETO	OTXANDIO	22	ZIBILA
VICINAY BENGUA, JOSE MARIA	OTXANDIO	9	ZIBILA
GALLASTEGI URIEN, DOMINGA	OTXANDIO	48	ZIBILA
GARCES ITURRIETA, EMETERIO**	OTXANDIO	40	ZIBILA
GARCES OIANGUREN, PEDRO	OTXANDIO	13	ZIBILA
GARCES OIANGUREN, JUAN MANUEL	OTXANDIO	9	ZIBILA
GARCES OIANGUREN TEODORO	OTXANDIO	7	ZIBILA
GARCES OIANGUREN, MARIA JESUS	OTXANDIO	3	ZIBILA
GARMENDIA GARMENDIA, JUAN ANTONIO	OTXANDIO	3	ZIBILA

130. *El Liberal*. 1936-7-25.

131. Santo Hospital Civil de Bilbao. B.1.2/671/G-56-4

GARMENDIA GARMENDIA, MIREN GARBIÑE	OTXANDIO	2	ZIBILA
IRASUEGI GOROSTIZA, BIENVENIDO**	OTXANDIO	15	ZIBILA
IRASUEGI GOROSTIZA, MARIA CRUZ	OTXANDIO	12	ZIBILA
KAPANAGA URKIOLA, FELICIANA	OTXANDIO	32	ZIBILA
LASUEN GOIKOLEA, JAVIER	OTXANDIO	9	ZIBILA
LASUEN GOIKOLEA, JESUS	OTXANDIO	4	ZIBILA
LASUEN MAGUNAZELAIA, JESUS	OTXANDIO	44	ZIBILA
LASUEN PINTO, SABIN	OTXANDIO	9	ZIBILA
LASUEN PINTO, IGNACIO	OTXANDIO	7	ZIBILA
LASUEN PINTO, JUSTO	OTXANDIO	5	ZIBILA
LERSUNDI, AMBROSIO	OTXANDIO	40	ZIBILA
LERSUNDI, PEDRO	OTXANDIO		ZIBILA
ORTIZ DE ZARATE GALLASTEGI, VICTOR	EIBAR	15	ZIBILA
OIANGUREN ARRUABARRENA, GERTRUDIS	OTXANDIO	63	ZIBILA
SAGASTIZABAL AJURIAGERRA, MARIA CARMEN	OTXANDIO	8 hilabete	ZIBILA
SALUTREGI, MANUEL SEBASTIAN	OTXANDIO	42	ZIBILA
TRAPERO REBOLLAR, PAULA	OTXANDIO	26	ZIBILA
UGARTE URIARTE, JULIAN	OTXANDIO	11	ZIBILA
URREJOLA BIZIOLA, LAUREANO	OTXANDIO	18	ZIBILA
MUTIKO EZEZAGUNA		12 inguru	ZIBILA
NESKATO EZEZAGUNA		2 inguru	ZIBILA
IRAZABAL SAN JOSE, JULIO	BILBO	19	MILITARRA
PIEDRA, EPIFANIO	SANTANDER		MILITARRA
RUIZ ARROYO, VIDAL	BURGOS	22	MILITARRA
SAN SEGUNDO BLANCO, JOAQUIN	OTXANDIO		MILITARRA
ALBINARRATE GONZALEZ, VICENTE	SESTAO	29	MILIZIANOA
ALBIZARRATE, VICENTE	BASAURI	34	MILIZIANOA
ARNAIZ ARTETXE, SANTIAGO	BASAURI		MILIZIANOA
LLANOS RODRIGUEZ, JOSE MARIA	VALLADOLID	24	MILIZIANOA
MUÑOZ ROJO, CLEMENTE	PALENTZIA	26	MILIZIANOA
DIAZ MUÑOZ, FERNANDO FRANCISCO	MADRIL	21	
ELORZA ORMAETXEA, DANIEL	ARAIA		
HERNANDO SALABERRIA, SATURNINO	IZARRA		
IBEAS LARIOS, SANDALIO PABLO	BILBO	23	
LOSADA AGIRRE, LORENZO	MUSKIZ	32	
PEREZ GARCÍA, MARIANO	SESTAO		
RUIZ DIEZ, LAURO	BURGOS	22	
VALLEJO JAURA, AVELINO	BILBO	17	

Iturriak: Otxandioko erregistro zibila; Mañariko¹³² erregistro zibila; Bilboko Ospitale Zibileko agiritegia; Durangoko udal agiritegia; Bibliografia; garaiko prentsa (*Euzkadi*, *El Liberal*, *El Nervión*, *El Noticiero Bilbaino*); Bergarako Irgari agiritegia (Bidasoa Funtsa/15.04; Eusko Jaurilaritzaren Funtsa/GE-0052-07); Otxandioko bizilagunak.

** Erregistro bakoitzaren arabera leku ezberdinetan lurperatuta agertzen diren Otxandioko bizilagunak.

132. *Euzkadi*. 1936-7-24.

Eraildako 61 pertsona horietatik gutxienez 45 zibilak dira, 5 milizianoak eta 4 soldaduak. Zazpiren inguruan ez dugu daturik bata edo bestea esateko. Otxandioarrak ez dira jakinik, litekeena soldadu edo milizianoak izatea, baina izan liteke santamañetarako joandako jendea ere izatea. % 71 gutxienez zibilak, beraz. Bonbardaketak Otxandio bizi lagun ziren 40 pertsona hil zituen gutxienez, horietatik 24k 17 urte zuten gehien jota, eta 24 horietatik 16k hamar urte baino gutxiago. Ia guztiak metrailak hil zituen.

Abizenei erreparatuta ikusi daitekeenez, zenbait familiatan sarraskia ikaragarria izan zen. Aldai Kapanaga sendia desagertu egin zen zoritxarreko uztailaren 22an. Bixente eta Feliciano senar-emazteekin batera Juan, Francisco Javier eta Irene seme-alabak zendu ziren. Bederatzi, zazpi eta bost urterekin, Sabin, Iñaki eta Justo Lasuen Pinto anaiak ere hil ziren. Jon eta Miren Lasuena lehengusuak ziren, eta azken hauek bi anaia eta aita ere galdu zuten. Sabina Oianguren alargun geratu zen. *Euzkadi*-ko berriemaileak hitz egiteko gauza ez zela eta begirada galduta aurkitu zuen Sabina herriko plazan, shock egoeran. Sabinak, Emeterio Garces senarra ez ezik, bere bost seme-alabetatik lau galdu zituen hogeita hamar minutuan: Pedro, Juan Manuel, Teodoro eta Maria Mercedes. Nagusiak 13 urte zituen. Nikolasa Belakortuk eta Tomas Aspek 6 umezurtz utzi zituzten...

Bonbardaketan, hilak ez ezik, hainbat zauritu ere izan ziren, horietako asko larri. Hilda-koen zerranda ziurtasun osoz ixtea ezinezkoa bazaigu, zer esanik ez zaurituen zerranda. Otxandion bertan artatutakoen daturik ez da, ezta Bilboko larritasun postuetara eramandakoena ere. Hiru iturri ditugu: prentsak bonbardaketaren hurrengo egunetan eskaintzen dizkigun izen-abizenak, Durangoko udal agiritegia eta Bilboko Ospitale Zibileko agiritegia. Azken ospitale honetako larrialdietan uztailaren 22ko goizean 28 pertsona hartu zituzten. Horietatik 7 hilik heldu ziren edo handik gutxira hil ziren; beste bost, 22ko arratsaldea eta 24a bitartean. Durangon sei pertsona ingresatu zituzten. Dominga Gallastegi Urien egun berean hil zen. Guztira, 28 lagun zerrendatu ahal izan ditugu, baina jakin badakigu askozaz gehiago izan zirela. Beharbada larrienen berri badugu behintzat, zenbait egunkariren arabera Bilboko Ospitalera eramaten baitzituzten larrien zeudenak.

ZAURITUTAKOAK	BIZILEKUA	ADINA	IZAERA
BERMUDEZ NAVARRO, FELIX	TAFALLA	22	MILITARRA
BUTRON BERGARA, VICENTE	VALLADOLID	26	MILIZIANOA
CANTONE MEDINA, ADOLFO	MALAGA	24	MILITARRA
DIAZ MUÑOZ, JESUS	MADRIL	19	MILIZIANOA
ERIZ JAUREGUI, MARIA	OTXANDIO	22	ZIBILA
ERIZ UGARTE, CRISPIN	OTXANDIO	40	MILIZIANOA
GARCÍA RODRIGUEZ, PILAR		25	
GAZTELUMENDI BILBAO, LORENZO	DURANGO	49	
LARRAZA, FRANCISCO	BASAURI		
LOMBERA LAVIN, FRANCISCO	DOS HERMANAS	29	MILIZIANOA
LOMBERA LAVIN, JOSE MARIA	SANTANDER	32	MILIZIANOA
LOPEZ OZAETA, MANUEL	BILBO	28	MILIZIANOA
LOPEZ, RAMON	BILBO	30	
OIANGUREN URKIZA, JUAN ANTONIO	PORTUGALETE	42	

ORIBE MUÑOZ, BENITO	SESTAO	24	
PALOMAR CRESPO, EUSEBIO	BILBO	20	MILIZIANOA
PEREZ DIAZ, EPIFANIO	BURGOS	18	MILITARRA
PIEDRA BUSTILLO, FRANCISCO	SANTANDER	19	MILITARRA
PUÑADO, ESTANISLAO	OTXANDIO	49	
RAMOS, VICTOR	BILBO		
RODRIGUEZ PASCUAL, FELIX	VALLADOLID	23	MILITARRA
RODRIGUEZ SABATER, ENRIQUE	BILBO	16	MILIZIANOA
RODRIGUEZ SOTO, ELISEO	BURGOS	25	
RUSTON FERNÁNDEZ, JUAN	BILBO	35	
SAN JUAN ESCANDONA, JULIAN	SANTANDER	70	MILITARRA
UNSalU URIGOITIA, ANASTASIA	OTXANDIO	48	ZIBILA
URIARTE AJURIAGERRA, MARIA DEL CARMEN	OTXANDIO	6	ZIBILA
URREJOLA BIZIOLA, JUAN	OTXANDIO	17	MILIZIANOA

Iturriak: Bilboko Ospitale Zibileko agiritegia; Durangoko udal agiritegia; garaiko prentsa (Euzkadi, El Liberal, El Nervión, El Noticiero Bilbaíno).

Hildakoen kasuan gertatzen denarekin alderatuta, zaurituen kasuan, izen-abizenez ezagutzen ditugun gehienak (gogoratu gehien datuak ez ditugula) miliziano edo militarrek dira. Zerrendako 28 zaurituetatik hiruk hanka galdu zuten, eta laugarren batek besoa.

Sei otxandioar ditugu zerrenda horretan; horietako bi, milizianoak. Juan Urrejola Biziolak metraila zauriak izan zituen. Bilboko Ospitalean 29 egun egin ondoren Durangokora eraman zuten abuztuaren 20an, eta bertan irteera data ez dago zehaztuta. Berdin gertatzen da Crispin Eriz Ugartekin ere, metrailak zaurituta 30 egun egin zituen Bilbon, eta ondoren Durangora aldatu zuten. Maria del Carmen Uriarte Ajuriagerra sei urterekin ingresatu zuten, larri. Kasu honetan, kontrako bidea egin zuen. Lehenik Durangora eraman zuten, eta ondoren, uztailaren 25ean, Bilbora. Bertan 13 egun eman zituen. Besteak beste, besoa galdu zuen. Maria Eriz Jauregi zuzenean Durangora eraman zuten, eta handik hiru egunera eman zioten alta. Estanislao Puñadoren berri prentsarik dakigu, bestelako zehaztasunik gabe.

3.5. Oihartzuna eta ondorioak

Bonbardaketak berehalako oihartzuna izan zuen hedabideetan, erakundeetan eta arduradun politiko eta herritarren ahotan. Gerora Durangoko eta Gernikako bonbardaketez itzala egingo bazioten ere, egun horietan asaldura handiz bizi izan zen Andikonako gertakari anker hau. Bilbon, berebiziko astindua izan zen. Ordura arte gerra nolabait “ez zen egiazkoa”, eta Otxandion gertatuak egoeraren larriaz eta “benekotasunaz” konturarazi zien Errepublikaren aldekoiei. Ondorengo bibliografian, sakonago edo azalago, baina Otxandioko bonbardaketa Euskal Herrian Gerra Zibilaren bilakaera aztertzen duten lan guztietan agertzen da.

Prentsan goiburu asko hartu zituen gertatuak. Matxinatuen aldeko prentsari dago-kionez, 22an bertan izan zen bonbardaketa eguneko berri nagusia *El Pensamiento*

Alavés-en. 24an ere aipatu zen. Bilboko prentsa gehienak 23an azalera ekarri zuen Otxandioko bonbardaketa, ordura arte transmititzen ari zen lasaitasun giroa apurtuz, neurri handi batean. Barneko orrietan sakonago zetorren informazioa. Hildako eta zaurituen zerrendak eman, eta gertatua azaltzean bonbardaketaren izaera krudela eta herrian sortutako sufrimendua nabarmendu zen. Hurrengo egunetan informazioa berritzen joango zen zenbait kasutan. *Agintari abertzaleen aginduak betez* izua ekiditeko ahaleginean, *Euzkadi*-k 24an eman zuen berria. Informazio gehien egunkari horrek eskaini zuen: Otxandiora bidalitako berriemaileak kronika gordinak idatzi zituen. Bonbardaketa eguneko arratsaldean heldu zen herrira.

Otxandiano, en sus casas primeras a medida que se avanza hacia Gasteiz, aparece despoblado. Un silencio lleno de expresiva significación nos recibe. De pronto, en la calle carretera, que se ensancha para dar lugar a una pequeña plazoleta, un cuadro aterrador.

Es la plaza de Andikona, en su confluencia con la calle de Urigoyena. Los hilos de conducción de energía eléctrica rotos y arrastrando tras de sí los postes. Una casa vencida por un costado, donde le ha fallado las vigas maestras. Un tejado que ofrece, con las tejas rotas y viejas, un inmenso boquete que comunica hasta los bajos de la cuadra. Al otro lado, una camioneta de transporte con mil impactos de metralla. Unos grandes charcos de sangre que nadie se ha preocupado en hacer desaparecer. Y varios restos humanos: un trozo de cabeza, unos dedos, masa encefálica, pegados a las piedras y a la fuente, dan macabra impresión a un lugar que es de suyo alegre y reidor¹³³.

La Tarde berripaperak Otxandiora bidali zuen kazetariak antzera deskribatu zuen herriko giroa¹³⁴. *El Liberal*-ek gainontzekoek baino tarte txikiagoa eman zion, baina tonu gogorragoan. *Las víctimas de Ochandiano piden venganza* izenburuko artikulua bukaerak honela dio:

A la hora de juzgar a los autores de esta sublevación y a sus activos participantes, habrá que tener presente el espectáculo horrible que se ha podido presenciar en el pequeño pueblo vasco, para que la visión de las pobres víctimas despedazadas no deje lugar a los jueces a otro sentimiento que el de la vindicación¹³⁵.

Erakundeek ere erreakzionatu zuten berriaren aurrean. Bilboko alkateak bonbardaketa deitoratu zuen 22ko arratsaldean bertan, irrati alokuzio batean¹³⁶. Eta, egun berean, Bilboko Udalak gobernu errepublikanoaren aldeko Otxandioren bonbardaketaren aurkako mozioa onartu zuen. Mozioak honela dio bigarren puntuan:

Fulminar en la conciencia y en la emoción del pueblo de Bilbao la más dura condena-
ción por el bombardeo que la aviación al servicio del fascio, ha sembrado de víctimas

133. *Euzkadi*. 1936-7-24.

134. *La Tarde*. 1936-7-23. In: TALÓN, V. Memoria de la guerra de Euzkadi de 1936 (4 liburuki), Barcelona: Plaza&Janes, 1989; 98-99. or.

135. *El Liberal*. 1937-7-23.

136. *El Liberal*. 1936-7-23.

inocentes la villa de Ochandiano, totalmente indefensa contra este género de cobardes agresiones¹³⁷.

Euzkadi-ren ildoak adierazten duen moduan, EAJk mendeku gosea saihestera dei egin zuen, gerraren larritasuna onartuta ere: *Otxandion odol errugabea isuri da; euskal odolak beste behin euskal lurra busti du. Gure herriaren patu urrikgarria*¹³⁸. Otxandioko udaletxera dolu gutunak heldu ziren hainbat eta hainbat herritatik¹³⁹. Bonbardaketaren oihartzuna, Estatu osora ez ezik, Ameriketara ere hedatu zen. Juan Padillaren osabak handik deitu zuen biharamunean, etxeko guztiak onik zeuden jakin nahian¹⁴⁰.

Erreakzioez harago, bonbardaketak bestelako erantzunik ere izan zuen arlo instituzionalean, gerra “serioago” hartze aldera: Errepublikaren Defentsarako Gerra Komisaria sortu zuten. Antonio Garbisu zen lehendakaria, eta bertan ordezkapena zeukaten Errepublikaren aldeko alderdi eta antolakuntzek: EAJ, PSOE, PCE, Union Republicana, Izquierda Republicana, UGT, ELA eta CNT. Ardura nagusiak errekrutamendua eta izen-emateak antolatzea, unitateak prestatzea, hornikuntza eta abar ziren¹⁴¹.

Eta ondorioez ari garela, berriro ere Otxandiora eta otxandioarregana zuzendu behar dugu begirada. Izan ere, bonbardaketa ez zen bukatu bonben eztandak amaitzean. Ondorioak eta kalteak askotarikoak izan ziren: psikologikoak, fisikoak, ekonomikoak, sozialak... Nabarmendu ditzagun horietako batzuk, adibide gisara.

Esana dugu Sabina Oianguren senarrik gabe eta bere bost seme-alabetatik bakararrekin geratu zela uztailaren 22an. Alargun geratu zen Juliana Pujana ere. Garai hartan emakumeentzat benetan konplikatu zen aurrera ateratzea halako egoeran. 1937ko urtarrilean, Basauriko Udalak eskaera zuzendu zio Otxandiokoari, Basaurin bitzen zegoen Juliana Pujanari eta bere semeari laguntzeaz arduratu zedin. (...) *Sumida en la mayor miseria al perecer en el criminal bombardeo del día 22 de julio pasado el cabeza de familia, su único sostén*¹⁴², bizimodua atera ezinik zegoen Juliana. Umezurtzak ere ugari utzi zituen bonbardaketak. Otxandioko udal agiritegian, familia kontseiluen osaketa-espeditante solte batzuk daude. 1939ko maiatzaren 24an Maria Purificacion eta Sofia Aspe Belakorturen familia kontseilua eratu zen euren hurbileneko senideekin, hiru urte lehenagoko bonbardaketan Tomas eta Nicolasa aita-amak hilik, umezurtz gelditu baitziren. Zenbat familiatan falta dute norbait? Zenbat familiatan ez ote ziren arduratu senideren batez, jaten eman, janzteaz eta abar?

137. *El Noticiero Bilbaíno*. 1936-7-23.

138. EGAÑA, I. eta beste zenbait. 1936. *Gerra zibila* (III. liburukia). 1. arg. Andoain: Aralar, 1999; 211. or.

139. Otxandioko Udala Agiritegia / Udala Bilkuren Aktak / 1936-8-1.

140. Elkarrizketa. JUAN PADILLA.

141. TALÓN, V. *Memoria de la guerra de Euzkadi de 1936* (4 liburuki), Barcelona: Plaza&Janes, 1989; 101. or.

142. Otxandioko Udala Agiritegia / Udala Bilkuren Aktak / 1937-1-18.

Zenbatak ez ote zituen izango amesgaitzoak eta traumak, eta zenbat urtean? 1937ko apirilaren 14an Oscar Basaguren Otxandianok gune errepublikanotik frankistara egin zuen ihes. Nafarroako Brigadetako informazio zerbitzuek egin zioten galdeketa, kontaktu zuen bonbardaketa egunean Otxandion zegoela, eta inpresioak jota depresio larrian erori zela. Bilboko Ospitalean egon zela, eta bertatik irailaren biam Santa Agedako ospitale psikiatrikora eramán zutela, eta hantxe egon zela, alde egin zuen arte¹⁴³. Nola eragingo zuen bonbardaketaren esperientziak egunero-egunero abioien mehatxua etengabea zen gerra hartan?

Completamente desmoralizados todos, sin saber qué hacer como quien dice. Y luego, entre el medio, tira algunas octavillas también (...) ponía que volverían. Y luego más pánico. Que volverían. Bueno... fíjate. En el cementerio el enterrador levantó algunos panteones por si venía la aviación para meternos allí. Claro el pánico. FERNANDO ARRIZABALAGA.

Una carnicería de aquellas me marcó para toda la vida. Luego estuve mes y medio o dos meses con unas diarreas, y fiebre y. A las noches soñaba de todo. SANTI KAPANAGA.

Gogoratu dezagun Basili Urigoitiak esana: *Bolatokian egin zuten errefugioa eta ni beti han. Amak bazkaria ere hara eramaten zidan ni etxera ez nintzelako hurbiltzen, beti beldurretan bonbardeoa zela eta*. Askok, gainera, bonbardaketa gehiago ere biziko zituen gerran.

Bonbardeoak harrapatu ditut hiru... Bata Andikonakoa, gero Morgolakoa [Otxandion hori ere] eta gero Alonsotegin ere bai. Terribleak izan ziren... JON LASUEN.

Otxandioar asko ez ziren gehiago bueltatu Otxandiora, edo gerra ostean itzuli ziren. Hainbat lekukok adierazten digute hori. Pedro Orueren hitzetan, *ahal izan zuenak nahi izan zuen Otxandiotik alde egitea*. Eta, gerra bukatuta, esperientzia horiek eta sortutako sentimenduak erreprimitu behar, ez gutxitan. Galtzailearen patua...

Yo tuve, mucho tiempo después, unas pesadillas terribles, recordando el ruido de las bombas. (...)

Cuando volví a Otxandio, tiempo después del bombardeo, lo peor era escuchar a los "ganadores". Nos decían que ya sabíamos que iban a tirar las bombas, que ya lo habían puesto en los papeles que tiraron el día antes... Ante semejantes cosas, habiendo perdido en Andikona al padre, dos hermanos y tres primos, ¿no tener más opción que callar...! MIREN LIBE LASUEN GOIKOLEA¹⁴⁴.

¡Hombre! ¡Cómo se va a olvidar! Ya, ya. Olvidar... el pánico que metieron aquel día, aquél no puede salir hasta morir. Aquél no sale hasta morir. FERNANDO ARRIZABALAGA.

143. Archivo General Militar de Ávila / C. 1539, Cp.10, D.1

144. BERAZATEGI, I. eta DOMÍNGUEZ, J. *1936 memoria de la guerra en Euskadi*, 1. arg. Bilbao: Radio Euskadi, 2006; 237 or.

3.6. Zergatik?

La aviación ha infligido esta mañana un duro golpe, mayor que el de ayer, a grupos de rebeldes que se hallaban concentrados a retaguardia de la Villa de Ochandiano dio uztailaren 22an Gasteizko Komandantzia Militarreko gerra parteak. Eraildakoen kopuruak eta gehienak zibilak izateak piztu du arreta gehien Otxandioko bombardaketa jorratu duten lanetan. Baina ekintzaren zergatiari apenas eskaini zaio hitzik.

Izan ere, bombardaketan harritzekoa den lehenengo gauza bombardaketa bera da: ez dio jarraitzen ordura arte gerrak erakutsitako bilakaerari. Zibilen kontrako bombardaketa masiboak aurreragoko ekintzak dira euskal lurraldeetan, ofentsiba garaikoak. Salbuespena da Otxandiokoa, zibilak jomugan dituen estreinako bombardaketa gerra zibilean¹⁴⁵. Egun horietako batzuen zein besteen mugimenduei eta moduei erreparatuta, ekintza isolatua ematen du. Horrela esanda, pilotuaren edo pilotuen ekimen pertsonalak azalduko luke hildakoen kopurua eta helburua zibilak izatea. Baina ez. Bonbak askatu zituztenak militarrek ziren, aginduak betetzen ari ziren, eta agindu horrek helburu bat izan behar zuen.

Iñaki Egaña da zergati bat eman duen apurretarikoa. Testuinguru baten barnean kokatzen du eraso. Bere ustetan, ez da ekintza isolatua: bombardaketaren egun berean Alonso Vegaren zutabea 700 gizonekin Gasteiztik irten eta Legution luzaro finkatzea eta Otxandioko bombardaketa lotuta daude. Aguirregabiria eta Tabernillak, halere, datu hori ezeztatzen digute. 22an Legutiora Jose Gomez Lopez kapitaina hurbildu zen, 50 gizonekin. Camilo Alonso Vegaren zutabea 23ko arratsaldean agertu zen, han finkatzeko asmoz; baina orduan ere, eta Otxandiora hurbildu eta gero, Gasteizera bueltatu ziren, zergatik ez dakigula¹⁴⁶. Jesus Axpe ere saiatzen da galderari erantzuten. Bere aburuz, firu faktore batu ziren:

Creo que las tres razones que te doy: 1. Venganza por la derrota sufrida en Villarreal, con caída de moral; 2. Concentración de tropa enemiga en el pueblo de Ochandiano; y 3. Llave estratégica para entrar en el Duranguesado, son suficientes para que bombardearan el pueblo, por razones militares, a sangre y fuego. JESUS AXPE¹⁴⁷.

Salas Larrazabal historialari militar frankistak ere Legutio aipatzen du bombardaketaren zergatia azaltzeko. Alonso Vega koronelak Legutioko batailan izandako jokabidea goraiatzen ari dela, abendu amaierako egun horietan Otxandio gaineko bombardaketak oso garrantzitsuak izan zirela dio; (...) *como ya ocurrió el 22 de julio en el primer avance hacia Villarreal, cuando un sólo Breguet, el de Salas, deshizo el ataque*¹⁴⁸. Otxandiotik Legution erasotzeko aukeraz ari da.

145. IRARGI / Bidasoa Funtsa / 15.04.

146. AGUIRREGABIRIA, Josu M. eta TABERNILLA, Guillermo. *El frente de Álava. Primera parte. De la sublevación a vísperas de la batalla de Villarreal*, 1. arg. Bilbao: Ediciones Beta, 2006; 31. or.

147. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandio Jai Batzardea, 2006; 83. or.

148. SALAS LARRAZABAL, Jesús. *La guerra de España desde el aire*, 2. arg. Bartzelona: Ariel, 1972; 150-151. or.

Orain arte ikusitako argudioetatik, bonbardaketa Legutioko gorabeherekin lotzen dutenek dute oinarriarik sendoena. Echeverria Novoak eta prentsak lehen egun horietan etengabe aipatzen duten Gasteiz hartzeko asmoa egiazkoa da. Baina egia da 22rako matxinatuek jakitun behar zutela Gipuzkoako zutabea Donostiara bueltatua zela. Eta, noski, bazekiten Legutio hartu eta gero herria utzi eta atzera egin zutela Bizkaiko zutabeek.

Guk beste bi hipotesi botako ditugu lan honetan, ez dutenak zertan izan aurrekoekin kontrajarriak.

Zalantzak zalantza, litekeena da Angel Salas Larrazabal izatea bonbak jaurti zituen pilotua. Izan ere, bere anaia historialariak ziurtatu zuen Angelek egin zuela bonbardaketa. Eta Salas Larrazabal ez zen edonor: lehenengo egunetik Mola, Franco eta Queiporen arteko lotura lanez arduratu zen. Oso konfiantzazko gizona behar zuen, bereziki Molaren konfiantzazkoa.

Poco después de que Mola ordenase la declaración del estado de guerra en Pamplona, a las 6 de la mañana del domingo 19, el general llamó a su presencia al capitán Ángel Salas.

Salas había transportado varias veces a Mola en el tiempo en que este ejercía el mando de las Fuerzas Militares de África (...) ¹⁴⁹.

Molak berak bidali zuen Salas 19ko goizean bertan Francoren bila Kordobara. Baina bidaia luzatu egin zen ezustean, jenerala ez baitzegoen Kordoban. Tetuaneraino bidaiatu eta han berarekin batzartu eta gero, Francok Sevillara bidali zuen, Queipo de Llanori mezu bat eramateko. Azkenerako Logroñora bueltatu eta bertan aurkitu zuen Mola. Uztailaren 21eko eguerdia zen ordurako. Berri txarrak eraman zizkion Salasek: estatu kolpe azkarra behar zuena ez zihoala nahi bezala. Franco Afrikan oraindik, Madril galduta, altxamenduaren buru behar zuen Sanjurjo hila... Zaila da pentsatzea Molaren esanetara zegoen pilotu bat beste norbaitek bidaltzea Otxandio bonbardatze-
ra, hurrengo goizean eta ia atsedenerako tarterik gabe, bidaia luze eta neketsu baten ostean.

Beste alde batetik, Bizkaiko zeruetan hegazkin matxinatuek beste operazio bat ere egin zuten Otxandioko bonbardaketatik ordu gutxira. Molak sinaturiko milaka esku-orri bota zituzten Bilbon, Otxandion gertatutakoaz jakitun zeuden bilbotarrak asaldatuz.

Angel Salas Larrazabal eta Mola; Otxandioko bonbardaketa “lekuz kanpoko” eta Bilbo gainean askatutako esku-orriak. Loturarik ote? Gerra serio hartzen ez zuten agintari errepublikanoei zuzenduriko mezua ote zen Otxandioko bonbardaketa? Ordu batzuk geroago bizkaitarrei zuzenduko zien mezua “sinesgarri” egiteko modua? Hau zioten esku-orriek:

Hurkoaren bizarrak mozten ikusten dituzunean, beratzen jar itzazu zeureak (...)

Zuen esanekotasuna berehalakoa ez bada, Bizkaia birrinduko dut gerra industrietatik hasita. Badut horretarako sobera bitarteko ¹⁵⁰.

149. SALAS LARRAZABAL, Jesús. *Guerra aérea 1936-39* (I. liburukia), 1. arg. Madril: Instituto de Historia y Cultura Aeronáuticas, 1998; 43. or.

150. EGAÑA, I. eta beste zenbait. *1936. Gerra zibila* (III. liburukia), 1. arg. Andoain: Aralar, 1999; 211. or.

Gerraren lehenengo egunak ziren, gerra baino gehiago estatu kolpe itxurako garaipen azkarra aurreikusten zuten matxinatuek. Hasiera horretan, gauzak ez zihoazkien batego ondo altxatuei... Bizkaia eta Gipuzkoa “beldurtu” eta menderatuz egoerari kolpe batean buelta emateko ahalegina izan ote zen?

Hipotesiarekin aurrera eginaz, edo logika honen barneko bigarren hipotesi bat planteatuz: Hasiera hartan EAJ zalantzati agertzen zen eta matxinatuek saiakera ugari egin zituzten abertzaleak euren aldera ekartzeko. Zalantzarik gabe, EAJk aukera hori eginez gero Bizkaia eta Gipuzkoa matxinatuen esku geratuko zen, eta Estatu mailako mapa ere aldatuko zen aldi berean. Baina isilpeko kontaktuez aparte, ordurako *Euzkadi* egunkariaren bitartez EAJ Errepublikaren alde agertu zen... EAJri presioa egiteko modua ote? “Zuek ikusi, baina hau datorkizue gure alde lerrokatzen ez bazarete” grafikoki esateko modua? Egoeraren larriaren aurrean, eta kontrako eragina sortzeko arriskua hartuta ere, EAJri zirt edo zart eginarazteko modua ote zen, euren aldeko posizioa hartuko zuen esperantzaz?

Bada, esandakoa, hipotesiak.



Andikona.
Eskuinean,
bonbardaketaren
kalteak
konpontzen.



Andikona. Metraila
arrastoak.

DECLARACION CIVIL
DE BIZKAIA
BOMBARDEADA
POR LA AVIACION
GERMAN ITALIANA

Gerra garaiko kartela.



Milizianoak
guardian,
Otxandioko
kanpandorrean.



Bonbardaketa
ostean
eraiki ziren
babeslekuetako
bat.
(Argazkilaria:
Pascual Marin)

EN BILBAO LA TRANQUILIDAD FUE ABSOLUTA, PERO LOS PACIFICOS VECINOS DE OCHANDIANO SUFRIERON LA AGRESION MAS BARBARA QUE PUEDE REGISTRARSE EN ESTE TRAGICO EPISODIO DE LA VIDA DE ESPAÑA

TRANQUILIDAD
 Otro tanto de lo consignado con referencia a los días anteriores de la presente semana puede decirse por lo que respecta a la vida de nuestra villa en el día de ayer. La tranquilidad en el vecindario fue absoluta, incluso cuando se produjeron los hechos de que luego haremos mención. Respondiendo a las indicaciones del Comité del Frente Popular y de los dirigentes de las respectivas organizaciones, el trabajo de los obreros de los diversos ramos a quienes a tal efecto se había requerido. Los servicios públicos funcionaron con la misma normalidad de días anteriores: se trabajó en las oficinas públicas y particulares, así como en los Bancos, y la industria del comercio abrió sus puertas. El vecindario bilbaíno pudo abastecerse con toda facilidad, como lo ha efectuado siempre en circunstancias normales y en los momentos críticos públicos y privados de combates. Hubo toda clase de vida normal. Habida cuenta de la intensidad del tráfico automovilístico en las calles de la población por la prestación de servicios especiales ordenados por el Estado de guerra en la actualidad.

Las víctimas de Ochandiano piden venganza

El hecho varonístico cometido ayer en Ochandiano por un aviador fascineroso al servicio de los enemigos de España, una víctima humana de venganza. Esa hora humana que ha derramado sangre de niños inocentes, de mujeres indefensas, alejados de la contienda, que en estos momentos acunados en España, ha traspasado fronteras a España, ha traspasado las provisiones de la ley de guerra, saltando por todas las leyes de guerra que son respetadas hasta por las tribus más salvajes, y ha hecho cuantos convenios internacionales rotan los huesos y los procedimientos de las fuerzas. Tengan muy en cuenta las fuerzas combatientes del Frente Popular, que en este momento, por esta guerra y evento de los beligerantes que lo realizan. Tienen, desde que empezaron sus ataques, peraltes la batalla los enemigos de España, para hacer en este sólo hecho acreedores en Ochandiano para marcarlos en la historia, porque no habrá persona digna de tal nombre que no se sienta lo consencio, que no se sienta avestidas de indignación y rabia un al cambio almirante de quienes habeban así a España.

El liberal egunkariaren azalean agertutako artikulua, 1936.7.23.

Número 615

Bilbao, 22 de Julio de 1936 a las 15 horas de la tarde

D. M^o Cruz Zamigui Corotiza

natural de _____ provincia de _____

de estado _____ de 12 años de edad. Profesión u oficio _____

Domiciliado en la calle de Ochandiano núm. _____ piso _____

Viene condecorado por _____

Lugar de la ocurrencia Ochandiano

Causa de la lesión herida avistada

Diagnóstico herida en nuca y otra en occipital izquierda

Observaciones _____ Prontafectivo grave

Observaciones: urgente EL MEDICO _____

Bilboko Ospitale Zibileko larrialdi postuko liburua, 1936.7.22.

Número 618

Bilbao, 22 de Julio de 1936 a las 15 horas de la _____

D. Leban San Juan Casanovi

natural de Carrilla provincia de Santander

de estado Belén de 20 años de edad. Profesión u oficio militar

Domiciliado en la calle de Cuarta Montaña núm. _____ piso _____

Viene condecorado por _____

Lugar de la ocurrencia Ochandiano

Causa de la lesión herida avistada

Diagnóstico herida completa de garganta izquierda

Observaciones _____ Prontafectivo grave

Observaciones: urgente EL MEDICO _____

4. Gerra errepublikan



4.1. Bilakaera militarra Legutioko Batailara arte

Oinazeak oinaze eta Otxandioko bonbardaketatik harago, gerrak aurrera jarraitu zuen.

1936ko gerrak Euskal Herrian izan zuen bilakaerari helduz, gerraren lehenengo fasea zen. Errepublikaren alde lerrokatu ziren indarren arteko kohesio politikoa ahula zen. Botere legalaren defentsa militarra defentsa-juntan esku geratu zen; Otxandio, Bizkai-ko defentsa-juntaren ardurapean. Ejerzitoa deitu zitekeen egiturarik ez zen ageri euskal lurretan; zutabeetan oinarrituta zegoen antolaketa. Bataila eta helburu handietan baino gehiago, ekintza lokal eta helburu zehatzetan zentratuz egiten zen gerra.

Hilabete haietan, Otxandiotik miliziano eta soldatu taldeak irteten ziren, ekintzak egitera. Eta Otxandio eta inguruek ere pairatu zituzten matxinoen operazioak. Otxandiotik obusak jaurtitzen ziren Legutiora eta bestelako helburuetara, edo sartu-irten azkarrak egin, etsaiaren kontrolpeko eremuetan sabotajeak egiteko. Eta Otxandio beste aldeko obus jaurtiketen eta hegazkin bonbardaketen jomuga ere bazen.

Jarraian, lehenengo fase honetan Otxandion eta inguruetan batzuek zein besteek egingako ekintza militar esanguratsuenetako batzuk zerrendatuko ditugu. Josu Aguirregabiria eta Guillermo Tabernillaren *El Frente de Álava* liburua erabiliko dugu ardatz.

Uztailaren 23ko arratsaldeko bost eta erdietan, bonbardaketaren ondorioak oraindik borborka zeudela, Camilo Alonso Vegaren zutabea Gasteiztik irten zen. Legutio atzean utzi, eta Otxandiorako bidea hartu zuten. *El Pensamiento Alavés*-eko berriemaileak zutabea Otxandioraino heldu zela idatzi bazuen ere¹⁵¹, herritik hiruzpalau kilometrora geratu zen. Ez zen egon borrokaldirik, errepublikaren aldeko abangoardiako indarrek atzera egin zuten eta. Camilo Alonso Vega militarraren zutabea Legution finkatzeko asmoarekin abiatu zen Gasteiztik, baina, zergatik ez dakigula, Gasteizera bueltatu zen¹⁵². Joanak eta etorriak ugariak izanik ere, abuztuaren bira arte ez zen indar militar frankistarik ezarriko Legution.

Matxinoen eta errepublikaren defendatzaileen arteko lehen aurrez aurreko borroka uztailaren 26an gertatu zen, Otxandio helburu zuen beste zutabe bat Gasteiztik abiatu zenean. Camilo Alonso Vegaren zutabea Flandes errejimentuko bi konpainiak, bi metrailadore sekziok, Numancia errejimentuko zenbait eskadroik eta obusen bateria batek osatua zegoen. Otxandiora heldu aurretik errepublikanoen aurrealdeko talde batek aurre egin zien, baina luze gabe atzera egin behar izan zuten, Otxandioraino.

151. *El Pensamiento Alavés*. 1936-7-24.

152. AGUIRREGABIRIA, Josu M. eta TABERNILLA, Guillermo. *El frente de Álava. Primera parte. De la sublevación a vísperas de la batalla de Villarreal*, 1. arg. Bilbao: Ediciones Beta, 2006; 31. or.

Matxinoak bertan geratu ziren, herrira sartzen ahalegindu barik, eta arratsaldean Gasteizerako bidea hartu zuten berriro. Honen aurrean,

El gobernador Civil de Vizcaya, preocupado por la debilidad de los de Vidal, reforzó la columna de Ochandiano con otros cincuenta soldados del batallón de Montaña que guarnece Bilbao, un carro de asalto y un grupo integrado por unos 60 milicianos perfectamente equipados y uniformados con traje de mecánico¹⁵³.

Jarri dezagun orain arreta kontrako erasoaldietan. Otxandiotik abiatuta ekintza militar ugari egin zituzten milizianoek Legutioren kontra. Uztailaren 29an, bi eraso antolatu ziren. Lehendabizikoan, miliziano batzuek Legutioko lehenengo etxeetaraino barneratu eta tiro batzuk egin ostean ihesari eman zioten. Bigarrenaren helburua, aurreko alkate abertzalea ordezkatu zuen alkate berria bahitzea zen, baina ez zuten lortu. Abuztuaren 25ean, Otxandio, Aramaio eta Ubideko indarrek batera eraso zuten Legution. Obus bonbardaketak ere ugariak izan ziren gerraren estreinako hilabete haietan¹⁵⁴.

Juan Padilla otxandioarrak bestelako pasadizo bat du gogoan, gerraren hastapeneko egunetakoa.

Akordatu zitzaizen Billerleko konpainia metrailadorea hartu behar dutela. Mugitu ziren, baina ordurako, ez dakit nik, beste aldekoek jakin zuten. Billerlera bidean hemengo aldetik 80-100 metroko aldatsa zeukaten, aldats itzela, herrira igotzeko. Zer egin zieten nazionalok? Ba, grasaz bete kamino guztia. Eta aldatsa igotzen hasi zirenean, ia erre-kara bueltaka. Bertan behera utzi eta buelta egin behar izan zuten. Lehenengo ofensiba hantxe amaitu zen. JUAN PADILLA.

Indar errepublikanoek bi eraso jo zituzten Gasteiz hornitzen zuten Gorbeia urtegien aurka. Lehendabizikoa, uztailaren 27an izan zen. Ur hoditeria lehertu zuten milizianoek. Edonola ere, garrantzitsuagoa da abuztuaren 26ko irteera, lehen hilabeteotako ekintzarik sonatuenetakoa Otxandioko frontean. Alfredo Samaniego tenientea buru zela, 40 gizoneko talde bat ur biltegietara abiatu zen (talde zabala zen: eraso guardia zeuden, guardia zibilak, Garellanoko militarrek eta milizianoak). Matxinatuak ezustean hartu eta emaitza ezin hobea izan zen: hainbat soldadu hil eta bost herritar atxilotzeaz gain, armak eta munizioak atzeman zituzten. Alde egin aurretik, gainera, biltegiak eta hoditeria leherrarazi zituzten, eta Gasteiz ur horniketarik gabe utzi egun batzuetarako¹⁵⁵. Bonbardaketaren atalean aipatu bezala, arratsaldean etorriko zitzaizen buelta Otxandioko indar errepublikanoei, Breguet XIX batek herriko kaleetan bonbak jaurtitzean. Ez zen biktimarik egon, besteak beste, aire erasoei aurre egiteko kanpandorean zeuden bi metrailetek azkar erreakzionatu zutelako.

Irailaren 10ean, aire-borrokaldi bat izan zen Otxandioko zeruan. Nieuport 52 motako hegazkin errepublikano bat Fokker F-VII matxino bat tirokatzen saiatu zen, baina lortu ez, eta azkenerako ihes egin zion.

153. AGUIRREGABIRIA, Josu M. eta TABERNILLA, Guillermo. *El frente de Álava. Primera parte. De la sublevación a vísperas de la batalla de Villarreal*, 1. arg. Bilbao: Ediciones Beta, 2006; 35. or.

154. AGUIRREGABIRIA, Josu M. eta TABERNILLA, Guillermo. *El frente de Álava. Primera parte. De la sublevación a vísperas de la batalla de Villarreal*, 1. arg. Bilbao: Ediciones Beta, 2006; 38. or.

155. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 51. or.

Batzuen zein besteen noizean behingo ekintza mugatuen azpitik, frontea egonkortzen zihoan pixkana-pixkana, eta irailaren 30erako argi zeuden frankistak eta errepublika-noak banatzen zituzten mugak. Ordurako, Gipuzkoako Fronteko muga ere Otxandiotik gertu zegoen, irailaren 21ean Molaren tropek Arlabaneko mendatea hartu baitzuten. Hau da indarren banaketa 1936ko irail bukaeran:

Bando nacional:

- Sectores: Orduña, Uzquiano, Murgia, Legutio, Arlaban, Elgea, Araia.
- Sector de Villarreal.
 - Villarreal: Una compañía del Flandes con una sección de ametralladoras, una sección de obuses del 2º regimiento de Montaña, la 5ª Compañía de requetés con 164 hombres y un camión blindado.
 - Urbina: 25 Guardias Civiles.
- Sector de Arlabán.
 - Alto de Arlabán: la 10ª Compañía del Requeté de Alava junto a una sección de guardias civiles apoyados por una ametralladora.
 - Monte Isusquitza: La 9ª Compañía del Requeté.
 - Salinas de Leniz: La 13ª Compañía del Requeté.

Fuerza gubernamentales, sector de Otxandio: “-sector del que dependían las cotas perdidas del Maroto e Isusquitza-, que estaban formadas por cerca de 1.400 hombres, todos ellos milicianos a excepción de una compañía del Garellano y otra de la Guardia de Asalto. Joaquín Vidal mantenía una compañía en el Jarindo (...) otra en el alto de Cruce-ta, tres distribuidas frente a Ochandiano y 300 hombres en la zona de Ubidea. También tenía dos pequeños destacamentos en Olaeta y Mecoleta”¹⁵⁶.

Aipuan *galdutako* Maroto eta Isusquitza aipatzen dira. Izan ere, iraila eta urria bitartean hainbat eraso eta kontraeraso izan ziren, bi tontor hauen kontrola erdiesteko. Ordura arte errepublikanoen kontrolpean, irailaren 21ean matxinatuek erasoak jo eta bi mendiak hartzea lortu zuten. Urriaren 4an, bi egun iraun zuen kontraerasoan, Maroto eta Isusquitza berreskuratzea lortu zuten milizianoek. Urriaren 8ko nazionalen beste saia-kera batek porrot egin zuen, baina, azkenik, urriaren 18an, Molaren gizonak behin eta betiko eskuratu zituzten bi gainak. Enfrentamenduotan lagun asko hil ziren; tartean, Lorenzo Bartolome otxandioarra, urriaren 8ko borrokan¹⁵⁷. Fernando Arrizabalaga miliziano ari zen, eta gogoan ditu borrokaldiok, baita inguruaren garrantzi estrategikoa ere:

Los ataques aquí de Isusquitza fueron a últimos de setiembre, después que tomaron Mondragon. Una compañía, zapadores-minadores, fueron a fortificar allí. Porque de la loma de Isusquitza se domina todo Alava. Y claro a ellos les interesaba la posición aquella, y a nosotros también. Pero como nosotros no teníamos material, resistencia. Se resistió fuertemente, el ataque cuerpo a cuerpo. La compañía esa que digo yo de zapadores-minadores me parece que llevaban la consigna de U.H.P [Unión Hermanos Proletarios]. FERNANDO ARRIZABALAGA.

156. AGUIREGABIRIA, Josu M. eta TABERNILLA, Guillermo. *El frente de Álava. Primera parte. De la sublevación a vísperas de la batalla de Villarreal*, 1. arg. Bilbao: Ediciones Beta, 2006; 67. or.

157. Aranzadi Zientzia Elkarte. *Proyecto de investigación y localización de fosas de las personas desaparecidas durante la Guerra Civil*. Eusko Jaurlaritzak. Justizia, Lan eta Gizarte-Segurantzak Saila. Giza Eskubideen Zuzendaritza. 2008.

Urriari gaude jada. Euskal Herriko 1936ko gerra bigarren epealdian murgilduta zegoen; Estatutua onartu zuen Madrilek eta Euskadiko Gobernua osatu zen hilaren 7an. Arlo militarrean, euskal armada egituratzeko bidean lehenengo pausoak eman ziren. Horrek miliziak militarizatzea ekarri bazuen ere, euskal lurraldeetan indar politiko eta sindikalen araberrako batailoietan egituratu zen ejerzitoa, Estatuan ez bezala.

Otxandioko frontean bigarren epealdi honetako gertakari nagusia Legutioko Bataila izan zen, Euzko Gudarostearen ibilbide laburrean eraso asmo handieneko operazio militarra. Operazio honetara bideratuta egongo ziren azaroaren 30a arteko pauso eta erabaki nagusiak. Milizianoen prestakuntza militarrean indarrak bideratzeaz gain, Otxandioko sektoreko aginte postuetan aldaketak egon ziren. Urriaren 16an, frontetik hurbil zeuden herriak gerra-eremu zirela zioen dekretua indarrean sartu zen. Ondorioz, herriotako agintea ordezkari militarren esku geratu behar zuen, plaza-delegatuen esku. Hamabost egun geroago, urriaren 31n, Otxandioko sektoreko nagusiak, Joaquin Vidal teniente koronelak, Alberto Galiana Fernández infanteriako komandante erretiratu proposatu zuen ardura horretarako Otxandio eta Ubideko herrietan. Azaroaren 11n, Joaquin Vidalek bere postu berrira joateko alde egin zuen Otxandiotik. Zornotzara abiatzeko agindua jaso zuen, euskal frontearen komandantzia bere gain hartzeko. Otxandioko sektoreko aginte postua Juan Cueto karabineroetako teniente koronelak hartu zuen¹⁵⁸. Gabeziak seinalatu eta hobekuntzak proposatuko zituen Legutioren gaineko eraso prestatzeko¹⁵⁹.

Ezinezkoa da hilabete haietan leku eta data bakoitzean ze batailo ari zen zehaztea. Mugimendua handia zen oso, eta ez dugu datu horiek sistematikoki jasotzen dituen orduko agiririk. Otxandion eta inguruetan batailo askok eta joera politiko guztietakoek jardun zuten, nolana ere¹⁶⁰.

Legutioko bataila 1936ko gerraren une erabakigarrietakoa izan zen Euskal Herrian, inflexio puntua. Baina ordurako hilabete asko pasa ziren uztailaren 18an eskuina armen indarrez altxatu zenetik. Nola joan zen otxandioarren eguneroko bizitza bitartean?

4.2. Salbuespen egoeraren eta normaltasunaren artean

Kontraesana badirudi ere, gerra garaian ere normaldu egiten da bizimodua. Gerra elementuak eguneroko bizitzaren parte egiten dira, errutinan sartzen dira. Aurreko bizimoduko gauzak daude batetik, ortuko lanak egin, ganaduaz arduratu, denda zabaldu eta abar. Eta gerra egoerari erantzuten diotenak bestetik: arineketaldiak babeslekue-tara, milizianoak etxean edukitzea, noizbehinka hildako eta zaurituen berri izatea, edo familia banatu beharra. Neurri batean, hala gertatu zen Otxandion uztailaren 22ko bonbardaketaren ostean, herritarrak bueltatu ahala. Bueltatu zirenen kasuan, noski.

158. IRARGI / Eusko Jaurlaritzaren Funtsa / 65-0511-05.

159. IRARGI / Eusko Jaurlaritzaren Funtsa / GE-0506-16.

160. Adibide gisara ikusi: Abertzaletasunaren Agiritegia. GE-53-27; Irargi / Eusko Jaurlaritzaren Funtsa / GE-0525-01; LEZAMIZ, Julen eta TABERNILLA, Guillermo. *Saibigain, el monte de la sangre*, 1. arg. Bilbo: Sancho de Beurko Elkarte, 2002; 254 or.

Otxandioar batzuk ez ziren gehiago bueltatu bonbardaketaren ostean. Beste batzuk hilabeteak pasata itzuli ziren, Otxandio oraindik eremu errepublikanoan zegoenean. Jon Lasuen, esaterako, bonbardaketa eguneko arratsaldean eraman zuten Bilbora eta urtarrilera arte ez zen bueltatu jaioterrira.

Arratsaldean Bilbora joan ginen. Kotxe batean. (...) Kotxe batean joan ginen etxera denak, izekorenera. Ni lehenago ere Bilbon izan nintzen, hogeita hamalauan. 34tik 36ra, ikasten, izekorenean. Izeko bizi zen Santiago plazan. Lekua bazuen. Eta gero hasi ginen banatzen; batzuk Lezamara, beste batzuk osaba Bixenterenera Deustura, beste bat horra... Eta horri eskerrak! Guk ez genuen zer jan eta zera. Ni Lezaman egon nintzen. JON LASUEN.

Otxandio matxinatuen eskuetan utziko zuen apiril hasierako ofentsibaren egunetan berriz ere herritik alde egin zuen Jon Lasuenek. Antzeko ibilbidea egin zuten beste otxandioar askok ere; esaterako, Lourdes Kapanagak:

Martira arte egon ginen Berrizen. Amak sarri egiten zigun bisita. Martiaren lehenengo egunak ziren, eta esan zigun: “Bueno, Otxandio geldi-geldi dago, trankil dago, eta nik eroan egingo nituzke hauek umeok, eurek gura badute etorri. Santik eta nik bai, Bitorrek berak ezetz. Bitor gelditu zen han, eta Santi eta ni amagaz etxera. Baina, Otxandion klaro, dena geldi-geldirik baina etorri zen martiaren 31a. LOURDES KAPANAGA.

Lourdesen kontakizunean sarri gertatu zen beste egoera bat aurkitzen dugu. Familiako kide batzuk herrian geratu ziren etxea bera, lurrak, ganadua, denda edo dena delakoa zaindu edo ogibidea ziurtatzeko, eta beste batzuek lagun edo senideen etxean hartu zuten ostatu, frontetik urrun.

Beste familia batzuk, ostera, ez ziren Otxandiora itzuli frontea herritik aldendu arte. Mari Carmen Urigoitiaren familiak askotan aldatu behar izan zuen bizilekuz:

Aeroplanoa pasatu zen orduan joan ginen Oletara (...), gero Amaiterminera, gero Mañarira eta hortik Bilboko Alameda Urkijora, hogeita bigarren zenbakira. Zenbat denbora, nik ezin nezake esan. (...) Eta gero Zaramillora. Eta hantxe ikusi genituen handienak. Barre egiten ziguten, arineketa irteten genuelako aeroplano bat agertzen zenean. MARI CARMEN URIGOITIA.

Florian Kapanagak urteak emango zituen Otxandiotik kanpora, bonbardaketa ostean familiarekin ihesean irten eta gero, gerratik urrundu nahian. Hasieran, amarekin Mañarian egon zen. Matxinatuen Bizkaiaren gaineko ofentsiban frontea bertaraino hurbiltzean, Mundakara joan ziren izeko-osaba batzuegana, eta Gallartara azkenik, gerra frontea Mundakara ere heltzean. Azkenean, Euskal Herritik kanpora bidaltzea erabaki zuen amak. Bi aukera zituzten, Frantzia edo Errusia. Azken herrialde honetara bidali nahi zuen amak semea, baina barkuan tokirik ez eta Frantziara bidean itsasoratu zen: Santurtzitik irten eta Bordelen lehorreratu zen Florian. Errefuxiatuentzako hainbat zentrotatik igaro ostean, azkenik Belgikako baserri batean aurkitu zuen urte batzuetarako atsedena, bere anai-arrebengandik aparte¹⁶¹.

161. Elkarrizketa. Floriano Kapanaga Gzlj. de Langarika.

Edozein modutan eta beti ere gerra aurreko zenbakietatik urrun, uztailaren 22aren hurrengo egunetan otxandioarrek hutsik utzitako kale eta etxeak pixkanaka betetzen hasi ziren. Auzuneetan, Mekoletan esaterako, herritar gehiagok eutsi zioten etxean, alde egin barik.

Heldu berrien zein mugitu ez zirenen lehenengo erronka, nahitaez aurre egin beharrekoa, gerra egoerara eta gerraren beharretara egokitutako bizimodu batera moldatzea izan zen.

Gerra eremuan egoteak sortu zuen anormaltasun egoerara moldatu ziren herritarrak. Askok herritik alde egin zuen senideen etxeetara edo gerra-frontetik urrutiago zeuden beste leku batzuetara; beste batzuek, aldiz, ezin izan zuten alde egin, baserri, ortu, denda edo lana mantendu behar zuten eta, baina behintzat seme-alabak bai urrundu zituzten egunero gerraren ondorioak jasaten ari zen herri hartatik. (...)

Fronteak egonkor mantendu arren, gerrak noizean behin heriotzak eragiten zituen eta herritarrak ohituta zeuden. Borroka txikiek, artilleria eta fusilen ohiko tiroek biktimak eragiten zituzten soldadu eta gerra-eremu batean eguneroko bizitza aurrera atera nahian zebiltzan herritarren artean¹⁶².

4.2.1. Herri militarizatua

Gerra egoera luzatu ahala, ezinbestean, Otxandioko kaleak eta bizitza militarizatuz joan ziren pausoz pauso. Militarizazio horren adierazle, lau elementu nagusi nabarmendu ditzakegu: ordezkari politikoek boterea galtzea, militarren mesedetan; herria gerraren beharren arabera antolatzea; milizianoen eta biztanleria zibilaren arteko elkarbizitza; eta zenbait otxandiarrek egitura militarren barruan lan egitea, soldatapean edo ez.

4.2.1.1. Militarren boterea gora, udal ordezkariena behera

Lehenago aipatu bezala, urrian eratu zen euskal gobernuaren lehenengo neurrietako bat frontetik hurbil zeuden herriak gerra-eremu izendatzea izan zen: ebazpenaren ondorio nagusia Otxandioko agintea ordezkari militar baten esku uztea izan zen, Defentsa sailburuak zuzenean hautatuta. Urriaren 31rako Alberto Galiana Fernández zegoen plaza-delegatu postu horretan, ordena publikoarekin lotutako funtzioak betetzeko. Pentsatzekoa da, edonola ere, Joaquin Vidal eta bestelako agintari militarrek dekretu honen aurretik ere nahikoa botere izango zutela herriaren antolaketaz eta bestelakoez erabakiak hartzeko.

Alkateari dagokionez, zinegotzien pare geratu zen, administrazio lanetara mugatuta. 1937ko urtarrilerako, gainera, zinegotziak Euzko Jaurlaritzak aukeratzen zituen zuzenean¹⁶³.

162. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 43-44. or.

163. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1937-1-14.

Udalak hilabeteotan ze betebehar izan zituen jakiteko hutsune nabari bat dugu. Informazio iturri izan zitezkeen udal bilkuren aktak desagertu egin ziren sasoi hartan. 1936ko abuztuaren 1eko bonbardaketa osteko aktaren eta 1937ko maiatzean frankistek behin-behineko udalbatza eratu zutela adierazten digunaren artean, beste hiru bilkuratakoak soilik heldu zaizkigu. Dena den, bilkurak egin egiten zirela ondorioztatu dezakegu bertan irakurritakotik, bai eta udalak gutxieneko funtzionamendu bat behintzat izan zuela. Badakigu bonbardaketa ondoren biltegi pare bat antolatu zela herritarren beharrei erantzuteko, zerbitzua zenbat denboran eman zen ez badakigu ere. 1937. urtearen hasieran udal-langileei soldatak ordaintzeko eta herritarrei zergak kobratzeko erabakia hartu zuen Udalak. 1937rako aurreikuspenak egitea ezinezkoa dela argudiatuta, 36ko aurrekontua eta zergak mantentzea erabaki zen.

Herriko etxearen bitarteko eza eta baliabide urritasuna ere agerian geratzen da akta hauetan. Samuel Pertika mediku titular izendatu zuten bilkura berean ohartarazten da, Bedian eta Ubidean lanpostu berdina izanik, kotxe bat lortu arte ezingo duela Otxandion jardun. Edo, Basauriko Udala Juliana Pujana otxandioarrari laguntza emateko zuzendu zitzaionean, bere ardura zela onartuta ere ezin zuela ezer egin erantzun zuen Otxandioko Udalak, dirurik ez zeukala eta¹⁶⁴.

4.2.1.2. Gerrako beharrianen arabera itxuraldatutako herria

Herri osoa, fisikoki, gerrak inposatzen dituen premia eta ezaugarrietara egokitu zen. Itxuraldaketa oso sakona izan zen: uztailaren 26rako, herriko plazan hainbat zerbitzu zegoen, *Se han instalado tambien algunas oficinas burocráticas imprescindibles: la del servicio de correos, la de autorización de salidas, la de permisos oficiales*¹⁶⁵; bolalekua lehendabizi, eta beste kokagune batzuk ere aurrerago, janaria prestatzeko moldatu zituzten milizianoek; eliza biltegi modura egokitu eta mezak San Martineko ermitan egiten ziren; eskolak bulegoetarako edo lotarako erabiltzen ziren; zehazki inon aipatua ikusi ez dugun arren, ziur udaletxea ere bulego lanetarako behintzat baliatu zela garaiotan; herriaren sarbideetan sartu-irtenak kontrolatzeko postuak zeuden; eta zaurituak artatzeko ospitalea zegoen.

Otxandion zegoen fronte mailako ospitalea. Eta han egoten zen Don Vicente San Sebastian. San Sebastian Klinikako ugazaba egoten zen mediku taldearen buru. PEDRO ORUE ERRASTI.

Eta etxeak okupatu eta erabiltzeaz gain, eraikin berriak altxatu zituzten milizianoek: Elikagaiak eta animaliak gordetzeko 6-7 barrakoi Mekoletan, baita azkenerako bukatu gabe geldituko zen botikinerako beste bat: *Ez zen amaitu. Botikina esaten zitzaion, baina zen miliziano zaurituak eta atenditzeko. Mediku bat egongo zen*¹⁶⁶, gogoratzen du Pedro Oruek. Pixkanaka babeslekuak eraiki ziren. Bolalekuan bat eta kale arteko kantoietan hiru behintzat bai, etxe partikularretan antolatutakoez aparte. Lehenengoak ia 200 lagunentzako lekua zeukaten.

164. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1937-1-18.

165. *Euzkadi*. 1936-7-26.

166. Elkarrizketa. Pedro Orue Errasti.

Bestelako azpiegitura lanei ere ekin zieten.

Eta proiektua zen Motxotegitik kaminoa egitea, kainoiekin Bitoria harrapatzeko. Baina ez zen akabatu hori kamino hori. Ofensiba etorri zen, eta ez zien eman denborarik. Arratia inguruko jendea etortzen zen bidea egiten, kamioietan ekartzen zituzten. Igual ibiliko ziren 300 gizon edo gehiago kaminoa egiten, e? PEDRO ORUE.

Etxeetako sabaietan lo egiten zutenek egin zituzten barrakoiak. Gordobilen, erreka izkinan, barrakoi enorme batzuk egin zituzten. Zubia ere berria egin zuten. Han zegoen zubi erromatarra, eta erromatarra bota, justu-justu pasatzen zen gurdia handik, eta egin zuten berria, zementuzkoa, handia. Gero han egiten zuten lo milizianoek. Obrak hasi zituzten, txabolak eta horrelako zerak. Baina amaitu barik geratu ziren. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

Bide batzuk hobetu egin zituzten ibilgailuei bidea errazteko, beste batzuk ia hutsetik egin ziren. Ezagunena, egun ere *gorrien bidea* esaten zaiona da. Zumeltzako larreak, Diman orduan hasi ziren aireportu bihurtzeko egokitzen, baina, ironia tristea, lanak amaitu aurretik matxinatuak sartu ziren Otxandion, eta haiek bukatu eta erabili zuten ondoren, beste lurralde batzuk bonbardatzeko.

Beste zeregin garrantzitsu bat gotortze lanak ziren. Herrian bertan eraiki zituzten babes azpiegituz gain, herriko sarbideetan eta inguruko mendietan lubakiak eta defentsarako egiturak altxatu zituzten. Legutioko errepidea mozteko porlanezko harresi erraldoia jarri zuten, eta Motxotegi, Tantaibakar eta beste mendi askotan lubaki lan-
duak antolatu ziren...

Eta, noski, armak nonahi. Hasiera batean, eskasagoak:

Tankeak. Lau tanke ekarri zituzten. Esango dizut zelako tankeak ziren, baina. Kamioi zaharrak, txapaz estalita eta soldaduentzako bentanillekin. JUAN PADILLA.

Modernoagoak, ondoren:

Hemen, eskolan, egon ziren artilleroak eta kainoiak. "Leonak". Niri gero suertatu zitzaidan soldadutzan egon nintzenez horiekin maniobretan ibiltzea. Bota nituen 12 tiro kainoiokin. Proiektil bakoitzak 45 kilo zeukan. Hemendik Bitoria jotzeko asmoa zeukaten, baina ez zuten lortzen, alkanzea 12-24 kilometro bitartekoa zuten. PEDRO ORUE.

Kainoiak ipini zituzten Mekoletako bigarren zubian, Otxandiotik joanda. Han ipini zituzten kainoi handiak, mortalak. Terribleak. Eta hortik egiten zituzten tiroak Billerleko dorrera. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

Tanke gehiago heldu ziren aurrerago. Aire erasoen kontrako metrailetak, obusak, fusilak, esku-bonbak eta abar. Otxandioarrek, armak ikusi bakarrik ez, sufritu ere egiten zituzten.

Kainoiak zeuden. Bat hortxe gure soro gainean, eta beste bat han, Zubibarri izkinan. Disparatzen zuten, beti ere gauean, eta [susto keinua eginez] ematen zuen gaeuz, tiratzen zutenean. Eta gero hemen argiak egon ziren, bastante, eta jakina blankoa egiten zuten besteek. Auzoko argi denak kendu ziren. JUAN PADILLA.

4.2.1.3. Otxandioarrak, milizianoekin bizitzen

Botere militarra eta herriaren okupazio eta berrantolaketara moldatu ez ezik, otxandioarrak milizianoekin batera bizi beharrean aurkitu ziren. Lehenik eta behin, milizianoek herritarren etxeak erabiltzen zituztelako lotarako. Ia etxe guztietan sartu zen miliziano edo soldaduren bat, ehunka heldu ziren eta. Emilio Donado, herriko irakaslearen semea izanik, eskolan bizi zen familiarekin. Gogoan du nola soldaduak heltzean senide batzuenera alde egin behar izan zuten, milizianoek eskola hartu baitzuten bizileku. Orduan neska-mutiko gazteak izanik ere, otxandioar gehien-gehienek dituzte gogoan euren etxean, normalean ganbaran edo kortan, lo egiten zuten miliziano taldeak.

Gudariak etorri zirenean, gure etxe zaharreko kamaran egiten zuten lo. Gero aitak batutako esnea egosi, eta jan... Beste batzuk etortzen zirenean, haiek martxatzen zuten. (...) Gudariak kamaran egiten zuten lo, eta beti egoten ziren fusilak-eta garbitzen. Gudari bati fusila dispartatu eta besoa pasatu zion. Han negar batean, dena odola...! Hartu eta Bilbora eroan zuten, ospitalera. ANDRESA LOPEZ DE LETONA.

Kortan egiten zuten lo. Goian ez zegoen lekurik, eta kortan, ondo ipinita eta, baina han. BASILI URIGOITIA.

Baserrian milizianoak zeuden, bai. Kortan, eta oheetan eta, ahal zen lekuan. Hemengo konpainia zan Arratia, hemen egon zena, eta asko gure aitaren ezagunak, hango mutilak. BIXENTE AMONDARAIN.

Uste dut lo egiten zutela batzuek, Accion Vascakoek. JON LASUEN.

Gure etxean egon zen konpainia metrailadorea, kapitainarekin. Errelebatu egiten ziren. Lubakietara jaitsi eta etxera igo, 8 egun eta aldatu, konpainia erdia eta beste erdia. Kapitainarekin oso ondo arreglatzen ginen. Kapitainak goian gure etxean egiten zuen lo, eta gainontzekoak baserriatik zehar. JUAN PADILLA.

Mekoletan ensegida bete ziren etxeak. Sabaiak, eskola... Eskola hartu zuten sukaldaroko eta gero zera... obserbatorio Motxotegirako. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

Etxe denetan egoten ziren soldaduak Mekoletan. Tropa, etxe denetan. Baten 20, bestean 30, denak beteta, zelan frentea zegoen hemen. Errantxoia egiten zuten hor behea, pagadi baten. Denak joaten ziren hara bazkariten. JUAN PADILLA.

Milizianoak partitu ziren etxeetan. Baten 30, bestean 40, 50. Hamabost egunean behin erreleboa egiten zuten. Frentean, Maroton, Albertian, Mirugain... 15 egun frentean eta hamabost Mekoletan. (...) Erreleboa gauez egiten zuten, autobusean, argirik gabe. PEDRO ORUE.

Historiari begirada bat emanez gero, gerretan ohikoa da militarrek hamaika triskantza, gehiegikeria eta ankerkeria egitea zibilekin. Otxandion ez zen horrelakorik gertatu, antza. 1936ko gerra berezia izan zen alde horretatik. Ejerzito errepublikanoan orokorrean eta Otxandion aritzen zirenen artean nabarmen, miliziano boluntarioak ziren gehienak, ez militar profesionalak¹⁶⁷. Askotan hurbileko jendea zen ikuspegi soziologikotik eta

167. Euskal Armada osatzeko kintoei deitzean, aldatu egin zen egoera. Horrek bestelako arazoak ekarri zituen, gogoz kontrako soldaduak gehiago izatean (desertzioak, autolesioak etxera bidaliak izateko esperantzaz...). Otxandioarrei dagokienez, euren testigantzetan ez digute aldaketa honen ondorioirik adierazten.

ez ziren ari lurralde arrotz batean borrokan, eurenean baizik; ez zebiltzan erasoan, defentsan baizik, altxatuei aurre egiten. Herritar gehienak alde zituzten, gainera.

Otxandioarrek hitz onak dituzte orokorrean milizianoentzat. Nahiko harreman izaten zuten eurekin, eta ez soilik etxean zituztelako bizitzten. Janaria ematen zieten askotan, trukatu ere bai batzuetan, otxandioar batzuek milizietan egiten zuten lan... Batzuk eta besteak elkarren eguneroko bizitzaren parte ziren, azken finean. Sebastian Astola otxandioarra indar errepublikanoentzako sukaldari eta garraiolari lanetan ibili zen hila-bete haietan. Milizianoen artean zegoen aniztasuna ikaragarria izanik ere, hauen eta herritarren arteko harremana ona zela diosku. Gogoan du bereziki CNTko sarjentu bat, alderdietatik aparte ibilia beti, baina sentimendu abertzalekoa zena, *mutil ona!* Eta, orokorrean; *Ondo, ondo. Hemen ondo egon zen. Beti egoten da gorabeheraren bat baina ez, normal*¹⁶⁸. Gainontzeko kontakizunek antzeko egoera azaleratzen digute:

Borondate onekoak ziren, e? Gorriak etorri zirenean esaten zuten: "Aiba, esto", azukre beltza (...) Dena eman. Ondo portatzen ziren. Eta borrokarik, berriketarik, haserrerik edo horrelakorik, bat ere ez. Jendea modu onekoa, Sopena aldekoak eta horkoa, jende terriblea. Makina bat etortzen zen gero, gerra pasatuta, bisitan. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

Gu gazteak, eta umeak, badakizu, zulorik zulo ibiltzen dira. Gu ibiltzen ginen eta azukrea osten genuen. Intendentzian utzi egiten ziguten sartzen, eta han egoten zen kozinero bat, hark karameluak egiten zizkigun, zartaginean bota azukrea, makilak ipini, atera zartagineko azukre hori eta txupa-txusen moduan, karameluak egiten zizkigun. Umeok horixe gura! Han ibiltzen ginen bere atzetik beti.(...)

Mekoletako iturrian garbitzen zuten aurpegia. Eta bizarra egin, arropa kendu eta arreglatzen ziren gudariak (...) Han ibiltzen ginen, ea topatzen genuen zer edo zer. ANDRESA LOPEZ DE LETONA.

Abegikortasunezko hitz hauek ez dute esan nahi arazorik egon ez zenik. Paisaia idilikorik ez zegoela azaltzen diguten zenbait informazio aipatuko ditugu adibide gisara.

Milizianoen artean bazen portaera gatazkatsurik. Denbora bat kanpoan izan eta gero herrira bueltatu ziren hainbat otxandioarrek kalteak topatu zituzten etxean: gauzak apurtuta, zikinkeria, utzikeria... Txikizioak auzokoen kontua izan ziren batzuetan, baina beste hainbat bider milizianoek egindakoak ziren. Oscar Basagurennek, esaterako, salaketa jarri zuen, aseguru etxetik kalte-ordainak jasotzeko. Bonbardaketa ostean herritik ihes egin eta miliziano talde batek hartu zuen ostatu bere etxean: *Se alojaron en ella y causaron destrozos y robos tanto en el inmueble como en el mobiliario, salatu zuenez*¹⁶⁹. Edo, 1937ko otsailaren 18an, Meabe 1 batailoiak kexa agertu zuen nagusien aurrean: Amaiur 1 batailoia ordezkatzean, Gurutzetako kanpamendua eta Aramaioko baserri bat guztiz zikin eta apurtuta aurkitu zituztela. Beste eraso baten berri ere heldu zaigu: Frutos Vidal Martinez milizianoa atxilotu egin zuten, elizan kalteak egiteagatik. Ikuspegi orokorrago batekin, Joaquin Vidalen ordezkarearen agintaritzan hartu berri zuen Juan Cueto teniente koronelak "arau-urratzeak" ikusi zituela azaltzen du Otxandiora heldu eta jarraian idatzitako txosten batean.

168. Elkarrizketa. Sebastian Astola Ajuriaguerra.

169. Otxandioko Udal Agiritegia / Bake Epaitegia

Oinarria utzi eta hierarkian gora eginez, agintarien ustelkeriaz hitz egiten digun lekukotasuna ematen du Irrintzi batailoian aritutako gudari batek.

Cuando estábamos en Otxandiano había un oficial que se llevaba todo para casa. Chocolate, tabaco, todo se llevaba. Decíamos nosotros: “Dónde están la cosas? En un Batallón socialista te dan de todo, chocolate, coñac y de todo. Y aquí, ¿dónde está todo lo de aquí? Hasta que nos pusimos en el monte a observar la casa. Le vimos y bajamos corriendo. Digo: “A ver lo que tienes ahí en eso. No empecemos aquí que nos lo quitan, cuando eres tú el que se lo lleva”. Dimos un parte por escrito, pero era igual. Si era alférez primero, luego era teniente. Todos eran iguales... ¡qué cuadrilla!¹⁷⁰

Gerran, bataila psikologiko eta propagandistikoa garrantzi handikoa da. Honen barruan, ardatzetako bat norbere borrokalarien ausardia goratzea eta etsaiaren borrokarako grinarik eza nabarmentzea da. Eman nahi den irudi horretatik aldentzen diren portaerak, ordea, normalak izaten dira gerretan. Kasurako, frontetik aldentzeko, soldaduek bere burua zauritzea edo borroka egoeretan ihes egitea. Zerbaitengatik fusilatzen dituzte desertoreak, egon badaudelako, eta gehiago egoterik nahi ez baldin bada, bizitzarekin zigortzea irtenbide onena jotzen delako. Gerra krudela eta beldurgarria da, eta aztertzen ari garen gerran gainera borrokalari gehienak zibilak dira, herritar “arruntak”, biziko dituzten egoerei aurre egiteko prestakuntzarik gabeak. 1936ko urrian, Otxandioko fronteko nagusiak Gerra Saileko zuzendari nagusiari zenbait bajaren berri eman zion, horien artean lau milizianoena. Zergatia: “*Cobardía espontáneamente confesada*”¹⁷¹. Ofentsiba egunetara salto eginaz, errepublikanoen ondoan borrokatu zen Ricardo Alvarez Royuela militarrek frontetik ihes egin zuen mutil gazte baten kasua jasotzen du bere oroitzapenetan. Nagusia han bertan fusilatzekotan zegoela, (“*deserción frente al enemigo, pena de muerte, ejecución inmediata*”) matxinatuen hegazkin bat agertu zen bonbak jaurtiz, eta azkenean bonbek hil zuten gaztea¹⁷². Ziurtasun osoz, kasu hauek gehiagoren erakusgarri baino ez dira.

4.2.1.4. Otxandioarrak miliziano

Herria ez ezik, zenbait herritar ere “militarizatu” egin zirela esan genezake. Sebastian Astola sukaldean hasi zen milizianoekin lanean, eta denborarekin armekin ere arituko zen. Berarekin batera Bernardino Bengoa, Nicolas Pujana, Antonio Imaz, Francisco Pildain eta Isaac Gonzalez de Audikana herrikideak ibili ziren. Bizkaiko ofentsibaren garaian, atzera ari zirela, Bernardino Sopuertan geratu zen. Santanderren banatu zen taldetik Isaac ere, bonbardaketa baten ostean. Gainontzekoak Santanderren itsasoratu, Arcachonen lehorreratu eta Katalunia aldean jarraitu zuten borrokan¹⁷³. Baina horiek aurreragoko kontuak dira. Fernando Arrizabalaga ere lehendabiziko egunetatik aritu zen miliziano. Mandazain moduan hasi zen.

170. RUIZ, Santi. In: AZKUE, K. *Irrintzi. Grito de libertad* (I. liburua), 1. arg. Bilbao: Editoriala, 2006: 463 or.

171. IRARGI / Eusko Jaurjaritzaren Funtsa / GE-0506-16.

172. ÁLVAREZ ROYUELA, Ricardo. *Guerra de España 1936-1939. Testimonio de un militar de la República*, 1. arg. Donosita: Hondarribiko Udala, 2007; 59. or.

173. Elkarrizketa. Sebastian Astola Ajuriaguerra.

Hasierako uneotan beraz, otxandioar nahikotxo hasi ziren Otxandioko zutabearentzako zereginak egiten. Sebastian eta Fernandez gain, beste iturri bat dugu haietako batzuk behintzat identifikatzeko. 1936ko urriaren bigarren hamabostaldian Otxandio, Ubide eta Gorbeia frontean ari zirenen soldaten kitapenerako zerrendetan, hainbat izen agertzen zaizkigu bakoitzaren betebeharrekin batera:

4. Koadroa: Otxandioko zutabearentzako lan egindako otxandioarren zerrenda

GABRIEL BENGOA	Gida eta 1. Konpainiako sukaldaria
ANTONIO BENGOA	Otxandioko gida
MARCELINO OIANGUREN	Otxandioko gida
TOMAS LEJARZEGI	Otxandioko gida
FRANCISCO OLABARRI	Otxandioko gida
UBALDO LARREA	Otxandioko gida
PANTALEON MAGUNAZELAIA	Otxandioko gida
ANDRES IMAZ	Otxandioko gida
JOSE MARIA AMENABAR	Otxandioko gida
JOSE APOITA OGARA	Otxandioko gida
TOMAS SUSAE	Otxandioko gida
TEODORO PUJANA	Otxandioko gida
JUAN MUGABURU	Otxandioko gida
BERNABE BENGOA	Otxandioko gida
ZABALA	Otxandioko gida
FERMIN ARRESE	Mandazaina
JULIAN TRAPERO REBOLLAR	Mandazaina
ELIAS AJURIAGERRA AGIRREGABIRIA	Mandazaina
DOMINGO AJURIAGERRA ARTABE	Mandazaina
VALENTIN AIZPEOLEA ORTIZ DE ZARATE	Mandazaina
BERNARDINO BENGOA AJURIAGERRA	Mandazaina-Sukaldea
NICOLAS PUJANA ELGEA	Mandazaina-Sukaldea
ANTONIO IMAZ ALAVA	Mandazaina-Sukaldea
SEBASTIAN ASTOLA AJURIAGERRA	Mandazaina-Sukaldea
FRANCISCO PILDAIN LANGARIKA	Mandazaina-Sukaldea
ISAAC GONZALEZ DE AUDIKANA	Mandazaina-Sukaldea

Iturria: Bizkaiko Gobernu Zibila. Gerra Saila. Liquidación general de las nóminas de los frentes de Ubidea, Ochandiano y Gorbea, correspondientes al período del 16 al 31 de octubre de 1936. Centro Documental de la Memoria Histórica/Ps Santander/L-90.

Zerrendatutako 26 miliziano otxandioar hauek sasoi hartan ez zuten borroka zuzen-tan parte hartzen, euren arduretatik ondorioztatu dezakegunez. Hiru zituzten zeregin nagusiak: miliziano eta militarrei inguruak ezagutzen lagundu gidari lanak eginaz, sukalde kontuetan lagundu, eta janaria, munizioa edo bestelakoak eraman batailoiak zeuden Otxandioko inguruetara.

Sukaldea bolaleku aurrean egoten zen. Kozinak, frente guztirako. Hor egoten ziren horiek, Nikolas eta, Rubio eta (Otxandioko bizilagunak)... mandazain. Eramaten zuten janaria mandoan, Mirugaira eta Motxotegira eta. JON LASUEN.

Milizianoak etorri ziranean “oye chaval haz esto, oye chaval haz aquello” esaten euskuen eta horrela sartu ginan miliziano... lehenengotako milizianoak izan ginan... patatak zuritu, dinamita eta munizioa eroan Jarindo edo Marotora... janaria eroan Villarrealako aldatzaraino... hara etortzen ziran milizianoak bila... SEBASTIAN ASTOLA¹⁷⁴.

Teníamos la misión de, primeramente, como no había frentes, en una semana íbamos con guardias de asalto al monte (...) Íbamos de día y bajábamos de noche al pueblo (...) a llevarles la comida, el suministro. A la mañana subíamos con burros, a llevar munición, para las ametralladoras y eso, a las posiciones. Luego, más tarde, cuando ya empezaron a dar la ofensiva por Guipúzcoa, por Mondragón y por ahí, que fueron entonces los ataques de los montes de Isuskiza y, pues ya empezamos a avanzar un poco en los frentes, para coger posiciones. FERNANDO ARRIZABALAGA.

Estreinako egunetan, gainera, garrantzizko beste betekizun bat izan zuten Otxandioko herritar batzuek. Ehunka miliziano ezezagun joan-etorrian kontrolik gabe, frontea hurbil, miliziano, militar zein zibil asko eremu batera edo bestera pasatzen... Mugimenduak kontrolatzea ez zen batere erraza izango.

Hor hasi ginen. Gu ipini gintuzten, klaro, kanpotik etortzen zen pertsona bat, herrikoa edo ez herrikoa, eta zelan denak ziren milizianoak, kanpoko jendea. (...) Guk esaten genuen herrikoa zen edo normala zen edo, holan. Hori kontrol hori ibili genuen. SEBASTIAN ASTOLA.

Sebastian Astolak sukaldeko lanak gogoan ditu, prestatu beharreko janari kopurua ez zen nolana hikoia eta. *Goizez altxatu eta sukaldera. Lan asko egoten zen (...) dozena erdi perolo egiten zen*¹⁷⁵.

Milizianoek egunean 10 pezeta irabazten zituzten, baina antza miliziano otxandioar hauetako batzuk “maila baxukoak” ziren. Mandazaina-sukaldea betebeharrarekin agertzen zaizkigun seiak kenduta, gainontzeko hogeiek 10 pezetaren orde 9 kobratzen zituzten. Edonola ere, ondo baino hobeto zetorkien diru hori bai eurei eta bai senideei, egun zail haietan aurrera egin ahal izateko. Ziurrenik baziren soldatapean egon gabe ere indar errepublikanoentzat lan zehatzak egiten zituzten otxandioarrak, trukean ordainsari bat jasota. Sebastianek kontatzen digun zeregin honen modukoez ari gara:

Gure aita idiekin zerera, Jarindora eta, munizioa eramaten. Pentsa, idiekin tipi-tapa, tipi -tapa. SEBASTIAN ASTOLA.

Azkenik eta eguneroko elkarbizitzak sortutako giroaren ondorioz, ordainik jaso gabe indar errepublikanoei laguntzen zietenak ditugu. Florencia mekoletarrak eskolan ezarrita zegoen aginte postuaren eta eskolaren artean ematen zuen egunaren zati handi bat. Soldataren truke aritu zen galdetuta, *Ez, ez. Eguna pasatzeko. Errefugiara joaten ez ginenean hantxe egoten ginen* erantzuten du:

174. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkartea, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 80. or.

175. Elkarrizketa. Sebastian Astola Ajuriaguerra.

Milizianoak beti gora, behera, gora, behera... Baina ziren jende ona, e! Jende ona. Eskolan egiten zieten janaria. Eta gu neskatoak. Eta kozinero bat egoten zen, Sestaokoa edo zen, baina zelebrea itzela. Eta esaten zigun; “¡Chavalas, mañana a pelar patatas, eh!”. Eta joaten ginen patatak zuritzen. Eta gero; “Mañana tengo que poner huevos duros con tomate, y ¡a pelar huevos, eh!”. Eta halantxe ibiltzen ginen.(...)

Eta gero jefeeek telefonoa zeukaten, eta; “Chavalas, al teléfono, a ver por quién preguntan”. Eta han preguntatu, “que se ponga fulano”. Ipintzen zen, berba egiten zuten, eta “cuidar el teléfono y con el cocinero a ver lo que os manda”. Hantxe pasatzen genuen denbora. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

4.2.2. Milizianak (*¿Mujeres de la vida?*)

Ez al zegoen otxandioar emakumerik milizian lanean? Ez. Eta herriz kanpoko emakumeak ere, oso gutxi. Urriaren bigarren hamabostaldian gutxi gorabehera 560 milizianori ordaindu zieten soldata Otxandioko frontean; azaroaren lehenengo hamabostaldian, aldiz, 745 bati¹⁷⁶. Izen-abizen guztien artean, 18 emakume soilik aurkitu ditugu. Ematen du hasieran gehiago izan zirela eta pixkanaka euren kopurua murriztu egin zela, data ezberdinetan Otxandiotik gune matxinora ihes egin zuten hiru pertsonak kontatu zutenez¹⁷⁷.

CNTko anarkistak zirela zabaldu da hainbatetan, baina ez dugu ziurtatzerik. Hori bai, pentsatzekoa da gehienak ezker erradikaletik zetozela, kontuan hartuta nolako haustura zen urte horietan emakume bat milizian ibiltzea. Sebastian Astolak ondo gogoratzen ditu, elkarrekin aritu baitziren sukalde lanetan. Anarkistak ziren galdetuta, une jakin batean baietz esaten digu konbentzimendu handirik gabe, baina lehenago dene-tarik zegoela aipatua digu: Clotilde *Billerlekoa*, Cesarea izeneko bat Bilbokoa, *komunista edo*, Candida, *periodikoa saltzen ibiltzen zen*. Jose Alvarez Crespo Garellanoko soldaduak ihes egin ostean Nafarroako Brigadei esan zienaren arabera, *Al principio había mujeres en los frentes, las que luego fueron retiradas*¹⁷⁸.

Egokitzen zitzaizkien betebeharreri dagokienez, orokorrean *auxiliar femenino* moduan agertzen dira, zehaztapenik gabe, edo garbiketa eta sukaldaritza lanetan aurkitzen ditugu. Sebastianek hau baieztatzen digu: *Haiek milizianak ibiltzen ziren geugaz, kozineroei laguntzen. Ez ziren ibili armakaz*. Baina salbuespenik ere badu akorduan: *Bilbotik etorritako banaka bat egon ziren, ez dakit frentean-edo ibiltzen zirenak*.

Soldatei erreparatuta, otxandioarren kasuan gertatu bezala, emakumeek gainontzeko milizianoek baino lansari txikiagoa zutela ikusten dugu. Urriko bigarren hamabostaldian, 9 pezeta 10en ordez. Hori teorian, zeren eta praktikan eguneko 4 pezeta baino ez zuten kobratzen, dirua zor zaiela azaltzen bada ere. Baina azaroaren lehenengo hamabostaldian eguneko 6 pezeta jaso zituzten, eta kasu horretan ez dago bestelako oharrik¹⁷⁹. Ordurako hori zutelako soldata? Eta soldaten aldea ez zen betebeharrak

176. Centro Documental de la Memoria Histórica / Ps Santander / L-90.

177. Archivo General Militar de Ávila / C. 1539, Cp.10, D.1; Archivo General Militar de Ávila / C. 1537, Cp.74.

178. Archivo General Militar de Ávila / C. 1539, Cp.10, D.1

179. Centro Documental de la Memoria Histórica / Ps Santander / L-90.

ezberdinak zirelako, ardua berdintsuak zituzten gizonek 9 pezeta kobratzen jarraitu zuten eta.

Hasierako galderari helduz berriro ere, zergatik ez zegoen emakume otxandioarrak milizian?

Neskak miliziano, herrikorik bat ere ez zen ibili (...) Orduan, holan, zerean ibiltzeko erreparoa edukitzen zuten. Orain ez daukate erreparorik, baina orduan edukitzen zuten. Haiek anarkisten moduan edo... SEBASTIAN ASTOLA.

Ematen du Sebastianek dioskuna egia dela... eta motz ere gelditzen dela zenbait emakumek azaltzen duten "erreparoen" kontu honetan:

Egoten ziren milizianak, buzo azulakaz eta, "mujeres de la vida" izango ziren haiek, gizon guztiakaz han ibiltzen ziren. Dantzan egiten zuten elizan, horrexegaz akordatzen naiz, ze izkinetatik begiratu eta zelan ikusten genituen. "Han, han, han, dantzan!". ANDRESA LOPEZ DE LETONA.

Horiek, fulanak denak. Denak fulanak. Etorri ziren Bilbotik holantxe [asko, keinua eginenez]. Zer egiten zuten? Hemen dantzan, elizan, organoa jota. Horiek ez zuten beharrik egiten. Ez ziren frentera eta holan ibiltzen. Intendentzian egiten zuten zeozer. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

Aipatu dugu lehenago ere zenbait milizianoaren ideia eta jarrerak sentimendu kontrajarriak sortuko zituztela Otxandion gehiengoa ziren herritar kontserbadoreen artean. Hau dugu adibideetako bat. Ikuskera mota honen beste adibide bat Nafarroako Brigaden txosten batean dugu. Otxandiotik eremu matxinatura ihes egindako Garellanoko 4 militarrek fronte horren inguruko informazioa eman zuten. Andreino Delgadok zehazki, honakoa ziurtatzen du:

En el sector de Ochandiano, gran infección venérea, debido a las milicianas, que están retirando por los estragos que causaban¹⁸⁰.

Ikuskera jakin baten adierazle dela diogu, dioena egia edo gezurra den alde batera utzita, berdin-berdin leporatu dakielako gaitza zabaltzearen errua gizonezkoei. Beti ere, emakumeek sexu-harremanak izatera behartzen ez bazituzten, noski.

Esamesetatik harago, emakume hauetako batzuek luzaro iraungo zuten harremanak egin zituzten hilabete hauetan, Florencia otxandioarrak kontaktzen digunaren arabera –eta oraingoan aurreko hitz gogorak aldatuak ikusten ditugu–. Gerra ostean jada, zenbait ezkontza aipatzen dizkigu.

Andresa, santaderina, ezkondu zen Dimako bategaz. Lapurriketan, hantxe bizi ziren. Eta Josefa, Lastragaz ezkondu zen. Eta bestea ezkondu zen, ezkondu edo behintzat ibiltzen zen, Antonio Zabalagaz. (...) Pertsona formalak irten zuten. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

180. Archivo General Militar de Ávila / C. 1537, Cp.74.

Otxandion ibilitako emakume anarkista zehatz baten berri badugu. Julia Hermosilla Sagredo zen, sestaoarra eta CNTkoa. Asmo handinahiez hurbildu zen Otxandiora, baina ez zuen zorte handirik izan:

Al producirse la rebelión militar, Julia engrosó el grupo de milicianas libertarias en el frente de Ochandiano en los primeros meses de la guerra. Se le confió la misión de internarse en territorio enemigo para rescatar al doctor Isaac Puente, compañero al que había acudido años atrás para ponerse al corriente de los métodos anticonceptivos. Por desgracia, no pudo evitar la pronta detención y desaparición de Puente. Durante el bombardeo de Ochandiano le estallaron los tímpanos, dejándole graves secuelas y sordera durante bastante tiempo¹⁸¹.

4.2.3. Egunerokotasuna bonben azpian

Eraldaketa sakon guzti hauen erdian, herrian jarraitzen zuten otxandioarrak gerra aurreko bizimoldeari eusten ahalegindu ziren. Hala kontatzen dute behintzat garaiok gogora ekartzean. Ortua landu, behiak atera eta jaten eman, ardiak gobernatu, dendaz arduratu... Juan Padilla artzainak, esaterako, artaldea fronte ingurutik urrundu eta atzealderantz mugitu bai, baina ardiekin jarraitu zuen¹⁸². Andresa Lopez de Letonak dioen moduan, *igual jarraitu behar*:

Mekoletan inor ez zen joan. Denek zuten ganadua-eta... Osabak ere ardiekin eta basoan ematen zuen eguna. ANDRESA LOPEZ DE LETONA.

Sebastian Astolak antzera hitz egiten digu: *Eguneroko bizitza, baserri bizitza izanda eta, nahiko antzeko*¹⁸³. Elkarrizketetan kontrako aldea nabarmentzen digun bakarra Florencia Lopez de Letona da: *Klaro, aeroplanoen beldurrez inork ez zuen ezer egiten. Esnerik ere ez zen saltzen, ezer ez*¹⁸⁴. Beste lekuko batzuk, ordea, esne salmentaz edo milizianoekin trukaturako ortuko produktuez ari zaizkigu. Lourdes Kapanagak beldurrak zeharkatutako normaltasun hau laburbiltzen digu:

Giro txarra ez zegoen. Kanpaien beldurra beti, noiz hasiko. Baina marti hura, ofensiba zertu arte, bastante trankila izan zen. LOURDES KAPANAGA.

Ziur aski denak ez, baina zenbait dendak zabalik eutsi zioten. Ahal zutenek behintzat irekita izango zuen, herrian ehunka miliziano joan-etorrian izateak salmentetarako aukera emango zuen eta.

Pentsatzen dut egongo zirela [dendak zabalik]. Ez daukat horrenbesteko noziorik, baina jendeak jaten zuen, eta han ematen zitzaiezen bakarrik ez zen hornituko. SEBASTIAN ASTOLA.

181. <http://gipuzkoa.cnt.es/spip.php?article425>

182. Elkarrizketa. Juan Padilla.

183. Elkarrizketa. Sebastian Astola Ajuriaguerra.

184. Elkarrizketa. Florencia Lopez de Letona Arruabarrena.

Are gehiago. Marcos Ibarrondoren aitak ez zuen dendarik gerra aurretik eta hilabete haietan hasi zen hainbat produktu saltzen, gerra egoerak eskaintzen zituen aukera berriei adi. Antzeko kasu gehiago ere izango ziren agian:

Haiek [milizianoak] egunean erreal bi edo edukitzen zuten soldata, eta non gastatu ez. Eta gure aitak taberna moduko bat ipinita zeukan han, eta kafea eta zigarro puru batzuk edukitzen zituen. Eta han gastatzen zuten dirua. Gu, ondo. Eta besteekin ere bai, alemanekin. MARCOS IBARRONDO.

Haurrentzat aldaketa handia ekarri zuen gerrak, eskolak bertan behera geratu ziren eta. Jolaserako tarte gehiago batzuentzat, Mari Carmen Urigoitiarentzat kasu: *Umeak ginen, umeak, 11 urterekin zer egingo genuen, ba, guk orduko denboretan? Olgatu eta olgatu*¹⁸⁵.

Gerra aurreko bizimoduari eusteko ahalegin honetan, zailtasunik handiena sarri izaten ziren obus eta hegazkin bonbardaketei gailentzea zen. Eta, are zailtasun handiagoko erroka beharbada, edozein unetan bonbardatua izateko beldur etengabea gainditzea.

Uztailaren 22ko gertaera odoltsuaren ostean, bonbardaketei aurre egiteko bitartekoak ipini ziren. Lehenik eta behin, zaintza postuak San Bernabe ermitan eta kanpandorrean; San Bernabeko behatzaileek hiru tiro egiten zituzten arriskua sumatzean, eta orduan kanpaiak dilin-dalan hasten ziren. Kanpai hotsa entzunez gero, herritarrek eta milizianoek ondo zekiten nola jokatu: *Handik abisatzen zen eta jende guztia arineketan joaten zen* kontatzen digu Sebastian Astolak. Arineketan nora? Eraikitako babeslekue-tara. *Beldurretan. Baten bat hasten bazen kanpaia entzuten lasterka errefugioetara* akordatzen da Basili Urigoitia. Babesleku handiak ziren, ia 200 lagun hartzeko beste-koak. *Bolalekuan eta gero kantoietan, etxe bitarteetan arbolakaz eta harea zakuakaz eginda*, jarraitzen du Basilik. Bolatokikoaz aparte behintzat beste hiru babesleku altxatu zituzten, denak herrigunean. Dakigunez, auzuneetan (Mekoletan, adibidez) ez zuten babeslekurik eraiki eta bakoitza ahal zuen tokian ezkutatzen zen.

Zenbait balkoitan izara zuriak eskegitzen zituzten, bonbardaketen helburu ez izateko esperantzaz¹⁸⁶. Antza, ganaduak ere laguntzen zuen babesten.

Gurean behi bat geneukan, Gallarda izena zeukan. Ganaduek ere, bakoitzak bere izena edukitzen zuten: Gallarda, Morika, Txuri... Bueno, ba Gallardak, Bitorian hasten zirenean aeroplanoak mugitzen, nerbioekin, a zelako putzak egiten zituen! Eta aitak esaten zuen: “hori mugitu da, eta bizkor, e!”. Entzuten zuten abioien zarata edo. BASILI URIGOITIA.

Basilirekin hizketan gaudela ondoan dugu Emilio Donado otxandioarra ere, eta hori entzutean Basilik dioena egia dela esaten digu, animalien portaerak esaten ziela abioiak bidean zeudela.

Obusen jaurtiketak eta abioien bisitak ohiko bilakatuta, herritarrak erne zebiltzan:

185. Elkarrizketa. Mari Carmen Urigoitia.

186. Elkarrizketa. Pedro Orue Errasti.

Aeroplano bat izena ipinita geneukan: “El abuelo”. Aeroplano handi bat. Ha zen Otxandion bonbak bota zituen. “Badator El Abuelo!”, eta arineketa denak, inor ikusi ere ez zen egiten. Kortan-eta gordetzen ginen. ANDRESA LOPEZ DE LETONA.

Abioiak hirunan-hirunan-hirunan etortzen ziren. Eta haiek etorri orduko espabilatu egin behar. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

Irail hasieran, adibide gisara, Mekoleta bonbardatu zuten abioi matxinoek.

Santa Luzia egunean bonbardatu zuten Mekoleta. Bota zituzten hiru bonba. Bi, gure etxe ondoan, ortuan. Batek esplotatu zuen.(...) Aurreko egunean paperen batzuk bota zituzten. Gure amak irten zuren berduraren batzuk eske ortura, eta ikusi zuen datozela aeroplano bi, eta susmo txarra hartu zuen. Ni Melitonen hiru neskekagaz nengoen, etxe aurrean olgetan, eta ra!, amak hartu eta sartu gintuen kortara, belar-sabaira. Han egon ginen Candida Etxanobe, beste hiru alaba, ni eta ama. (...) Beste bonba bota zuten “Gaberdi”-ren etxean, Maribirenean. Jausi zen teilatuan. Zati bat apurtu zuen, baina ensegida konpondu zen. PEDRO ORUE.

Felix, neba, jaiotzen abuztuaren 28an. Eta Mekoleta bonbardatu zuten irailaren 1ean edo biau. Egun bi zeuzkan ume horrek, ez zegoen errefugiorik eta ezer ez hor, eta sartu ginen ardi kortara. Eta aurreko etxean, “Gaberdi”-renean, Ignacio Pujanarenean, han erdi-erdi bonba sartu zuten. Gero Petra Agirregabiriaren ortuan. Gero Melitonen etxe aurreko ortuan. Gero eskolatik pasatu eta zuloetan bota zituzten bonba denak. Gurean aitak hartu ume hori eta atera zuen kalera. Dena ke beltza, ke beltza dena! FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

Hilabeteotan obusek edo bonbek ez zuten otxandioarrik hil. Kasualitate kontua, jarrarian jasotzen ditugun gertaeren modukoak irakurrita:

(Abioiak) Motxotegitik agertzen ziren, mendi gainetik. (...) Kasik egunero, kasik egunero! Gu eginda gaude, denak ohean harrapatu, eta: “Benga! Espabilatu”. Etxetik beherantza mugitu, Meliton Usaolak nabo arloa zeukan, eta hantxe etzan orri artean. Metrailadoreak gure aurrean sartzen zizkiguten orri artean. Eta gero, handik irten, eta errefugiara. Batzuetan gosea ere galanta, egunean ezer ere jan barik. Osterantzean, osabak ekartzen zigun arroz-esnea. Koilarak ekarri eta lapikotik jaten genuen errefugio modukoan, hantxe. Baina gaua-gaua egin arte, ezin mugitu. Osterantzean haiek biplanook agertzen ziren, metrailadoreagaz, ensegida.(...)

Egon ginen Elormendi ondoan ere. Egun santu guztian arboladi baten. Dena zen pagoa, dena gerizpea, dena-dena. Ezer ere ez zen ikusten. Hantxe egon ginen egun guztian. Pasatzen ziren abioiak eta hantxe, egun guztian. Gero esan genuen, gaua egin zenean: “Oraintxe gaua, ja etxera”. Bagatoz etxerantz eta Erdikobiden, –Erdikobide esaten genion gurdi bide bati–, eta hantxe gaudela, metrailadorea. Etzanda egon ginen han, ira artean, luzaro. Han bueltaka ibili zen abioia, han botatzen metrailadorea horregaz. Gero alde egin zuenean etorri ginen etxera. Metrailadorea artetik, bueno, mila bider ere. Suerkez inor ere ez zen zauritu, suerkez. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

Esaten zuen amak behin ere ez zitzaioala ahaztuko egun hura. Irailaren 24an, Merzedeko eguna. Orduan ere, bonbardeoa ez, baina obusak, kainoikadak. Denak sartu ziren errefugiara, baina gure amak entzun ez. Orduan kanpaiak jotzen zituzten, eta entzun ez. Denak “Sekun falta da”, denak auzokoak eta, “Sekun falta da”. Ama joan zen sorora belarra eske (...) Nahi eta kainoikadak ibili, Eusebio “Kaminero”-k irten (...) “Sekun!”, Sekunik ez etxean. Begiratu sorora eta, ene, Sekun hantxe. Etzanda, lurrean. Joan zen eta gure ama lurrean, konorte barik, luze, otzara belarragaz holan [gainetik burua estaliz] bera defenditzen, eta otzararen atzean, obus baten zuloa. LOURDES KAPANAGA.

Eraikin errepublikanoak, Otxandio inguruan. (Argazkilaria: Pascual Marin)



Eraikin errepublikanoak, Otxandio inguruan. (Argazkilaria: Pascual Marin)

Ikuspegia, Santa Marinako kanpandorre gotortutik. (Argazkilaria: Pascual Marin)





Otxandioko frontea.



Mekoleta.



Otxandioko frontea.



Otxandioko frontea.

Zibilak, Otxandioko frontean.



Milizianoak, Otxandioko frontean.



Soldaduak Otxandioko alkatearekin, Andikonan, Legutiotik botatako obusekin.



Munizioa garraiatzen. Otxandioko frontea.

Milizianoen kanpalekua. Otxandioko frontea.



Otxandioko frontea.



Milizianoen
kanpalekua.
Bazkalordua.
Otxandioko frontea



Ezkerretetik eskuinera:
Nicolas Pujana,
Sebastian Astola,
Bernardino Bengoa,
Antonio Peral,
miliziano bat



Milizianoak eta soldaduak, Otxandion.



Sukaldariak.
Tartean, Clotilde
Ruiz legutiarra eta
Candida Gonzalez.



Nómina del personal *Supletoria*
 del 10 al 21 de octubre de 1936

NOMBRES	DIAS	HABER POR DIA		TOTAL	
		Puntos	Cts.	Puntos	Cts.
Bacho Saiz Simas	10	10	160	160	X
Lote Samuel	11	10	150	150	X
Gonzales Sautri Sabino	7	10	70	70	X
Bengoa Gabriel	46	9	414	414	X
Bengoa Mateus	25	9	225	225	X
Cayanguez Marcelino	22	9	198	198	X
Deferoque Eonad	22	9	198	198	X
Habani Francisco	22	9	198	198	X

Otxandioarren soldatak: Supletoria de milicianos debidamente controlados en el frente de Ochandiano. 1936ko urriko bigarren hamabostaldia.

Nómina del personal

NOMBRES	DIAS	HABER POR DIA		TOTAL	
		Puntos	Cts.	Puntos	Cts.
...	...	9	171	171	X
...	...	9	198	198	X
...	...	9	198	198	X
...	...	9	198	198	X
...	...	9	198	198	X
...	...	9	225	225	X
...	...	9	165	165	X
...	...	10	100	100	X
...	...	10	100	100	X

Otxandioarren soldatak. 1936ko urriko bigarren hamabostaldia.

Nómina del personal de la COCINA DEL SECTOR (COCINA DE OCHANDIANO) DOS AL QUINCE DE NOVIEMBRE 1936

NOMBRES	Cargo que desempeña	Profesión	REMUNERACIÓN			Deducción	Líquido a cobrar en suertes	FIRMAS
			Mensual suertes	Semanal suertes	Días suertes			
BERNARDINO BERRON A. GUERRA	ACEMILERO COCINA	LABRADOR			10		100 - Bernardino Berron	
NICOLAS FUJANA RUIZUA	ACEMILERO COCINA	RECTOR			10		100 - Nicolas Ruizua	
ANTONIO IMAZ ALAYA	ACEMILERO COCINA	CALENERO			10		100 - Antonio Imaz	
SERASTIAN ASPOLA A. GUERRA	ACEMILERO COCINA	LABRADOR			10		100 - Serastian Asola	
FRANCISCO PILDAIN LANGARICA	ACEMILERO COCINA	FORNERO			10		100 - Francisco Pildain	
ISAAC GONZALEZ AUREGANA	ACEMILERO COCINA	LABRADOR			10		100 - Isaac Gonzalez	

Imparte esta nómina las figuradas ochocientos cuarenta suertes.

EL JEFE DE COCINA
Jubollain

Al Jefe de Sector
Quem vivo

Otxandioarren soldatak. 1936ko azaroko lehendabiziko hamabostaldia.



Kanpamentu errepublikanoak, Legutio inguruan, 1937an. (Argazkilaria: E. Guinea)



Kanpamentu errepublikanoak, Legutio inguruan, 1937an. (Argazkilaria: E. Guinea)

Isilmandatari
baten oharrak
"susmagarri" baten
inguruan.

— Otxandion —

Averiguar en la zona de Otxandion si se halla por allí Juan Bartolomé Comandante de Infantería. Se sospecha que puede estar en el caserío "Oleto".

El coche B-I-11.250, es conducido por un tal Montoya, sospechoso. Este coche está al servicio del médico de Otxandion Lorenzo del Pozo. No lleva distintivo de la Cruz Roja pero está inscripto.

Un coche ambulancia sale para Bulbarraig a menudo y lleva fideos y patatas al domicilio de Jesus Molina en la Calle Cruzilla. Este puede ser enlace del Comandante Juan Bartolomé.

José Arriaga Basantes elemento de enlace con Manuel Espatza

Baina atalaren sarreran esan dugun moduan, gerra eta bonbardaketak egunerokotasunaren parte ere bilakatu ziren. Gizakiak edozein egoerara moldatzeko duen gaitasunaren adierazletzat hartu dezakegu Santos Irasuegik eta Fermin Garmendiak umoretsu kontatzen digutena:

Santos: Zelan egin ginen esperto? Bueno, teniente batek baino, kapitain batek baino gehiago genekien. Ohean, eta fuuu [abioien zarata], buelta erdi eta lo, trankilo. Txistua sumatuz gero salbatuta zeunden.

Fermin: (barrez) Pasatuta dagoelako!

Santos: Ha txistua jo baino lehenago boum egitea zen txarra!

SANTOS IRASUEGI eta FERMIN GARMENDIA.

Garaiotan, propaganda frankistaren ardatzetako bat eremu errepublikanoan zegoen gosea eta janari eskasia zen, agintari errepublikano eta abertzaleak herritar arruntez arduratzen ez ziren seinale. Otxandioarrek ez digute horrelakorik kontatu. Alderantziz, eskasia gerra ostean heldu zitzaien. Gerraren hilabeteotan ez zuten goserik pasatu; aitzitik, milizianoek eurekin konpartitzen zuten janaria, hainbat kasutan.

Herrikoei jana ematen zitzaien nahi izanez gero. Jende asko hurreratzen zen plateragaz edo, eta hartu egiten zuten. SEBASTIAN ASTOLA.

Ematen ziguten jana, auzoei, gura zuenari. Gisatua edo, bere errantxotik, ona. Amak emango zien berduraren bat edo. Ejerzitoaren orduko aluminiozko plateretan. PEDRO ORUE.

Janari kontuagaz ez genuen arazorik. Egoten zen, intendentzia esaten zioten, holango txabola batzuk, han Fernando "Arrati"-ren etxe aurrean. Eta han egoten zen denetatik: azukrea, garbantzua, baba... Denetatik egoten zen. Goserik ez. Esnea egosita ere ematen zieten. Gero, gerra amaitu eta gero pasatu genituen. ANDRESA LOPEZ DE LETONA.

Orduan jana ere ugari zegoen. Joaten zinen plazara balde bategaz... Igual esaten zizuten soldaduek: "etorri balde bategaz gero", eta ematen zizuten paella. Ona! LOURDES KAPANAGA.

4.2.4. Otxandio: iheslarien pasabide, espioien lanerako toki

Gerra-frontearen muga kokatuta egoteak berezitasun bat eman zion Otxandiori. Herria bera edo ingurunea zeharkatu behar zuten frontearen alde batetik bestera iragan nahi zutenek. Eremuz aldatzeko arrazoiak askotarikoak ziren.

Alde batetik, altxamendua gertatzean bere burua "etsaiaren lurraldean" ikusi zuten zibilak zeuden: matxinoen aldekoak izanik eremu errepublikanoan aurkitzen zirenak, edo ezkertiar edo abertzaleak izanik altxatuek kontrolatutako guneeetan zeudenak. Hau batez ere gerra hasieran gertatu zen. Otxandiok matxinoen kontrolpeko herrietatik ihesean zetozen pertsonak hartu zituen. Otxandiotik abiatu ziren eremu errepublikanotik alde egin zuten hainbat herritar, tartean otxandioarrak:

Itxura denez, horretan zebilen 48 urteko Emilio Olaso Aldai, zapatagina eta Primo de Riveraren diktaduran Otxandion zinegotzi izandako militante tradizionalista, Aramaion atxilotu eta Bilboko “Cabo Quilates” ur gaineko espetxera eraman zutenean. 1936ko urriaren 25ean, Bilbo airez bonbardatu zuten eta marinel talde batek “Cabo Quilates” eta “Altuna Mendi” izeneko espetxe-ontziak eraso zituen. 39 preso hil zituzten, horien artean Emilio Olaso Aldai¹⁸⁷.

Militarrak ere bazebiltzan fronte-lerroa zeharkatzen. Gehientsuenak, kasu honetan, alde errepublikanotik matxinora bidean. Zerbaitegatik hartzen zituzten mesfidantzaz guardia zibilak, Garellanoko kuarteleko militarrek edo eraso guardiak Otxandioko miliziano eta agintariek. Garellanoko soldaduak, esaterako, zorrozki zaintzen zituzten, eta halere batek baino gehiagok lortu zuen Otxandiotik alde egin eta matxinoenganaino heltzea.

Bandoz aldatutakoak ailegatutako lekuan ezarri eta bizitzera mugatu balira, gaiak ez luke hainbesteko garrantzirik. Baina “beste aldetik” zetorrena (edo “beste aldera” ihes egiten zuena) informazio baliotsuen jabe zen askotan: herritarren jarrera gerraren eta bando bakoitzaren aurrean, buruzagien nortasuna, tropen zenbatekoa eta koka-pena, eta abar. Horregatik, bitartekoak jarri ziren heldu berrien informazioa jasotzeko. Nafarroako Brigaden txostenen artean, frontearen bestaldetik heldutakoei egin beharreko galdeketa-eredua aurkitzen dugu. Logikoena litzateke indar errepublikanoek beste horrenbeste behintzat izatea.

Halako bando aldaketez aparte, batzuek eta besteek espioitza lanetarako jendea ere bazuten. Militar edo milizianoak, zein inguruko zibilak. Azken batean, etsaiaren gaineko informazioa lortzea betekizun garrantzitsuenetariko bat da edozein gerratan. Armak hartu zituztenei buruz egin dugun oharrak betekizun honetarako ere balio digu: bando batentzako espioitza lanean aritzeak ez du halabeharrez adierazten isilmandataria bando horren aldekoa denik edo zeregina modu boluntarioan betetzen duenik.

Beste hamaika arlotan aurkitu dugun egoerarekin egiten dugu topo hemen ere. Dokumentazio errepublikanoa eskasagoa da eta ez dago batere sistematizatua, berri solteak baino ez ditugu. Matxinoen aldetik, ordea, informazioa osoagoa eta antolatua heldu zaigu.

Ez dugu honetan sakonduko, ez baita lan honen helburua, baina lortutako datuen egiazkotasuna eta baliagarritasuna eskasa da hainbatetan, askotariko arrazoiengatik: heldu berria beti da susmagarria, eta “entzun nahi dena” botatzeko tentazioa handia izan behar du; norberaren ideologiak nahi gabe ere errealtatea itxuraldatzera eraman dezake iheslaria; pertsona zuhurragoa edo ahohandiagoa izan daiteke eta abar.

Dena delakoagatik, gauza da nahita eta nahi gabe informazioa propagandarekin nahasi zela, errealtatea norberaren desioekin. Horrela soilik azaldu daiteke oinarrizko elementu berdinekin topo egitea bando bakoitzak “etsaiaren” inguruko egoeraren inguruan osatutako txostenetan. Batzuen zein besteen arabera, “etsaia” janariz eskas

187. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandion Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandion Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 45. or.

dabil, adorez larri, diziplina arazoei egin behar die aurre eta bandoz aldatu nahiko luketen zibil zein borrokalari ugari kontrolatu behar ditu.

4.2.4.1. Gorrien informazioa matxinatuen inguruan

Eskuratutako dokumentazioa urria izan arren, zenbait ondorio ateratzeko baliagarria zaigu.

Informazio gehien eskaintzen digun txostena 1936. urte bukaerako bat da. Euzko Gudarosteko Estatu Nagusiko bigarren saileko zigilua darama. *Informes sobre el enemigo* goiburuari *Situación del enemigo en el frente de Euzkadi* azpiztituluak jarraitzen dio. Arabako sektoreari dagokion atalean, matxinoek fronte honetan 4.000-5.000 gizon dituztela jasotzen da, eta artilleriaz eta arma automatikoez ondo hornituak daudela. Ondoren lehenago aipatutako topikoei heltzen die txostenak: elikadura ez dela nahikoa eta errantxoia beti hotz zerbitzatzeko dela; diziplina eskasa dela; morala oso baxu dagoela borrokalarien artean eta “gurera” pasatu nahi duen asko dagoela. Informazioa jasotzeko iturriak zeintzuk izan diren ere zerrendatzen da. Etsaiari atzemandako irrati mezuak, lorturiko dokumentu batzuk, eta matxinoen kontrolpetik heldutakoen lekukotzak¹⁸⁸.

Misteriotsuagoa da blok batean irakurri dezakegun oharra, esku ezezagun batek idatzitakoa. Juan Bartolome komandantea Otxandio inguruan ote dabilen zelatatu beharra azaltzen da bertan. Otxandiotik Bilborako bidea askotan egiten duen autoa kontrolpean du idatzia egileak. Antza, Bilbon etxe jakin batera joan ohi da, eta bertan Juan Bartolomeren kontaktua dagoen susmoa dago. B-I-11.250 matrikula-zenbakidun ibilgailua Lorenzo del Mayo Otxandioko medikuaren zerbitzura dago, baina Montoya izeneko batek gidatzen du, *susmagarria*. Beste balorazio posible batzuetatik aparte, etsaiaren lurraldeaz informazioa lortzeko ez ezik barnean egon daitezkeen etsaiak aurkitzeko azpiegitura baten berri ere ematen zaigu. Itxuraz, Otxandioraino heldu den azpiegitura baten berri¹⁸⁹.

Informazioa lortzeko norbere espioiek duten garrantzia agerian geratzen da 1936ko urriaren 10eko mezu batean. Otxandioko zutabeko nagusiak Euskadiko Gobernuko Lehendakariari erantzuten dio eskatu dizkion pertsonak bidaliko dizkiola Bilbora, baina, ohartzuz:

(...) que por lo que respecta a Antonio Eizaguirre, Juan Castañares, Luis Eribe y Martin Mendizabal es de imprescindible necesidad que regresen seguidamente a este frente, por tener confiada la misión de espionaje en el campo enemigo, el cual se mueve con relativa frecuencia y se precisa conocer su situación diaria y localizar sus efectivos¹⁹⁰.

Irazabal historialariak Legutioko Batailaren prestaketan espioi hauen lanak izan zuen garrantzia nabarmentzen du¹⁹¹.

188. Archivo General Militar de Ávila / C.685, Cp.10

189. IRARGI / Bidasoa Funtsa / 22.14.

190. IRARGI/Eusko Jaurilaritzaren Funtsa/GE-0506-16

191. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 51. or.

4.2.4.2. Matxinatuen informazioa gorrien inguruan

Dokumentazio gehiena Nafarroako Brigadena da, eta hau osatzeko iturri nagusia, gune errepublikanotik ihes egin zutenen testigantzak. Sistematikoki jasoak daudela nabarmena da, informazioa jasotzeko galdeketa-eredu bati jarraitzen baitiote, eta aldiro laburpenak egiten dituzte, hilabetekoak, kasurako.

Badago bestelakorik, halere. Gerra hasi eta jarraian, esaterako, uztailearen 25ean, Legutioko alkateak idatzi bat aurkeztu zuen, “Cumpliendo las órdenes que en el día de ayer me encomendó el Jefe de las fuerzas que pernoctaron en esta villa”. Otxandiora gizon bat bidali du alkateak espioitza-lanetan, eta horren arabera herrian 2.000-2.500 gizon inguru, hiruzpalau metrailadore eta inprobisatutako hiru gurdi blindatu daudela jakinarazten du¹⁹². Espioien erabilera ikusten dugu berriz ere irailaren bukaera aldeko informe batean. Arlabango postuko erreketeen kapitainak jakinarazten du Marin herri-
ra eta Jarindo ingurura isilmandatari bat bidali duela berri bila, zantzu guztien arabera, inguruko biztanleren bat.

Nafarroako Brigaden txostenei helduz, iturria iheslariak izan ohi direla esana dugu, baina iheslariak era askotakoak dira: Ubidetik ihes egin duten bi herritar, egunero posta-lanean Durango-Otxandio bidea egiten duen durangarra, falangista bat, Billaro herriko notarioa, eta, batez ere, militarrek. Otxandiotik Garellanoko 2 kabo eta lau soldadu eta Eraso Guardiako beste bi soldadu behintzat heldu ziren matxinoengana.

Dokumentuen gainbegiratu azkar batek hamaika aldiz errepikatzen diren hiru “klasiko” agertzen dizkigu: eremu errepublikanoan dagoen janari eskasia, moral pitzatua eta diziplina eza. Horrez gain eman ohi dituzten argibideak borrokalaria kopurua, armamentu mota, tropen posizioa eta matxinoen aldeko ofizialen izen-abizenak dira. Testigantza batetik bestera informazioetan aldaketak daudenez, azaroaren 18an datatutako laburpena joko dugu adibide gisara (uztailetik aurrera jasotakoaren laburbilduma da):

Sector Ubidea-Ochandiano

CONTINGENTES.

Entre todo el sector hasta Olaeta, de 1.500 a 2.000 hombres.

En Ochandiano unos 700 (Soldados de Garellano, Guardias de Asalto y milicianos en mayor parte)

En Ubidea, unos 600 hombres.

PUESTOS.

El más importante es Jarindo con obras de fortificación y guarnecido con unos 150 hombres con una ametralladora.

En Ollerías, puestos de pequeños efectivos.

Disponen de dos cañones de 15´5 que trasladan frecuentemente por las carreteras, remolcados por una camioneta. 10 ó 12 ametralladoras, 3 morteros de 81 y blindados.

192. Archivo General Militar de Ávila / C. 1536, Cp.5, D.1

JEFES.

Coronel Piñerua. En Ochandiano Teniente Coronel Cueto (que ha sustituido a Vidal), Brigada Ortega.
(El Brigada Alejandro y los Sargentos Torres, Copellá y Puente, quieren pasarse a nuestras fuerzas)

DESTRUCCIONES.

El segundo puente de Ollerías en dirección a Bilbao, está minado: los rojos lo utilizan por medio de tablones. También está preparado el puente entre los kilómetros 20 y 21.

Vitoria 18 de Noviembre de 1936¹⁹³.

Ikusten denez, nahiko informazio zehatza darabilte gune errepublikanoaz. Eta oso eguneratua, azpimarratzekoa baita azaroaren 18rako matxinoek Cueto teniente koronelak Vidal ordezkatu duela jakitea. Vidalek ordezkapenaren berria azaroaren 11n jaso zuen, astebete eskas lehenago.

Nabarmentzeko moduko datu zehatz gehiago ere badira txostenotan. Abuztuaren 21ean, euren herritik ailegatu dira Gerardo eta Francisco ubidetarrak. Otxandioko zutabearen inguruko zenbait zehaztasun emateaz gain, errepublikanoentzat espioitzan dabiltzan hiru herritar salatzen dituzte, izen-abizen eta guzti¹⁹⁴. Cirilo Abasolo, Jesus Apoita eta Matias Irasuegui dira, azken hori artzaina¹⁹⁵. Bi hilabete geroago bestaldera pasatutako Garellanoko soldadu batzuek jakinarazten dute Omega lantegian fusilak, metrailadoreak eta morteroak konpontzen direla urriaren 23az geroztik¹⁹⁶.

Horrela azalduta, badirudi frontearen mugaz bestaldera alde egitea edo etsaiaren inguruko informazioa biltzea gauza erraza zela. Egia da ihesak maiz gertatzen zirela. Alde egin duten soldadu batzuen berri emateko Vidalek idatzitako txosten batean ikusi daiteke, tonuagatik, ez dela aparteko gertakaria edo bereziki harritzekoa. Horrelakoen aurrean egin beharreko pauso burokratikoak zehaztuta egotea horren seinaleztat hartu dezakegu. Iheslariaren nagusiak parte idatzia eman behar zien bere nagusiei, parte epaitegira bidali eta gero espedientea irekitzen zitzaion iheslariari¹⁹⁷.

Baina ez dezagun atera ondoriorik azkarregi. Ihesak ekiditea agintari militarren arduraren nagusienetako bat zen. Indar errepublikanoei dagokienez, milizianoak baina batez ere militarrek oso zainduta zeudela ikusten dugu. Iheslariak bizia arriskatzen zuen askotan, eta gauzak okertu eta epailearen aurrean bukatuz gero zigorrak oso gogorrak ziren, heriotza zigorra barne. Omega lantegjaren berri eman zuten Garellanoko militarrek, esaterako, euren taldeko beste 5 sarjentuk, alferrez batek eta soldadu gehienek

193. Archivo General Militar de Ávila / C. 1536, Cp.5, D.1.

194. Archivo General Militar de Ávila/C. 1536, Cp.5, D.1.

195. Artzainak askotan erabili zituzten espioitza lanetan. Mendiak eta bideak oso ondo ezagutzen zituzten, eta euren ogibideagatik beti zebiltzanez hara eta hona, informazioa jasotzeko bitarteko ezin hobea ziren.

196. Archivo General Militar de Ávila / C. 1535, Cp.74.

197. IRARGI / Eusko Jaurlaritzaren Funtsa / 65-0511-05.

bandoz aldatu nahiko luketela diote, *lo que no saben si podrán efectuar por estar constantemente vigilados*¹⁹⁸. Handik astebetera, aurreko egunetako ihesen ostean, zaintza lanetan eraso guardia gehiago jarri dituztela ohartarazten dute Nafarroako Brigadek. Eta txosten berean Aramaio-Otxandio sektoreko berri gutxi jaso dela aipatzen da, *pues el servicio informativo se hace muy difícil*¹⁹⁹.

Kontrolak denentzat ziren, baita otxandioarrentzat ere. Herriaren irteeretan kontrol postuak ezarri zituzten eta handik igarotzeko, hau da, Otxandion sartu nahiz irteteko, baita ezinbestekoa zen. Egunero egiten zen kontrol postuotatik pasatutako herritarren zerrenda, bakoitzaren izen-abizenak eta bere ibilbidearen nondik norakoak jasota²⁰⁰.

Edonola ere, ejerzito matxinoak Otxandioz eta inguruez lortutako datu garrantzitsuenak ez zituzten zibilen edo bertan aritutako militarren ahotik jakin, bide fidagarriago batetik baino. 1937. urteko otsailean, Alejandro Goikoetxea Omar kapitainak matxi-noen kontrolpeko lurraldera egin zuen ihes. Bizkaian eraikitzen ari zen babes sistemaren arduradun nagusietako bat zen Goikoetxea, eta haren inguruko datu guztiak eman zizkien Molaren militarrei, Otxandio eta inguruko gotortze sistemena barne. Baina datuok ofentsibari dagokion atalean landuko ditugu, Legutioko Batailaz arduratu behar baitugu orain.

4.3. Legutioko Bataila²⁰¹

1936ko azaroaren 30a eta abenduaren 24a bitartean gertatu zen Legutioko Bataila izenez ezagutzen dena. Euskal Herrian 1936ko gerrak izan zuen inflexio-puntu garrantzitsuenetakoa izan zen, arrazoi ugariengatik: Euskal Armada osatu berriaren lehengo operazio orokorra izateagatik, bere helburu handinahiengatik, jasandako porrotaren tamainagatik eta, batez ere, porrotetik eratorritako irakaspen eta ondorioengatik. Indar errepublikanoen asmo oldarkorretik jarrera defentsiborako ibilbidetzat hartu ditzakegu egun hauek. Honen ostean, ez dugu gure lurretan Euzko Gudarostearen beste eraso ekintza aipagarririk izango.

Erasoak, Euskal Herriko egoerari baino gehiago, Estatu mailako beharrei erantzuten zien. Helburu orokorra matxinoak Madrilen gainean egiten ari ziren presio itogarria arintzea zen. Horregatik etorri zen erasotzeko agindua Errepublikako Gobernutik, horregatik hartu zuen operazioaren gidaritza Iparraldeko Armadako Estatu Nagusiaren buruak, Ciutat kapitainak.

Estaban apretando entonces a Madrid, estaba Madrid a punto de que iba a caer no iba a caer, y claro, cosas de militares. Ofensiva por aquí, ofensiva por allí, para que la fuerza ellos no la llevarían toda allí, y claro la ofensiva nuestra fracasó. FERNANDO ARRIZBALAGA.

198. Archivo General Militar de Ávila / C. 1535, Cp.74.

199. Archivo General Militar de Ávila / C. 1536, Cp.5, D.1.

200. Irargi / Eusko Jaurlaritzaren Funtsa / GE-0522-21.

201. Azpialat honen kontakizunerako oinarri gisa Mikel Aizpuruk Legutioko Batailaren inguruan idatzitako artikulua erabili da: AIZPURU MURUA, M. "Gerra Zibila Euskal Herrian. Bide berriak: Legutioko erasoaldia", In: *Uztaro*. 67. zbk., 2008. 33-56. or.

Legutiokoa, Iparraldeko Armadaren eraso orokor baten barruan ulertu behar dugu. Asturiaseko frontetik Oviedo eta Leonen kontra jotzeko asmoa zegoen, Santanderretik Espinosa de los Monteros igaro eta Mirandaraino ailegatu nahi zuten, eta Euskal Herrian ere Legutio ondoren Gasteiz menperatu eta Mirandaraino aurreratzea zen asmoa. Lehen helburu hau erdietsiz gero, agintari errepublikanoek Aragoi aldera jo nahi zuten Madrilgo eta Kataluniako Armadekin batzeko. Euzko Jaurlaritza, aldiz, hortik aurrera eraso Gipuzkoa eta Nafarroarantz bideratzearen alde azaldu zen.

Arabako Frontera bueltatuz, operazio egunetan aginte-gunea Otxandiotik oso hurbil ezarri zuten buruzagi militarrek, Motxotegin. Bertatik igaro ziren Ciutat, Agirre lehen-dakaria eta J. Tumarov aholkulari militarra. Hasieran, eraso hiru zutabetan egiteko ziren. Lehenengoak, Ibarrolarenak, Arlaban-Arrasate lerroan eraso behar zuen; Cueto-renak, Otxandiotik abiatuta zuzenean Legutioren kontra jo behar zuen; eta Aizpurren aginduetara zegoen zutabeak Murgia zuen xede. Azken zutabe honen eraso bertan behera geldituko zen azkenik. Operazioburua Modesto Aranbarri zen.

Erasorako, Euskal Armadak hogeita hamar bat batailo mobilizatu zituen, 20.000 lagun inguru. Horietatik, 15 batailoik hartu dute zuten parte zuzeneko borrokan, 7.500 soldaduk, gutxi gorabehera. Erasoa laguntzeko, 25 kanoi, 8 gurdi blindatu, tankeak eta hegazkinak zeuzkaten. Aurrez aurre hiru-lau mila matxino zituzten; gehienak, erre-keteak eta falangistak.

Otxandioko herrian halabeharrez eragin handia izan behar izan zuen batailak, baina honen inguruan dugun informazioa urria da. Otxandioarrek ez digute egun hauen inguruko aipamen berezirik egin elkarrizketetan, eta bibliografian ezer gutxi aurkitu daiteke. Prentsan herria aipatua ikusten dugu, baina gutxitan eta modu puntualean. Normala, egunotako arreta gutzia bataila eremura bideratu baitzen.

Logika erabilia zenbait gauza ziurtatu ditzakegu, edonola ere. Esaterako, herrian zebilen miliziano kopurua biderkatu egin zela azaro bukaera eta abendu bukaera arteko tartean, eta herrian mugimendu izugarria zegoela (zaurituak, tanke eta blindatuak, batailoien etengabeko joan-etorriak, agintariak...). Erasoa jo zuten bi zutabeetako batek Otxandion zuen basea, bertako kaleetatik irten ziren gurdi blindatu eta tanke gehienak. Esan bezala, aginte-gunea Motxotegin zegoen, baina Olleros komandanteak bere aginte postua zuen herrian, eta Euskal Armadako Estatu Nagusiko partaide gehiago ere baziren bertan²⁰². Mugimendu hau du akorduan du Sebastian Astola otxandioarrek: *Hauek kaleak (Otxandiokoak) beteta egon ziren*²⁰³.

Erasoa 1936ko azaroaren 30ean hasi zen. Teorian abenduaren 24a arte luzatu zen, baina praktikan borrokaldirik gogorrenak eta erabakigarrienak abenduaren laua bitartean izan ziren. Azaroaren 30ean Otxandiotik abiatutako zutabeak Maroto menperatzea lortu zuen, eta bigarrenak Gasteizko urtegiak, Zestafe, Nafarrate, eta Elosu hartu zituen. Arratsaldean, Legutio bonbardatu zuten ordu luzez. Legution zeuden militar matxinoek trebetasunez eutsi zioten erasoari, kopuruan askoz gutxiago izanagatik ere.

202. IRARGI / Euzko Jaurlaritzaren Funtsa / 13.17

203. Elkarrizketa. Sebastian Astola Ajuriaguerra.

Gainera, Molak erreakzionatu eta, Madriletik Burgosera hurbilduz, laguntza bidali zien bere tropei.

Euskal Armadaren ofentsibaren lehendabiziko egun hartan, Fernando Arrizabalaga otxandioarra Albertian zebilen, kanoiak garraiatzeko bide aiprosen bila:

Yo allí, en el Albertia. El compañero mío Alejandro y yo fuimos, entonces estaba la granja de un marqués, de la granja al Albertia, a enseñar los caminos. Alejandro subió con la tropa, y yo con los cañones. Pero no había más que unos caminos... el camino que ellos querían yo les dije, "De aquí no se puede subir porque vamos a entrar a la vista de Villarreal". Y no pudimos subir por la maleza, y tuvimos que volver atrás. Y claro la tropa allí sin artillería y sin nada. Luego dando la vuelta, por la granja otra vez a Jarindo, de Jarindo a Maroto para subir los caminos con bueyes... ¡Había que buscar sitios!
FERNANDO ARRIZABALAGA.

Abenduaren batean, Otxandioko zutabeak Legution borrokatzen jarraitzen zuen. Albertia hegoaldeko magalera helduta, Antelarreko edo Txabolapeko pinudian ezartzea lortu zuten. Aldi berean, Mendebaldetik Legutioko lehen etxeetaraino heldu ziren errepublikanoak. Legutio inguratuta zegoen, baina garesti ordaindu zuten baja kopuruan. Gorbeia aldean, erasotzaileak Murua gainditu eta Gopegiraino heldu ziren, bertan gotortu ziren matxinoak. Indarrak orekatu nahian, frankistek soldadu gehiago ekarri zituzten frontera; tartean, batailoi marokoar bat.

Legution setiatutako matxinoen egoera larria bazen ere, borrokan jarraitu zuten, etsaiari ez ezik, munizio eskasiari ere aurre eginaz. Errepublikanoen nagusitasuna argia zen, baina erasoaldiak ausartak eta adoretuak bezain sakabanatuak eta koordinazio gabeak ziren, eta ez zuten behar besteko eraginkortasunik. Abenduaren bigarren hartan, ezustean, egoera irauli egin zen.

(...) Alonso Vegaren zutabeak euskal indarrek Legutioren inguruan osatutako hesia apurtu zuten. Tropa nazionalak Urbinatik etorri ziren eta Bexina hartu ondoren, Antelarra-Txabolapeko pinudian sartu eta bertan zeuden gudarien artean sarraski handia egin zuten. Era horretan, Gasteizko bidea libre geratu zen eta bertatik heldu ziren Legutioko defendatzaileek hain beharrezko zituzten munizio eta bestelako laguntzak. Herriaren defentsa indartuta geratu zen egunaren akaburako²⁰⁴.

Porrot mingarri haren ostean, indar-erlazioa aldatua zegoen. Ez soilik militarki: etsipenak aurreko egunetako adorea pitzatu zuen borrokalari errepublikanoen artean. Gainera, bezperako pinudiko operazioa kontraeraso orokor baten seinaleztat hartu zuten, hala ez bazen ere. Hilaren hirugarren egun hartan koordinazio eza areagotu egin zen. Batzuk, erasoan: Ibarrolaren zutabea pinudia berreskuratzeko asmoz, eta Elosua-Nafarreteko tropak Betolatza herrirako norabidean. Beste batzuk, erretretan: Legutioren gaineko erasoaren eten eta batailoi batzuk frontetik urrundu zituzten. Dena aldi berean. Bien bitartean, matxinatuek laguntza gehiago jaso zuten.

204. AIZPURU MURUA, M. "Gerra Zibila Euskal Herrian. Bide berriak: Legutioko erasoaldia", In: *Uztaro*. 67. zbk., 2008. 42. or.

Sabino Apraiz komandanteak abenduaren hiruko gau partean Otxandion egindako bilera garrantzitsu baten berri ematen digu. Maila goreneko bilkura, partaideei erreparatuta: Agirre lehendakaria, Rezola Defentsa sailburua, Otxandion zeuden Estatu Nagusiko kideak (tartean, Modesto Aranbarri komandantea eta Montaud teniente koronela) eta zutabeetako buruak (Ibarrola, Cueto eta Aizpurua). Montaud Estatu Nagusiko buruaren eta Aranbarriren iritziazen kontra, ofentsibarekin jarraitzea erabaki zuten. Azkenik, Apraizen oroitzapenen arabera, Nafarrate galtzean erabaki zen operazioak behin betikoz amaitzea Arabako Frontean²⁰⁵.

Jarraitzeko erabakia hartuta ere, abenduaren hirutik aurrera erasoak baretu egin ziren nabarmen. Eraso gogorak eta artilleria bidezkoak ere baziren, baina lantzean behin: abenduaren zortzian, 18an edo 21ean eta 22an, besteak beste. Hilaren 24an, matxinoek Murua eta Akosta menpean hartu ondoren, amaitutzat eman zen ofizialki Legutioko Bataila. Data honetatik martxoaren 31ra arte ez zen beste aldaketarik izango frontean.

Prensa ezkertiar eta abertzalean, hasierako tonua bozkariozkoa zen; harrokeriazkoa ere bai, tarteka²⁰⁶. Etengabe goratzen zuten borrokalarri errepublikanoen heroismoa eta auserdia, etsaiaren desmoralizazioarekin kontrajarriz (beste behin ere, bi arerioen mezuak antzekotasun handiak ditu; kasu honetan, prentsa arloan). Lorpenak puztu egiten ziren, hegazkineriaren nagusitasuna eta erabakigarritasuna laudatzen ziren, eta matxinatuek mairuei deitu behar izatea garaipenaren erakusgarritzat zuten. Egoera aldatu ahala, hizkera neurtuago batera jo zuten berripaperek. Hori bai, uneoro baikor, aurrerakuntzak eta garaipenak nabarmenduz, gabeziak eta porrotak ezkutatu. Gerraren ohiko logikan, finean.

Beste horrenbeste egiten zuten egunkari frankistek, baina alderantzizko ordenan²⁰⁷. Egunak aurrera zihoazen heinean, euren lerroetan ageri zen poza. Abenduaren hamarrean jada, etsaiari 1.200 hildako eta 5.000 zauritu baino gehiago egin zitzaizkiola ziurtatu zuen *Diario Vasco*-k. Abenduaren 24an, Legution errepublikanoei hartutako material ugaria zerrendatu zuen harrotasunez.

Orokortasunetatik harago, Otxandiok sufritutako beste bi bonbardaketaren berri ematen zaigu orduko egunkari errepublikanoetan. Biak ere jada Euskal Armadak aurrera egin ezin eta matxinatuak eraso ekintzak egiten ausartu zirenean. *El Liberal*-ek berriemailea bidali zuen Otxandiora, erasoaldia lantzeko. Abenduaren 11n hau idatzi zuen:

En la villa de Ochandiano, donde las bombas fascistas ocasionaron un muerto y cuatro heridos, dentro de la población, naturalmente, pues parece norma de los aparatos rebeldes no hacer víctimas más que entre los habituales del pueblo²⁰⁸.

Lau egun geroago, *Euzkadi*-k hilaren 13an gertaturiko bigarren bonbardaketa baten aipamena egin zuen, kasu honetan Otxandio eta Ubiden izan zen. Orduan ere biktima zibilak egon zirela ziurtatzen da, baina ez dakigu zehazki Otxandion inor hil zen ala ez, hildakoen gaineko baieztapena generikoa baita. 14an ere egunkari berberak esaten digu hegazkin matxinoek Otxandio zeharkatu dutela, baina bonbak jaurtiki gabe.

205. IRARGI / Eusko Jaurlaritzaren Funtsa / 13.17.

206. *El Liberal, El Nervion, Euzkadi*.

207. *El Diario Vasco, El Pensamiento Alavés*.

208. *El Liberal*. 1937-12-11.

Hildako eta zaurituen aldetik Legutioko Batailaren balantzea ikaragarria da. Errepublikanoei dagokionez, 800-1000 gudari eta miliziano hil ziren, 3.500 inguru zauritu edo gaixotu. Legutiokoak, Euskal Armadak gerra osoan izandako hildako guztien ehuneko hamalau izan ziren, baja emandakoen ehuneko 16,7. Matxinoek 230 bat hildako izan zituztela kalkulatu da²⁰⁹.

4.3.1. Porrotaren zergatiak eta ondorioak

Historialarien artean nahiko adostasun zabala dago Legutioko Batailaren porrotaren zergatiak zein ekarritako ondorioak zerrendatzeko orduan.

Errepublikanoen hondamendian faktore ugari eragin zuten. Lehenik eta behin, ezusteko eraso izan behar zuenari antzeman egin zioten hegazkin frankistek. Gainera, azken orduko aldaketak izan zituen operazio-planak, eta horrek nahasmendua ekarri zuen. Eguraldi latzak (hotza, euria, elurra, lokatza...) ezinezko bilakatu zuen mugimendu-gerra moduan planteatu zena.

Baina Legutioko Batailak zerbait utzi bazuen agerian, hori Euskal Armadaren prestakuntza eta aurreikuspen eza izan zen. Maila ezberdinetan. Eskasa, hasi orduko, presaketa lana (kanpo-ospitaleetan laster bukatu ziren oinarrizko sendagaiak, esaterako). Eskasa, Armadako graduazio ezberdineko agintarien gaitasun militarra (prestakuntzarik gabeak ziren gehienak, eta askorentzat lehendabiziko bataila izan zen). Eskasa, azkenik, barne diziiplina, (...) *oro har, ofizial eta sarjentu boluntarioak ez ziren gai diziiplina errespetatzeko, ezta betearazteko ere*²¹⁰. Zergati horiei guztiei, Guillermo Tabernilla historialariak, ikuspuntu zabalago batetik, Iparraldeko Ejerzitoko gehiegizko kantonalismoa gehitzen die (Asturiasekoa, Santanderrekoa eta Euskal Armada)²¹¹, Fusik, berriz, ejerzito matxinoaren erreakzionatzeko gaitasuna ere nabarmentzen du²¹².

Agian hutsik handiena gabezia guztion jakitun egonda ere eraso jotzea izan zen. Baina hemen eremu labainkorrean barneratzen gara. Ziurrenik Euskal Herriko egoerari begira bestelako operazio mota batzuk lehenetsi beharra zegoen, operazio txikiagoak, apurka-apurka Armada zailduz joateko. Estatu mailan, ordea, lehentasunak bestelakoak ziren... Edonola ere, Sabino Apraiz gudari eta komandante ohiak idatzi bezala:

Verdaderamente, resulta un tanto pretenciosa la idea de alzar un ejército y mucho más el pretender que tal improvisado instrumento se comporte desde el primer momento como un disciplinado y adiestrado Cuerpo de Ejército, cuando por otra parte para tal empresa, no queda más remedio que echar mano de lo que dos meses atrás no era más que una exaltada multitud cuarteada por divisiones políticas e ideológicas²¹³.

209. AIZPURU MURUA, M. "Gerra Zibila Euskal Herrian. Bide berriak: Legutioko erasoaldia", In: *Uztaro*. 67. zbk., 2008. 44. or.

210. AIZPURU MURUA, M. "Gerra Zibila Euskal Herrian. Bide berriak: Legutioko erasoaldia", In: *Uztaro*. 67. zbk., 2008. 50. or.

211. BERAZATEGI, I. eta DOMÍNGUEZ, J. *1936 memoria de la guerra en Euskadi*, 1. arg. Bilbao: Radio Euskadi, 2006; 237. orr.

212. FUSI, Juan Pablo. "El País Vasco durante la guerra", in Malefakis, E., *La guerra de España, 1936-1939*, 1. arg. Madril: El País, 1986. 43-50 or.

213. IRARGLI / Bidasoa Funtsa / 13.17

lido beretik, Sancho de Beurko gudariak idatzitakoak Euskal Armada eraikitzeko oinarriko materialaren jatorria agertzen digu. Mundu militarrekiko arrotza den materiala:

Corrientemente, en las clases, los gudarís corregían a los oficiales y, nada extrañaba si se tiene en cuenta que los batallones vascos carecían de mandos profesionales. Los oficiales en su ficha profesional decían ser: albañiles, contables, comerciantes, ingenieros, etc²¹⁴.

Euskal Armadan zein gerraren bilakaera orokorrari begira gertatutakoak ondorio oso sakonak dakartza. Mikel Aizpuruk lau nagusitan banatzen ditu:

- Erasoaren jatorria Madrili laguntza ematea izanik, etekinak zalantzarriak dira gutxiarik. Egia da egun horietan Madrilen gaineko eraso epelagoa zela, baina ez dago bategarri argi, ordea, Legutioko Batailaren ondorioa zenik. Mola Estatuko hiriburutik Burgosera mugitu zen, bai, baina ez zuen troparik bideratu iparraldera. Edo oso gutxi mugitu zituen, eta zailduenak Madrilen mantenduta. Eragina izatekotan, beraz, mugatua.
- Euzko Jaurilaritzaren eta Iparraldeko Armadako agintarien arteko konfiantza eza sakondu egin zen. Agirrek Ciutati leporatu zion porrotaren erantzukizuna, eta komunistek, aldiz, Agirreri.
- Porrota mugarria izan zen mentalitate alorrean: jarrera oldarkorretik defentsiborako aldaketa. Euskal Armadaren nagusiek zein gudari eta milizianoek etsipen zantzuak agertu zituzten.
- Prezio odoltsua tarteko, dudarik ez, baina porrotak trebatzeko ere balio izan zion Euskal Armadari. Hortik aurrera, garrantzi handiagoa eman zitzaion borrokalarrien formazio militarri. Aizpuru zein Apraizen ustez, esaterako, hobekuntza horrek azalduko luke lau hilabete geroago matxinoek uste baino denbora askoz gehiago behar izatea Bilboraino heltzeko.

Otxandion, erasoaldiaren amaieraren ondorioa martxoaren 31ra arteko lasaitasun garaia izan zen. Buelta bataila aurreko egunerokotasunera, lehenago deskribatzen saiatu garen “salbuespen egoeraren eta normaltasunaren arteko” egoerara. Milizianoak ehunka, eta ez milaka, zauritu eta hildakoak tantaka eta ez trumilka, bonbardaketa gutxiago... Mugimendu gutxiago, azken finean. Fernandok labur bezain zehatz azaltzen digu egoera berria:

Luego estuvo el frente pues, como haciendo una vida normal. De vez en cuando un cañonazo, otro cañonazo.(...)

Pero paralizado quedó hasta el 31 de marzo. FERNANDO ARRIZABALAGA.

Hori bai, urtarrila eta martxo bukaera arteko hilabeteotan ekimen militar berezi bat izan zen Otxandion eta inguruetan. Urtarrilaren 9an, Meabe 1 batailoia agertu zen Otxandion, helburu bakar batekin: herritik Gurutzetarainoko desfile militarra egitea. Desfilea amaitu eta jarraian herritik alde egin zuten. Martxoan beste 3 desfileren berri dugu: 10ean, UGT 7 batailoia izan protagonista; 11n, MAOC 1 batailoia, eta, hilaren 20an, morteroen sekzio bat²¹⁵. Litekeena da gehiago ere egin izana hilabeteotan. Legutioko Batailaren porrotaren ostean zabaldutako etsipen sentimendua irauli nahirik? Hori uste dugu guk, barrurako indar erakustaldi hutsak izan baitziren.

214. SANCHO DE BEURKO. *Gudarís*. 1. arg. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1977; 34. or.

215 IRARGI / Eusko Jaurilaritzaren Funtza / GE-0525-01

Legutio.



Aurrelari taldea,
Legutio.






Margarita talde bat Legution, 1936.8.15ean. (Argazkilaria: C. Yanguas)



Erreketete talde bat Legution, 1936.8.15ean. (Argazkilaria: C. Yanguas)



Legutioko erasoak.

4.4. Errepresio errepublikanoa Otxandion

Estatu Espainoleko eskuinak sustatutako altxamendua gerra luzea bilakatu zen. Gerra orotan bezala, honetan ere izan ziren errepresio ekintzak eta gehiegikeriak bi aldeetatik: erailketak, isunak, kartzelatzeak eta beste. Baina, gehiegitan egin nahi izan bada ere, ezin dira berdinu egia honen aitzakiapean errepresio errepublikanoa eta frankista. Ezberdintasun bi gutxienik mahaigaineratu behar dira, errotik datozenak gainera.

Lehenik eta behin, politikoa: gerra altxatuek piztu zuten, askatasun demokratikoen erabilera “okerra” eginez gero askatasunok desagerrarazi behar zirela erabaki zuten eskuinak, hain zuzen. Aztertzen ari garen kasuan, Herri Frontearen garaipenak askatasunen erabileraren marra gorria gainditu zuten eskuinarentzat, eta hortik etorri zen eredu demokratikoa indargabetzea eta diktadura ezarriko zuten estatu-kolpea jotzea.

Bestetik, errepresioaren izaera bera oso ezberdina izan zen, maila kualitatiboan zein kuantitatiboan. Ereku errepublikanoan izan ziren “legez kanpoko” bortxakeria edo erailketak ez ziren Estatuaren ekinbidea, “estatu gabeziaren” ondorioa baizik. Agintari errepublikanoek ez zuten horrelakorik bultzatzen, ordena-arazoak zeudenean gertatzen ziren, eta ez ordenaren barruan; esaterako, gune zibilen bonbardaketen ostean. Errepresio frankistak, aldiz, modu kontziente eta sistematikoan bilatu zuten etsaia desagertzea, eta kontzeptu honen barnean zegoen fisikoki ere desagerraraztea. Epaietarik gabeko fusilamenduak eta prozedura legal baten osteko epaiaren ondoriozkoak, biak ziren estrategia beraren parte. Eta, azkenean ñabardura “txiki” bat: matxinoen errepresioak gerra bukatu eta beste 40 urte iraungo zuten. Areago, 40 urteren ondoren ezarriko zen demokraziak errepresio garaiko muga berberak zituen marra gorritzat –kapitalismoaz gaindiko eraldaketa soziala eta Estatuaren barne egituraketa–, eta demokrazia berriaren kudeatze lanetan diktadura zaharra kudeatu zuten berdinek iraun zuten. Politikan, aurrekoak geldituta ere, agertu zen aurpegi berririk. Alor polizial, militar edo judizialean, jarraipena erabatekoa izan zen. Hausturarik ez zen inon gertatu.

Hainbesteko garrantzia izanagatik ere, errepresioaren gaia azaletik aztertu da orain-tsu arte. Hego Euskal Herrian hutsune handiena Bizkaian aurkitzen dugu; Nafarroako, Gipuzkoako eta Arabako gertakizunak, aldiz, sakonago aztertu dira. Bizkaian, agintea errepublikanoen esku egon zen bitartean 2.000 preso inguru hartu zirela kalkulatu da. Eraildakoak 440 izan ziren –Euskal Herri osoan, 770²¹⁶ eta hiru multzotan sailkatu ditzakegu. Batzuk, talde ezkertiarretako militanteek edo zuzenean herritarrek hil zituzten gune zibilen bonbardaketen ostean, mendeku gosez, karteletara eta barku-presondegiatar sartuta. Herrietan ere gertatu zen epaietarik gabe norbait fusilatu izana. Azkenik, Euzko Jaurlaritzako auzitegiek heriotza zigorrera kondenatutakoak ditugu, gehienetan militarrek edo ustezko espioiak²¹⁷.

216. 770etik 440, ehuneko altuak azalpen erraza dauka; Bizkaia izan ezik, euskal lurraldeak edo hasieratik egon ziren matxinoen eskuetan edo oso denbora laburrez eutsi zioten aginte errepublikanoari.

217. AIZPURU, Mikel. “Zapalkuntza-politika gerran eta gerraren ondoren. Errepresioa, heriotza eta bortxakeria bi aldeetan”. In: ERRAZKIN AGIRREZABALA, M. eta AGIRRE-MAULEON, J. *1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*, 1. arg. Bilbao: UEU, 2009; 49-68. or.

Irakurketa orokorra bukatuta, aztertu ditzagun Otxandion gertatuak. Oro har eta beti ere gerraren testuinguruan kokatuz, gertaerak lasai antzean garatu ziren arlo errepre-siboari dagokionez. Gure informazioen arabera, errepublikanoek ez zuten ekintza bere-ziki lazgarririk egin, ezta doako ankerkeriarik erabili ere matxinatuen aldeko herritarren kontra. Zenbait karlista herritik kanpora bidali zituzten eta baten batzuk kartzelaratu ere bai. Ez zen, ordea, ez hilketarik ez desjabetzerik izan. Herritarrek ez zuten euren kabuz ekintza errepresiborik egin herrikideen kontra, ezta milizianoek ere, eta aginta-riek lasaitasuna gorde nahia azaldu zuten. Hala berresten dute otxandioarrek euren adierazpenetan:

Karlistei ez zitzaion txarto zertu, e! Karlistak hauek gero sartu zirenean txarragoak izan ziren. Horiek “orain geuk agintzen dugu” esaten zuten. SEBASTIAN ASTOLA.

Karlistek, martxatu egin zuten batzuek. Beste batzuk preso sartu zituzten, barkuan edo. Karlista usaina zutenak barkura sartu zituzten. Emilio Olaso barkuan hil zuten. Baina osterantzean hilik edo borrokarik ez zegoen, ez. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

Otxandio errepublikanoen eskuetan egon zen garaiko gertakari larriena Emilio Olaso otxandioarraren hilketa izan zen, baina Bilboko *Cabo Quilates* itsasontzi-presondegian fusilatu zuten, ez Otxandion. Zerbaitek egin bazuen Otxandio ezagun gorri-separatisten desmasiei dagokienez, milizianoek elizaren eta eliztarren kontra ustez egindakoak izan ziren. Hedabide frankisten aipamenak eta salaketak ugariak dira. Baina salatzen dituzten gauzetariko asko edo gezurra dira edo modu desitxuratuan jorratzen dituzte. Edonola ere, gaiak bere garaian hartu zuen garrantzia ikusirik, puntu berezia eskainiko diogu.

Aipatutako “lasaitasuna” iturri frankistetatik bertatik ondorioztatu dezakegu.

Gudu-zelaian arerioa garaitu ostean, frankismoak Errepublikaren alde aritu zirenen kontrako epaiketa orokorra abiatu zuen: herriz herri, gorri eta abertzaleek egin omen zituzten errepresio ekintzen datuak eta lekukotasunak jaso ziren. Bizkaiko Kausa Orokorraren barnean Otxandiori dagokion txostena hiru ataletan banatuta dago²¹⁸. 1941ean osatu zuen Udalak, Julian Garaigordobil alkatearen eskutik. Lehenengoan, *Relación de personas residentes en este término municipal, que durante la dominación roja fueron muertas violentamente o desaparecieron y se cree fueron asesina-das*, izen bakarra agertzen zaigu: aipatutako Emilio Olaso Aldai, 48 urterekin hildakoa. Zapataria zela eta Primo de Riveraren diktaduran zinegotzi kargua bete zuela jasotzen da. Irailaren 25ean hil zuten, *Cabo Quilates*-en, nork ez dakigu, eta Erandion hilobiratu zuten. Eranskin batean, Sergio eta Felipe Olaso Aldai anaiek herriko epailearen au-rrean adierazitakoa irakurri dezakegu:

Que dicho hermano fue asesinado el día 25 de setiembre de 1936, en la prision flotante denominada “Cabo Quilates”. Que ignoran quienes puedan ser los autores del hecho, así como su paradero actual. Que los únicos motivos del crimen creen fueron políticos, ya que se hallaba inscrito su hermano en las filas del Partido Tradicionalista. (...) añadiendo únicamente que fue detenido en Aramayona (Álava)²¹⁹.

218. Causa General de Vizcaya / 56. Zbk / Partido Judicial de Durango / Otxandioko Udala.

219. Causa General de Vizcaya / 56. Zbk / Partido Judicial de Durango / Otxandioko Udala.

Pentsatzekoa da matxinoen kontrolpeko lurraldera pasatu nahian ibiliko zela Emilio Olaso Aramaion (Jon Irazabal historialaria ere iritzi berekoa da²²⁰). Bere anaietako bat Bilbon bizitzen zegoela jakin zuen zorigaitzeko berria. Honen alaba Maria Pilarrek gogoan dauka aitak kontatua:

Emilio [Olaso] hemendik eraman egin zuten, “Cabo Quilates”-era. Nire aita herritik kanpora zegoela, alhondigan egiten zuen beharra, eta batzen ziren taberna baten otxandioarrak, denak jakin gura-eta zer pasatzen zen herrian. Eta orain alkate dagoenaren bigarren aitatik esan ei zuen han koadrilan zeudela: “Esta noche dicen que le han fusilado a Cristo” (familiarren izengaitza). Nire aita jausi egin zen luze. Alarguna, sei umegaz. Eta batek: “¿Qué le ha pasado?” “Es que es hermano”. Lagundu zioten apurtxo bat eta gero, hurreratu zitzaion gizon hori eta esan zion: “lo siento, lo siento no sabía que usted fuera su hermano”. (...) Hainbat otxandioar egon ziren “Cabo Quilates”-en, baina hil, nire osaba bakarrik hil zuten. MARIA PILAR OLASO.

Bigarren atalaren izenburua da *Relación de cadáveres recogidos en este término municipal, de personas no reconocidas como residentes en él, que sufrieron muerte violenta durante la dominación roja*, eta bertan idatzita aurkitzen dugun hitz bakarra, *ninguno*. Hirugarren eta azkenak hilketak alde batera utzi eta gainontzeko gertaera larriak zerrendatu nahi ditu: *Relación de tormentos, torturas, incendios de edificios, saqueos, destrucciones de Iglesias y objetos de culto, profanaciones y otros hechos delictivos que por sus circunstancias, por la alarma o el terror que produjeron deban considerarse como graves, con exclusión de los asesinatos, que fueron cometidos en este término municipal durante la dominación roja*. Hemen bi delituzko gertaera jasotzen dira. Bata, elizaren ondasunetan eragindakoak (aurrerago bueltatuko gara honetara), eta bestea, udal agiritegia desagertzea.

Valladolideko unibertsitatetik antzeko ikerketa sustatu zen, artean gerra indarrean zegoela, espresuki euskal lurraldeetan zentratua: *Informe sobre la situación de las provincias vascongadas bajo el dominio rojo-separatista*. Hor ere Otxandiok bere lekua du. 1937ko uztailaren 19an unibertsitateko lan-taldea herriko alkatearekin eta apaizarekin bildu zen, Miguel eta Lorenzo Orue anaiekin. Horiek guztiek eta Justo Pujana idazkariak sinatutako txostenak bi orri betetzen ditu. Besteren artean, honakoa ziurtatzen dute:

Que la villa estuvo en poder de los rojo-separatistas hasta el día 4 de abril de 1937, siendo duramente perseguidas durante este tiempo todas las personas de ideología de derechas; once de ellas fueron trasladadas a las cárceles de Bilbao, habiendo sido liberadas todas, menos D. Emilio Olaso que pereció en las matanzas del “Cabo Quilates”. El Ayuntamiento fue saqueado, desapareciendo de él el Archivo Municipal, los libros de contabilidad y actas y los fondos municipales; lo que no se llevaron quedó destrozado por las habitaciones²²¹.

Gainontzeko informazio guztia eliza eta ermitek izandako erasoen gainekoa da. Fínean, lau urte geroago Kausa Orokorrean idatzitakoa, gutxi gorabehera. Txosten ho-

220. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 45. or.

221. Universidad de Valladolid. *Informe sobre la situación de las provincias vascongadas bajo el dominio rojo-separatista*, 1. arg. Valladolid: Universidad de Valladolid, 1938; 237. or.

rretan eskuineko herritarrak oso estu hartu zituztela adierazten bada ere, 11 atxilotuak izan ziren guztira, eta denak –Emilio Olaso izan ezik– libre geratu ziren gerora. Eskuindarrak, ordea, 11 baino askozaz gehiago ziren Otxandion, eta laster ikusiko dugunez, batzuek herritik alde egin behar izan zuten arren, beste hainbat une batean ere ez ziren herritik irten, alderdi karlistako afiliatuak izan arren.

Herriz herriko hirugarren ikerketa bat bada, Jose Echeandiak 1945ean argitaratua, toki bakoitzean eraildako frankisten zerrendekin²²². Otxandiori ez zaio inongo aipamenik egiten.

Ikerketa hauen helburua gorri-separatisten gehiegikeriak eta errepresioa azalaraztea zen, eta lehenengo biek, garrantzitsuenek, herriko iturri karlistengana –agintariengana– jo zuten zuzenean. Beren orrietako subjektibotasuna eta errealtatearen nolabaiteko desitxuratzea, egotekotan, ez zen errepublikanoen mesederako izango, beraz. Nekez pasatuko zitzaizen gainera herrian gertatutako beste gertakari errepresibo garrantzitsurik. Hortik ondorioztatu dezakegu garaiko prentsa matxinatuan salatutako beste bi hilketak ez zirela gertatu: Ignacio Olaso Aldairena bata (otxandioarra, Emilio Olasoren anaia) eta Langara futbolariarena bestea. Horrez gainera, froga argiak ere badira hilketok gezurtatzeko.

Langararen fusilamenduaren berri *Unidad*-ek eman zuen. Egunkari falangistak azalera eraman zuen “gertakaria” 1937ko apirilaren seian, eta kontrazalean irakurri dezakegu *Se asegura que los rojos al huir de Ochandiano fusilaron al famoso jugador de fútbol Lángara*²²³. Orduko egunkarietan, beste inon ez zuten eman fusilamenduaren berririk, gauza arraroa, pertsona publikoa izanda. Agian *El Diario Vasco*-k hurrengo egunean argitaratu zuenarekin zuen zerikusia: *Entre los muertos cogidos en la operación de ayer figura perfectamente identificado el jugador de fútbol Larrinaga, interior izquierda del Racing de Santander que figuraba en una de las unidades rojas*²²⁴. Larrinaga-Langara... errakuntza edo propaganda ekintza izan, kontua da Langararen fusilamenduarena berri faltsua izan zela, gerra ostean ere futboleko jokatzeko jardun baitzuen, eta gerora hil zen, 80 urterekin.

Ignacio Olasoren erailketaren albistea *La Voz de España*-k eman zuen, matxinoen menpean geratu berria zen Otxandiotik. Fernando Ors kronistaren informazioa okerra dela, ordea, senitarteko batek ere baieztatzen digu. Maria Pilar Olasok osaba zuen Ignacio:

Gerran, osaba Iñazio hortik zehar ibili zen, beste batzuen moduan, martxatuta, beldurrez (...). Alkateordea izan zen osaba Iñazio. Orain 6-7 urte hil zen Getxon, gura adina urte gaz. MARIA PILAR OLASO.

Eraildakorik ez, bestelako errepresio moduak bai, ostera, baina datu erabat zehatzak eta fidagarriak lortzea lan nekeza da.

222. ECHEANDIA, J. *La persecución roja en el País Vasco: estapas de martirio en los barcos y cárceles de Bilbao: memorias de un ex-cautivo*, 1. arg. Barcelona: Fidel Rodríguez Ed., 1945; 361 or.

223. *Unidad*. 1937-4-7.

224. *El Diario Vasco*. 1937-4-8.

Zenbait otxandioar atxilotu egin zituzten, antza. Valladolideko unibertsitatearen liburuan Bilbora eramandako 11 aipatzen dira, eta Emilio Olaso kenduta, askatu egin zituzten denak. Otxandioar askok dute akorduan *Cabo Quilates*-en atxilotuak egon zirela. Florencia Lopez de Letonak, Juan Padillak, Maria Pilar Olasok... Horietako bat, antza, Julian Garaigordobil Garaigordobil izan zen. 1937ko lan eskaera batean, honakoa idatzi zuen: *Habiendo estado perseguido y preso durante 11 meses por las hordas rojo-separatistas (...)*²²⁵. Ziurrenik Bilbo menperatzean askatu zuten matxinoek Julian (11 hilabete preso eginda), baina ez dakigu besteak noiz, nork eta zergatik askatu zituzten. Atxilotuak aipatzen ditu Irazabalek ere bere liburuan. Altxamenduaren hasieran hartu omen zituzten atxilo zenbait herritar, baina Otxandion, *beste herrietan ez bezala, egun batzuk geroago espetxeratuak aske utzi zituzten*²²⁶.

Maria Pilar Olasok altxamendua gertatu eta jarraian herriko zenbait karlista Otxandiotik kanporatu zituztela diosku, tartean bere aita:

Otxandiotik alde eragin zioten aitari. Hemendik atera zituzten hogeitakak, batere eskuma aldekoak zirenak. (...) 24 ordu edo ez dakit gutxiago eman zizkieten herritik alde egiteko. MARIA PILAR OLASO.

Gudari ibilitako Sebastian Astola herrikideak ukatu egiten du hori²²⁷. Nolanahi ere, behartuta edo gertatu zitekeenaren beldurrez norberak erabakita, baina zenbaitzuek alde egin zuten herritik (arrazoi errepresiboez ari gara, otxandioar guztiek izan zitzaireten arrazoiak alde batera utzita: bonbardaketa osteko beldurra edo bonbardaketan etxea galdu izana, esaterako). Andres Ajuria Basagurenek kanporatu zutela zioen bere lan eskaeran (*Habiendo estado perseguido y expulsado durante 11 meses por las hordas rojo-separatistas*)²²⁸. 1936ko abenduaren lauko udal bilkuran, udalbatzak Pedro Larrañaga, Manuel Urigoitia eta Mateo Axpe udal langileak lan eta soldatarik gabe uztea erabaki zuen:

(...) considerando que los expedientados, a pesar del anuncio de citación y emplazamiento, inserto en el Diario Oficial del País Vasco, no han acudido a exponer sus descargos sobre la calificación de desafectos al Régimen Republicano, que se les imputa en la disposición del Excmo. Sr. Gobernador Civil, lo cual induce a creer que admiten la calificación dicha, acuerdan por unanimidad confirmar la disposición mencionada, destituyendo de empleo y sueldo, con pérdida de todos los derechos activos y pasivos, a los relacionados empleados²²⁹.

Erabakia Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoaren bidez jakinaraztea erabaki zuten, ez zutelako aipatutako bizilagunen ez euren familien bizilekuaren berri. Arrazoi berdinagatik utzi zuten soldatarik gabe Modesta Ortuzar pentsioduna. Aquilino Unzalu aguazila ere kargugabetu eta soldatarik gabe geratu zen, nahiz eta alkatearen aurrean agertu

225. Bizkaiko Foru Agiritegia / AJ02734 / 017.

226. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 44. or.

227. Elkarrizketa. Sebastian Astola Ajuriagerra.

228. Bizkaiko Foru Agiritegia / AJ02734 / 018.

229. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1936-12-4.

lehenago, bere ideien inguruko azalpenak ematera. Aurrekoekin gertatu zen bezala, udaletxean ez zekiten Modesta, Aquilino eta euren senideak non zeuden.

1937. urteko martxoaren hamahiruan, matxinatuek Bizkaiko ofentsibari ekin eta Otxandio menpean hartu baino hiru aste eskas lehenago, alkateak zerrenda bat pres-tatu zuen agintari militarrentzat²³⁰. Bertan, herrian bizi ziren Alderdi Tradizionalistako afiliatuen izen-abizenak ageri dira. Otxandioko sektoreko arduradunak nagusiak infor-matu eta bien bitartean herritar horiei Otxandiotik irteteko debekua ezarri zien, euren presentzia arriskutsua izan zitekeelakoan. 25 bizilagun ageri dira zerrendan:

ESTEBAN AMENABAR
 CIRIACO URREJOLA
 LEONARDO MARTINEZ DE LUNA
 JUAN GOROSTIZA
 TIBURCIO BENGEOA
 LORENZO RUIZ DE AZUA
 JOSE IGNACIO OLASO
 VENTURA IBARGUTXI
 ANTOLIN GARAIGORDOBIL
 CIPRIANO APOITA
 MIGUEL ORUE
 ANDRES AJURIAGERRA
 MELITON USAOLA
 ELISA BASAGUREN
 CLARA GOROSTIZA
 PILAR AMENABAR
 DOLORES GOIKOETXEA
 DOLORES PUJANA
 JUSTINA APOITA
 VICTORIA BENGEOA
 MARIA BENGEOA
 JUANA ASKORBEBEITIA
 AGUSTINA PUJANA
 JESUSA AXPE
 LUCIA GOROSTIZA

Azkenik, bestelako kontrol mota baten berri ematen digu elkarrizketa batek. Lourdes Kapanagak Santiago maisu besamotzari gertatutakoaz kontatzen digunetik ondorioz-tatu dezakegu korreoa kontrolatuta zegoela.

Eskribitu zion karta bat bere anaiari. Anaia fraidea zuen, anaia bi zituen fraideak. Eta eskribitu zion, orduantxe [bonbardaketa] egunean, zer pasatu zen kontatzen. “Desde luego, la gente que ha venido se merece todo esto” edo ez dakit zer ipini zuen. Bota zuen karta eta, zera, irakurri zioten, klaro. Eta, joan zitzaizkion, baina ez dakit udaletxea edo nor sartu zen, ez zioten ezer egin. Otxandiotik bialdu. (...) Ha ere bere herrikoa zen, faxista. LOURDES KAPANAGA.

230. Abertzaletasunaren Agiritegia. GE-24-16.

Atalaren hasieran esan dugu, errepresioari dagokionez, lasai antzean eutsi ziola Otxandiok. Eta hori ez dugu bakarrik esan hilketarik egon ez zelako edo beste herri askotan gertakari larriagoak izan zirelako. Kontraesana badirudi ere, errepresioaren isla gisara aztertu ditugun zenbait ekinbide lasaitasuna bermatzeko eta egoera ez larriagotzeko saiakera modura ere interpretatu daitezke. Errepresioaren malgua adierazi lezakete:

Alkateak zerrenda bat osatu zuen 1937ko martxoan, Alderdi Karlistara afiliatutako herritarrak seinalatuz; gerra hasi eta urtebetera, hamaika bonbardaketa eta hildako izan ostean ere, militante karlistek herrian bizitzeko aukera zutenaren seinale –tartean ezagunenetarikoak: alkate bilakatuko zen Miguel Orue edo Errepublikan bertan eta altxamendura arte zinegotzi aritutako Lorenzo Ruiz de Azua eta Jose Ignacio Olaso, kasu–.

Gutunen kontrola egiten zen, Lourdes Kapanagak agertzen duenez; Otxandioko bonbardaketa begi onez ikusten zuela idatzi zuena herritik kanporatzera mugatu ziren, gertaeraren beroan ere.

Pilar Olasok bere aita eta beste hainbat karlista Otxandiotik kanporatu zituztela esaten digu, bera da kanporatze horien interpretazio gozoago baterako atea zabaltzen diguna ere. Urteekin Trini Langarikaren lagun mina egin zen, alkate izandakoaren arreba:

Berak esaten zidan: “Ba, begira, zuek pentsatuko duzue nik zer dakit zer, baina nire nebak irten eragin zien haiei, euren kontrako zeozer egon ez zedin”. Udaletxeak bakoitzari abisua, honenbeste ordutan herria libratzeko. MARIA PILAR OLASO.

Argudioa sinesgarria da, aurrekariak ikusita. Gogoratu Kortazar “Otxandi”rekin gertatua uztailaren 18an, *Viva Cristo Rey!* oihukatuz herriari altxamenduaren berri eman zionean. Otxandioarren hitzetan, bertan *manejatu*, hil ez zezaten espetxeratu zuten, eta haren bizitza arriskuan ikustean udaletxeko teilatutik ihes egiten ere lagundu zitzaion. Hain zuzen ere, urteen buruan Trini Langarikak Maria Pilar Olasori emango zion arrazoi bera: *Hori! Hori izan zen arrazoia, holan azaldu zidan [alkatearen arrebak] (...) Horregatik izan bazen [karlisten kanporatzea], eskerrak ematekoa da*²³¹.

Beste datu esanguratsu bat bonbardaketa osteko lehen udal bilkuratik ateratzen dugu. Matxinoek dozenaka otxandioar erail eta astebetera, ekimen ankerraren ondorioei aurre egiteko egin zen bilkuran, hiru zinegotzi karlistak presente zeuden²³². Herritarrak eta udal agintariak soilik ez, arduradun militarrek ere izan ziren “lasaitasun” honen partaide. *El Frente de Álava* liburuan, milizianoen ekintza errepresiboen gaineko kontrola zutabe eta sektore arduradunen eskuetan zegoela adierazten da. Eta atxiloketa arbitrarioak gertatu baziren ere *por causas políticas bajo el paraguas de desafección al régimen*, Otxandioko sektorean, Vidal eta Ibarrolaren agintepean, ia ez zela krimenik egon azpimarratzen digute egileek²³³.

231. Elkarrizketa. Maria Pilar Olaso Olabarria.

232. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1936-8-1.

233 AGUIRREGABIRIA, Josu M. eta TABERNILLA, Guillermo. *El frente de Álava. Primera parte. De la sublevación a vísperas de la batalla de Villarreal*, 1. arg. Bilbao: Ediciones Beta, 2006; 58, 101. or.

4.4.1. Otxandio, antiklerikalismoaren ikur

Frankistek zerbaitengatik egin bazuten famatu Otxandio herriaren izena, bertan gorri-separatistek erlijioaren aurka egin omen zituzten basakeriengatik izan zen. Hemen bi kontu ezberdindu beharra dago.

Batetik, ukaezina da errepublikanoen artean elizaren kontrako sentimendu eta jarre-rak oso zabalduak zeudela. Arrazoi historikoei eta ideologikoei elizak altxatuekin bat egitea gehitu behar zaie hau ulertzeko. Testuinguru honetan, Otxandio ez zen salbues-pena izan:

Otxandion ere gerra bizi izan zuten beste herrien antzera gertatzen zen: elizak milizia-noen erlijioaren kontrako gehiegikeriak jasan zituen. Zenbait irudi eta koadro fusilatu, apurtu zituzten, erlijio-jantziekin parodiak egiten zituzten...²³⁴

Bestetik, propaganda matxinoak gertatua asko puztu eta desitxuratu zuen. Gerrako ohiko jokaera bai, baina ez soilik hori. Euskal lurretan, afera erlijiosoak lehen mailako garrantzi politikoa zuen. Matxinatuen arrazoibide nagusietariko bat altxamendua erlijioaren aldeko gurutzada moduan aurkeztea zen, hil edo biziko borroka, kristautasuna defendatzen zuten eta erasotzen ziotenen artean. Esan gabe doa gauzak ez zirela horren simpleak, baina Espainiako errealtateari begira, ñabardurak ñabardura, diskurtso sinesgarria izan zitekeen. Euskal Herriko argazkiak, ordea, hankaz gora jartzen zituen argudio horiek: EAJ, alderdi eskuindar eta zinez erlijiosoa, legalitatearen eta Errepublikaren alde lerrokatu zen. Nola indargabetu gerraren justifikazio morala omen zena hankaz gora jartzen zuen egitate hau? Abertzaleen antiklerikalismoaren frogak emanez, edo gutxienik ezkertiarrek egindako basakerien aurrean arduragabe eta modu permisiboan jokatzeko zutela salatuz. Otxandio horren ikur bilakatu zuten:

Francok, gerra hori gurutzada bat bezala erakusteko ahaleginean, Errepublikaren antikle-rikalismoari buruzko erakusketa antolatu zuen: suntsitu eta su emandako elizak, moztu-tako irudiak eta abar. Horien artean Otxandion suntsitutako irudietako bat nabarmendu zen²³⁵ eta “El Cristo de Ochandiano” izenarekin estatu gutzian erakutsi zuten²³⁶.

Gai hau aztertzean, hortaz, gure lanak izan behar du gezurrak eta egia erdiak bereiz-ten asmatzea.

Gertatutakoaren informazio zehatzena eta osatuena Valladolideko Unibertsitatearen ikerketak eskaintzen digu, uneren batean galbahea pasatu behar bazaio ere. Ikerketa

234. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzardea, 2006; 46. or.

235. “Otxandioko Kristoak” ospe handia hartu zuen. 1937. urte amaieran, pairatu zituen sakrilegio eta mutilazioak gogoan, prozesioa antolatu zen, ez Otxandion, baizik eta Bizkaiko hiriburuan bertan. Otxandioko udalbatza Bilbon batzartu zen azaroaren 27an, prozesiora agertzeko, eta bertara gonbidatu zituen herriko apaizak ere, *así como a las personas más destacadas de derechas y afectas al Circulo Tradicionalista*. (Otxandioko Udal Agiritegia/Udal Bilkuren Aktak/1937-11-20).

236. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzardea, 2006; 46. or.

honetan, gainera, Santa Marina elizaren barrualdeko argazkiak ageri dira gehiegikerien lekukotasun gisara (irudiak apurtuta, kristoa burua moztuta...):

Desde el 22 de julio hasta el 24 de agosto tuvo que vivir el párroco refugiado en el caserío de su hermano y en unión de otro hermano coadjutor de la misma parroquia; después se refugió en Ceanuri hasta que el 11 de abril pudo pasar al terreno nacional en unión de su hermano.

La iglesia, que estuvo ocupada todo el tiempo de la dominación roja, fué desde el primer momento saqueada; en la torre se colocaron cuatro ametralladoras; en las naves hubo depósito de municiones y todo el templo sufrió las más horrendas profanaciones con la promiscuidad de milicianos y milicianas, y su transformación en “cabaret”. Las imágenes fueron unas destrozadas, otras quemadas, otras mutiladas, siendo lo más frecuente el vaciado de los ojos. Los ornamentos sagrados fueron utilizados para la confección de polainas y trajes; el órgano, de 28 registros y dos teclados, fué completamente destrozado; los relieves de la sillería del coro fueron arrancados, rotas las vidrieras, desgarrados los cuadros de la sacristía e iglesia. El sagrario fué profanado de tal manera que las Sagradas Formas fueron partidas y desparramadas por los suelos, perdiéndose también los vasos sagrados, candelabros etc.

El archivo parroquial fué llevado por un tal Flavio Ajuriaguerra y hasta el presente momento no se tiene la menor noticia de su paradero.

En los pórticos y en algunos rincones de las naves se instalaron las cocinas, quedando los techos y paredes ahumados.

En cierto día, que no recuerdan, celebraron los milicianos una parodia de procesión, revestidos con dalmáticas y capa, que pasearon por la plaza pública.

De las cinco ermitas existentes en el término de esta parroquia, tres de ellas, las de San Roque, San Bernabé y N^a S^a de los Remedios, han sido profanadas, desapareciendo de ellas las imágenes, púlpitos y altares; la de San Bernabé ha quedado totalmente destruida. Lo mismo en estas ermitas que en la misma parroquia hubo momentos en que se transformaba en caballerizas o cuadras, encerrando en ellas bastante cantidad de ganado²³⁷.

Lau urte geroagoko Kausa Orokorra kalte materialak zerrendatzera mugatzen da. Arlo honetan, jasotzen dena Valladoliden deskribatutakoaren antzekoa da, baina zenbait gauza aldatu egiten dira; ermita gehiago dira suntsitutakoak eta agiritegi parrokiaren desagerpenik ez da aipatzen:

- Destrucción y profanación de todas las imágenes de la iglesia parroquial, entre ellas el famoso Cristo de Ochandiano.
- Destrucción completa del órgano parroquial.
- Incendio y destrucción de las ermitas de San Roque, S. Antonio, S. Bernabe y Ntra. Sra. de los Remedios²³⁸.

Eranskin batean datu berri bat ere ematen zaigu, eliza eta ermitetan eragindako kalteen zenbatekoa dirutan: 217.815,50 pezeta.

Informazio guzti hau hiru gai nagusitan banatu liteke: apaizen kontrako jazarpena; Santa Marina elizaren profanazioa (objektu materialak hondatuz batetik, balore eta sinboloei erasoz bestetik); eta, gainontzeko ermiten profanazio eta suntsiketa.

237. Universidad de Valladolid. *Informe sobre la situación de las provincias vascongadas bajo el dominio rojo-separatista*, 1. arg. Valladolid: Universidad de Valladolid, 1938; 237-238. or.

238. Causa General de Vizcaya / 56. Zbk / Partido Judicial de Durango / Otxandioko Udala.

Apaizen ihesaldia oso gertakari ezaguna da gure nagusien artean, ia guztiek entzunda daukate burutu zuten eskapadaren istorioa. Mekoleta aldean egon ziren ezkutatuta bi anaiak, hariak eta Zeanurirantz abiatzea lortu zuten arte:

Horiek abadeak bizirik daude gure amandre defuntuagatik. Harek ezkutatu, bere arreba-renean egon ziren, lbarrondorenean egon ziren ezkutatuta, eta Orue, Ambrosio Oruerenean... baina, aurpegia, gurean ere, amandre defuntuak eman behar! La abuela! Familiako lagun bat agertu zen, Santi, Portugaleteko musikari nagusi bat.

Amandreak esan zion:

– Me tienes que hacer un favor.

– ¿Qué favor Petra, qué favor?

Oraintxe ikusten dut zelako aurpegiagaz esaten zion “¿qué favor?”

– Tienes que llevar a estos dos señores, son curas, ya que les van a fusilar y llévalos a Zeanuri, a la central de la luz.

Abadeen koinataren ama-eta bizi ziren han, zentralean. Hara eroan zituzten, han salbatu ziren. Osterantzean, gaur horien hezurrik ere ez legoke.

Baina ¡cosa fea, cosa fea un cura en traje, eh! Horiek tripak... holan! [handi-handi]

Bueltatu eta eskerrik askorik ere eman ez.

Eta hori, alkate egin zutenean Miguel, haien anaia, elizarantza badator [amandrea] egun batean eta, moñoa edukitzen zuen eta pañelua, eta ra! Kendu pañelua eta txapel gorria ipini. Esan zion:

– Miguel, ¿cómo me haces esto?, si ya sabes que yo no soy carlista ni soy esto... yo no soy nada. ¿Y por qué me haces esto?

– Zu isilik!

Zu isilik, danakaz isilik egon behar. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

Ambrosio Oruerenean egon ziren gordeta, bai. Pedro Orue Ambrosioren semea da, eta ondo gogoan du pasadizoa, baita aita zigorra jasotzeko arriskuan egon zela ere, anaia abadeei laguntzeagatik:

Abadeak Zeanurin egon ziren gordeta. Persegituta zeuden eta Otxandiotik martxatuta. Egun batzuetan egon ziren hemen, mendietan gordeta. Nire aitak, anaia izanda, ba, normala, jaten eroaten zien. Gero baten batek sartu zuen keja, anaia zaintzen ibili zela. Etorri ziren inspektore batzuk edo. Ea Ambrosio non dagoen, amari.

– Beharrean dago.

– Bada, presentatu dadila Otxandion.

– Zer dauka, ba?

– Anaiak zaintzen ibili dela.

Amak esan ei zion:

– Zu ez zinateke ibiliko anaiak zaintzen?

– Bueno, baina presentatu dadila.

Gero, ofensiba egunetan joan zen presentatzen. Domingo oraindik bizirik zegoen eta:

– Ambrosio! Zer darabilzu, ba?

– Hona, presentatzen etorri nauk... Baina ez diat topatzen inor, ofizinetan jendea martxatuta zagok...

– Zoaz! Martxaizu etxera, ze osterantzean hartu eta eroango zaituzte eta!

PEDRO ORUE.

Santa Marina elizaren profanazioa ere entzuna dute otxandioarrek, eta gainera froga grafikoak daude. Gerta liteke kalte materialen zerrenda puztuta egotea, baina apurketak izan, izan ziren. Puztuta egon liteke jarrera eta ekimen antiklerikalen kontakizuna ere, baina gertatu ziren: eliza une batzuetan “cabaret” moduan erabili izana ia ziurtzat

jo dezakegu, gogoratu nola zituzten akorduan Florencia eta Andresa Lopez de Letonak milizianak elizan dantzan. Zalantza gehiago sortzen dizkigu kalez kale egin omen zen prozesio parodia, zalantzarik gabe egonezin handia sortuko bailuke otxandioar erlijio-soen artean, eta halere batek ere ez digu deus aipatu.

Ermiten kontua lanbrotsuago agertzen zaigu. Ez bakarrik oinarrizko bi dokumentu nagusietan, Valladolidekoan eta Kausa Orokorrean, informazioa ezberdina delako (lehen-dabizikoan, suntsitutako ermita bakarra San Bernabe da, eta besteak kaltetuak; Kausa Orokorrean, lau dira ermita suntsituak). Gauza bat da ermita suntsitua gertatzea, eta beste bat horren erantzukizuna norena den. Bi ikerketek, esaterako, bat egiten dute gauza batean, San Bernabe birrindu zutela:

Ofensiba hasi zenean kainoi hauek peligroan egon ziren. Baina ez zituzten lokalizatu. San Bernabeko ametrailadora lokalizatu zuten. Billerleko frentera begira zegoen, eta hori lokalizatu zuten, eta bonbardetu, eta apurtu egin zuten ermita. PEDRO ORUE.

Bonbardaketen eragina oso logikoa litzateke bai, batez ere, erabilera militarra zuten ermitetan. Bestelako datu bat eskaintzen digu Lourdes Kapanagak:

[Frankistak sartu zirenean] Moroak zeuden Elexabarriko ermitan. Gero esaten zuten gorriek apurtu zituztela elizak. Ha, moroek. Ze han sartzen ziren moroak, zaldiak eta denak, eta barruan egiten zuten sua. Etortzen ziren formatuta, ilunkeretan, kantuan...
LOURDES KAPANAGA.

Ez dugu ziurtatzerik, beraz, zenbat ermitatan izan ziren kalteak, ezta kalteok nork egin zituen ere.

Edonola ere, datu hauek euskal lurretan gerra amaituta zegoela argitaratu zituzten frankistek. Enfrentamendua gori zegoen egunetan prentsa zen herritarrentzako informazio idatziaren iturri nagusia, eta berripaperetan sentsazionalismoa eta propaganda oso nabariak ziren. Otxandio jausi eta ondorengo egunetan, matxinoen aldeko egunkarietako berriemaileak heldu ziren herrira, eta guztiek nabarmendu zuten errepresioa egon zela Otxandioko elizaren eta otxandioarren sentimendu kristauaren kontra.

El Pensamiento Alavés-en Como tenían los rojo-separatistas la iglesia de Ochandiano artikulua argitaratu zen apirilaren 6an. Uztailaren 20tik ez dela elizkizunik ospatu, erdiko nabea logela moduan erabili dela, beste areto bat botikin gisara, irudiei begiak aterata dizkietela... *Unidad*-ek ere landu zuen gaia hainbat egunetan. Apirilaren hamabian, gaiak zuen garrantzi politikoa agerian uzten duen berria aurkitzen dugu. Generalismoaren Kuartel Nagusiko bidali berezia herrira bertaratu da, eta telegrama bat idatzi du, abertzaleek elizaren aurrean duten jarrera ardatz hartuta:

La iglesia de Ochandiano es mudo testigo que se alza contra la hipocresía y las falsedades del Gobierno de Bilbao, pues aún distante 8 km de la que fué línea del frente, sin ninguna razón militar que lo justificase, el templo de este pueblo fueédeshecho por las fuerzas del separatismo y de los milicianos rojos²³⁹.

239. *Unidad*. 1937-4-12.

Gaiari jarraipen estuena *El Diario Vasco*-k egin zion, apirilaren seian hasi eta lau egunetan segidan eman zion tarteren bat. Hitzez kristauak omen diren abertzaleen ardura nabarmentzen du hamaika aldiz, halako ekintzak egiten utzita agertu duten konplizitateagatik. 6an, Gobernadore Zibila Otxandion izan dela jasotzen da; bere adierazpenetan, “gorri-separatisten” antiklerikalismoaren frogak nabarmentzen ditu. Handik hiru egunera, Otxandio azalera dakar berripaperak: *El catolicismo de los separatistas* goiburuaeren azpian, Santa Marina elizaren argazki bat eta irainen bilduma, testu labur batean. Egun berean, baina barneko orrietan, Gomez Aparicio berriemailearen artikulua luzea: *Los sacrilegios cometidos por las hordas rojas en Ochandiano*. Irudiei begiak ateratzea edo tiro egitea, banku eta aldareak apurtzea sutarako erregai moduan erabiltzeko, organoaren triskantza eta abar jasotzen ditu egileak, aurretik ere irakurriak ditugun gauzak.

Baina bada berria den garrantzizko elementu bat artikulua honetan. Ordura arte, *El Diario Vasco*-k eta gainontzeko egunkariek salatu izan dute “gorri-separatisten” menpe egon den bitartean Otxandion ez dela inongo elizkizunik egin. Askotan errepikatu izan da salaketa, errepresio antiklerikalaren erakusgarri. Apirilaren bederatzigarreneko honetan, ordea, herriaren kanpoaldean dagoen San Martin ermitan noizean behin mezak eman direla esaten du Gomez Apariciok. Baina ez du onartzen salaketaren neurria arintzeko asmoz, jazarpen modu larriagoak salatzeke baino:

Pero en la puerta del templo, emplazado en medio de una bellísima arboleda se situaban unos milicianos que tomaban nota de las personas que asistían a cumplir sus deberes espirituales; a su lado un nacionalista de Ochandiano les indicaba la significación política de cuantos entraban, fuesen mujeres u hombres. Y como aquello tenía visos de amenazas, de represalias, las gentes, temerosas de persecuciones se abstendían muchas veces de acudir a la ermita²⁴⁰.

Otxandioarren hitzek hau guztia gezurtatzen dute. Meza San Martinen normal esaten zela dioskute, ez noizean behin, eta inork ez du milizianoen eta herriko abertzalearen presentzia mehatxagarrikeri aipatzen. Florencia Lopez de Letonari espresuki galdetu diogu horren inguruan. Bera San Martineko mezara joaten zen, eta horrelakorik egon zela ukatzen du:

Bete-bete egoten zen, bai [San Martin]. Baina, zerak hartzen eta horrelakorik ez, arazorik ez. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

Ospakizun erlijiosoak normaltasunez egiten zirela nahiko argi dirudi. Are gehiago, ematen du herrian bertan bestelako mezarik ere izaten zela, Lourdes Kapanagak dioenez:

Meza bazegoen. Don Jose Euba zegoen. Bere arrebaren etxean ematen zuen meza, Victor Landaren etxean. Gero Don Josek alde egin behar izan zuen, besteak [frankistak] heldu zirenean. LOURDES KAPANAGA.

Agintari politiko zein militarrek errespetuzko giroa zaintzen saiatu ziren. Matxinoek jazarpen eta triskantza guztien arduradun gisara aurkezten badituzte ere, errealitatea

240. *El Diario Vasco*. 1937-4-9.

bestelakoa zen. 1936ko azaroaren 7an, esaterako, Otxandioko zutabeko nagusiak, Joaquin Vidal teniente koronelak, idatzi bat zuzendu zion Euzko Jaurlaritzako Defentsa sailburuaren zuzendari nagusiari. Bertan jakinarazi zion Frutos Vidal Martinez milizianoa atxilo zegoela, Otxandioko elizan kalteak egitea leporatuta²⁴¹. Gerra egoera hartan lasaitasuna eta elizkizunak ospatzeko bermea lortu nahi hau Josu Aguirregabiria eta Guillermo Tabernillaren liburuan ere irakurri daiteke:

El 27 de julio los sacerdotes Jose Maria Korta y Luis Agirre, por encargo del PNV van a Otxandio –los sacerdotes anteriores habían huido– con la función de normalizar los “servicios espirituales” vestidos de calle y se presentan a Vidal (para sorpresa de los milicianos que les acompañaban).

Vidal les dice: “Yo les ruego que tengan todo el cuidado necesario en lo que dicen y en lo que hacen. No se si con razón o no, pero la iglesia se ha metido en este lío, y comprenderán que estos milicianos también consideran a la iglesia como empeñada en la guerra contra ellos”²⁴².

Liburuaren arabera, Jose Maria Korta eta Luis Agirre apaizak herritik irten eta ofizioak Fernando Arzuaga eta Jose Euba apaizen eskuetan geratu ziren, baina hiru egunera hauek ere alde egin zuten. Abuztuaren 1ean, Angel Urrutia heldu zen Otxandiora, parrokiaren arduradun gisa, *pero los curas no convencen a los mandos de que no son espías y tienen que irse de vuelta, tras mostrar todos sus papeles y escoltados por nacionalistas vascos*²⁴³. Kontakizunaren azken zati honek ez dirudi zuzena. Egia balitz, Otxandio apaizik gabe egongo zen gune errepublikanoan egon zen denboraren tarte handiengan, eta ikusi dugu ez dela horrela. Gainera, otxandioarren arabera, Jose Euba eta Fernando Arzuaga soldadu matxinoek herria hartu arte egon ziren bertan.

Bestalde, balirudike miliziano guzti-guztiek ziotela ezinikusia bai kristautasunari bai harekin erlazionatutako adierazpide eta pertsona orori. Errealitatea bestelakoa da, ordea. Milizianoetariko asko erlijiosoak ziren, abertzale gehienak kasu, eta ezkertiarren artean egongo ziren elizkoiak, eta elizari instituzio moduan gorrotoa ziotenak baina ez kristautasunari, edo bai baina ez kristauei eta abar. Jesus Axpe otxandioarrak, esaterako, gogoan du Fernando Arzuaga abadeak onespren handia zuela milizianoen artean ere:

Tras el bombardeo y la espantada de la población civil se queda en el pueblo y atiende a todo el que lo desea, militares o civiles. Así hasta que diez meses más tarde entran los fascistas y lo llevan desterrado por su “mal comportamiento”. Durante estos nueve meses dice misa todos los días y da de comulgar al que lo desee. Atiende bautizos a las familias que han quedado en el pueblo, atiende funerales, todo ello en la ermita de San Martín, dado que la iglesia parroquial ha sido decomisada para depósitos de guerra.

Era tratado en todo momento con muchísima consideración por militares y paisanos, hasta el punto de que en el periódico comunista “Euskadi Roja”, aparece un artículo con

241. IRARGI / Euzko Jaurlaritzaren Funtza / 65-0511-05.

242. AGUIRREGABIRIA, Josu M. eta TABERNILLA, Guillermo. *El frente de Álava. Primera parte. De la sulevación a vísperas de la batalla de Villarreal*, 1. arg. Bilbao: Ediciones Beta, 2006; 58, 32. or.

243. AGUIRREGABIRIA, Josu M. eta TABERNILLA, Guillermo. *El frente de Álava. Primera parte. De la sulevación a vísperas de la batalla de Villarreal*, 1. arg. Bilbao: Ediciones Beta, 2006; 58, 33. or.

este encabezamiento: Don Fernando Arzuaga y Axpe, una flor entre espinas. La flor tú, Don Fernando, las espinas nosotros. JESUS AXPE²⁴⁴.

Propaganda matxinoak gertakariak desitxuratu eta puzteko estrategiak goia jo zuen *El Diario Vasco*-ren 1937ko ekainaren 22ko alean. Azalean bi argazki ageri dira, eta bat Lorenzo Uralde Otxandioko parrokoarena omen da. Argazkipean, azalpen laburra:

Este rostro en el que el dolor y el sufrimiento están clavado es el del virtuoso párroco de Ochandiano, don Lorenzo Uralde. Prisionero de quienes blasfemamente decían profesar nuestra Santa Religión, fue fusilado y recibió el tiro de gracia, pero las balas, más piadosas que los subditos del “católico” Aguirre, respetaron su vida para que hoy, ciego y lacerado, sea testimonio rotundo de que la barbarie asiática anida en el corazón de los caudillos separatistas²⁴⁵.

Otxandioko apaiza fusilatua, beraz. Harridurak zalantzi ireki zion atea irakurketa sosegatu bati heltzean. Otxandioko apaizetako batek Lorenzo Orue zituen izen-abizenak, *Orue* eta ez *Uralde*. Argazkiko gizona otxandioarrei erakutsi, eta gertaera ukatu ez ezik argazkiko morroia ez dela “Don Lorenzo”... Finean, berria faltsua dela²⁴⁶.

Laburbilduz: sakristauak Gasteizera egin zuen ihes; Pablo eta Lorenzo Orue anaia apaizek Mekoletako baso aldera lehenik eta Zeanurira ondoren; milizianoek Santa Marinako eliza nagusia okupatu zuten; biltegi moduan erabili zuten (munizioarena, jakiena...), lo egiteko eta dantzan-eta aritzeko ere erabili zuten; triskantza ugari eragin zituzten bertan (irudiak, koadroak, organoa); elizkizunak normaltasunez ospatu ziren Otxandion; kristauak ez zuten jazarpen berezirik pairatu; San Bernabeko ermita suntsitua gertatu zen bai, baina logikoena bonba matxinoek birrindu zutela pentsatzea da; gainontzeko ermitek hartutako kalteen zenbatekoa eta kalteen egileak ez ditugu argi.

244. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 84-87. or.

245. *El Diario Vasco*. 1937-6-22.

246. Onean jarrita, gertatu daiteke nahasketa baten ondorio izatea berria. Eusko Jaurlaritzak 30 apaizen kontrako espedienteak ireki zituen gerra garaian, horietako bat Diosdado Lorenzo Uralde Ruiz de Larrinagari (SEBASTIAN GARCÍA, Lorenzo. “La represión económica bajo el primer Gobierno Vasco. La Junta Calificadora Central (1936-1937)”, In: *Vasconia*. 29. zbk., 1999, 169-184. or.). Nolanahi ere izen-abizenen antzekotasuna zeharkakoa da eta gainera ez dakigu ezta apaiz honi behintzat testuan kontatua gertatu zitzaionik ere.



Otxandioko
Kristoaren
erakusketa.
Bilbo,
1937.12an.



Santa Marina
elizako irudia.

El Diario Vasco. Azala. 1937.4.9an.

EL «CATOLICISMO» DE LOS SEPARATISTAS



La criminal alianza de los separatistas con los enemigos de Dios, ha producido espectáculos como este. La iglesia parroquial de Ochandiano, en el corazón del país vasco, convertida en cuartel. Los altares profanados, las imágenes rotas y mutiladas y el Sagrario injuriado en forma que no nos atrevemos a reproducir. Desde el 16 de julio en aquel pueblo, no se celebraron sus divinos oficios sin que los separatistas quisieran ni pudieran imponerse. Una vez más puede verse que la religión la defendemos nosotros y que el verdadero espíritu del pueblo español, por tanto del pueblo vasco, somos nosotros quienes lo representamos.

(Flo. Marín)

El Diario Vasco. Azala. 1937.6.22an.



Una muestra de la barbarie separatista.

Este cuadro de lo que el dolor y el sufrimiento están creando en el día de hoy en Ochandiano, don Lorenzo Urbiola, Primerose de guerra indistintamente se desfilan entre nosotros desde el día de hoy, para las cosas más gestadas que los soldados del "ejército" Aquellos, resistentes en vida por un que hoy, día y mañana, son totalmente rotando lo que la barbarie antisocial está en el mundo de los separatistas.


Una muestra de la realidad separatista. El pueblo de Ochandiano, que una vez más se ve en el mundo, al día de hoy, por el mundo de los separatistas, de la destrucción y del dolor de los días de guerra.

EJERCITO DEL NORTE

CUERPO DE EJERCITO DE EUZKADI

JEFATURA

NÚM. 1518



Excmo. Sr.:

El Jefe del Frente de Alava me traslada escrito del Jefe del Sector de Lecolleta que dice lo siguiente:

El Sr. Alcalde del pueblo de Ochandiano, en escrito de hoy, me participa que los individuos que al respaldo se relacionan se hallan residiendo en la localidad, no obstante estar afiliados al Partido Tradicionalista. Y como la presencia de estos individuos puede ser muy perjudicial para el Régimen, lo pongo en el superior conocimiento de V.S. para la resolución que considere oportuna, debiendo significarle que por mi parte he dado las oportunas órdenes a las guardias para que prohiban la salida del pueblo a los citados individuos mientras V.S. resuelva lo más acertado."

Lo que me honro en poner en conocimiento de V.E. para la resolución que estime oportuna.

Yurre, 13 marzo 1937.

Excmo. Sr.:

EL JEFE DE OPERACIONES DEL CUERPO DE EJERCITO DE EUZKADI,

[Handwritten signature]



Excmo. Sr. Consejero de Defensa del Gobierno Provisional de Euzkadi.

Alkateak herritar karlisten zerrenda prestatu zuen agintari militarrentzat. 1937.3.17an.



Santa Marina elizako irudi batzuk

Otxandiotik
ihes egindako
bi soldaduk
matxinoei
emandako
informazioa.
1936.10.27.
(Avilako Agiritegi
Militarra).

- 1º. Fecha: 27 de Octubre de 1936
- 2º. Nombre: Cabos, Andreino Delgado y Salvador Bernardo y Soldados: Jesús Fernández y Juan Corón.
- 3º. Pertenecen al Batallón de Carcellano.
- 4º. Lugar de nacimiento el 1º. en Almajano prov. Soria, el 2º. de Tablada de Roda prov. Burgos, el 3º. Castro Urdiales y el 4º. Aldaia de Henares, Madrid.
- 5º. Residencia: Bilbao
- 6º. Parados de Ochandiano
- 7º. Itinerario: Desde lo que ellos llaman posición de Asaito a nuestro destacamento de Villarreal (ignoran como se llama el monte donde está la posición de Asaito, diciendo únicamente que está sobre Ochandiano)
- 8º. Les ha inducido a pasarse a nuestras fuerzas el no estar conformes con la actitud seguida por las fuerzas rojas y el estar constantemente amenazados deseando desde el primer día pasarse a nuestras fuerzas.
- 9º. Hay otros muchos compañeros que están en sus circunstancias y que desean pasarse ir al momento a nuestras filas, lo que no saben si podrán efectuar por estar constantemente vigilados.
- 10º. Dicen que las concentraciones enemigas las tienen situadas en el mismo Ochandiano, Vieta y Ubidia; formando un total de las tres posiciones de unos 5.000 individuos.
- 11º. Los puestos los tienen colocados de derecha a izquierda: Jarrito, Cruzeta o Casa del Caminero, posición de Realto y dicen que más a la derecha hay otra posición llamada Cambian casa del Caminero donde están tres camiones blindados.
- 12º. Los Jefes según cuentan son: Coronel Ribera, Teniente Coronel Vidal, y el Brianda Ortega que hace las veces de ayudante. Dicen que estaba con ellos el Alférez Juan Alejandro Ochandiano, que como ellos mismos desean de pasarse por estar constantemente...

EJERCITO DE OPERACIONES DE MUZKADI

SECTOR OCHANDIANO-MEDOLETA

Relacion nominal del personal civil que con permiso de esta Jefatura ha salido del Sector en el día de hoy, con expresion de los lugares donde se dirigen.

NOMBRES	LUGARES	OBSERVACIONES
Renan Ajuria	Bilbao y regreso	Vecinos de Ochandiano
Baltasar Uriarte	id id	id id
Baltasar Urgeitia	id id	id id
Ramona Carcoche e hija	Durango id	id de Olleta
Irene Urrejola	id id	id id
Vicenta Fajano	Bilbao y regreso	id de Ochandiano
Dominga Carmendia	id id	id id
Eloy Larrea	Urquiola y regreso	id id
Esperanza Ogara	Durango id	id id
Fedra Carmendia	Iruye id	id id
Justa Mafarrate	Aramayona id	id Vieta
Anastasia Unzuai	Durango id	id Ochandiano
Jesé Ignacio Olaso	Bilbao sin regreso	id id
Lorenzo Ruiz de Asua	Sagunto id	id id
Andrés Ajuria	Bilbao id	id id
María Cercuera	Arriguerriaga y regreso	id id
Jesús Aspe	Iruye sin regreso	id id
Domingo Urrejola e hija	Durango y regreso	id id

Herritarren
sartu-irtenen
kontrolerako orria.
1937.3.27an.



Ochandiano 27 de Marzo de 1937

EL JEFE DEL SECTOR.

J. de la Haza

SECTOR DE OCHANDIANO MEDOLETA

5. Bizkaiaren gaineko ofentsiba:
Otxandio Francoren pean



Martxoaren 31n, Molak gidatuta, ejerzito matxinoak Bizkaiaren kontrako ofentsibari ekin zion. Egun batetik bestera, Bizkaia Espainiako Gerra Zibilaren erdigune estrategikoa bilakatu zen, eta Otxandio, lehen egunetako helburu militar nagusia Nafarroako Brigadentzat. Bost egunean, azkar, baina ez Molak uste bezain azkar, Otxandio eremu errepublikanoan egotetik altxatuen menpeko lurraldearen parte izatera pasatu zen. Gainontzeko euskal lurraldeetan luze gabe gertatuko zenaren aurrekari tristea.

Tartean ehunka hildako, zauritu eta gatibu izan ziren, euskal lurrak ordura arte gerran ezagututako erasoaldi militar bortitzenean. Lehenengo aldiz, bi ejerzito izan ziren aurrez aurre borrokan. Baina batek gerra modu modernoari hasiera eman zion bitartean, hegazkineria ekinbide militarren ardatz eta oinarri bihurtuta, Euskal Armada I. Mundu Gerrako eskemen preso zegoen oraindik. Zerua erabakigarri bilakatu zen. Otxandion eta inguruetan, ia erresistentziarik topatu gabe, milaka bonbak egin zuten eztanda, hegazkinek jaurtita. Orduko zaurien orbainak ez ziren urteetan osatuko.

5.1. Estatu eta nazioarte mailako garrantzia

Egun haiek erabakigarriak izan ziren Otxandioentzat, noski, baina 1937ko martxoaren 31n hasi zenaren garrantziak Estatu Espainolera eta nazioartera ere begira jartzen gaitu.

Estatu mailan, errepublikanoentzat, Bizkaiko Ofentsibak Iparraldeko Frontearen galeraren hasiera markatu zuen. Eta, bide batez, Errepublikarena berarena. Noiz eta gerra Errepublikaren aldeko joera erakusten ari zenean, Madril inguruan izandako garaipenen ondorioz. Hain zuzen, Madril hartzeko ezintasunak eraman zituen matxinoak gerraren erdigunea penintsularen erdialdetik iparraldera aldatzera.

Si Madrid no cae, se asfixiará a la República. Si Guadalajara supuso el fin de los intentos por conquistar Madrid, también marcó el inicio de la cuenta atrás para Euzkadi²⁴⁷.

Bilboko industria gerra ekoizpenerako birmoldatuta egoteak are erabakigarriago bihurtu zuen iparraldeko eszenatokia.

Matxinoek Bizkaia menperatzeko garatutako taktika militarrek berrikuntza sakon bat erakutsi zuen. Gerra eredu zaharkituen eta modernoaren arteko ezberdintasuna markatuta, berrikuntza horrek nazioarteko garrantzia eman zion erasoaldiari: *Ofentsiba, mundu mailan egindako lehen lur- eta aire-operazio bateratua izan zen*²⁴⁸.

247. URGOITIA, J.A. *Crónica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular*. (VI. liburukia). 1. arg. Donostia: Sendoa, 1984; 36. or.

248. CHUECA, Josu. "Gerra Euskadin. Bilakaera historikoa". In: ERRAZKIN AGIRREZABALA, M. eta AGIRRE-MAULEON, J. *1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*, 1. arg. Bilbao: UEU, 2009; 29-48. or.

Ordura arteko gerra eredia I. Mundu Gerrako bera zen, borrokaren zama handiena lurereko indarrek zuten. Euskal ofentsiban, lehenengoz, inizatiba aire-indarrena izan zen. Hain zen taktika berria, ezen Otxandio, Elorrio, Durango eta abar probalekutat erabili zituzten alemanek, taktika horren eraginkortasuna aztertzeko II. Mundu Gerrari begira:

El propio Goering no tuvo inconveniente en reconocer ante el Tribunal de Nuremberg, que la guerra en Euskadi había servido de “banco de pruebas para la Luftwaffe”²⁴⁹.

5.2. Ofentsibaren prestaketa

Erasoaldia 1937. urteko martxoaren 31n hasi bazen ere, aurre-prestaketa lanen azterketak urtarrilera arte atzera egitera behartzen gaitu.

Urtarrilaren 26an, Molak ahalik eta lasterren Bizkaia inbaditzeko plan orokor bat aurkezteko agindu zion 6. Dibisioko nagusiari. Planaren ardatz nagusiak beharko luke tenak marraztu eta ekimenaren zergatia azaldu zuen eskaeran. Baldintzak aldatuta zeudela uste zuen Molak. Gerrak luze joko zuen, eta, beraz, garrantzitsua zen Bizkaiko industriaguneak eta bereziki gerra erabilera izan zezaketenak eskuratzea. Ondorioz, euskal fronteetan jarrera defentsiboa alde batera utzi eta jokabide oldarkorra hartu beharra zegoen. Ekintza azkarra aurreikusitako buruzagi matxinoak²⁵⁰.

Aginduari erantzunez, 6. Dibisioko jeneralak egitasmo bat aurkeztu zion Molari, eta honek, balekotzat eman eta gero, Francori helarazi zion. Otsailaren 9an gaude oraindik. Planak Bizkaia inbasioa lehentasunezko hiru norabidetatik eta bigarren mailako laugarren batetik jotzeko asmoa jasotzen zuen, Otxandio horietako baten bidean zegoelarik. Zenbait fasetan banatu zen egitasmoa, bakoitzari egunbeteko epea egokituta. Aurreko egunean Albertia, Maroto eta Jarindo gainak menperatu eta gero, Otxandio bigarren egunean hartzea aurreikusitako zela irakurri dezakegu:

FASE A

(...)

La 4ª Brigada de Navarra ataca las posiciones de Albertia-Maroto-Jarindo.

(...)

FASE B

(...)

b) Ataque concéntrico sobre Ochandiano. (...)

La 3ª Brigada de Navarra se concentra en la zona de Curuceta (puerto de la carretera Villarreal-Ibarra) y avanza luego en dirección a Olaeta, desbordando y dominando a Ochandiano.

La 4ª Brigada de Navarra despliega tres unidades ante Villarreal, en acción demostrativa, ocho unidades, previamente concentradas en la zona de Gopegui, avanzan por Gobeia-Chiqui en dirección a los altos de Barazar, desbordando al enemigo establecido entre Ubidea y Ochandiano²⁵¹.

249. TUÑÓN DE LARA, Manuel. “El País Vasco durante la guerra”, in MALEFAKIS, E. (arg.), *La guerra de España, 1936-1939*, Madrid: El País, 1986. 30-31. or.

250. Archivo General Militar de Ávila / C. 2585, Cp.31.

251. Archivo General Militar de Ávila / C. 2585, Cp.31.

Planak aipatzen zuen jada hegazkineriak erasoaldian hartu beharreko protagonismoa. Horregatik zuen txostenak aire-indarren betekizunak espresuki jorratzen zituen eranskina. Otxandio hartu aurretik, inguru osoa erruz bonbardatu beharra jasotzen zen bertan: herria, Diman eraikitze fasean zegoen aireportua, Otxandio Dima eta Durangorekin elkartzen zituzten errepideak...

Francok otsailaren 18an erantzun zion Molari. Egitasmoa alor guztietan onetsi bazuen ere, artilleria eta hegazkineriarren ekinbideak zehatzago planifikatu beharra seinalatu zion, *etsaiaren lerro indartsua* ahultzeari begira.

Erasoa, ordea, ez zen bi hilabete eta erdi igaro arte hasiko. Antza, Franco Madril hartzeko eta garaipen azkar bat lortzeko itxaropenez zegoelako oraindik. Martxo erdialdean zapuztu zitzaion itxaropena, eta orduan eman zien hasiera Bizkaia inbaditzeko prestaketei:

Cortada nuestra ofensiva sobre Guadalajara a mediados de marzo de 1937, por el repliegue de las fuerzas del C.T.V, se crearon dos problemas que había que resolver con rapidez:

1^º. Parar el golpe y restablecer la situación.

2^º. Obtener un éxito que colocara la moral del enemigo, por lo menos, en la situación de inferioridad que antes tenía.

(...)

Para resolver el segundo había que buscar un sitio que fuera fácil y que nos permitiera obtener consecuencias ventajosas, no sólo morales, sino materiales.

El frente más débil del enemigo era el del Norte. (...)

Si se atacaba rápidamente, Vizcaya podría caer fácilmente²⁵².

Ondorengo pausoa, behin Bizkaia hartuta errazak izan beharko luketenak, Santander eta Asturias oinperatzea zen. Matxinoen ustez, frontierik ahulena Santanderrekoa zen eta indartsuena Asturiasekoa, baina halere Bizkaiaren kontra jotzea erabaki zuten:

(...) la toma de Bilbao, por sus minas, sus industrias, sus astilleros, su marina mercante, supondría el desmoronamiento de la zona Norte²⁵³.

Etsaiaren inguruan zerabilten informazioak helburua are eskuragarriagoa zela ikusarazi zuten:

Las fuerzas de Santander y Vizcaya estaban constituidas entonces por naturales del país, muy flojos y que en su mayoría deseaban el término de la guerra. El nacionalismo no lo sentían hasta el punto de perder la vida por él; eran religiosos y seguían la guerra atemorizados por la CNT y la FAI. Había una gran masa que esperaba con impaciencia la llegada de nuestras tropas²⁵⁴.

Aurrerago ikusiko dugunez, norgehiagoken bilakaerak erakutsiko zuen uste hauek okerrak zirela.

252. Archivo General Militar de Ávila / C. 2585, Cp.40.

253. Archivo General Militar de Ávila / C. 2585, Cp.40.

254. Archivo General Militar de Ávila / C. 2585, Cp.40.

Bien bitartean, Euskal Armadak izan zuen matxinoen asmoen berri, baina bi arazo zituzten. Batetik, bazekiten erasoja joko zela baina non zehazki ez, eta horrek defentsa 40 kilometroko fronte zabalegi batean antolatzen behartu zituen. Bestetik, batailoirik onenak eta zailduenak Asturiasen zeuden edo handik heldu berri, lur haietako ofentsiban parte hartu eta gero. Ondorioz, *gerragintzan eta borrokan aritu gabeko konpainiez baliatu behar izatera derrigortuta aurkitu zen Defentsa Saila*²⁵⁵.

Martxoaren 29an, Operazioetarako Agindu Nagusia heldu zitzaizen ofentsiba gidatu behar duten agintari matxinoei. Juan Vigonek Gasteiztik helarazi zien dokumentu “sekretuan” jada otsailean prestatutako plana ageri zen, *E egunean eta H orduan* hasi beharrekoa. Egoeraren irakurketa ezin baikorra da zen:

I- SITUACIÓN GENERAL

Estabilizados los frentes en el teatro de operaciones del Norte, el enemigo ha retirado de los sectores de VIZCAYA parte de sus reservas para reforzar la ofensiva en ASTURIAS. Las tropas restantes, no muy bien armadas ni municionadas, dotadas de inferior artillería, mal encuadradas, no pueden ofrecer seria resistencia ni aún cuando fuesen reforzadas por tropas batidas, a una ofensiva montada con los poderosos medios que el alto mando afecta a las BRIGADAS DE NAVARRA²⁵⁶.

5.2.1. Goikoetxearen traizioa

Espioitzaren atalean aipatua dugu Alejandro Omar Goikoetxea kapitainak, Bizkaiko defentsa sistema egituratzaren arduradun nagusietakoa izanik, ofentsiba baino hila-bete lehenago egin zuela ihes eremu matxinora. Otxandio eta ingurutako gotortze lanen deskribapen zehatza eman zuen buruzagitzak frankistari aurkeztutako txostenean. Luzetxoa izanik ere, orriotara ekarriko dugu zati hau, ofentsiba aurretik inguruneak zuen itxura ikusarazteko lagungarria delakoan, eta agerian uzten duelako frankistek arlo honetan izan zuten abantaila.

b) Frente de Álava.

También este frente se puede considerar dividido en otras cuatro Secciones, a saber: Aramayona que comprende desde el Udala hasta el Jarinto pasando por el Murumendi Asensiomendi. Las fortificaciones de esta Sección son muy rudimentarias y consisten en sencillísimos parapetos de sacos y alambradas deficientes. No hay líneas continuas ninguna, ni tampoco segunda línea de resistencia si bien las posiciones ocupadas por las tropas rojas pueden calificarse de buenas tan solo por la utilización del mismo terreno en condiciones favorables de dominación.

Sección de Ochandiano.- Comprende las posiciones del Maroto, Jarinto, Albertia y Pagochiqui, que constituyen las cuatro un nudo de defensa del frente alavés.

Las fortificaciones actuales en estos cuatro puntos son también deficientes consistiendo en zanja corriente, algún parapeto de saco terrero con alabrada de dos filas de estacones. Debo hacer notar la importancia extraordinaria que el Mando rojo da a la posición de Albertia habiendo llegado a ordenar la concentración en la misma de todos los grupos de Zapadores para convertirla según expresión del Jefe de Estado Mayor rojo

255. EGAÑA, I. ETA BESTE ZENBAIT. 1936. *Gerra zibila* (VI. liburukia). 1. arg. Andoain: Aralar, 1999; 66. or.

256. Archivo General Militar de Ávila / C. 2585, Cp. 34.

en un nuevo Peñón de Gibraltar, sin embargo en el día de mi presentación al Ejército Nacional esa fortificación estaba aun tan solo iniciada y dada la forma de haber desarrollado los trabajos de Zapadores hasta el presente, esa fortificación no podrá hacerse en plazo inferior a cuarenta días, sospechando el informante que como es natural las circunstancias harán quizás activar estos trabajos en forma mucho más violenta que hasta el presente.

Sección de Ubidea.- Arranca de Pagochiqui y continua por Mendigai a parar al kilómetro 20 de la carretera de Ubidea a Villarreal. La fortificación de esta Sección dispone de alambrada continua y zanjas, trincheras y parapetos de sacos formando tambien un sistema casi continuo, con algunos caminos cubiertos, especialmente hacia la carretera de Ochandiano-Villarreal. El frente de Ochandiano presenta la característica que no se da en los otros dos frentes de disponer de una segunda línea de resistencia. Arranca de las estribaciones Sur del Jarinto en línea continua de trinchera bien construida, que desciende hasta la carretera de Aramayona a Villarreal que la atraviesa en el punto denominado de La Granja en cuyas inmediaciones se ha construido un muro de cierre de la carretera, de cemento y grandísima solidez con zanja anterior de tres metros de anchura y otros tres de profundidad. La trinchera sube a continuación por el monte Tantaibacar cuya falda Sur en todo el trayecto comprendido desde la carretera de Villarreal-Aramayona hasta la de Villarreal-Ochandiano se encuentra fortificado extraordinariamente habiéndolo conceptualizado el Jefe de Estado Mayor Montaud como invulnerable, disponiendo además en sus partes más bajas de una defensa de bosque ejecutada en estrella con numerosos nidos de ametralladoras y alambradas flaqueadas y cruzadas.

La carretera de Villarreal a Ochandiano se halla cortada en las inmediaciones de la caseta de peón caminero situada en el kilómetro 19 por una obra muy fuerte aspillerada de cemento con nervios de 1,50 metros de grueso, teniendo prevista la colocación de dicha obra de varias ametralladoras y de un antitanque. Tiene a su vez delante una gran zanja de 100 metros de longitud, tres de anchura y otros tres de profundidad. Todas estas obras resultan batidas con ametralladoras ocultas en la defensa de bosque situada a su izquierda y que ya hemos indicado. Esta segunda línea pasa a continuación a las faldas Sur del Mochotegui y cota 793 en línea de trinchera continua, nidos de ametralladoras y alambrada también continua en sistema muy fuerte que haría posible una fuerte resistencia, en todo el trayecto descrito y que termina en el kilómetro 21 de la carretera Villarreal-Ubidea y en donde todavía no se han ejecutado obras de cierre o corte de carretera que se trataba de comenzar la semana actual²⁵⁷.

Babeslekuen eta gotortze lanen ezagutza zehatza du arerioak. Normala, beraz, Errepublikari leial izan zitzaion Ricardo Alvarez Royuela militar hondarribiarraren pertzepzioa ofentsiba hasi eta minutu gutxira; *parecía como si alguien les hubiera comunicado por radio las coordenadas de nuestro emplazamiento*²⁵⁸. Horrela da, Nafarroako 3. Brigadaren operazio egunkarian, hau irakurri dezakegu martxoaren 31ko jardunaldiari buruz:

Desde el primer momento se batieron con eficacia los objetivos de todo el frente (nidos de ametralladoras, casas fortificadas etc.) pues todas ellas estaban previamente localizadas y fijada la situación en panorámicas y numeradas, por cuya circunstancia a cada batería se le fijaban con precisión los objetivos a batir²⁵⁹.

257. Archivo General Militar de Ávila / C. 2585, Cp. 28.

258. ÁLVAREZ ROYUELA, Ricardo. *Guerra de España 1936-1939. Testimonio de un militar de la República*, 1. arg. Donosita: Hondarribiko Udala, 2007; 58. or.

259. Archivo General Militar de Ávila / C. 2676, Cp. 18.

Arlo honetan, azken arazo batekin egin zuten topo Errepublikaren defendatzaileek. Go-tortze lanak I. Mundu Gerrako gerra ereduari aurre egiteko pentsatuta zeuden, baina ofentsibak beste bide batetik jo zuten.

5.3. Hegazkineria, arma erabakigarria

Hegazkinerian Molaren ejerzitoak zuen nagusitasunak erabat desorekatu zuen borroka. Aldea ez zen soilik altxatuena hegazkin kopurua errepublikanoena halako hamar izatea; erabakigarriena, gainontzeko baliabideen aurrean hegazkineria lehenestea izan zen, ordura arte inoiz ez bezala.

Otxandioko kaleak eta inguruneak bonbaz josiko zituzten abioiak espainiarrak, italiarrak eta alemanak ziren, baina operazio hartan aginte nagusia alemanen esku egon zen. Iparraldeko aire-indarren arduraduna Hugo Sperrle jenerala zen (“Sander”), Kondor Legioko nagusia bera. Estatu Nagusian Wolfram Von Richthofen teniente koronela zegoen, eta berak zehaztu zuen Bizkaiaren kontrako ofentsibarako eraso modua, Vigon koronelarekin batera. Agintaritzak postuok berez botere handia ematen bazieten alemanei, praktikan euren itzala are luzeagoa zen. Borrokaren gorabeheren inguruko informazio guztia jasotzen lehenak ziren eta lotura zuzena zuten Francorekin.

Richthofenen egunerokoaren arabera, martxoaren 22an hartu zituzten berak eta Vigonek erabaki nagusiak. Adostu zituztenetik hiru puntu nabarmendu nahi ditugu: alemanek hegazkineria osoaren gainean aginpidea izatea; gudua aire-indarrak ematen zituen aukerei helduta bideratzea (*el mando de la lucha debe adecuarse ampliamente a las posibilidades efectivas del arma aérea*); eta biztanleria zibilarekiko erabat arduragabe jokatzeko (*Las fuerzas aéreas atacarán las reservas locales y de los sectores, “sin consideración de la población civil”*)²⁶⁰.

Aire-lur operazioaren oinarrizko ideia zen lur-indarrak abioiek sortutako egoera baliatzea ahalik eta azkarren aurrera egiteko. Ildo horretatik, bonbardaketek erailketa hutsa baino askozaz ondorio gehiago izan zituzten. Ordu luzeetako burrundarak eta lur-dardarak borrokariarik izutu eta nahasten zituen, eta baldintza bikainak sortu Molaren tropek lurretik eraso jotzeko. Egoera hau egunak joan egunak etorri errepikatzean, euren hegazkineriarren arrastorik izan gabe gainera, miliziano eta gudarien moralak behea jo zuten.

Komunikabideak (errepideak, sare telefonikoa...) bonbardatu eta metrailatzea ere lehen-tasunezko helburua zen. Armada errepublikanoko sektoreak elkarrengandik bananduta, haien erreakzio gaitasuna indargabetzea bilatzen zen –komunikazioa eten, hornidura lanak zaildu, errefortzuak ezin bidali– eta kaosa nagusitu zen²⁶¹. Ildo horretatik, adierazgarria da Estatu Nagusi alemanaren planak bere laugarren atalean jasotzen duen helburuetako bat: etxeak errepede gainera eraistea, trafikoa ezinezko bihurtzeko²⁶².

260. A. MAIER, Klaus. *Guernica 26-4-1937. La intervención alemana en España y el caso Guernica*, 2. arg. Madrid: Sedmay, 1976; 52-53. or.

261. BELDARRAIN, Pablo. *Historia crítica de la guerra en Euzkadi*. Bilbo, 1991.

262. STEER, George L. *El Arbol de Gernika. Un ensayo sobre la guerra moderna*, 1. arg. Tafalla: Txalaparta, 2002; 199. or.

Steer kazetariak bere *El árbol de Gernika* lanean, hegazkineriaren teknikaren beste bi jomuga nabarmentzen ditu. Bata, kuartel nagusiaren base gisara erabiltzen diren guneak bonbardatzea, Otxandio eta Elorrio, esaterako. Bestea, erretaguardian zibilen kontra erasotzea, biztanleria zibila izutu eta borrokalariai desmoralizatzeko asmoz (Otxandio menperatu aurreko egunetan, Durango; aurrerago, Gernika...).

Euskal Armadak ezinean ikusi zuen bere burua Molaren aire-indarren baliabide izugarrien eta teknika berrien aurrean; alde batetik, I. Mundu Gerrako eskemekin pentsatzen zuelako oraindik, eta bestetik, aurkariaren hegazkineriari aurre egiteko abioi la-gunik ez zuelako izan ofentsiba osoan. Borrokaren desoreka estruktural hau kontuan harturik, miliziano eta gudariek egun haietan erakutsitako erresistentziak harritu egin zituen Nafarroako Brigadetako arduradunak zein agintari alemanak.

Hegazkineriaren papera erabakigarria izan zela ez da historialariek edo ikertzaile espezializatuek bakarrik pentsatutako gauza bat. Herritarrak ere iritzi horretakoak dira:

Guk koadrilan euskaraz egiten genuen. Radio Pirenaica entzuten genuen, Dolores Ibarrurik edo horrek egiten zuen berba, buelta etorriko zela eta, zain egon behar... Baina ez zen ezer agertu hona. Ez zegoen aeroplanorik eta! Gerra aeroplanoek irabazi zuten hemen! Zenbat aeroplano, tandaka-tandaka, geratu barik. Eta besteek bat ere ez... Gauzez apur bat eutsi egiten zieten, baina egunez akabo! Zatitu egiten zituzten denak, zatitu, zatitu. FLORIAN KAPANAGA.

[Otxandio galtzeaz] Abiazioa izan zen hor printzipala. Hemendik ez zegoen, esateko moduan, eta besteak etortzen zirenean matxakatu egiten zuten dena. Uste dut Mirugain izan zela fuerteeana, hor eutsi zioten bastante. JON LASUEN.

Hau gerra hau, izan ez balitz alemanak eta italiarrak sartu zirelako, manejatuko zuten. Manejatuko zuten, baina sartu zirenean, akabo. JUAN PADILLA.

5.4. Martxoaren 31tik apirilaren 4ra: gerraren gordina

5.4.1. Bi ejerzito aurrez aurre

Legutioko Batailak aldaketa kualitatiboa eragin zuen gerran euskal lurraldeei zegokienez. Gabeziak agerian geratu baziren ere, estreinakoz ejerzito bat izan nahi zuenaren ekintza bateratua antolatu zuen Agirreren gobernuak. Ofentsibak beste salto kualitativo bat irudikatzen du maila militarrean: lehendabizikoz bi ejerzito ditugu parez pare, euren bitarteko guztiak jokoan jartzen.

Hauek ziren aurrez aurre zeuden indarrak:

Matxinatuen aldetik, oinarria Nafarroako Brigadak ziren. 1. Brigadak Bergaran zeukan kuartel nagusia, eta García Valiño teniente koronelak zuzentzen zituen bere 5.410 soldaduak; 3.aren arduraduna Latorre koronela zen, bere 4.343 gizonak Arrasaten zuten kuartel nagusia; Nafarroako 4. Brigadaren kuartel nagusia Gasteizen zegoen, kopuruz handiena zen, 9.927 soldadurekin, eta agintea Alonso Vega koronelak zuen (2. Brigadak ez zuen ofentsiban parte hartu). Brigada hauetako batailoi, tertzio, errejimentu eta abarretan antolatuta zeuden soldadu guztiez gain, beste hamaika unitate

gehiago zeuden: Zulatzaileena, Transmisioena, Osasun arlokoa, Artilleria astuna eta arina, Blindatuak... Gerra hasieratik lehendabizikoz, bi artilleria masa erabili ziren, guztira 130 kanoi eta obus inguru. Eta, noski, hegazkineria. Tropan, soldadu espainolak, euskaldunak, alemanak, marokoarrak eta italiarrak zeuden²⁶³.

Euskal Armadari dagokionez, Arabako Frontea hiru sektoretan banatuta zeukan eta horietako bi Otxandiotik hurbil zeuden:

Sector de Ochandiano-Aramayona

Los batallones de este sector defendían la zona comprendida entre los montes Albertia, Jarindo, Maroto y Murugain, cubriendo el valle de Aramayona, el puerto de Cruceta, San Adrián, Asensiomendi y Uncella.

Una compañía del batallón Dragones defendía el Murugain y otra Uncella; a su derecha, desde Aizmendi hasta el caserío Aguirre-Goikoa, se desplegaba el batallón Azaña de Vizcaya. De atrás de estos, en Aramayona, se encontraban el batallón Octubre, dos compañías del Dragones –entre Aramayona y Santa Agueda- y la 2ª Compañía del Rebelión de la Sal, que ocupaba la posición de San Adrián.

El batallón Abellaneda mantenía dos compañías y una sección de ametralladoras en el Maroto, y una compañía y media más una sección de ametralladoras en el Jarindo. El batallón Meabe nº 2 Stalin hacía lo mismo en el Albertia, siendo apoyado por la 2ª Compañía Pizkundia del batallón de ametralladoras Ariztimuño y por el batallón Meabe nº 1 Largo Caballero. El batallón MAOC nº 2 Guipúzcoa cubría la carretera que une la Granja con Ochandiano. Además de estas unidades en el sector se encontraban la 3ª Compañía del MAI Irrintzi, con antitanques y morteros, que se repartía entre Ubidea, Pagochiqui y la carretera de Villarreal a Ochandiano, una sección de la 4ª Compañía de Autos Blindados, una sección de obuses Schneider de 155mm. en las inmediaciones del puerto de Cruceta, una sección de cañones de 75mm. en el Km. 19 de la carretera de Villarreal a Ochandiano, y una sección de cañones rusos de 76,2 mm. en el Albertia. La segunda línea del sector comprendía una que iba desde el monte Jarindo hasta el Tantaibacar, otra que iba desde el Jarindo hasta Talborralde pasando por San Adrián y una tercera, sin fortificar, que teóricamente partía desde Talborralde, pasaba por Aramayona y terminaba en Santa Cruz.

Sector de Mecoleta

Este sector se encontraba delante del barrio de Mecoleta y su primera línea se apoyaba en el macizo de Mochotegui y de Miruguegaina al objeto de defender la localidad de Ochandiano. Defendían el sector el batallón Loiola, con dos compañías en Pagochiqui y otras dos en el Mendigain, y los batallones Muñatones y Larrazabal, que ocupaban la línea comprendida entre la carretera de Villarreal a Ubidea y la carretera de Villarreal a Aramayona, cubriendo las posiciones situadas a la derecha del Mendigain, Siolats y Pagochiqui. Completaban este despliegue la 3ª Compañía del batallón Garellano nº 6, como reserva del frente, la 3ª Compañía Jata Mendi del batallón de ametralladoras Ariztimuño, una sección de cañones japoneses de montaña de 75mm en el Mochotegui y otra de cañones Vickers Armstrong de 127 mm en Mecoleta²⁶⁴.

263. Indar matxinoen osaketa zehaztasun handiagoz ezagutu nahi izanez gero edo batzuen eta beste armamentuaren inguruko informazio osagarria nahi bada, jo esaterako: LEZAMIZ, Julen eta TABERNILLA, Guillermo. *Saibigain, el monte de la sangre*, 1. arg. Bilbo: Sancho de Beurko Elkarte, 2002; 254 or. edo; URGOITIA, J.A. Crónica de *la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular*. IV. Liburukia: La ofensiva del general Mola sobre Vizcaya, 1. arg. Donostia: Sendoa, 1984; 415 or.

264. LEZAMIZ, Julen eta TABERNILLA, Guillermo. *Saibigain, el monte de la sangre*, 1. arg. Bilbao: Sancho de Beurko Elkarte, 2002; 25-26. or.

Batzuen eta besteen indarrak alderatzen dituen koadro interesgarria eskaintzen digu Urgoitiaren lanak:

5. koadroa: Ejerzito bakoitzaren indarrak eta bien arteko aldea

ARMAK	MOLAREN EJERZITOA	EUSKAL ARMADA	INDAR KORRELAZIOA (Molaren alde)
Infanteria	23.620	11.675	1,990
Artilleria	128 pieza	23 pieza	5,560
Hegazkineria	152 abioi	17 abioi	8,941
Gurdi blindatuak	17	8	2,125

Iturria: URGOITIA, J.A. Crónica de *la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular*. IV. Liburukia: La ofensiva del general Mola sobre Vizcaya, 1. arg. Donostia: Sendoa, 1984; 72. or.

Aldaketak eta zenbaketak egiteko moduetan egon daitezkeen ezberdintasunetatik harago, gainontzeko ikertzaileek ere Molaren ejerzitoaren aldeko desoreka nabaria onartzen dute. Tuñón de Larak esaterako artilleriarako 6:1 proportzioa ematen du matxinatuen alde, hegazkinerian 10:1 edo handiagoa²⁶⁵. Ahaztu gabe aurkari bakoitzaren armamentuaren kalitatea kontuan hartuta aldea nabarmenagoa dela.

Halako baldintzetan hasi zen Bizkaiaren gaineko ofentsiba, Otxandiotik zazpi kilometro eskasera, *E egunean H orduan*. Parte hartu zutenak markatuta geratuko ziren gertakarien gogortasunagatik, baita bataila gehiagotan ibilita zeudenak ere. Diogunaren erakusgarri, dakargun orriotara bi oroitzapenetan idatzitakoa, irabazle batena bata eta galtzaileen taldekoa bestea. Javier Nagore Yarnoz erreketete moduan aritu zen:

Precisamente por ser los primeros días en que la viví con toda su dureza, tengo tantos recuerdos de la toma de Ochandiano. Aunque también las tenemos todos los que –veteranos o quintos- en ella participamos²⁶⁶.

Ricardo Alvarez militarra zen ogibidez, gerraren profesionala beraz, eta hala eta guztiz ere emozio bereziarekin deskribatzen du ofentsiba:

La 14^º Batería ligera (la nuestra), fué destinada a este frente, colocamos las piezas nada más llegar, a seiscientos metros delante del pueblo de Ochandiano, donde termina ahora el pantano, cada vez que paso en coche por este lugar, no puedo por menos que luchar para borrar de mi memoria y volver a la realidad, diciéndome, eso ya pasó hombre, estamos en 1989, porque se me pone la carne de gallina, casi tengo que detenerme para no echar a correr, a meterme en el campanario de la iglesia. No puedo dejar de pensar que los trimotores Junker alemanes van a llegar de un momento a otro²⁶⁷.

265. TUÑÓN DE LARA, Manuel. "El País Vasco durante la guerra", in MALEFAKIS, E. (arg.), *La guerra de España, 1936-1939*, Madril: *El País*, 1986. 29. or.


266. NAGORE YARNOZ, Javier. *En la primera de Navarra. Memoria de un voluntario navarro en Radio Requeté de Campaña*, 1. arg. Madrid: Movierecord, 1986; 28. or.

267. ÁLVAREZ ROYUELA, Ricardo. *Guerra de España 1936-1939. Testimonio de un militar de la República*, 1. arg. Donostia: Hondarribiko Udala, 2007; 57. or.

5.4.2. E eguna: H ordua

E eguna martxoaren 31 da, *H ordua* goizeko zazpiak²⁶⁸.

Artilleriak eta hegazkineriak eman zioten hasiera erasoaldiari, tropei bidea prestatuz. Lehendabiziko egun hartan matxinoek Albertia, Maroto eta Jarindo hartzea lortu zuten, baina ez zituzten egunerako aurreikusiak zituzten helburu guztiak erdietsi. 1. Brigadak Zarimutz, Mazmela eta Untzilla hartu zituen; 3.ak Asensiomendi; eta 4.ak, aipatu bezala, Albertia, Maroto eta Jarindo. Lehenengo egunean bertan hasi zen heriotzen dantza makabroa: erreketentzat Otxandio oinperatu bitarteko egunik odoltsuena izan zen, 72 hildako eta 384 zauritu, 3. eta 4. brigaden artean bakarrik. Nafarroako Brigadetek, bestalde, gudari eta milizianoen 20 gorpu eta zazpi zauritu jaso zituzten, eta 50 gatibu hartu.



Indarren kokapena 1937ko martxoaren 31n. (Iturria: LEZAMIZ, Julen eta TABERNILLA, Guillermo. *Saibigain, el monte de la sangre*, 1. arg. Bilbo: Sancho de Beurko Elkarte, 2002; 25-26. or.).

268. Batailaren bilakaera militarren kontakizunerako bi iturri erabili ditugu oinarri moduan. Julen Lezamiz eta Guillermo Tabernillaren liburua eta Nafarroako Brigaden Operazio Egunkariak: Archivo General Militar de Ávila / C. 2676, Cp.18; LEZAMIZ, Julen eta TABERNILLA, Guillermo. *Saibigain, el monte de la sangre*, 1. arg. Bilbo: Sancho de Beurko Elkarte, 2002; 25-26. or.

y
2

SEXTA DIVISION

BRIGADAS DE NAVARRA

- E. M. -

3ª Sección

Nums 24

ORDEN GENERAL DE OPERACIONES

1ª PARTE

En VITORIA a 29 de marzo de 1937, a las 18 horas

SECRETO

Planos : Conjunto ALAVA-VIZCAYA, en escala 1:50.000
Hoja 8 de VIZCAYA, en escala 1:25.000.

I.- SITUACION GENERAL

Estabilizados los frentes en el teatro de operaciones del Norte, el enemigo ha retirado de los sectores de VIZCAYA parte de sus reservas para reforzar la ofensiva en ASTURIAS.

Las tropas restantes no muy bien armadas ni municionadas, dotadas de inferior artillería, mal encuadradas, no pueden ofrecer seria resistencia ni aun cuando fuesen reforzadas por tropas batidas, a una ofensiva montada con los poderosos medios que el Alto Mando afecta a las BRIGADAS DE NAVARRA.

II.- MISION DE LAS BRIGADAS

Iniciar la invasión de VIZCAYA con la ocupación de los Puertos de BARAZAR, SUMELTZA y URQUIOLA previa la ruptura de la línea enemiga en el sector de ARAMAYONA y el envolvimiento sobre el contiguo sector de MECOLETA.

III.- IDEA DE MANIOBRA

Las BRIGADAS DE NAVARRA iniciarán el día D la ofensiva para :

1ª.- Romper el frente enemigo en el macizo ALBERTIA - MURUMENDI estableciendo en él una base de partida para avanzar sobre OLAETA - OCHANDIANO; envolviendo la segunda línea enemiga y cortando la carretera UBIDEA-BARAZAR.

2ª.- Reagrupadas las fuerzas, avance a las alturas que dominan los puertos de BARAZAR - SUMELTZA y URQUIOLA.

IV.- ORGANIZACION Y MISIONES DE LAS UNIDADES INFERIORES

a).- Intervendrán en la ofensiva las Brigadas 1ª, 3ª y 4ª de NAVARRA.

1937ko martxoaren 29ko operazio agindu orokorra. (Iturria: Avilako Agiritegi Militarra).

Ricardo Alvarez Otxandiotik oso hurbil zegoen, Legutiorako norabidean. Otxandiotik kanpaiak entzun zituen abisua emanez:

Llegamos a colocar las piezas antes del amanecer, y menos mal que así lo hicimos, porque no nos dieron tiempo ni para hacer las trincheras de protección de cada pieza, como exigen los reglamentos. De pronto, sonaron las campanas de la iglesia de Ochandiano, que servía de observatorio, y de oposición antiaérea, pues se había colocado una ametralladora en el campanario. Casi estaba amaneciendo y aparecen los famosos Junker 52 en formación triangular y de fondo, nada más llegar a la altura nuestra, que estábamos en el borde de la carretera, empezaron a soltar bombas²⁶⁹.

Otxandioaren bonbardaketa eta suntsiketa martxoaren 31 honetan bertan hasi zen. Von Richthofenek 67 tona bomba jaurti zirela jasotzen du bere egunerokoan. Jarindotik ikusi zuen nola bonbardatzen zuten Otxandio bere agintepeko abioiek²⁷⁰.

Lourdes Kapanaga otxandioarrak zehaztasun harrigarri zegoen du egun hau. Bere neba Santirekin batera ibili zen batera eta bestera, ihesean eta beldurrez:

31n, goizeko zazpitan hasi ziren abioiak. 8ak inguruan etorri zitzaigun miliziano bat, [ogi] txusko banagaz. Baina jateko gogorik inork ez, txuskoa eskuan. 9ak inguruan etorri ziren soldaduak, eta esan ziguten: "Todos fuera de aquí, que estas casas han empezado a arder". Baten bizi zen Garces, Jon eta Luki Garcesen familia; bestean, Santos Irasuegi; bestean, Bartolo "Pintto" eta Basilia, familiarik ez zeukaten. Eta bestean, beste andra-gizon batzuk, familiabakoak. Irten ginenean arineketan errefugiotik. Esan zion haren andreak gure amari: "Sekun, lagunduidazu etxera, diru apur bat edo zeozer ateratzen dudan". Ailegatu ziren atertera, baina dena zegoen sutan. (...) Gu joan ginen Kruzerotik kaminoz kamino, eta Kruzero parean aeroplanoak metrailetekin. "Nora egingo dugu hemen?" Etxatxorantza goazela, han erreka parean alkantarilla bat dago. Gainean geneuzkan aeroplanoak. Ailegatu ginen. Beldurra ematen zigun alkantarillan sartzeak, ze han zeuden odol putzu handi bat, alkandora zatiak, okela zatiak. "Hemen baten bat hil da". Baina hala eta guztiz ere, sartu ginen, eta ensegida etorri ziren soldaduak, irteteko handik, peligrrosoa dela eta. Handik irten genuen, kaminoz kamino, Pagolandaretara. Ogia eskuan, utzi ez eta jan ere ez. Gaua arte, gauez ez zen ibiltzen abioirik.

(...)

[Apirilaren 1ean] Eguna pasatu genuen Anboto azpian, abioien beldurrez. Gauean bueltatu ginen, zirimiria edo laino itxia zen, eta bigundu zuenean mugitu ginen Durangorantz, Berrizera joateko berriro ere. LOURDES KAPANAGA.

Pagolandaretatik herrira bueltatu zen Lourdes, eta amak bera eta Santi kanpora bidali zituen autobus batean. Urkiolatik behera bidean dagoen baserri batean pasatu zuten gaua. Otxandioar askok egin zuten herritik ihes lehen egun hartan. Lourdesek, esaterako, herrikide asko aurkitu zituen han, Urkiolan. Basili Urigoitiak Bilborantz jo zuen, baldintza gogorretan:

Kobazuloetan lo egitea ere tokatu zitzaigun. Dimako kobazuloetan eta. Baltzokoetan, Diman. BASILI URIGOITIA.

269. ÁLVAREZ ROYUELA, Ricardo. *Guerra de España 1936-1939. Testimonio de un militar de la República*, 1. arg. Donostia: Hondarribiko Udala, 2007; 58. or.

270. A. MAIER, Klaus. *Guernica 26-4-1937. La intervención alemana en España y el caso Guernica*, 2. arg. Madrid: Sedmay, 1976; 97-98. or.

Lourdesek bere etxe aurrean su hartu zuten lau etxeak aipatzen ditu. Horietako bat Santos Irasuegiren familiarena zen. Santosek, hain zuzen, martxoaren 31 hura bere bizitzako unerik gogorrena izan zela diosku, Andikonako bonbardaketa baino latzagoa. Eztanden burrundara hastean, arropa ere aldatu egin gabe, ohetik altxatu eta etxe azpian zeukaten babeslekuan bilatu zuten aterpea Santosek. Bomba batek etxea sutan jarri zuten, eta eurek azpitik ikusi zuten gainean zuten sua, ikaraturik. Handik Kruzero-ko babeslekura heldu zen korrika. Ez zegoen denentzako lekurik, baina Pako Olabarri otxandioarrak sarrarazi egin zuela du gomutan, Pakori berari gorputzaren erdia babeslekutik kanpora gelditu bazitzaion ere. Orduan, bomba bat erori zen ondoan, eta Pako Olabarri bertan hil zen, *seko*. Berriz ere arineketan irten zen Santos, Korostondorantz. Gaua heldu arte ezkutatuta egon zen, eta *gauean heldu etxera eta etxerik ez*. Soldaduen garraiorako autobusetako batean alde egin zuen Bilbora azkenerako. Egun osoa jan gabe eta jantzi gabe emanagatik ere, beldurraren poderioz, *ez goserik ez hotzik ez ezer ez, ezer ez*²⁷¹.

Fernando Arrizabalagak ere etxea galdu zuen ofentsiba egun haietan. Mendietatik apirilaren lauan jaistean ohartu zen gertatutakoaz:

Claro ya llevaba yo tres días sin dormir. El día 31, con una bomba al lado de la iglesia, en frente vivía yo, y en ese día, nunca salía la madre de casa, y en ese día salió, y en el bombardeo la casa abajo. Cuando llegué del monte, coño, la casa abajo. Y adiós. FERNANDO ARRIZABALAGA.

Otxandion jarraitzen zutenek babesa bilatu zuten ahal zen tokian eta moduan, beti bonbardaketen eta abioien beldurrez:

Gu egoten ginen gordeta errotatik aurrerako basoetan. Aita eta ama etortzen ziren noizik behin etxeok edo ikusten apur bat. PEDRO ORUE.

Ofensiban, bonbardeoetan, babes moduan sabaian egoten ginen, belar azpian. JUAN PADILLA.

Aeroplanoak etortzen zirenean, gu joaten ginen etxetik behera, han Arandiko errekan geneukan sorora. Han arbola azpian egoten ginen gordeta, eta ikusten genituen pasatzen. Pasatzen zirenean, berriro etxera. Akordatzen naiz: “Zapata barik doa hori, ama, ortozik doa!”. Gizon bat ortozik eskapadan, erdi negarrez, eskopeta barik eta ezer ere barik. “Gizajoak”, esaten zuen gure amak. ANDRESA LOPEZ DE LETONA.

Herrian egonik, gertakarien lekuko ere izan ziren batzuk. Pedro Oruek tanke matxino baten tiroa ikusi zuen euskal tropen blindatu baten kontra. Hiru miliziano harrapatu eta bertan hil ziren. Juan Padillak Jarindo du akorduan ofentsibaren lehendabiziko egunean: *Hemendik ondo ikusten zen. Ofensiban, Jarindo-eta. Dena kea, dena pin-pan pin-pan. Zer zen hura! Bonbardeo konpletoa. Dena ke baten*.

Herritik aldendu edo bertan babesa bilatu. Horiek dira otxandioarrek gehien errepi-
katzen dituzten egoerak, baina bizipenak askotarikoak dira. Tomas Lopez de Letona Oromiñon harrapatu zuen ofentsibak, aitarekin artaldea zaintzen ari zela, eta egoera

271. Elkarrizketa. Santos Irasuegi.

oso arriskutsuan geratu ziren: *Frente bien erdian egon ginen hiru egun, jan ez, lo ez, hantxe geldi, frentea badator. Egun batean tiroketa... ba!*

Ofentsibaren bigarren egunean, apirilak bat, erreketek terrenoa irabazten jarraitu zuten. 1. eta 3. Brigaden artean, Euskal Armada Krusetatik, San Kristobaletik eta 694 kotatik kanporatu zuten, eta Untzetatik ere aurrera egin zuten, iparralderantz. 4. Brigadak Berretin eta Gorbeiaz jabetu zen. Azken honetan borroka latza izan zen, horrela nabarmendu zuen Nafarroeko Brigaden eguneko parteak. Errepublikanoen kontraeraso ahaleginak mendigaina berreskuratzea lortu ez bazuen ere, Padura batailoiak eta Gorputz Diziplinarioak erreketek inguratu zituzten.

Eguraldiak okerrera egin zuen, gau osoan euria egin zuen, eta faktore hori etengabea izango zen hurrengo egunetan ere: *Del 31 de marzo, rotura del frente, al 4 de abril, toma de Ochandiano, deambulamos de barranco a loma, de monte a colina, con gran temporal de agua y viento*²⁷².

Bigarren egun hartan Agirre lehendakaria Otxandiora hurbildu zen. Egoeraren larritasunaz oharturik eta hegazkineriak sortzen zuen kalte eta desmoralizazioaren jakitun, bost egun eusteko eskatu zien borrokalarietara. Ordurako Madriletik 150 abioi bidaltzea lortuko zuela hitzeman zien²⁷³. Lehendakariaren promesa hutsala izango zela aurreratu bezala, abioiek berriz eraso zuten Otxandion.

Ekinaldi hartan 35 tona bonba jaurti zituzten fronte osoan. Otxandion zehazki, zenbait etxe sutan jarri zituzten abioi matxinoek. Herrigunetik artilleriaz erantzun zioten erasoari. Von Richthofenek hegazkinei berriz bueltatzeko agindu zien, artilleria baterien eta kamioien kontra egiteko. Azkenerrako, munizioz kargatutako ibilgailu batzuk leherarazi zituzten.

Ricardo Álvarez militarren kontakizunak hegazkineraren eragin fisiko eta psikologikoa deskribatzen digu:

Al amanecer del segundo día, repetición exacta del día anterior, a dar saltos todo el día sobre el vientre, a cada pasada de los teutones. Pero qué bien lo hacían, funcionaban como una máquina de precisión, paralizaban el sector, y mientras tanto la infantería enemiga, atacaba sin parar, y ron, ron, ron horas y horas sin que nada pudiese moverse, ni municionamiento, ni intendencia, ni siquiera las ambulancias, porque ni eso respetaban. Sobre decir que nosotros con las piezas, a callar, y por si fuera poco, a desmoralizar a todo el mundo, ¡genial!, ¿no?²⁷⁴

Apirilaren biko jardunaldia positiboagoa izan zen Euskal Armadarentzat. 1. Brigadako erreketek Arangioko haitzak hartzen hasi baziren ere, kontraerasoa jo eta atzerantz eragin zieten. Kontraerasoa jo zuten Padura batailoiak eta Gorputz Diziplinarioak ere

272. NAGORE YARNOZ, Javier. *En la primera de Navarra. Memoria de un voluntario navarro en Radio Requeté de Campaña*, 1. arg. Madrid: Movierecord, 1986; 27. or.

273. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandio Jai Batzordea, 2006; 65. or.

274. ÁLVAREZ ROYUELA, Ricardo. *Guerra de España 1936-1939. Testimonio de un militar de la República*, 1. arg. Donosita: Hondarribiko Udala, 2007; 58. or.

Gorbeian, eta aurreko egunean galdutako gaina berreskuratu. Bi garaipen horiei, tropa berrien iritsiera gehitu behar zaie. Otxandio eta Oleta inguruetara ANV 2.aren Euzko Indarra, ANV 1aren Lehenengo Konpainia, Rusia, Perezagua, UGT 2 Prieto, Itxarkundia, Amaiur, UGT 7 Asturias, Salsamendi Mungia, MAOC 1, Larrañaga eta Fermin Galan batailoiak heldu ziren.

Bando frankistan, gainera, ez zen giro ofentsibaren hirugarren egun hartan. Agintari alemanak ez zeuden batere pozik ofentsibaren ordura arteko bilakaerarekin. Von Richthofen eta Mola batzartu egin ziren, eta eztabaida latza izan zuten. Von Richthofenek deskribatzen duen hasiera adierazgarria da oso: *Hago presente que la aviación, que hasta ahora lo ha hecho todo, no puede colaborar con un mando tan desmayado. Se pone [Mola], como yo había previsto, muy enfadado*²⁷⁵. Vigonek, Estatu Nagusiko koronelak, adostasun keinuak egin omen zituen Von Richthofenek esandakoen aurrean. Ofentsibaren prestaketaren hasieratik ziurtatu zioten miliziano eta gudariak, bereziki abertzaleek, ez zutela borrokarako batere adorerik, eta hau da mahaigaineratu zuten lehendabiziko gaia, oinarritzko faktorea baitzen ofentsiba erraztu edo zailtzeko:

El supuesto de que el enemigo carecía de voluntad de lucha en el sector atacado, se había demostrado como no cierto. La posición había sido mantenida por defensores aislados, hasta que las tropas atacantes estuvieron a menos de 100 metros. El enemigo empezó a correr, desde luego, cuando estuvo a punto de ser copado. Dado que, no obstante, los atacantes españoles no persiguieron en ningún caso al enemigo puesto en fuga, éste siempre se recomponía, perdía el ambiente de pánico que repetidamente se le imponía, y ofrecía entonces a la tímida infantería atacante una dura resistencia que causaba bajas entre ésta²⁷⁶.

Mota bateko eta besteko armen artean batere elkarlanik ez zegoela salatu zuen gero Von Richthofenek, artilleria eta hegazkineriaren prestaketa *oso gogorrak* izanik ere tropek ez zituztela etsaiaren lubakiak hartzen; erdi eta behe mailako mandoei ez zitzaie jaramonik egiten eta brigada batzuetako infanteriak ez zuela erasorik jo, nagusiek erasorako inongo gogorik ez zutelako.

Molak, alemanak esana ezeztatu beharrean, zergatiak arrazoituz erantzun zuen: terreno hain konplikatuan ezin zela gehiago eskatu, tropak ez zeudelako behar bezala erakutsiak eta zailduak; presa berezirik gabe eta etengabe presio moderatua eginez, etsaiak bat-batean egingo zuela atzera, eta luze gabe aurrerapen handiak erdietsiko zirela; hegazkineria ez zela beti egokia halako eraso motan, baina hala eta guztiz ere, *había hecho maravillas en la desmoralización de las tropas*²⁷⁷. Giro txarrean amaitu zen bilera.

Aipatu dugu alemanek Francorekin hari zuzena zutela. Hugo Sperrle jeneralak, iparraldeko aire-indarren nagusiak, bere eskuz idatzitako mezua (*Secreto. Entregar de inme-*

275. A. MAIER, Klaus. *Guernica 26-4-1937. La intervención alemana en España y el caso Guernica*, 2. arg. Madrid: Sedmay, 1976; 101. or.

276. A. MAIER, Klaus. *Guernica 26-4-1937. La intervención alemana en España y el caso Guernica*, 2. arg. Madrid: Sedmay, 1976; 56. or.

277. A. MAIER, Klaus. *Guernica 26-4-1937. La intervención alemana en España y el caso Guernica*, 2. arg. Madrid: Sedmay, 1976; 56-58. or.

diato en sobre cerrado)bidali zion apirilaren 3ko goizean. Gauzak ondo egin izan balira, Otxandio lehenengo egunetik legokeela euren oinpean ziurtatzen dio Francori:

- 1) Ataque grupo Vitoria detenido ante las alturas S. Y O. de Ochandiano después de muy suficiente preparación de artillería y lanzamiento de bombas hubiera sido posible alcanzar Ochandiano el 31.3. 1ª Brigada no ha aprovechado éxito 4ª Brigada (...)
- 2) En el curso de los 2º y 3er días de ataque deficiente apoyo mutuo de las brigadas 4ª y 1ª. Insuficiente cooperación de las armas pesadas con la infantería, menosprecio de la resistencia de los rojos. No se relevaron a tiempo los batallones que luchaban en primera línea. El ataque previsto para mañana alcanzará en el mejor de los casos las alturas de Olaeta-Ochandiano²⁷⁸.

Honekin guztiarekin ere, bonbardaketak ez ziren eten. Alemanentzako ofentsiba II. Mundu Gerra prestatzeko esperimentazio lekua dela berresten digu Von Richthofenek:

El 2.4 [apirila] ensayado un nuevo método de bombardeo. Hasta ahora, las escuadrillas arrojan todo de un golpe. Ayer una escuadrilla arrojó durante una hora entera y mantuvo al enemigo bajo larga presión. Reunidos los jefes de escuadrilla y completado el procedimiento²⁷⁹.

Gauzak zer diren: alemanak kexa eta salaketa gogorrek egiten zituzten bitartean tropa matxinoen eraginkortasun eta ganora falta zela eta, bando errepublikanoan ere barne tentsioak handiak ziren. Maila batean, batzuen eta besteen analisisiek bat egiten zuten. Euskal Armadan, ziur zeuden etsaiaren hegazkinei aurre egiteko abioiak lortuz gero ofentsibari eutsi ahal izango ziotela. Baina ez zen tarteko biderik, Madriletik abioiak bidali ezean ez zegoen zer eginik. Izan ere, hegazkineria aleman, italiar eta espainolak ez zuen inongo oposiziorik airean. Abioiek triskantza ikaragarriak egiten zituzten, eta miliziano eta gudariak adoregabetu. Borrokalari errepublikanoek ikusten zuten infanteriari aurre eginez lortutakoak zapuztuta gelditzen zirela aireko desorekarekin. Ezinean ikusten zuten bere burua.

Famatuak dira Agirre lehendakariak Aire eta Itsas Ministroari bidali zizkion larritasunezko telegramak. 31n bi mezu, biharamunean beste bi, apirilaren biau hiru mezu... eta lauan beste bat, Otxandio galdu zela esanez. Behin eta berriro hegazkineriaren erabakigarritasuna azpimarratzen zuen Agirrek, porrota edo garaipena erabakiko luke ten abioiak eskatuz. Apirilaren 2ko mezu honek egoera laburbiltzen du:

(...) siguen nuestras tropas resistiendo heroicamente ataque enemigo (...) dirigido personalmente por Mola contraatacando en cuanto aviación deja un minuto libre punto espectáculo es deprimente tropas resistiendo pegadas tierra teniendo encima todo el día numeroso aparatos aviación enemiga decargando bombas y ametrallando (...) indefensión aérea cólmanos de rabia pues vemos con ayuda victoria en nuestras manos que después derrota Guadalajara Pozoblanco sería definitiva ruina fascismo²⁸⁰.

278. Archivo General Militar de Ávila / C. 2585, Cp.54

279. A. MAIER, Klaus. *Guernica 26-4-1937. La intervención alemana en España y el caso Guernica*, 2. arg. Madrid: Sedmay, 1976; 103. or.

280. Archivo General Militar de Ávila / C. 69, Cp.2, D.2

Jakina da abioiak ez zirela heldu, eta hori tirabira handien iturburu izan zela Estatuko gobernuaren eta Euskadikoaren artean. Unean bertan zein hurrengo urteetan. Batzuek euskal lurretan gertatzen zenarekiko axolagabekeria ikusi zuten horretan; beste batzuek, bidalketa ezinezkoa zela arrazoi logistikoengatik... Ez gara honetan luzatuko. Otxandiori gagozkiolarik, kontua da abioirik ez zela heldu.

Gauzak horrela, apirilaren hiruko eguna, ofentsibaren laugarrena, ordura arteko la-saiena izan zen. Hegazkineriak jardun ez zuen bakarra²⁸¹. Izan ere Von Richthofenek, aurreko eguneko eztabaida gogorraren ondoren, hegazkineria ez zela prest egongo esan zuen, ziurtatu beharra zeukala infanteriako nagusien borondate ona, ez zela fio²⁸². Nafarroako Brigadek atsedean hartzeko eta hurrengo eguneko erasoaldia pres-tatzeko baliatu zuten eguna.

5.4.3. Matxinoak Otxandioko kaleetan

Apirilaren laua, *Euzko Gudarostearentzat egunik mingarrienetakoa* izan zen²⁸³. Galdu-tako lur-eremuaren garrantziagatik; hildakoen, zaurituen eta gatibu hartutakoen kopu-ruarengatik; etsaiaren eskuetan utzitako material piloarengatik.

4. Brigadako Africa brigadaerdiak Murugainen eraso eta heriotza andana eragin zituen. Flandes brigadaerdiak, 4. Brigadako hori ere, Mekoleta babesten zuten indarren kon-tra jo zuen. 1. eta 3. Brigadetako erreketeeek Oleta har zuten, eta jarraian 1. Brigadak Otxandio. Arratsaldeko bost eta erdiak ziren.

El Tercio de Montejurra y el 1º Bon. del Regtº America, partiendo de la cota (694) ocu-pan Ochandiano y Ermita de San Bernabé donde pernoctan, cogiéndose al enemigo gran número de muertos, fusiles, material de toda clase y dos piezas de artillería de 75mm²⁸⁴.

Nafarroako Brigaden eguneko partearen tonua pozezkoa da:

Nuestras tropas continuaron con el magnífico espíritu que les ha permitido vencer las dificultades de una guerra de montaña, tal vez la más dura de los frentes de España, la magnífica ofensiva comenzada el 31 de marzo.

Después de una preparación matemática de aviación y artillería, se lanzaron al asalto de las posiciones enemigas, tomando de revés, en impetuoso ataque a las 10:30 el importante macizo, cubierto de espeso bosque y erizado de trincheras perfectamente organizadas, de Murubain (sic).

281. Steerrek, alemanen gerra egunkarietan jasotakoa aipatuz, 3an ere Otxandio bonbardatu egin zutela azaltzen du: STEER, George L. *El árbol de Gernika. Un ensayo sobre la guerra moderna*, 1. arg. Tafalla: Txalaparta, 2002; 198. or.

282. A.MAIER, Klaus. *Guernica 26-4-1937. La intervención alemana en España y el caso Guernica*, 2. arg. Madrid: Sedmay, 1976; 102. or.

283. EGAÑA, I. ETA BESTE ZENBAIT. 1936. *Gerra zibila (VI. liburukia)*. 1. arg. Andoain: Aralar, 1999; 70.or.

284. Archivo General Militar de Ávila / C. 2676, Cp. 18.

A partir de este momento, la resistencia encarnizada del enemigo empezó a ceder ocupándose sucesivamente Olaeta, Gordovil, Ochandiano, Ermita de Santa Cruz, Monte Aranguio, en cuyas faldas se hizo fuerte el enemigo para tomar de flanco nuestro avance, y Monchotegui (sic). (...)

El número de muertos, prisioneros y material cogido al enemigo, es importantísimo. Dará idea de ello que hasta ahora van clasificados más de cuatrocientos muertos, otros tantos prisioneros ya evacuados a Vitoria, 25 prisioneros heridos. Una batería abandonada precipitadamente, dos piezas más, más de cincuenta tiendas de campaña desmontables de madera, un teleférico con todos sus elementos, dos centrales telefónicas modernísimas, gran cantidad de sacos de arroz y garbanzos, ametralladoras, fusiles y municiones en gran cantidad, y cable y material telefónico en abundancia²⁸⁵.

Egun hartako bonbardaketa bortitza izan zen oso. Von Richthofenek Motxotegin ikusitakoaz idatzi zuena, orduko gordintasun mailaren adierazgarri da. Motxotegin tropa kopuru handia batu zela ikusi eta bi minutuan 60 tona bomba jaurti zituzten abioi matxinoek, ofentsibaren estreinako egun osoan beste (eta ordukoa ere gehiegizko gastua iruditu zitzaion):

El macizo se vuelve un horroroso mar de llamas y de humo, con las bombas –aproximadamente 60 toneladas– que caen en el espacio de dos minutos. A las primeras bombas, el rojo echa a correr otra vez en apretados montones hacia un bosque situado tras él. La mayoría de las bombas caen allí y lo diezman atrocemente. Sigue sorprendiendo la tenacidad de la infantería roja²⁸⁶.

Sean ikusi zuen hurbiletik aurreko egunean urrunetik behatua:

En la hondonada, cuadros horribles, allí corrieron los rojos. Cadáveres, espantosamente destrozados. De visión agradable –¡estética!-, nada. (...) Si no hubiéramos sacado a bombazos al enemigo, nos habría costado otros dos días de combate²⁸⁷.

Apirilaren lauko bonbardaketek eta ehiza-hegazkinen metrailamenduek bete-betean jo zuten Otxandio. Steerrek bere liburuan diosku bertan egondako askorekin hitz egiteko aukera izan zuela, eta oso oroitzapen gogorrak zituztela. Eguerdian hasi eta arratsaldeko bostetara bitartean 40 hegazkin izan zirela Otxandioko zeruan etengabe; 55 ere zenbatu zituztela bukaera aldera.

Otxandio elkargune inprobisatu izan zen inguruetatik ihesean heltzen ziren miliziano eta gudariarentzat. Batzuk erreketeeek harrapatu zituzten, herriko kaleetan bertan, uste-kabeen eta aurre egiteko aukerarik gabe. Pablo Beldarrain gudari ohiak San Bernaben eta Otxandion gatibu ugari hartu zituztela dio²⁸⁸. *El Diario Vasco*-ren arabera, tropa matxinoek herria inguratzean, miliziano taldeak eta zenbait herritar zapi zuriak airera-

285. Archivo General Militar de Ávila / C. 2676, Cp. 18.

286. A. MAIER, Klaus. *Guernica 26-4-1937. La intervención alemana en España y el caso Guernica*, 2. arg. Madrid: Sedmay, 1976; 103-104. or.

287. A. MAIER, Klaus. *Guernica 26-4-1937. La intervención alemana en España y el caso Guernica*, 2. arg. Madrid: Sedmay, 1976; 105. or.

288. BELDARRAIN, Pablo. *Historia crítica de la guerra en Euzkadi*. Bilbo, 1991.

tuz eta erruki eske agertu ziren. Gatibu hartutakoak plazan bildu zituzten²⁸⁹. *La Voz de España*-ko berriemaileak hildakoak ere aipatu zituen:

En el mismo pueblo de Ochandiano han tenido los separatistas y comunistas bastantes bajas, porque acudieron a aquél sin creer que nuestras fuerzas se presentaran tan pronto en el mismo, y luego no tuvieron salida posible²⁹⁰.

Matxinoen esku jausteko beldurrez Urkiolarantz garaiz alde egin zutenek nahiko era nahasian egin zuten, antolakuntza handirik gabe. Otxandioarren oroitzapenek ere nahasmen hau iradokitzen digute, hainbat ikuspegitatik:

Frentea apurtu zenean denek alde egin zuten handik. Dena bertan behera utzi, abandonatuta. ANDRESA LOPEZ DE LETONA.

[Tropa errepublikanoak jada alde eginda eta nazionalak heldu gabe daudelarik] Hori intendentzia egon zen beteta oraindik. Badakizu zer egin genuen aitak, amak eta ni mutikotxoak? Ba, han egon zen jenero guztia, etxeetara. Hustu genuen intendentzia hori. Eta errantxoak egiteko kazolak eta. (...) Denak ez geunden, batzuk alde eginda zeuden. Behintzat 6 edo 7 etxetakook “arreatu” genituen lentejak, garbantzuak, babak... PEDRO ORUE.

Ikusi behar zen moroak sartu zirenean nola alde egin zuen jendeak erretiradan basoetatik. Hemendik Motxotegitik moroak etorri ziren. San Bernabetik soldaduak. Eta gero Francoren aldekoek jende hau ekarri zuten. Hemengoa ez zen inor. Diruaren truke edo! Denetatik, moroak asko! Horiek guztiak badakizkit nik, ikus egin nuen eta! MARCOS IBARRONDO.

Erretirada eduki zutenean milizianoek, orduantxe gu etxerantza. Bata motxila botata, manta botata, akordeoia botata, gitarra botata eta denak botata gauzez... Gaukeran esan ziguten, “poner a la noche en la ventana colchones, las puertas también cerrar”, esan ziguten, “con colchones y lo que podáis, que nosotros ya nos vamos. Vienen los moros”. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

Inguratuta geratu ziren milizianoekikoak egin ondoren, eta gure nagusiek kontatzen digutenaren arabera, tropa frankistek nahiko modu baketsuan hartu zituzten Otxandioko bazterrak. *Bastante pazifiko sartu ziren Otxandion* esaten digu Juan Padillak. Andresa Lopez de Letonak ere antzera dio. Dena den, kontuan hartu behar da erreketek sartu zirenerako herrian ez zegoela ia milizianorik. Herri barnean apenas zegoen aurrez aurreko enfrentamendurik. Edonola ere, neurriak hartu zituzten. Juan Padillak gogoan du hasieran ez ziotela inori plazan sartzen utzi, *Estado Maiorra zegoela eta*. Bazterrak arakatu zituzten, noski, eta inguruan etsairik geratzen zen jakiteko herritarrengana jo zuten kasu batzuetan:

Kapitain bat etorri zen, eta aitak irten zion [baserritik]. Nik ere irten nuen. Aitari esan zion: “¿El chaval este no podría enseñarnos un poco esto de atrás, a ver como está?”. Han gure etxetik apur bat altutxo egiten da mendia, eta handixik erakusten, eta hasi ziren tiro baten, kanpo de abiaziotik eta hortik. Niri esan zidaten: “Vete tú ahora a casa.

289. *El Diario Vasco*. 1937-4-6.

290. *La Voz de España*. 1937-4-6.

Ya nos has enseñado, y no vaya a ser que alguna bala nos alcance. Y gracias”. BIXENTE AMONDARAIN.

[Altxatuak heldu aurreko gaua] Nagusiak alerta. Eta hamaikak aldera edo, galtzadatik behera ikusi zuten zelan zetozen militar batzuk. Pentsatzen dut zirela bost soldadu, alferrez bat eta teniente bat bajatu zirenak. Gizonek irten zieten Irupagoetara. Informazioa hartzen militarrok, ea zer dagoen, soldadurik badagoen... Ezetz, soldadurik ez dagoela, alde egin dutela denek. PEDRO ORUE.

Gudari edo milizianorik apenas herrian, zibilak ere oso gutxi. Dozena batzuk, berrogeira ez ziren heltzen berripaperek emandako lekukotasunen arabera: edadetuak, emakumeak eta haurrak. Bada apirilaren laura arte herrian eutsi eta azken uanean alde egin zuen otxandioarririk. Horrela egin zuen Jon Lasuenek, eta bidean lagunekin elkartu zen:

31 de marzon ofensibie hasi zan eta Otxandio hartu eben apirilaren 4ean. Orduen hanka egin genduan Bilbora. Topau nebazan lagunak Jose Mari “Txotxiko” eta Hilario “Lepo” eta joan ginan Zumeltzatik... baserri baten egin genduan lo Diman, Cesareo Lejarretarekin eta... Igorretik tranbian Bilboraino. Gero, Alonsotegin egon ginan, senide batzuen ardiak zaintzen, eta geroago frentea pasatu eta berriz etxera etorri nintzan, Bilbora. Eta orduan Bilbon gelditu ginan eta han hasi ginan berriz eskolara”. JON LASUEN²⁹¹.

5.4.4. Otxandio, hondamendiaren erdigune

Bost egunean bonbardaketak, obus jaurtiketak, metrailamenduak, suteak, munizio biltegien eztrandak... Ofentsiba aurretik ere Otxandio bazegoen nahikoa itxuraldatuta, lubaki, babesleku eta gotortze lanak zirela medio; egunotako erasoek, berriz, eraikinak eta ibilgailuak birrinduta utzi zituzten, kaleak eta inguruak gorpu eta gorpuzkinez beteta.

Matxinoen aldekoak dira argazkia egiten laguntzen digutenak, herrira sartzean aurkitutakoaren deskribapena egiten digutenak. Hurrenez hurren: Logos berri-agentziaren berriemailea; *Unidad* egunkariko berriemailea (bi egunetan, apirilaren bostean eta seian); Von Richtoffen teniente koronela; Javier Nagore Yarnoz erreketea eta Sebastian Salaberria oiartzuarra (Sicilia batailoiko soldadua, egun batzuen buruan heldu zen Otxandiora).

Terreno materialmente arado de trincheras, alambradas, fosas antitanque y demás ingenios defensivos. Más de veinte líneas de alambradas triples y hasta cuádruples, en algunos sitios, y entre unas y otras trincheras, pozos de tirador, fortificaciones de cemento y sacos terreros, nidos de ametralladoras, etc. Las dos carreteras están cortadas por varios murallones de cemento y hierro de hasta tres metros de altura y medio de espesor, con aspilleras y casamatas que son un verdadero reducto²⁹².

291. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandio Jai Batzordea, 2006; 83. or.

292. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandio Jai Batzordea, 2006; 69-70. or.

El aspecto que presentaba Ochandiano era verdaderamente desolador. El pueblo ha quedado totalmente destruido. Los rojo-separatistas antes de huir, destruyeron todo, incendiaron la iglesia y muchos edificios. Desde lejos se veían muchos incendios. Lo primero que han tenido que realizar las fuerzas de España, ha sido dedicarse a sofocar incendios²⁹³.

Sobre una tapia, y a 40 metros de Ochandiano, un montón de cadáveres, a la izquierda. El camarada Hierro me dice y enseña que hay muchos más. Y entre las zanjas, arrojados trágicamente todo a lo largo del camino-carretera, una procesión interminable de caídos²⁹⁴.

He ido hasta Ochandiano. Estupendos efectos del bombardeo, y de los cazas y de la A/88 (He 70). Por todas partes muertos y mutilados, camiones pesados, que llevaban parte de munición, explotados.

Ochandiano muy destruido, con muchos muertos²⁹⁵.

La entrada en Ochandiano fue una tarde de sol bajo, con grises nubes primaverales. Entramos con la Batería por la carretera. En las cunetas, milicianos muertos, con cartuchos de dinamita en las manos crispadas. Heridos y muertos por las ametralladoras de los tanques a los que intentaron detener. Aquella entrada, con los muertos de cara al sol de la tarde, se me grabó de modo indeleble en la memoria²⁹⁶.

Emen sartu giñanean, tristura ematen zuan. Bazirudian erri onek etzuala bere bizi-lagunik, bakardadean bezela arkitzen zan, oso jende gutxirekin beintzat. Nunbait bertako bizi-lagun geyenak Bilbao aldera joanak ziran.

Erri polita da, eta aundi xamarra gañera. Mendi aundi batzuen beeko babesean dago.

Bere kale batzuk puskatuta zeuzkan, noizbait aideplanoak edo artilleriak botatako bonbaen batzuekin. Etxe batzuk ere bazeuden erdi erorita; abek ere bonbakin noski²⁹⁷.

Otxandioarrik apenas geratu zen herrian. Horietako bat Jose Luis Olaso zen, artean mutikoa. Zorigaitzeko apirilaren 4an gurasoek San Bernabe ingurura eraman zuten, bertan ez harrapatzeko esperantzaz, baina hangoa ikusi eta herrira bueltarazi zuten. Berarekin beste otxandioarren bat ere bazegoen. San Bernabetik herrira egindako bidean ikusitako gorpu piloa du gogoan: *Ene, eneee, zer hil zen hor, zer hil zen!*

Lourdes Kapanagak ofentsiba hastean egin zuen ihes Otxandiotik, baina bueltatzen lehenetarikoa izan zen. Maiatzean, hilabete bat pasata, topatu zuen errealitatea oso gordina zen oraindik.

Otxandio birrinduta zegoen. Edozein lekutan ikusten zenituen hilen hezurak ere. Hor kamino izkinan edo basoan apurtxo bat sartuz gero, ikusten zenituen. Ba... zegoen Otxandio... ezer ez, dena apurtuta. Gure etxe aurreko lau etxeak desagertuta. LOURDES KAPANAGA.

293. *Unidad*. 1937-4-5.

294. *Unidad*. 1937-4-6.

295. A. MAIER, Klaus. *Guernica 26-4-1937. La intervención alemana en España y el caso Guernica*, 2. arg. Madrid: Sedmay, 1976; 104. or.

296. NAGORE YARNOZ, Javier. *En la primera de Navarra. Memoria de un voluntario navarro en Radio Requeté de Campaña*, 1. arg. Madrid: Movierecord, 1986; 29. or.

297. SALABERRIA, Sebastian. *Neronek tirako nizkin*, 2. arg. Oiartzun: Sendia, 1994; 103. or.

Testigantza guztien artean, gainontzekoekin bat ez datorren bakarra *El Pensamiento Alavés*-eko berriemailearena da. Apirilaren 7ko artikulua batean kalteak gutxiesten ditu: *El pueblo no está tan destruido como se pensaba en Vitoria. Nuestros aviadores y nuestros artilleros cuidaron de evitar en lo posible todo destrozo innecesario*²⁹⁸.

Hildakoak, zaurituak zein gatibu hartutako gudari eta milizianoak ehunka zenbatu behar dira. Ez dago kopuru zehatzik ematerik. Bateko eta besteko iturrietatik datu solte ugari heltzen zaizkigu, baina bakar bat ere ez da definitiboa.

Aranzadi Elkarreak ofentsiban apirilaren 4ra arte hildako 410 miliziano eta gudari errepublikanoren izen-abizenak zehaztea lortu du²⁹⁹. Garaiko prentsa matxinoan *Boletín de Información del Cuartel General del Generalísimo* delakoak argitaratzen zituen: apirilaren bosteko buletinean, apirilaren lauko arratsaldeko 8ak arte jasotako datuekin bidalia, 600 gorpu baino gehiago zehaztu direla ziurtatzen da, preso egindakoak 400 direla eta 30 zaurituta atxilotuak³⁰⁰. Zebakirik altuenak Tebib Arrumi kazetari eta historialari eskuindarrak emandakoak dira. Ofentsibako lehendabiziko 5 egunetan Molaren ejerzitoak 2.000 lagun hil zituela dio, eta Euskal Armadak, guztira, zaurituak eta gatibuak gehituta, 10.000 gizon galdu zituela egun horietan. Otxandio menpean hartu zuten apirilaren 4ko jardunaldian soilik hildakoak 600 direla, beste hainbeste gatibu hartutakoak eta zauritutakoak, 1.000³⁰¹. Egaña ikertzaile euskaldunak 4an soilik matxinoek 350 errepublikano hil zituztela diosku, eta beste horrenbeste preso hartu³⁰². Jon Irazabalek Otxandiori buruzko ikerketan hilaren 4an hildakoak ehunka direla idazten du, eta Gasteizera eramandako atxilotuak, 400 baino gehiago. Nafarroako Brigaden apirilaren lauko partean –lehenago irakurri ahal izan dugu–, ordura arte 400 hildako eta horrenbeste gatibu *klasifikatu* direla agertzen da. Apirilaren seiko partean, ordea, irakurri dezakegu lurperatutako gorpu kopurua jada 876koa dela, eta 400 arte dagoen aldea ezin da apirilaren bost eta seiko borroketan hildakoekin soilik azaldu³⁰³. Hildakoak milatik gora izatea ez litzateke harritzekoa.

Molaren gizonei dagokienez, datu gehien Nafarroako Brigaden Operazio Egunkariek ematen digute. Bertan egunez egun zerrendatutako hildako eta zauritu kopurua batuz, 143 hildako, 706 zauritu eta desagertutako 11 soldadu ateratzen dira. Arazoa da 3. eta 4. Brigaden datuak direla soilik, 1. Brigadak ez baitzuen bere bajen berririk ematen parteetan. Kalkulu proportzional bat eginez hildakoak 200etik gora lirateke, zaurituak mila baino gehiago. Egun hauetan erakutsitako nagusitasuna kontuan hartuta eta etsaiaren bonbardaketarik jaso gabe 200 hildako izan bazituzten, pentsa zenbat izan zitezkeen Euskal Armadan hildakoak.

298. *El Pensamiento Alavés*. 1937-4-7.

299. Aranzadi Zientzia Elkarrea. *Proyecto de investigación y localización de fosas de las personas desaparecidas durante la Guerra Civil*. Eusko Jaurlaritz. Justizia, Lan eta Gizarte-Segurantz Saila. Giza Eskubideen Zuzendaritza. 2008.

300. *El Pensamiento Alavés; La Voz de España*. 1937-4-6.

301. *El Pensamiento Alavés; La Voz de España*. 1937-4-6.

302. EGAÑA, I. ETA BESTE ZENBAIT. 1936. *Gerra zibila* (VI. liburukia). 1. arg. Andoain: Aralar, 1999; 70.or.

303. Archivo General Militar de Ávila / C. 2676, Cp. 18.

Zenbait otxandioarrek galdu zuten bizitza ofentsibaren egunetan. Francisco Olabari Arruabarrena lehenengo egunean hil zen, 30 urterekin. Apirilaren bian, Antonio Garaigordobil Berrizbeitia, 11 urteko mutikoa. Egun berean, eta Elexabarriko bidegurutzean, Felix Pildain Saez. Gehiago ere izango ziren ziurrenik. Gure nagusiek, izenik eman gabe ere, egunotan hildako herrikideak aipatzen dizkigute tantaka-tantaka euren kontakizunetan.

Gorpuen ugaritasuna –eta gerraren odoltsua- zenbaterainokoa zen Sebastian Salaberraren oroitzapenek adierazten digute. Ofentsibaren atzealdean zegoela, matxinoen Sicilia Batailoian, gorpuen ehorzketa lanak agindu zizkieten:

Noizbait bukatu zan frente ontako sua, eta gureak Bizkai aldera jarraitu zuten. Gure konpañia, ordea, Villarreal-en gelditu zan.

Inguru artan bazegoan lan-puska bat lur gañean denbora luzean zeuden gizon-pillak lur azpira sartzen. Danak gure kontrarioetakoak ziran.

Geyenak trintxera moduko pendiza edo lubaki luze baten txokonean zeuden. Bañan andik kanpora ere baziran, eta larrean ere bazeuden an da emen tarteka naikoak.

Ematen zuan fusillakin edo ametralladorakin jota botreak zirala; ez baitzeuden puskatuak, oso-osorik baizik.

Gure agintariak esan ziguten gorputz abei danai lurra eman bear zitzayela, ta an asi giñan al genduan modurik onenean ildako abek estaltzen. Beren azpiko aldean egiten genduan zulo bat, eta aitzurrarekin eldu eta buelta ematen genioten, eta gero lur pixka batekin doi-doi estali.

Baziran beren oñak ondo tapatu gabe bistan gelditzen zitzaizkietenak ere; ainbeste ta ainbeste izanik ez baitzegoan danak ondo tapatzeko denborarik, guk ere aurrera Bizkai aldera jarraitu bear genduan-eta.

Egia esan, lantegi nazkagarria zan benetan ura. Egun asko ziran gizon ayek lurrean ilda zeudela, eta usai gaiztoa botatzen zuten, batez ere beren ondoan zulo-puxka bat egin eta aitzurrarekin buelta ematean.

Egunero txandan jarduten giñan lan ontan. Bañan baziran gure lagunetan etxe oneko mutillak, diruz ondo arkitzen ziranak, eta abek, ildakoai lur emateko beren txanda etortzen zitzayotenean, dirua ematen zuten lan ontan ez jardutzeagatik³⁰⁴.

Apirilaren 10ean oraindik hilotz ugari omen zegoen Legutio eta Otxandio artean, eta, irakurri dezakegunez, Requete Auxiliari unitatea Otxandiotik irten zen gorpuok lurperatzeko betekizun bakarrarekin³⁰⁵.

5.5. Hildakoak eta lehergailuak nonahi: ofentsibaren urteetako ajea

Enfrentamendu bezala ulertuta eta Otxandiori dagokionez ofentsiba apirilaren 4an amaitu zela esan badezakegu ere, otxandioarrek ondorioekin bizitzen jarraituko zuten hurrengo urteetan. Ez gara ari frankismoaz eta diktadura garaiko gizarte eredu errepresiboaz, noizbehinka azaltzen jarraitu zuten gorpuez eta eztanda egin gabeko lehergailu andanaz baizik.

304. SALABERRIA, Sebastian. *Neronek tirako nizkin*, 2. arg. Oartzun: Sendia, 1994; 99-101. or.

305. *El Diario Vasco*. 1937-4-10.

Esan dugu ezinezkoa dela ofentsiban Otxandio menperatu arteko egunetan hildakoen kopurua zehaztasunez jakitea. Iturririk metodiko eta zehatzenak ere ezingo luke ziurta-sunik eduki Otxandio inguruko mendi eta basoetan barreiatuta geratu ziren gorpu guz-tiak erregistratu izanaz. Otxandioarrek hurrengo urteetan bizeneko pasarteek biktima galduen ugaritasuna adierazten digute. *Hainbat zauritu geratu zen hor, hainbat jende... baina gero inor ez zen atrebitzen basora joaten* esaten digu Juan Padillak.

Bertan behera lurperatu zituzten asko mendian. Ze lekutan? Bata hemen, bestea han, ahal zen lekuan. Ez zituzten pilatu ere egiten. JUAN PADILLA.

Joan ginen egurretan. Ni nenbilen han begira, errekan. Eta: "Aita, hor hanka bat dago". (...) Atera genuen, eta oraindik botak ipinita zeuzkan. Hortik gorago zegoen bizkaitar hori, ezanda, errekatik ura edateko posturan bezala, eta zeukan fusila albo batean. Busti -busti eginda zegoen. Gure aitak hartu eta lurperatu egin zuen, eta eskopeta hartu eta egin zuen apurtu. JOSE LUIS OLASO.

Tropak sartu eta hil bira, Motxotegi inguruan, non topatzen dudana bat hilda! Holantxe, arbolaren kontra, odolustuta. Ikusi nuenean, ekiten diot arineketan...! JUAN PADILLA.

Garaileek axolagabekeria erakutsi zuten hildako hauekiko, mespretxuz jokatu zuten, anonimotasuna eta ahanztura inposatu nahian. Otxandion ere jarrera honen adibiderik badugu. Senideek eta herritar zenbaitzuek, aldiz, gutxieneko begirunea erakutsi zuten gorpuak lurperatuz:

Gure andrearen aita-eta basoan ibiltzen ziren beti, pastoreak. Ikusi zuten hilda, arbola gainean, gizon bat. Eta esan zioten abadeari, Don Pablori edo, han gizon bat dagoela eskegita eta mesedez lurperatu beharko dela. Ezetz berak, ha gorria dela eta ez doala egiten. Horiek gauza guztiok, e? Ta sartzan dira buruan. Ez dago deretxorik. Eta esker-rrak, eskerrak nire andrearen amamak gorde zituela abadeak, bestela euren atzetik joango ziren. Horrelako barbaridadeak egiten ziren. [Artzainek lurperatu zuten azkenik gizona]. JOSE LUIS OLASO.

Akordatzen naiz, 38an edo, basora, Gomilatzetik hartu eta Mirugairantza, badakizu, han bide mordera dago zubia pasatuta. Eta han zubietan arboladia has ten zen inguruan, ikusi nituen hiru bai behintzat, mendigoizaleak ja eskeletoak. Igarri egiten zitzaizkien txamarra azula zeukatela. (...) Hiru edo lau, oraindik lurperatu barik. Gero, gerra amaitu zenean -edo etorri eta erretiratu zituzten, ez dakit euren gurasoek edo, batzuk eroan zituzten, baina lurperatu barik oraindik utzi zuten hor jendea. FLORIAN KAPANAGA.

Egungo gerren osteko paisaiak entzuten ditugunak ez zaizkie berriak gure nagusiei. Lehergailuen erabilera masiboak urteetan luzatzen ditu gerraren ondorioak, eta hala gertatu zen Otxandion ere. Guk dakigula, inor ez zen halakoren bat zapalduta hil, baina entzundakoak entzunda zori kontua izan zen.

Jose Luis Olasok dio berak eta lagunek, artean umeak, bonba piloak aurkitzen zutela, *hor-hemen, hor-hemen*. Hartu, eraztuna kendu eta zartaraztea jolas bilakatu zuten: *Askotan. Gu bizi gara Jainkoak nahi izan duelako*. Lourdes Kapanagak ere gauza bera du akorduan: *Obusak eta edozein lekutan topatzen zenituen. Kamino izkinan, edozein lekutan. Errebertatu bakoak ere bai*. Pedro Oruek egunerokotasunaren partetzat ager-tzen digu ia. Kontatzen du hainbestekoa zela aurkitzen zuten munizio eta lehergailu kopurua ezen bere amak, zer edo zer gertatuko zen beldurrez umeak gauza horiekin


jolasean ibiltzen zirelako, sua egin eta esku-bonba pare bat eta jaurtigairen bat leher-
rrazi zituela³⁰⁶.

Gerra amaitu eta urte asko igarota Andikona plazan bertan atzeman zuten eztanda
egin gabeko lehergailu bat. Altxamendua hastean 8 urte zituen Lourdes Kapanagak,
eta jarraian kontatzen diguna gertatu zenerako ezkontuta zegoen:

Otxandion San Juan egunean Andikonan sua egiten zen, eta han denak korroan dantzan.
Hurrengoko egunean, Eugenio Garces –ha hil zen–, tailerretik etxerantza, eta han jendea
dantzan ibili zen tokian, gauza brillante bat ikusi zuen. Soldadutzan zerean egon zen,
artifizieroetan edo, eta, esan zuen: “Hauxe bonba da”. Abisua eman zuen, ensegida
akordonatu zuten, eta, bonba zen! Ez zuen esplotatu! Hantxe bueltaka urte guztietan.
LOURDES KAPANAGA.

306. Elkarrizketa. Pedro Orue Errasti.

CROQUIS N° 4
POSICIONES OCUPADAS POR
LAS TROPAS DEL GENERAL
MOLA EL DÍA 4 DE ABRIL
Autor: José Antonio Urgoitia



Apirilaren 4a arte ejerzito matxinoak egindako aurrerabidea. (Eglea: J.A. Urgoitia)



Unidad.
1937.4.5.



Unidad.
1937.4.5.



Unidad. 1937.4.6.



Unidad. 1937.4.7.



Unidad. 1937.4.9.



"UNIDAD" EN EL FRENTE DE VIZCAYA
Operaciones de limpieza en el sector de Ochandiano
Han funcionado la artillería y la aviación

Vengas. De nuestro querido sector, finalmente hay poca cosa que decir hoy. Los ataques continuados han continuado sus arrebatos hasta...

La actividad de la artillería ha sido grande. Las tropas nacionales se han dedicado durante el día a practicar maniobras de concentración y limpieza de enemigos desde los alrededores de las pueblitos conculcadas.

Ha seguido el avance de las unidades de España, dirigidas a ocupar posiciones tan ventajosas que en cualquier momento se puede armar a los rasos remanentes a pesar de que éstos han emprendido nuevas formas de táctica, según se averigua desde Asturias.

Para nuestros soldados se ha convertido en los alrededores de Asturias, Vizcaya y Cantabria que expresan deseos de ir al frente. Ahora son los mismos saturados los que los miran como al frente al poco y también se irán que cubren las que pueden establecerse en el frente.

Estos grandes por los que van aconteciendo las tropas de España, Vizcaya y Cantabria, se manifiestan ya, y el carácter de estas admirables formas de España que luchan por España, y para España ha pasado buena impresión sobre los que los han visto luchar.

A los grupos de "Viva España" y "Así lo España", estas nuevas unidades al servicio de la Patria, se unen a la batalla con impetuosa y verdaderamente audaz. Van unidos en cuerpo y alma, y así luchan con el espíritu de la unidad.

no vaciló al por un solo momento en decir que operaciones que presentaban tanto entusiasmo como éstas no han podido realizarse más brillantemente.

Los aviones de la aviación también van ganando durante toda la mañana.

Empezadas de aparatos en número mayor de aviones han pasado por estos frentes capitando hasta el interior de la Vizcaya.

Rebeldes que han trabajado con gran eficacia en primer de... y los de... Los ataques realizados en las comarcas de Cantabria han sido de considerable importancia.

De operaciones, poco más. Se ha tratado sólo de lo que se acaba de principio de esta semana.

Desde luego tienen su importancia y punto de vista es que han estado en un momento poco equívoco que algunas unidades y que trabajan de manera a nuestras tropas.

Nos han dicho que a nosotros han pasado estos momentos, desde a fin de comenzar el avance de la España de España.

Al respecto cabe destacar en los alrededores de Vizcaya las más importantes entre las unidades y unidades voluntarias.

A uno de los voluntarios que estaba por aquí al momento lo que estamos, así me ha llamado a nosotros.

Ya era hora de que alguien dijera que. No se olviden. Hasta ahora estamos en cuatro semanas a por ellos.

Y esta cosa que estamos. Así nosotros.

Unidad. 1937.4.10.



El Diario Vasco.
1937.4.1.



El Diario Vasco.
1937.4.4.



El Diario Vasco.
1937.4.6.



El Diario Vasco.
1937.4.8.



El Diario Vasco.
1937.4.9.

La voz de España

Martes, 6 de Abril de 1937

DIARIO TRADICIONALISTA

San Sebastián - Año II - Núm. 172

Se devolverán al agro, para mejorar la vida campesina, parte de lo que hoy absorbe la ciudad en pago de sus servicios burocráticos y comerciales.
El Jefe del Estado, Generalísimo FRANCO

Ochandiano, nuevo nombre de triunfo y victoria Prosigue arrollador nuestro avance en Vizcaya

En el frente de Vizcaya prosigue el avance desde Ochandiano

El enemigo es rechazado con enormes pérdidas en el frente de Madrid

BOLETIN OFICIAL DE INFORMACION DEL CUARTEL GENERAL DEL GENERALISIMO

Madrid, seis de abril de 1937.

El enemigo es rechazado con enormes pérdidas en el frente de Madrid

El enemigo es rechazado con enormes pérdidas en el frente de Madrid

El enemigo es rechazado con enormes pérdidas en el frente de Madrid

El enemigo es rechazado con enormes pérdidas en el frente de Madrid

El general Mola hace un último llamamiento a los vizcaínos

De nuestro corresponsal Fernando Oro

VITORIA, 6 de abril (Euzkadi).—Aunque por estas del momento, aunque desde de pronto, las operaciones de guerra se han dirigido para la reconquista de Vizcaya y para la eliminación de las tropas y fuerzas de los republicanos, que quedaban en el territorio de Vizcaya, el general Mola, jefe de las tropas que se dirigen a la reconquista de Vizcaya, hace un último llamamiento a los vizcaínos para que se unan a las tropas que se dirigen a la reconquista de Vizcaya.



Otxandio. Irrati postu mugikorra.



Otxandio. Herrian sartzen lehenengoetarikoa izan zen falangista bat.



Bizkaiko frontea.



Otxandioko plaza, matxinoek herria menpean hartu eta gutxira.

Otxandioko plaza,
matxinoen
menpe.



Otxandioko frontea.
Errepublikanoek
ihesean utzitako
hondakinak.





Desordena
Otxandio
sarrerako etxe
batean.



Otxandio matxinoen
menpean.
Babeslekua, eta
kartel itsatsi berria
horman. (Argazkilaria:
Pascual Marin)



Otxandio
matxinoen
menpean.
Tropak plazan.
(Argazkilaria:
Pascual Marin)

Otxandio
matxinoen
menpean.
Soldaduak
Otxandioko
kaleetan.
(Argazkilaria:
Pascual Marin)



Otxandio
matxinoen
menpean.
Soldaduak
Otxandioko
kaleetan.
(Argazkilaria:
Pascual Marin)





Otxandio matxinoen menpean. Soldaduak Otxandioko kaleetan. (Argazkilaria: Pascual Marin)



Otxandio matxinoen menpean. Herrian geratu ziren zibil apurretako bat. (Argazkilaria: Pascual Marin)

Otxandio ofentsiba aurretik eta ondoren



Durango aldeko sarrerako lau etxe, suak eta bonbek birrinduta.
(Argazkilaria: Pascual Marin)

Andikona
plaza, 1920ko
hamarkada.
(Argazkilaria: E.
Guinea)



Andikona plaza. (Argazkilaria: Pascual Marin)



Gasteizerako irteera, elizpetik ikusita, 1920ko hamarkada. (Argazkilaria: E. Guinea)



Gasteizerako irteera, elizpetik ikusita. (Argazkilaria: Pascual Marin)



Otxandioko sarrera, Gasteiz aldetik, 1920ko hamarkada. (Argazkilaria: E. Guinea)



Otxandioko sarrera, Gasteiz aldetik. (Argazkilaria: Pascual Marin)



Udaletxea eta plaza, 1920ko hamarkada. (Argazkilaria: E. Guinea)



Udaletxea eta plaza. (Argazkilaria: Pascual Marin)

6. Otxandio eremu matxinoan



Otxandio oinperatu zuen ofentsibak aurrera jarraitu zuen, Barazar eta Urkiolarantz, Bilbora bidean. Egun batetik bestera, bi ejerzitoen arteko muga Legutio eta Otxandio artean egotetik Otxandio eta Urkiola bitartera pasatu zen. Inguruneak borrokaleku izaten jarraitu zuen egun batzuetan, baina Otxandiori ez zion hainbesteko kalterik egiten, frontea egunez egun urrunduz zihuan eta.

Garaiko prentsa edo Nafarroako Brigaden txostenak irakurrita, herria tropa matxinoek atsedean hartzeko eta ofentsiba antolatzeko gunea izan zela ondorioztatu dezakegu. Etengabe ikusten ditugu Otxandioren inguruko aipamenak: bertan hartzen zuten atsedean hainbat batailoik, bertatik irteten ziren unitate militarrek fronteko lehenengo lerroa, bertan batzartzen ziren agintaritzako kideak hartu beharreko erabakiak adosteko eta abar.

Gerraren kronologiari helduz, hasieran miliziano eta gudariak ez zeuden Otxandio galdutzat emateko prest. Hurrengo egunean bertan, apirilak 5, kontraerasoa jotzen saiatu ziren Urkiolatik, gurdi blindatuek lagunduta. Hain zuzen ere, Otxandiotik abiatuak ziren 1. Brigadako indarrak Urkiolara bidean, eguerdiko ordu bietan. Errepublikaren defendatzaileek erresistentzia gogorra aurkeztu bai, baina ez zuten aurrera egiterik lortzen. Bien bitartean, 4. Brigadako unitate berriak (Bailen 4 batailoia eta Sicilia 3a) Otxandiora heldu ziren.

Hilaren erdialdera arte borroka latza eta odoltsua garatu zen Saibigain mendiaren kontrolagatik. Batzuek eta besteek hainbat aldiz galdu eta berreskuratu zuten tontorra (bide batez are ageriagoan gelditu zen hegazkineriaren paper erabakigarria: matxinatuek egunez hartzen zuten tontorra abioien laguntzari esker, eta errepublikanoek gauetan berreskuratzen zuten, hegazkineriak jardun ezin zuenean). Egun haietan Saibigainera zuzentzen ziren indar matxinoak Otxandiotik abiatzen ziren³⁰⁷. Altxatuek apirilaren 15ean menperatu zuten behin betiko mendigaina. Hortik aurrera, Otxandioren garrantzi estrategikoa ahulduz joan zen.

Pixka bat lehentxeago, hilaren 12an, Euskal Armadak kontraerasoa jotzeko asmoa izan zuen. Gauzatu izan balitz, kontraerasoak ondorioak izango zituen Otxandion, agintaritzaren egitasmoaren barnean herria bonbardatzea aurreikusten baitzen. Beste behin ere berdin, ordea: ez zegoen abioirik³⁰⁸. Kanoiekin bai bonbardatu zuten herrigunea, apirilaren 23an, baina ekintza bakarra izan zen³⁰⁹.

307. Archivo General Militar de Ávila / C. 2676, Cp. 18.

308. LEZAMIZ, Julen eta TABERNILLA, Guillermo. *Saibigain, el monte de la sangre*, 1. arg. Bilbao: Sancho de Beurko Elkartea, 2002; 78-80. or.

309. Ez dugu jakiterik kanoikadek inor hil zuten ala ez. Kanoiek Otxandio eta Urkiola zituzten, eta balantzean bi hildako eta beste hainbeste zauritu agertzen badira ere, ez da zehazten non izan gertaera bakoitza. (Archivo General Militar de Ávila / C. 2676, Cp.18).

Gerra frontearen bilakaera militarretik harago, Otxandioko herrian mugimendu handiko egunak izan ziren haiek. Apirilaren 8an, herria borborka dagoela dio *El Diario Vasco*-k, *es un hervidero de combatientes y de material*. Hurrengo egunean, kaleak soldaduz eta ibilgailuz lepo daudela eta aktibitatea izugarria dela diote egunkari berak eta *La Voz de España*-k. *Unidad*-ek hilaren 16an oraindik herriko plazan kamioi eta soldadu asko dabil-tzala jasotzen du; 21ean, berriz ere eta *betiko moduan*, ibilgailu pila dagoela³¹⁰.

Berripaperetan ikusten da pixkanaka agertzen zihoazen herritarren zenbakiak gora egin zuela. Matxinoak sartzean, herrian 30 bat otxandioar zeudela esana dugu. Apirilaren bederatzirako 70 bat ziren *El Diario Vasco*-ren esanetan, oraindik ere denak adinekoak, emakumeak eta umeak³¹¹. Egun hartan bertan ehun familia inguru heldu ziren, otxandioarrak gehienak, baina baita Zeanuriko asko ere, frontea eurengana hurbiltzean ihes egindakoak. Familia gehiago ere ba omen ziren inguruko basoetan, gosez eta hotzez³¹². Inguruko herri gehiagotako bizilagunak agertuko ziren Otxandion hurrengo asteetan, nahiko kopuru handia, eta denbora batean geratzeko gainera³¹³. Florencia Lopez de Letonak zeanurizarrak gogoratzen ditu Mekoletara heltzen:

Zelan harantza joan ziren [erreketeak], Zeanurirantza, hasi zen etortzen Zeanuriko jendea. Gurera etorri ziren matrimonio bi. Bata Bebidekoa, Martina eta Isidro. Beste batzuk errotakoak, Zeanuriko errotakoak, Nati eta Gabino. Eta Lorenzo zen semea. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

El Diario Vasco-k Apirilaren 11rako ia herritar guztiak bueltatu zirela argitaratu bazuen ere³¹⁴, ez dirudi oso baieztapen erreala (*Unidad*-ek esaterako, 16an oraindik, herritar-rrak pixkana agertzen ari direla diosku³¹⁵). Otxandioarrak orokorrean aurrerago itzuli ziren etxera; asko, Bilbo matxinoen menpean erori eta gero.

1936ko gerra norgehiagoka ideologikoa izan zela ezin hobeto konprenitzen da garaiko prentsa irakurrita. *Hoy Ochandiano, dice con las banderas nuestras y nuestras tropas, que España entra otra vez dentro de Vizcaya* dio, esaterako, *Unidad*-ek³¹⁶. Tropa matxinoek Otxandio hartu eta egin zuten lehenengo gauzatariko bat herria ikurrez eta kartelez betetzea izan zen. Erreketeak eta falangistak nabarmendu ziren zeregin honetan, bakoitza bere eragin esparrua mantendu eta zabaldu nahian. Batzuek zein besteek jarduera propagandista hutsak eta asistentzialistak ere egin zituzten. Karlis-tak esaterako:

La intendencia de la Junta Carlista de Guerra del Señorío de Vizcaya (...) siguió a las columnas conquistadoras para atender a las primeras y más apremiantes necesidades

310. *El Diario Vasco*; *Unidad*; *La Voz de España*.

311. *El Diario Vasco*. 1937-4-9.

312. *El Diario Vasco*. 1937-4-10.

313. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1937-5-10.

314. *El Diario Vasco*. 1937-4-11.

315. *Unidad*. 1937-4-16.

316. *Unidad*. 1937-4-6.

de las pobres gentes (...) Proveyó de boinas rojas y de alimentos a los vecinos y con prodigiosa actividad inundó puertas y paredes de carteles de propaganda. Las banderas de España y del Requeté ondeaban en los balcones de los edificios principales de la plaza de Ochandiano³¹⁷.

Unidad-ek, egunkari falangista izaki, Otxandion sartzen lehena Falangeren zapia izan zela dio, eta sartu eta jarraian herrian zehar ikurrak eta kartelak itsastan aritu zirela³¹⁸. Asistentziari dagokionez, *auxilio de invierno* izeneko jantokiak zabaldu zituzten³¹⁹.

Falangeren eta karlisten arteko norgehiagoka bat sumatu badaiteke ere, Otxandio alderantzizko jarreraren herri aitzindaria izan zen. Apiril hasieran, banaketa orokor bat adostu zen bi mugimenduen artean, oinperatu ahala herriak banatzeko. Batzokiak karlisten eskuetan geratuko ziren, eta herriko etxeak, falangistenean. Otxandio izan zen akordioa indarrean jarri zuten lehendabiziko herria: udaletxean ikur espainola, batzokian erreketena eta herriko etxean Falangerena³²⁰.

Propaganda eta asistentzia nahastearen adibide orokorrako bat ogi beltz eta zuria- ingurukoa da. Matxinoen hedabideek etengabe aipatzen zuten “gorri-separatisten” kontrolpeko lurraldean ogi beltza jaten zela, beharraren eta gabeziaren ikurtzat aurkeztuz. Horregatik, ogi zuria hobekuntzaren ikur bilakatuta, askotan horrekin aurkezten ziren menperatzen zituzten herrietan. Otxandion sartu eta hurrengo egunean, kamioikada bana ogi zuri ekarri zuten Oletara eta Otxandiora³²¹. Mekoletan, egun berean, komandante batek herritar guztiak biltzeko agindua eman zuen, eta Florencia Lopez de Letonaren kontakizuna adierazgarria da:

Joan ginen denok hara, denok, eta ogi beltza –ogi beltza egiten zuten gorriek– koronelak edo ez dakit nik horrelako estrelladun batek bota gorantza, eta beste batek pun! ogjari. “Ustedes ya no comerán más nunca pan negro”. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

Herritik buruzagi matxino asko pasatu zen, operazioaren arduradun nagusi Mola tartean, noski. Otxandio hartu eta hurrengo egunean, Bizkaiko eta Gipuzkoako gobernadore zibilak bisita egin zuen, kroniken arabera, herritarrekin hitz egin, euren beharrak jakin eta asetzeko bitartekoak antolatzeko asmoz³²². Falangeren buru nagusietako batek ere, Manuel Hedillak, sartu-irten bat egin zuen hilaren 11n³²³.

Matxinoen agintari nagusia bera ere, *generalisimoa*, Otxandion egondakoa da. Saibigain lehendabizikoz hartu zen eguneko operazioa zuzenean jarraitu zuen, Molarekin

317. *La Voz de España*. 1937-4-9.

318. *Unidad*. 1937-4-6.

319. *Unidad*. 1937-4-21.

320. *Unidad*. 1937-4-9; *El Diario Vasco*. 1937-4-9.

321. Elkarrizketak. Jose Luis Olaso; Juan Padilla; Florencia Lopez de Letona Arruabarrena.

322. *El Diario Vasco*. 1937-4-6.

323. *Unidad*. 1937-4-12.

batera³²⁴. Juan Padillak dakarkigun gertakariak egun horretan edo ondoko batean gertatu behar izan zuen:

Hau ere polita da. Hemengo agure guztiak, pistola edo fusil bana eman, eta guardiak egitera. Batzuk ipini zituzten kaminoetan, ez zedin inor pasatu, ze Otxandion ipini zuten Estado Maiorra, Langarikaren etxean. Bixente Amondarainen aita, ordurako izango zituen 70 urte, ipini zuten Gordobilen kabo bategaz eta beste batzuk Dimako balsatik datorren kaminoan, Estado Maiorra zaintzeko badaezpada, bastante tropa zeuden oraindik eta. Kaboak esan zion bati ere ez ez uzteko pasatzen gorantza, ez uzteko. “No, no, si pasa alguien igual le tiro”. “Pues, si llega el caso hay que tirar”, esan zion kabo horrek. Hurrengo egunean etorri ziren Franco eta Estado Maiorra. Zubira heldu zirenean, “¡Alto! ¡Alto! ¡Que tengo orden de no dejar pasar!” Gelditu ziren eta esan zioten, Francoren eskolta edo izango zen: “¡Si es Franco!”. “Qué Franco ni Franco!, ¡jaquí tengo orden de no dejar pasar a nadie!”. Eta, geldi. Gero kabo hori agertu zen eta orduan utzi zieten pasatzen. Gero Francok saldatu, eta esan zion: “Así me gusta que sean los soldados españoles”. JUAN PADILLA.

Tomas Amondarainen semeetako batek, Bixente Amondarainek, pasadizoa baieztatzen digu³²⁵.

6.1. Otxandiora buelta: etxe apurtuak, lapurretak eta elkarlana

Pixkanaka, matxinoek lurraldea irabazi ahala eta Hego Euskal Herri osoa mendean hartu arte batik bat, otxandioarrak etxera bueltatu ziren. Aurkitu zuten panorama ez zen batere goxoa. Herrian orokorrean ez ezik, etxe partikularretan ere triskantza handiak egon ziren. Ez soilik egituran, bonbardaketa eta abarren ondorioz, ez soilik barnealdean miliziano edo erreketeen arduragabekeriagatik. Etxe gehienak hustuta zeuden. Izan ere, lapurreta asko egon zen, sarritan auzokoek eurek eginda. Aurrera atera baziren, ordea, otxandioarrek elkarri emandako laguntzari esker izan zen.

Irakurria dugu nola geratu zen herria bost eguneko ofentsibaren ostean: suteak izan ziren, bonbek teilatuak zulatu zituzten, etxeak osorik eraitsi... Gure nagusi gehientsue- nek dute akorduan Otxandiora bueltatu zirenean zelan topatu zituzten etxeak. Kalte arinekin batzuk –itoginak teilatuan edo altzariak apurtuta–, larriagoekin beste asko –teilatu berria egin beharrean edo erreta, esaterako–: Mari Carmen Urigoitiak, Tomas Lopez de Letonak, Basili Urigoitiak...

Dakargun Lourdes Kapanagak kontatua, adibide gisara. Hasteko, *etxe aurreko lau etxeak desagertuta* zeuden bera herriratzean, maiatz hasieran. Aurreko atalean ikusi dugunez, tartean Santos Irasuegirena. Lehentxeago ama bueltatu zen bakarrik, eta etxea negargarri aurkitu zuen:

Oheko armazoiak bakarrik topatu zituen [gainontzekoa ostuta] eta etxe guztia kaka egin- da. Ez lohitasuna, ezpabere kaka eginda, baina etxe guztia. Amak orduan hartu bat bes- te etxe bat, geurea garbitu arte, eta ez dakit nork esan zion: “Ez zaitez beste etxe batean

324. Archivo General Militar de Ávila / C. 2676, Cp.18.

325. Elkarrizketa. Bixente Amondarain.

bizitzen paratu, ze orain oheko armazoiak badauzkazu, gero hori ere ez duzu topatuko".
LOURDES KAPANAGA.

Etxea txukundu ondoren, familia osoa mugitu zuen amak, Berriztik Bilbora, koltxoiak aldean ekarrita:

Ailegatu ginenean, euria. Goitik behera etxea itoginez beteta. Lo egin behar izan genuen balde zabalak gure gainean ipinita. Asi ke pentsatu zelakoak pasatu genituen. LOURDES KAPANAGA.

Bere amamaren etxeak ez zuen itxura hoberik.

Buelta zen tristea. Akordatzen naiz, gure amandreak-eta taberna zeukaten gerra denboran. Ez dakit nora martxatu zuten, baina haiek etorri baino lehenago, gu sartu ginen etxera. Apurtuta ez zegoen, baina triskantza... Hamaika ohe zeukaten ipinita tabernan, sobrekama onekin, umeentzako arrokekin eta. Denak han botata. Ez dakit nortzuk egon ziren. Baina alde egin zutenean, dena botata utzi, eta zeozer gauza zena, eroan. LOURDES KAPANAGA.

Santos en kasuan, familiak udaletxera jo zuen laguntza eske. *Ailegatu ginen ba, Bilbo hartu eta ez dakit nik, 5-6 egunera, Otxandiora. Ezer ez. Eta udaletxera. Eta han ea non sartu behar genuen edo zer.* Udalak une horretan hutsik zegoen beste etxe batean sartzeko aukera eman zion familiari, eta gainontzekoetan bezala han ere ez zegoen ezer, garbitu egin zuten³²⁶.

Lourdesez lapurretak aipatzen ditu, eta hainbatetan aipatzen dira otxandioarren kontakizunetan. Noizbehinka, herrian ibilitako milizianoak, gudariak edo erreketekak ziren arduradunak. Makina bat aldiz, berriz, herrikideak eurak: denborarekin askok auzokoren baten eskuetan ikusi zuten euren etxetik desagertutako zerbaite:

Eskolan bizi ginen gu. Ama sartu zen, ea, ikusten zer geratu zen, muebleak eta zelan zeuden... Dena garbi zegoen, garbi. Sakeo. Gero enteratu ginen, amak kaletik edo etxeetan eta ikusten zuen ba, hori da gure butaka edo mahaia edo... EMILIO DONADO.

Ama etorri zen eta zer, etxe guztia hutsik zegoen. JON LASUEN.

Lapurretak egon ziren. Adibidez, Gorpuzti egunean ipintzen ziren aldareak kale guztietan, eta jendeak irteten zuen santisimoagaz elizatik, eta aldare guztietan paradatxoa egiten zuen. Adornatzen ziren balkoiak. Bakoitzak ateratzen zuen zeukan onena. Ez zeukanak, ba, izaratxo bat bazeukan, izaratxoa ateratzen zuen. Baina sobrekama ederrak zeukanak... Eta askok esaten zuten: "Han, gure sobrekama non dagoen!". Bertakoak, ez bakarrik karlistak, alde guztietakoak. Trasteak eta, lurrak ez dakit, ez daukat entzunda konfiskatu zenik edo lapurretan egin zenik, baina etxe barruetako gauzak bai. MARIA PILAR OLASO.

Bilbo pasatu zutenean edo, jendea bueltatu zen honantz. Etxera, batzuk lasai. Beste batzuk, heldu, eta etxean ezer ez. Limpio. Eta bizimodua ateratzen joan behar, ahal zen moduan. Gure andrea-eta Marintarrean ere, bueltan etorri zirenean, etxea bakarrik.

326. Elkarrizketa. Santos Irasuegi.

Han egon ziren, lo egiten ere, ahal zen moduan zati batean, apur bat preparatu arte. Gero jendeak ere bata besteari lagundu... TOMAS LOPEZ DE LETONA.

Jendeak ere bata besteari lagundu. Hori dugu orduko jarreraren beste gakoetako bat, hamaika testigantzatan ere azaleratzen dena. Eta ez soilik herrikide edo senideen artekoa, gogoratu Florencia Lopez de Letonak kontatu diguna, nola Zeanuritik heldutako familia batzuk hartu zituzten etxean. Mekoletan, etxe askotan gertatu zen hori, Tomas Lopez de Letonak esandakoaren arabera:

Ettxera ailegatu ginenean, etxekorik ez zegoen, dena zen kanpoko jendea, handik hona pasatu zirenak, Makaztoitik pasatu zen jendea. Mekoletan etxe guztiak zeuden beteta. Jende normala, baserritarrak. TOMAS LOPEZ DE LETONA.

Jon Lasuen Bilbon geratu zen familiarekin. Aita uztailaren 22ko bonbardaketan eraila, ez zuten euren kabuz aurrera ateratzerik: *Gu ezer gabe geratu ginen, umezurtzen moduan. Eskerrak etxekoei, izekoei, osaba Bixenteri...* Mari Carmen Urigoitiaren sendiak etxebizitza birrinduta aurkitzen zuen, eta auzokide batek lagundu zien:

Gu etorri ginenean hona ez geneukan etxerik. Eta auzoko bat, Bilbokoa, Kasimira, harek utzi zigun etxea 9 hilabetean etxea, geurea konpondu edo egin arte. MARI CARMEN URIGOITIA.

Ez dezagun ahaztu izan zirela gerra garaiko lehendabiziko une horiek bizi ez zituzten otxandioarrak: hildakoak, bando batean edo bestean borrokan zebiltzanak, preso hartutakoak, herrira bueltatu ez zirenak...

6.2. Egunerokotasuna berreraikitzen

Gerrak bazirauen arren eta herriak luzaro borrokaleku itxura izan bazuen ere, Otxandion amaituta zegoen gerra. Bizi-bizi zeuden sufrimendu asko –bizipen traumatikoak, hildakoen dolua, urrun zeuden senide edo lagun hutsunea, hiltzeko arriskuan zeudenekiko ardura eta abar–, baina bizitzari heldu eta berreraikitzea beste aukerarik ez zegoen. Askok eta ezer gutxi aldatu zen egunerokotasun berria ekarri zuen gerra garaiko “gerraoste” hark. Askok, giro errepresiboa nagusitu zelako, gerra eta bere emaitza presente egongo zirelako urte askoan, pobrezia sakondu eta garai batez gosea ere izango zelako. Gutxi, gerra aurretik egunerokotasuna baserriko bizitzak eta eginbeharrak betetzen bazuten, orduan ere berdin zirauelako Otxandiok. Hori bai, aldaketa handi bat izan zen maila sozio-ekonomikoa: errepublika garaian industriatik bizi ziren familia asko; gerra ostean, berriz, ia ez zegoen industriarik. Omega enpresa, herriko garrantzitsua, ez zen bueltatu herrira. Tomas Lopez de Letona frontea Gernika inguruan zegoela etorri zen Mekoletara bueltan, eta bizimoduaren normaltasuna aipatzen digu berak ere:

Gu hasi ginen lanean, bizitza normala egiten. Ganaduak ere bagenituen etxean, eta lana eginda, lan asko eginda. Dirurik ez. TOMAS LOPEZ DE LETONA.

Gure nagusiek ematen dizkiguten testigantza guztiak bateratuta, matxinatuen menpeko Otxandio kolore batekin definitu beharko bagenu, gris iluna litzateke aipatzen

agian. Osagai nagusia gerrak zeharkatutako giro errepresibo astuna zen, oinarrizko bidegabekeriak lege egiten zituena, bizimoduari zeharo eragiten ziona. Honen azpian, baina, egunerokotasun lasai bat ere garatu zen pixkanaka. Batetik, irabazle-galtzaile dikotomia oso markatua zegoen; bestetik, irabazleak eta galtzaileak nahastu egin ziren zenbait esparrutan, eta herritarren artean ez zen fusilamendurik edo antzekorik gertatu. Gosea egon bazegoen hasierako garaian, herritik alde egitera behartu zituen zenbait otxandioar, baina baserri giroan bizita errazagoa zen gutxieneko batzuk ziurtatzea. Gris iluna finean, iluntasuna erabatekoa izatea eragozten zuten argi printza batzuk ere azaltzen baitzaizkigu eta irudian.

6.2.1. Agintari berriak

Frontea Otxandiotik urrundu ahala militarren presentzia murriztu egin zen nabarmen. Hori zela eta, errepublikanoekin ez bezala, otxandioarrek ez zuten bizikidetzaz luze-rik izan erreketeeekin eta militar frankistekin. Aldi batez, bai, ordea. Tarte horretan, lehenago milizianoekin gertatu bezala, matxinoak izan zituzten etxean lotan. Herriko kaleetan eta irteeretan ere militarren presentzia zegoen:

Kruzeroan egoten zen kontrola, ez zedin edozein pasatu edo, eta hor edukitzen zuten kamioi blindatu bat. JON LASUEN.

Herrian hasieran militarrek geratzean, komandanteak eta nagusiak Langarikarenean sartu ziren, aurreko alkatearen etxean. EMILIO DONADO.

Matxinoek berandu gabe izendatu zuten alkate berria: Miguel Orue Pujana mekoletarra, karlista ezaguna. Apirilaren bederatzia zen. Maiatzaren hamarrean, plazako komandante militarrek Miguel Oruek aurkeztutako proposamena ontzat eman eta gero, Udal Batzorde Kudeatzailea sortu zen. Behin-behineko karguak hartu zituztenak Juan Gorostiza Kortazar, Felipe Olaso Aldai eta Meliton Usaola Aspe izan ziren. Estreinako bilkuran onartu zituzten lehendabiziko hiru puntuak, etorriko zenaren aurrekarizat hartu ditzakegu. Hasteko, erregimen matxinoari gorazarrea:

Como primer punto de la actuación de la Gestora Municipal, el señor Presidente propuso interpretando en ello el sentir unánime del vecindario y refugiados de pueblos limítrofes que constituyen en el día de hoy la población de esta villa, hacer constar en acta la viva satisfacción y honda gratitud hacia el glorioso ejército liberador y al invicto Caudillo Generalísimo Jefe del Estado Excmo. Sr. D. Francisco Franco Bahamonde, por la salvación y liberación de esta villa de las hordas separatistas y marxistas a las que estuvo sometida, exponiendo como unánime pensar del vecindario la más férvida adhesión a los sentimientos, que con elevado patriotismo mantienen los ideales salvadores de España, haciendo patente al mismo tiempo la gratitud sincera del vecindario a las autoridades militares (...) por el interés con que rápidamente han procedido a la normalización de los servicios necesarios a la vida del pueblo³²⁷.

Bigarrenik izen aldaketak: Felipe Arrese Beitia plaza Espainia plaza izatera pasatu zen, Sabino Arana kalea, Artekale. Hirugarrenik, behin-behineko idazkaria izendatu zuten:

327. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1937-5-10.

Justo Pujana Goicoechea. Idazkaritzako ikasketak hasita zituelako, eta bere pentsaeragatik, *porque su conducta y filiación política son conformes con los postulados del movimiento liberador de España*³²⁸.

Irailaren 30era arte ez zen behin-behinekotasuna gainditu. Orduan izendatu zuen herrialdeko gobernadore zibilak udalbatza berria:

En uso de las atribuciones que me han sido conferidas, vengo en nombrar para el pueblo de Ochandiano el siguiente Ayuntamiento:

Alcalde: D. Julián Garaygordobil Garaygordobil.

1º Teniente Alcalde D. Juan Gorostiza Cortazar

2º Teniente Alcalde D. Lorenzo Ruiz de Azua Villar

Concejales D. Tomás Arrieta Arana, D. Lino Letona Pujana, D. Manuel Amenabar Aguirre, D. Ambrosio Orue Pujana.

Por Dios, por España y su Revolución Nacional. Bilbao 15 de septiembre de 1937.

Izendapenak izendapen, hasierako garaian militarrek zuten boterea eta erabaki ahalmena. Komandante militarri baimena eskatzea ohiko prozedura zen³²⁹. Udaletik, bitartean, eguneroko jarduna bermatzen saiatu ziren (zergak, esaterako).

Baina, esan bezala, militarrek desagertuz zihoazen, eta otxandioarrek herriko agintari geratu ziren herrikideak dituzte akorduan. Argi dago nork zuen boterea herrian, apaizak eta Justo idazkariak:

Oruetarrak, anaiak, ziren eskumakoak [apaizengatik]. Bat, Don Lorentzo, zan eskumakoa baina baketia. Baina beraren anaia, Don Pablo... bufa! (...) Batez ere Justo zen dena mugitzen zuena. EMILIO DONADO.

Esaten genuen, abadea, idazkaria eta medikua zirela herriko agintariak. Haiexek agintzen zuten. MARI CARMEN URIGOITIA.

Sekretarioak agintzen zuen gehien. Eta abadeek. Abadeek larregi agintzen zuten denbora baten. ANDRESA LOPEZ DE LETONA.

Justo bai, klaro. Alkateak izaten ziren ba, bueno, izena alkatearena, gero nork agintzen zuen... Eta abadeak ere asko. LOURDES KAPANAGA.

Justok gura zituen guztiak egiten zituen. 10etan etorri, 11etan alde. Motorra zeukan. JOSE LUIS OLASO.

Osaba Ambrosio eta osaba Miguel ziren karlisten aldekoak eta gurean, aita bizkaitarra gehiago. Orduan, gure aita eta bere modukoak ez zituzten zinegotzi ateratzen. Orduan idazkari Justo Pujana zegoen, eta berak aukeratzen zituen komeni zitzaizkionak, eskolarik ez zutenak, tonto guztiak. Eta alkateak ere eskola handirik ez zeukan orduan, eta benetako alkatea ha zen, idazkaria. Atzenean txarto akabatu zuen, e! Makina bat txapuza egin zuen Otxandion, baina atzenean lagunik ere ez, ez ezer. MARCOS IBARRONDO.

328. Justok idazkaritza galdu zuen abenduaren lauan Emeterio Morentin Mendietaren mesedetan; 1939ko uztailaren 15ean hartu zuen berriz.

329. Irakurri adibidez: Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1937-5-19; 1937-6-7.

Bigarren mailan agertzen dira beste otxandioar batzuk, boterea zutenak baina gutxiago, Falangeko nagusia, Justoren lagunak edo Miguel Orue ezaguna, kasu. Bitxia bada ere, Julian Garaigordobil alkatea ez du inork aipatzen:

Falangisten jefea zen Jose Mari "Arrankaitxue". Hark egin zuen... Aste Santuan prozesioa egoten zen elizatik irtenda. Bera trajeagaz eta pistolagaz eta... irteten hasi zenean prozesioa "Ez! Hortik ez! Kalean behera joan behar da prozesioa, nik agintzen dut eta". Kalean behera joan zen, Andikonaraino, eta atzera buelta. Falangista gogorra zen, e? Joño! TOMAS LOPEZ DE LETONA.

Errotak egon ziren prezintatuta, itxita. Estraperloa zegoen. Miguel Oruek, gure osabak, influentzia handiak zeuzkan militarren artean. (...) Influentzia handiak zituenez, 3-4 prezintu ematen zizkioten. Abisatu egiten zioten noiz zetorren kontrola, eta orduan prezintua ipini eta holantxe. PEDRO ORUE.

Horrek [Justok] mando itzela zeukan. Eta lehenengo agertu zen Txapelaundik, Matxinek eta horiek... Bueno! Bueno! FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

Egon zen idazkaria, Justo, eta zituen lagunak, Luis eta Lalo... Haiek okerrak izaten ziren, okerrak. Zer edo zeren eske joan eta... Ni neu esaten zidaten ez nengoela hemen errotaduta. Eta joan nintzen udaletxera eta bertan nengoan. MARI CARMEN URIGOITIA.

Abadeek agintzen zuten hemen asko. "Censura de cartas" edo edukitzen zuten. Karlistek agintzen zuten eta, Gordobileko Garmendia familia, haiek gizontzarrak kartzelan egon ziren, eta eskribitu eta karterora botatzeko zeozer baimena eskatu behar. Domeketa behar egiteko, belarra eta sartzen ere, abadeei eskatzen zitzaien baimena. Belarra sikatuta eta sartu gura, eta Don Lorentzori eskatu behar baimena. ¡Menudo cambio que ha dado la cosa, eh! ANDRESA LOPEZ DE LETONA.

6.2.2. Gosea

Otxandio astindu zuen beste sufrikario bat gosea izan zen. Urteetan ezagutu ez zuten modukoa: *Gerra garaian ogi zuriagaz agertu ziren frankistak, baina hortik astebetara ez ogi zuririk ez ezer. Orduan pasatu zen gosea. Urte bat edo, txarrak pasatu ziren*³³⁰. Otxandioarrak zein udaleko aktak dira horren lekuko. Gerra aurretik egoera idilikoa ez bazen ere, herriaren eta herritarren txirotasuna izugarri handitu zen orduan.

Frankistek Otxandio oinperatu eta bi hilabetera, Udalak herritarrak elikatzeko premiazko lehengaiak aurreratzea eskatu zion Bilboko intendentzia militarari. Udalak otxandioarrei banatu zizkien, *egoki zeritzonean* kobratzeko, aurrerago³³¹. Urte bereko azaroan, Aldundiari 1936. eta 1937. urteetako zenbait zerga barkatzea erregutu zion, *por el estado de miseria en que se halla y la imposibilidad de efectuar el pago de dichas contribuciones*³³². Aldundiak, antza, ez zuen zorra barkatu, ez behintzat 1936koa, 1938. urteko irailean afera konpondu barik zegoen eta. Udalak beste komunikazio bat bidali zuen, eta hor berretsita ikusten da herriaren 1936ko egoera: (...) *el año 1936*

330. Elkarrizketa. JUAN PADILLA.

331. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1937-6-7.

332. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1937-10-9.

*quedó el campo y la industria de esta localidad completamente destrozados sin poder ni aprovechar ni reparar sus industrias y solicitar a la Excma Diputación deje sin efecto dicha liquidación*³³³.

Industria, Otxandion tradizio eta pisu handiko jarduera, ezerezean geratu zen, beraz. Udalak ahalegin handiak egin zituen Omega herrira bueltatu zedin, gerra aurreko enpresa garrantzitsuena izan zen eta. 1938ko martxoan batzorde bat eratu zuten Julian Garaigordobil alkateak, Juan Gorostiza alkateordeak eta Pedro Larrañaga bizilagunak:

Esta comisión se dedicará activamente a estudiar y gestionar la manera más rápida de poder hacer que los talleres Omega vuelvan a establecerse en Ochandiano. Pues sin dichos talleres el pueblo de Ochandiano está llamado a pasar miseria³³⁴.

Baina Omega Zorrotzan ezarri zen, eta ez zen handik mugituko. Alderantziz: bere garaian Omegan lan egitera Eibartik heldutako beharginetako asko eta hainbat otxandioar Zorrotzara joan ziren bizitzera. Otxandio eta Zorrotza artean joan-etorrian zebilenik ere bazen, Mari Carmen Urigoitiaren aita, kasu:

Joaten zen Zorrotzara, eta zapatu arratsaldean etortzen zen domeka ilunkerara arte. Beraz, pentsatu zenbat diru ekarriko zuen, berak han patrona pagatu behar eta. Ganadu bi erosi genituen, eta harexekin eta esnearekin eta konpondu ginen. MARI CARMEN URIGOITIA.

Omega Otxandiora ez zen bueltatu, eta hemen eibartarrak eta hainbat jende kanpoko zegoen, kanpotik Omegan lan egiten etorrira. Omega ipini zuten Zorrotzan eta otxandioarrek hainbat joan ziren lehen zeukaten beharrera, Zorrotzara. MARIA PILAR OLASO.

Omegan lana lortu zutenak ez ziren beharrak bultzatuta herritik alde egin zuten bakarrak. Jon Lasuen Bilboko jostundegi batean hasi zen mandatari, eta hala ere Gizarte Sorospeneko jantokiei esker jaten zuen, ehunka mutikorekin batera³³⁵. Florian Kapanagak 14 urterekin alde egin zuen herritik Arabako mendialdera morroi, *Otxandio gose baten zegoen eta*. Urte latzak pasatu zituen³³⁶.

Pedro Oruek estraperloa zegoela adierazten du zeharka bere osabaren azpilanez hizketan, aurreko aipuan. Jose Luis Olasok *ibili beharra* aipatzen digu goseari aurre egiteko³³⁷. Koldo Pildainek ere kontatzen digu nola egin zuen aurrera garaiotan:

Eta gero, gosea. Gosea kendu barik. Gu gerra aurrean bizi ginen ondo. Sei neba-arreba aita eta amarekin ondo. Bik lan egiten zuten [etxetik kanpo] (...) Goserik behintzat, ez. Baina gero pasatu genuen. (...) Masustak ere, belztu orduko, gorrituta zeudela jan, eta sagarrak ere lapurtu. Gaurko umeak nahi ez dituztenak, nahi ere ez, eta guk sagarrak ostu. (...) Eta gero ezkailuak, eta perretxikoak eta horrelako gauzak. (...)

333. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1938-9-3.

334. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1938-3-5.

335. Elkarrizketa. Jon Lasuen Goikolea.

336. Elkarrizketa. Floriano Kapanaga Gzlj de Langarika.

337. Elkarrizketa. Jose Luis Olaso.

Orduan ilusioa zen tripa beteta edukitzea. Gure ametsa gaztetan zen tripa betetzea. Ez pelikula ikusi behar dut, eta zirkua eta... ez, ez, ez. Ha zen gosea, kendu bako gosea. KOLDO PILDAIN.

Esan bezala, baserriko bizimodua eta landa inguruan bizitzea baliabide garrantzitsua izan zen garaiotan, etxerako lain ateratzeko aukera handiagoa zegoen hirietan baino:

Gosea, gerra ostean pasatu genuen, ez zegoen ezer ez eta. Patata edo... Baina oliorik ere ez zen egoten, irinik ere ez (...) Irin eske, astoa hartu eta abiazio zelairaino joaten nintzen, ondoan dago herritoxa eta han errota. Artoa hartu eta Mekoletatik hara joaten nintzen irin eske. Ekartzen nuen 100 kilo irin. Dozena bat lagun bizi ginen etxean, izeko eta amandrea eta denok... eta irina ekartzeko begira, taloak egiteko, taloak egin eta jan eta listo... Horrelako bizimodua izaten zen. Gosea... gosea guk ez genuen, beti ganadua eduki dugu, ardiak ere bai... TOMAS LOPEZ DE LETONA.

Ogi gutxi jaten genuen garai batean. Badakizu, kalean ere errazioa hartzeko denbora asko behar zen, eta ogi barik askotan etxera negarrez. Hori Francoren sasoiari, gerra pasatu ostean. Gero, gauza mugitu egin zen, baina sasoi baten ez zegoen ezer jateko. (...)

Gosea, gosea, ez. Guk baserria geneukan, artoa, ogia, txerriak ere hiltzen ziren eta gosea, gosea, ez. Etxean baba eta hartzen zen. Otxandiotik jendea etortzen zen, igual 10 kilo baba eske, eta ematen zitzairen. Txaro eta familia ere etortzen zen guregana. Baina gero ezin ordaindu. Munduan zelebrekeria ugari egon da! MARCOS IBARRONDO.

Gerra ostean ezer ez zen egoten [jateko]. Ez dendetan, ez dirurik, ez ezer ez. Baserrietan dezente, ardiak eta hil, halan konpontzen ginen. Txerriak ere... Hiru txerri-eta hiltzen genituen. Artoa sartzen zen etxean, arrautzak, taloak egin errotan irina egin eta gero. Gose, gose, gose... Falta bai, asko, gauza askorena, baina holan goseagaz hiltzeko moduan ez. Denek edukitzen zuten zeozer. Baserrian, badakizu, edo konejua edo oiloa... ANDRESA LOPEZ DE LETONA.

6.2.3. Errepresio frankista Otxandion

Errepresiorako estrategia eta makineria garatu zuten lehenengo egunetik, eta garaitua fisikoki deuseztatzeaz gain eta "atzealdea" garbitzeaz gain, corpus legegile sui generis bat eratu zuten, garaituei bizirauteko askatasuna, ondasunak eta bitartekoak kenduko zizkiena. Azken finean, disidentzia guztiak ezabatzea zen helburua. Errepresio-prozesu horiek gizarte-maila guztiei eragin zieten, garbitzeko ahaleaginean; izan ere, azken finean, gizartea berriro hezi nahi zuten balio tradizionaletan oinarrituz. Jarduera horretan, zeregin garrantzitsua bete zuten armadak –bere esku zituen ordena eta justiziaren administrazioa–, Eliza Katolikoak eta matxinadaren inguruan zebiltzan erakundeek. Militarren errepresiorako oinarritzko piezak ziren apaizek, alkateek eta Comución Tradicionalistaren eta Falange Españolaren tokiko batzordeek egindako txostenak. Horiek guztiek, hein handiagoan edo txikiagoan, hartu zuten parte zigor-ekintza, fusilatze eta exekuzioetan; era berean, "zerrenda beltzak" eratzen, konfiskazioetan, isunetan, langileak kaleratzen, erbesteratzeetan, zapalkuntza publikoetan, ile-mozketetan eta beste hainbat zigorretan. Euskal populazioaren zati handi bat, gehiena euskal abertzalea edo errepublikanoa, errepresioaren biktima zuzena edo zeharkakoa izan zen³³⁸.

338. AIZPURU, Mikel. "Zapalkuntza-politika gerran eta gerraren ondoren. Errepresioa, heriotza eta bortxakeria bi aldeetan". In: ERRAZKIN AGIRREZABALA, M. eta AGIRRE-MAULEON, J. *1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*, 1. arg. Bilbao: UEU, 2009; 54. or.

Otxandio ez zen libratu Mikel Aizpuru historialariak deskribatzen digun egoera lazgarri eta orokor horretatik. Giro errepresiboa hainbat modutan adierazten da otxandioarren leku-kotasunetan. Florian Kapanagak nahiko ondo jasotzen ditu orduko elementu nagusiak:

Bai, bai, bai. Diferentzia igartzen zen. Irabazleak eta kanpotarrak ere jende asko geratu zen, eta horiek ziren hemen agintzen zutenak. Besteak, ba, isilik. Ezin zen barbarik egin kontra. Oraindino jende mordoak kartzelan, hemengoak eta. Nazionalen aldekoak ziren agintzen zutenak, besteak euren azpian. Isilik, inork ezin zuen besteen alde barbarik egin, libertaderik ez zegoen. Euskaraz ere barbarik ezin egin... euren azpian. Hemengo entxuferik onenak ere eurek hartu zituzten, gura izan zutena egin zuten. Besteak, isilik egon behar. FLORIAN KAPANAGA.

Errepresioa orokorra eta latza izan zen. Konfiskazioak izan ziren, langileen garbiketa-prozesuak, herritar “gorri-separatisten” zerrendak, langile-batailoietara bidalitakoak, euskararen debekua, eguneroko jazarpen pertsonalak eta abar, eta abar.

Ez dugu berririk herrian otxandioarrik fusilatu zenik. Bai, ordea, herritik kanpo fusilatutako otxandioar batena eta Otxandion fusilatutako bi pertsonarena. 1936. urteko azaroaren 6an, Oiartzunen, Ciriaco Irasuegi Aretxabaleta otxandioarra fusilatu zuten matxinoek³³⁹.

Otxandion bertan fusilatutako baten berri Pedro Oruek eta Santi Kapanagak ematen digute. Marcos Ibarrondok beste bat aipatzen digu, baina kontakizuna lanbrotsuegia da eta badaezpada ez dugu orriotara ekarriko. Gainontzeko elkarrizketetan ez dute fusilamendurik aipatzen gure nagusiek, eta Emilio Donadok espresuki esaten digu ez duela fusilamendurik gogoan³⁴⁰. Baina Pedro eta Santiren kontakizunak oso zehatzak dira, eta kontutan izanda elkarrizketan zehar beste hamaika datu ematen dizkigutela, koherentzia erakutsiz eta beste batzuek diotenarekin bat eginez, jasotzeko modukoak direla erabaki dugu. Santik, gerora, kontatzen digun fusilatuaren familiari lagundu zion gorpua non zegoen esaten:

Orduan egunean [apirilak lau], arratsaldeko bostetan fusilatu zuten Jesus Zubiria, Zarauzko gazte bat. Ohean zegoen, gaizki, kalenturarekin eta gripe modukoarekin itxuraz. Eta jaiki zen, eta irten zuen. Falangista batzuekin topo egin zuen, eta esan zuen:

– ¿Han entrado? ¿O están lejos?

– No, no han entrado, ven con nosotros.

Eta hartu zuten eta fusilatu zuten. SANTI KAPANAGA.

Bazen Ollerietako gizon bat. Nik ez dakit nor eta zer... Antza ofensiban etorri zen Otxandiora. Edan zituen ardo batzuk eta zer batzuk, eta han erdi deslai. Nazionalak orduantxe sartuta Otxandion, egun bat edo bi lehenagotik. Gizon horri egin zizkioten pregunta batzuk, apur bat edanda, eta pentsatuz gorrien aldean zegoela, hasi zen: “¡Biba Euskadi!” eta “¡Biba Euskadi ¡Biba Euskadi!”. Eraman zuten San Martinera eta tiro bat eman eta hantxe, beste motibo barik. Harexegaz gorpugaz gogoratzen naiz asko. PEDRO ORUE.

339. Aranzadi Zientzia Elkarteak. *Proyecto de investigación y localización de fosas de las personas desaparecidas durante la Guerra Civil*. Eusko Jaurlaritzak. Justizia, Lan eta Gizarte-Segurantzak Saila. Giza Eskubideen Zuzendaritza. 2008.

340. Elkarrizketa. Emilio Donado Urigoitia.

Gaixo bat eta mozkor bat. Eraildakoek ez zuten arriskurik, eta herria jada hartuta zeukatela hil zituzten, ez borrokaren gorian. Ez dugu ziurtatzerik fusilamendu gehiagorik izan zen ala ez, baina bi kasuon berri izanda, pentsatzekoa da fusilamendu gehiago izan ez bazen Otxandion sartu zirenerako ia inor aurkitu ez zelako izan zela.

Kartzelatutako otxandioarrak ere izan ziren, baina ez dugu kopururik botatzeko adina datu. Irazabalek diosku urteak pasatu zituztela askok preso³⁴¹. Lourdes Kapanagak uste du gehienak altxamenduaren hasieran espetxeratu zituztela, herrian giro trankil samarra egon zen eta:

(...) Bueno, trabajadoreetan-eta jendea egon zen kartzelan. Baina nik pentsatzen dut kartzelan sartu zituztela lehenengo-lehenengokotan. Gero, gorri denboran ere, aiuntamentua ondo portatu zen jendeagaz [karlistekin]... LOURDES KAPANAGA.

Lourdesek zein Irazabalen liburuak langile-batailoietan aritutakoak aipatzen dizkigute, baina arazo berdina topatzen dugu zehazteko orduan, datu falta. Jakin badakigu Sebastian Astola Ajuriagerra Afrikan ibili zela, Remigio Ruiz 1939ko abuztu aldera bueltatu zela herrira batailoi batean lan egin ostean³⁴², Pako Pildainek Cadizen behintzat eman zuela denbora bat eta Gregorio Olabarria Ibarnia ere batailoietan aritu zela. Ez dakigu zenbat otxandioar gehiago izan ziren, eta zenbat denboran.

Sebastian Astolak langile-batailoietan pairatutako bidegabekeriak kontatzen dizkigu. Burgosen, Aiako Harrian, Marokon... Toki bakoitzean hobeto edo okerrago, baina orokorrean tratua txarra izan zen, umiliazioak jasan zituzten esklaboek, eta aldizka gose handia pasatu. Adibide gisara, artoa gordinik jatera ailegatu ziren, edo janaria lapurtzearren arrisku larriak hartzera, gosearen gosez³⁴³.

Fernando Mendiola historialariak errepresio modu honen garrantzi ekonomiko-soziala nabarmentzen du, hartaz oraindik dugun ezagutza faltarekin kontrajarritz³⁴⁴. Lelo frankistak ezin hobeto laburbiltzen du lan hauen justifikazioa: *Con el trabajo, el pan y la justicia de la Patria, poco a poco van los prisioneros reconstituyendo lo que ellos mismos deshicieron antes con la dinamita*³⁴⁵. Hego Euskal Herrian gutxiarik 36.000 esklabo aritu ziren langile-batailoietan, horietatik 8.000 Bizkaian. Lurralde honetan hiri eta herrietako berreraikuntza lanetara behartu zituzten nagusiki. Mendiolak ematen duen tokiz tokiko zerrendan ez da Otxandion egindako lanik ageri, baina udal aktak irakurrita badakigu 1939ko abuztuan gutxienez taldetxo bat badela: Udalak Andikonako erreka garbitzea nahi du, oraindik gerra garaiko etxe hondakin asko baitago uretan.

341. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 74. or.

342. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1939-8-26.

343. Elkarrizketa. Sebastian Astola.

344. MENDIOLA, Fernando. “<Goiztik gabera lan eiten dugu soldatarik jaso gabe>. Bortxazko lanak eta euskal ekonomia (1937-1962)”. In: ERRAZKIN AGIRREZABALA, M. eta AGIRRE-MAULEON, J. *1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*, 1. arg. Bilbao: UEU, 2009; 69-104. or.

345. MENDIOLA, Fernando. “<Goiztik gabera lan eiten dugu soldatarik jaso gabe>. Bortxazko lanak eta euskal ekonomia (1937-1962)”. In: ERRAZKIN AGIRREZABALA, M. eta AGIRRE-MAULEON, J. *1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*, 1. arg. Bilbao: UEU, 2009; 86. or.

Etxeetako jabeei egiten die deia, *para por medio de ellos y de los individuos que van llegando de batallones de trabajadores, proceder a la limpieza de dicho río*³⁴⁶.

Fusilatua, espetxeratuak eta esklabo gisara erabilitakoak aipatu ditugu orain arte. Hain zuzen, horrela bukatzeko beldurrez egin zuen ihes Otxandiotik edo ez zen buelta-
tu zenbait herritar. Koldo Pildainen anaia nagusiak Frantziara egin zuen ihes eta ber-
tan geratu zen, sozialista moduan miliziano aritua baitzen. Beste otxandioar batzuk,
batez ere Gernika eta Durangoko bonbardaketen ostean, seme-alabak bidali zituzten
Euskal Herritik eta Espainiar Estatutik kanpora. Begoña eta Miren Cruz Jauregizar
Frantziako Selles-sur-Cher-era, Sabin Biteri ere Frantzia aldera, eta Florian eta Juan
Leon Kapanaga anaiak, Belgikara³⁴⁷.

lheslarien arten udal langile asko zegoen. Matxinoen ekinbide errepresiboaren arda-
tzetako bat administrazioaren “garbiketa” izan zen, eta Otxandion prozesua karlistek
agintaritza hartu eta jarraian hasi zen. 1937ko abuztuaren 26rako udalbatzak leku
ezezagunean aurkitzen diren zenbait langileri lana eta soldata etetea erabaki zuen.
Kaltetuak: Victor Oianguren Urkiola idazkaria, Felipe Uribe Iturbe basozaina, Julian
Biteri Belategui zerga-biltzailea, Alejandro Larrabeiti lurperatzailea, Jose Maurologoitia
Unda medikua³⁴⁸.

Zorionez, Bizkaiko Foru Artxiboan garbiketa prozesu hauetako baten dokumentazioa
gordetzen da³⁴⁹. Marcos Apaolaza otxandioarrari irekitako espedientea aztertuz, ibil-
bidean parte hartu zuten herriko erakunde, talde eta pertsonak azaltzen zaizkigu.
Lehenik eta behin Aldundiak eskakizuna bidali zion alkateari Marcos Apaolaza Uribe bi-
dezainaren inguruko galdeketa bete zezan. Miguel Orue alkateak 1937ko abuztuaren
16an helarazi zion bueltan galdeketa bete. Galderek eta erantzunek errepresioaren
langa zein behean zegoen agertzen digute, ze gauza izan zitezkeen zigortzeko nahikoa
arrazoi:

1º Si dicho interesado ha desempeñado cargo alguno o colaborado de alguna forma
con la llamada Junta de Defensa de Vizcaya, Gobierno de Euzkadi o el de Valencia.

Contestación: Ha continuado presentando sus servicios como caminero.

2º Si al mismo se le han conocido actuaciones antipatriótica o contrarias al movimiento
nacional.

Contestación: No se le han conocido o por lo menos no nos constan.

3º Si ha pertenecido a algún partido político o sindical con anterioridad o posterioridad
al 19 de julio de 1936, determinando si lo ha sido como afiliado, protector o en otra
forma.

Contestación: No se sabe con exactitud, pero se supone que haya sido afiliado al
partido nacionalista vasco, pues siempre ha votado a los nacionalistas.

4º Concepto que tiene del interesado como empleado provincial.

Contestación: Como empleado provincial creemos ha cumplido con su cometido.

346. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1939-8-19.

347. IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbao: Gerediaga Elkarte, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006; 75-76. or.

348. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1937-8-26.

349. Bizkaiko Foru Agiritegia / AJ02613 / 013.

Aldundiak, ondoren, informazio gehigarria eskatu zion Otxandioko Falangeko agintari nagusiari, irailaren lauan, eta honek, Feliciano Biziolak, honela erantzun zuen hilaren 13an:

En contestación al oficio recibido de esa Excma. Diputación, de fecha 4 del cte., declaro que el vecino de esta, Marcos Apaolaza, peón caminero, por referencias que tengo por fidedignas, no se le han conocido actuaciones antipatrióticas o contrarias al Movimiento Nacional, pero su filiación ha sido de nacionalista vasco, votando siempre por estos, sin que pueda precisar si estaba o no afiliado a dicho partido.
Dios salve a España y guarde a V.E. muchos años.

Hirugarren pausoa Marcos bera zitaztea izan zen. Irailaren 21ean, alkatearen galdeketan irakurritako galdera berberak zuzendu zizkieten. Marcosek eskuindarra zela argudiatu, eta honela erantzuten zion bigarren galderari: *Que no puede explicarse cómo se le acusa de haber votado a los nacionalistas, cuando en las últimas elecciones dió el voto a las derechas*. Eta bere adierazpenaren bukaeran gehitu zuen: *Francisco Vicinay y Lorenzo Orue [apaiza] pueden justificar la veracidad de lo expuesto*.

Aldundiko Langileen Garbiketa Bulegoko nagusiak bere ondorioak eta ebazpen-proposamena idatzi zituen 1938. urteko urtarrilean. Ulertzera ematen du guri heldu zaizkigunak baino informe gehiago eskatu dizkiela Otxandioko autoritateei (Erreketeen buruari? Elizari? Guardia Zibilari? Ez litzateke harritzekoa, ohikoa zen eta). Zalantzak zalantza, funtzionarioak ondorioztatzen du, kasurik onenean eta afiliatua izango ez baltz ere, Marcos Apaolaza abertzaleen *aldekoa (simpatizante)* dela. Bere proposamena, legeak diotenari jarraiki, kargugabetzea. Azken erabakia otsailaren lehenean hartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak. Lanpostua ez kentzea ebatzi zuen, baina bai zigortzea, lantokiz aldatuz eta 10 urtean mailaz igotzea galaraziz.

Otxandioko Agiritegian, askotariko paperen artean galdua, beste garbiketa prozesu baten dokumentazioa topatu dugu. Oraingoan, beste agintari batzuk ikusten ditugu parte hartzen. 1937ko uztailaren 28an Lorenzo Orue parrokoa Roman Bengoa udal-epailearen eta Justo Pujana idazkariaren aurrean agertu zen, *para declarar sobre las ideas políticas y propagandas nacionalistas, que haya podido hacer el Ingeniero Director de Caminos, Don José Martín González de Langarica*³⁵⁰. Jose Martin urteetan Otxandioko alkate abertzale izandako Remigioren anaia da. Herriko abadearen adierazpenak epaituaren aldekoak dira, baina bere bi anaien kontra egiteko aprobetxatzen du aukera bidenabar:

Manifiesta a preguntas mías que desde el año 1930 que regenta la parroquia de esta villa de Ochandiano, no ha observado en José Martín González de Langarica idea política alguna; que conoce a dicho Sr. desde muy joven, pues ha convivido con él desde que cursaban sus estudios; sin que haya notado en él inclinación por partidos políticos; que a su juicio, si hubiese querido hacer propaganda nacionalista, ha tenido muy buenas ocasiones para ello, sobre todo, cuando la construcción última de las carreteras a las barriadas de Mecoleta y Olaeta de esta localidad, que personalmente dirigió, sin que a ningún aldeano se hiciera por parte de él indicación alguna en ese sentido; que, por último, le parece que no se debe confundir a dicho Sr. con sus hermanos por ser completamente distinto a ellos.

350. Otxandioko Udal Agiritegia / Bake Epaitegia.

Batzuk irten, beste batzuk sartu. Marcos Apaolaza lanetik kanporatuta egon zen bere espedientearen inguruko ebazpena eman bitartean. Garai honetan, beste herritar batzuek eskaera aurkezu zuten Aldundian bidezain postuaren eskean. Andres Ajuria Basagurenek eta Julian Garaigordobilek euren “merituak” aurkeztu zituzten. Herriko alkateak, esaterako:

Que, habiendo estado perseguido y preso durante 11 meses por las hordas –rojo-separatistas, por sus ideas Tradicionalistas y por lo tanto entusiasta defensor del Glorioso Movimiento Nacional.

Suplica, de su bondad le sea concedida una plaza de peón caminero de Ochandiano, en la seguridad de que sabrá cumplir con su obligación para engrandecimiento de nuestra querida patria³⁵¹.

Antzeko merituak aurkeztu zituen Andres Ajuriak ere³⁵².

Baina ezkertiar eta abertzaleenganako jazarpena haratago joan zen. Ez zen bakarrik administratziotik kanpo uztea. Irabazleentzat ez zen onargarria erregimenarekin bat egiten ez zuten herritarrek inongo laguntza edo subentziorik jasotzea. Halakoak eragozteko, herriz herriko gorri eta separatisten zerrendak ugaritu egin ziren. Jomugan ez zeuden soilik matxinoen kontra borroka aktiboan ibili zirenak; garaileekiko atxikimendua erakusten ez zutenak ere estu hartuta zeuden. 1937ko irailaren 3an, esaterako, ondoko akordioa jarri zuen indarrean Bizkaiko Aldundiak:

Que por el servicio agrícola, se proceda urgentemente, por los medios que estime más adecuados, a una depuración severa y justiciera de los labradores que tienen solicitada subvención por roturación de terrenos incultos, establecimiento de prados y plantación de frutales, eliminando de tales beneficios a todos aquellos que no prueben debidamente su adhesión a la España Nacional³⁵³.

Tankera honetako ebazpenak ugariak izan ziren. Otxandion, gainontzeko herri guztietan bezala, egon zen zerrendarik, baina ez dira gaur arte heldu. Ziurrenik udal-agiritegia erre zuen sutean galduko ziren. Emilio Donadok zerrendak egon zirela baieztatzen du. Justo Pujana idazkariaren protagonismoa eta herritarren parte hartzea ageri dira bere oroitzapenen kontakizunean: *Bai bai, listaduak egoten ziren. Justok egiten zituen. Jendeak asko modu onean baina, hark aprobetxatzen zuen gero zizaña sartzeko³⁵⁴.*

Aztertutako ditugun garbiketa prozesuak Aldundiak sustatutakoak ziren, eta Udalaren eta herri-agintarien kolaborazio aktiboarekin gauzatuak. Baina udalbatzaren erabaki propioetan ere topatu dezakegu ekinbide mota honen adibiderik. Otxandio birrinduan, dendak eta tabernak ireki nahi zituzten herritarrek agertu ziren pixkanaka. Horretarako, edo lur arlo bat erdiesteko eta abar, Udalaren baimena beharrezkoa zen. *Gorrieez ez, gorrieez ez* diosku Florencia Lopez de Letonak honen inguruan. *Lehenengo*

351. Bizkaiko Foru Agiritegia / AJ02734 / 017.

352. Bizkaiko Foru Agiritegia / AJ02734 / 018.

353. Bizkaiko Foru Agiritegia / AX00476 / 13.

354. Elkarrizketa. Emilio Donado Urigoitia.

negozioak jarri zituztenak izan ziren faxistak. Gero, beste aldekorik asko ez dut ikusi nik negozioekin, Lourdes Kapanagak. Horrela zela dute akorduan orokorrean gure nagusiek.

Udal-aktetan, emandako edo ukatutako baimenak ageri dira jasota. Gehienetan ez da zehazten baieztokoren edo ezeztokoren inguruko zergatirik, baina agertzen denean azalpena adierazgarria da. Casilda Goikoetxea Saenz de Biterik, esaterako, herriko plazan dagoen fondaren kudeaketa bere gain hartzeko eskakizuna egin zuen 1938ko urtarrilean. Udalak ezetza eman zion, fonda Justo Pujanak zeukala argudiatuta³⁵⁵. Hurrengo bileran, Justori ohartarazpen bat egitea erabaki zen:

Se acuerda comunicar a D. Justo Pujana Goicoechea en representación de su padre Juan Cruz Pujana de que en caso de que llegasen a cesar por voluntad propia en el establecimiento Fonda del Pilar a Dña. Casilda Goicoechea Saenz de Viteri no se le autorizará su apertura por ser una señora propagandista antinacional³⁵⁶.

Edo, hamar hilabete geroago, udalbatzak soro baten inguruan hartutako erabakian atzera egiteko eskatuta, honakoa erantzun zitzaion herritar bati:

El ayuntamiento por unanimidad acordó no revocar el acuerdo anterior y dejarlo en firme la concesión de la heredad llamada, junto a la aduana de esta villa a favor del vecino de esta villa D. Esteban Amenabar Eguía, entendiéndose éste con la propietaria de la heredad con relación al pago de la heredad, y de ninguna manera pasará al disfrute del separatista Valentin Garaigordobil Mendiguchia, habiendo personas de reconocida solvencia derechista que quieran y necesiten con el sudor de su frente ganar el sustento para la vida³⁵⁷.

Udalean agintea Justo idazkariaren eskuetan zegoela jakinik, pentsatzekoa da udal-letik zetozen ekinbide errepreboetan parte hartze handia izango zuela, eta gure nagusien hitzek hori baieztatzen digute. Koldo Pildainek herriko idazkariaren jarrera erreprebo aktiboaren adibide anker bat ematen digu:

Sekretarioa ere okerra egon zen hemen. Ze, ni gogoratzen naiz ondo, gurean anaia zaharra, Pako, sartu zen Frantzian aeroplanoen tailer baten beharrean. Baina gero alemanek hartu zuten hiru egunetan Frantzia. Eta hark zer egin zuen? Muga pasatu. Otxandioko batek gurutzatu zuen berarekin, Isaias, eta ha libre. Eta bera, gorria zelako, Cadizera bialtzen dute Trabajadoreetara.

[Bertako nagusia, kasualitatez, herriko alkate ohiaren emaztearen neba. Gonzalez de Langarika abizena ikustean -"incendiario de iglesias" zeukan jarrita partean-]:

Nagusiak deitu:

– ¿Usted es de Ochandiano?

– Si.

– No, como es Langarika, ¿ya le conoce usted a Remigio Gonzalez de Langarika?

– ¡No le voy a conocer! Somos parientes.

– ¿Y cuántas iglesias ha quemado?

355. Elkarrizketa. Emilio Donado Urigoitia.

356. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1938-1-20.

357. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1938-11-10.

– ¿Iglesias? Que yo sepa, mi padre no me ha pegado más que una vez, y ella por dejar de ir a misa un domingo.

Ze meza eguna gurean sakratua zen. Eta han esan zion: “Ba, begira. Hauek ezagutzen dituzu?” Eta, “bai”. Ziren firma bi [herrikoena] eta sekretarioarena. Eta gero Otxandiora etorri zenean besteei esan egin zien –hauek denak jakinda daude–:

– Zuek zelan izan zarete kapazak?

– Guk ez dugu egin hori jakitun egonda. Hori, sekretarioak deitu eta; “Hauek paperak, hemen botatzue firma bana, ze orain ez daukat astirik. Eta gero hor zeozer ipini behar dut”. Eta guk firmatu, buenamente firmatu.

Eta gero hark, karta bota. KOLDO PILDAIN.

Florencia Lopez de Letona herriko neskei udaletik heldutako agindu umiliagarriaz akordatzen da:

Eta, garbitzen, neskak ekartzen zituzten. Gorri usaina, edo abertzale usaina edo edukitzen zutenak, garbitzen haiek etxeak. Dena zorritz apestatuta etorri ziren neskak, Me-koletakoak eta bertakoak, Marta, Dominga, Clara eta Jesusa... horiek denak, etxeak garbitzen. Por orden de... Paperagaz, aiuntamentuko ordenagaz. Ezin esan ezetzik ere han. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA ARRUABARRENA.

Botere erlijiosoarekin eta politikoarekin batera aritu zen botere ekonomikoa. Euskal Herrian zein Otxandion. Omegak alde eginda, herriko tailer handiena Vicinay zen. Francisco Vicinay karlista zen, baita Errepublikara garaian ere, baina orduan gorriak eta abertzaleak onartzen zituen bere lantegian. Gerra aurreko langile horietako bat, enkargatua gainera, Koldo Pildainen aita zen, abertzalea. Gerra ostean lanera bueltatu nahian agertu zitzaionean, Vicinayren erantzuna ezin argigarriagoa izan zen, Koldok dioskunaren arabera: *Orain txoriak beste errama baten kantatzen du*. Ez zen Koldoren aitaren kasua bakarrik, antza. Tailerrean ez zen herritar abertzale edo gorriarik onartzen, *karlisten semeak* hartzen zituzten langile³⁵⁸.

Koldoren anaia gorriak ere ez zuen lanik aurkitu Vicinayn Langile Batailoietatik bueltatu zenean, urte batzuk geroago. Pako Pildainek Gasteizera jo zuen lan bila, eta Aranzabalena hartu zuten. Berriz ere Justoren itzala mehatxuka, kasu honetan ondoriorik gabe:

Joan zen Bitoriara, Aranzabalera, ze horiek ziren PNVkoak. Baina hara ere Justok karta bota zuen, despeditzeko. Que no era “adicto al régimen”. Eta besteek erantzun zioten: “Hemen despedituko dugu guk nahi duguna. Hemen bere falta dugu, eta hartuko dugu”. KOLDO PILDAIN.

“Espainia desegin dutenek berreraikuntza ordain dezatela” logikari jarraiki, ondasunak konfiskatzea matxinoek garatu zuten tresna errepresibo instituzional garrantzitsuetakoa izan zen. Laster jarri zen abian makineria; 1936. urteko irailean argitaratu zen lehendabiziko dekretua, eta 37ko urtarrilean zabaldu zen, agintari lokalei parte hartzea emanez. Konfiskatze Delegazio Probintzialak hiriburuetako epaitegi berezien menpe zeuden, eta Bizkaia zazpi barrutitan banatua zegoen. Prozesuan pisurik handiena Falangeko egiturek eramaten zuten, eta antolakunde hau zen, halaber, jabetza aldaketen onuradun nagusia. Konfiskazioek ondasun pribatu zein kolektiboetara eragin

358. Elkarrizketa. Koldo Pildain.

zieten –jabetzak, lurrak, abereak, etxeak–, eta konfiskazioen biktimak pertsonak zein elkarteak ziren –komunikabideak, enpresak, herritarrak, sindikatu eta alderdiak...– Etxe partikularren kasuan, esaterako, ohikoa zen jabetza kendu eta gero beste pertsona batzuk sartzea bizitzen, alokairuaren dirua herrialde bakoitzeko Ondasunen Konfiskazio Komisioetara bideratuz³⁵⁹.

Otxandioarrek kontatutakoaren arabera, herrian ez zen konfiskazio askorik gertatu. Arazoa da ez dagoela, momentuz behintzat, honen inguruko dokumentazio zehatzik. Beraz, herriko nagusiek kontatutakoa eta udaleko akta-liburua ditugu informazio-iturri, beti ere mugatua.

Zalantzak konfiskazio kopuruaren eta motaren ingurukoak dira, egon zirela gauza ziu-rra baita. Otxandio oinperatu eta hiru hilabetera, 1937ko uztailaren 2an, udal-batzordea sortu zen Bizkaiko Ondasunen Konfiskazio Komisiotik zetozen aginduak betetzeko helburuarekin. Partaideak Juan Bautista Padilla, Meliton Usaola, Prudencio Bengoa, Julian Garaigordobil, Martin Amenabar, Ruperto Berrostelegieta, Tomas Elgea, Tomas Arrieta, Felix Biziola eta Francisco Vicinay ziren³⁶⁰. 1938. urteko apirilean Julian Garaigordobil alkatea proposatu zuen Udalak herrian konfiskatutako ondasunak administraziozko, *por ser persona de absoluta confianza tanto moral como política*. Baina ez da zehazten ze ondasun diren horiek³⁶¹. Udaleko aktetatik atera dezakegun datu zehatz bakarra Langarika Hermanos enpresaren makineriaren konfiskazioa da (Remigio Gonzalez de Langarika zen jabea, Errepublikara garaiaren alkatea izandakoa). Antza makineria Otxandiotik kanpora eraman zuten, Udalak 500 pezetaren truke herrira bueltan ekar-tzea proposatu baitzion Konfiskazio Epaitegiari³⁶².

Gure nagusiek ematen diguten informazioa bi kasutan zentratzen da batez ere. Estan-koa eta fonda.

Fonda zen honena, “Txikito” esaten zioten, ez dakit zelan zeukan izena. Matrimonio bat bizi zen hor. Sartu zen Pujana, eta akabo. Ademas, ez sartu eta zera, hori etxea dena, goitik hasi eta behera, euren izenean ipini zuten. Eta gaur estanko zaharra esaten diete-na, hori ere euren izenean ipini zuten. Hori ez zen euren. Baina hor ipini zuten estankoa, hor ipini zuten dena. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

Inkautazioak eta bai. Begira, Justoren etxea Justorena ez zen, eta bera egin zen gero jabe. EMILIO DONADO.

Jon Lasuenek ere akorduan du estankoarekin eta fondarekin gertatua, baita beste jabetza askorekin egondako gorabeherak ere. Arazoa da ez dugula ziurtasunez on-dorioztatzerik konfiskazio prozesu “legal” baten barnean egin ziren ala beste zergati batzuei erantzunez (negozioak irekitzeko baimenen kasuan, esaterako):

359. EGAÑA, I. ETA BESTE ZENBAIT. 1936. *Gerra zibila* (VII. liburukia). 1. arg. Andoain: Aralar, 1999.

360. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1937-7-2..

361. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1938-4-23.

362. Otxandioko Udal Agiritegia / Udal Bilkuren Aktak / 1938-11-26.

Tanalorenek hartu zuten estankoa. Ze estankoan egoten zen Nicolas Unzalu, orain BBK dagoen tokian. Han egoten zen estankoa, Trini eta. Eta horiek gerra denboran, punba! Harrapatari, horiek ere.

(...)

Gero etorri zirenean, akabo. Hemen harrapatariak denak. Fijatu zaitez. Batzokia hartu zuen Navarrok edo, Pitxonenak taberna, Justok hau. Berarena ez zen. Sautuarenak horra pasatu ziren, orain nesken taberna dagoen lekura. Hori Kapanagarena zen, Fernandoren familiakoa. (...) Karnizeroak, denak kanpora. Navarro hemen ugazaba egin zen. Hori izan zen Tobias Landaluzerena. Nicanorrek eduki zuen harategia, hori Tobiasena izan zen, etxe osoa. Eta joder... Navarro hantxe sartu zen, erreketea zen, eta, sartu zenean, hemen geratu zen. Zu, nik ez dut ulertzen hori, frentean, etorri eta zu, harrapatari. Mari "Pitxon" eta horiek ere sartu ziren "por la jeta", fondan ere bai... JON LASUEN.

Lur-jabetzen inguruko aipamenik egiten digun bakarra Tomas Lopez de Letona da, baina kontatzen digun moduan abadeen ekimen pertsonala ematen du gehiago:

Lurraz jabetu ziren abadeak, jabe egin ziren haregaz. Etxe berriak eginda daude Iturri-zarren, eta ha terrenoa zen berez Melitonena eta, errotarena. Baina paperik ez edo, eta abadeek egin zuten euregandu. Ha bai. Horiek okerrak ziren. TOMAS LOPEZ DE LETONA.

Debekuak eta mugak asko izan ziren. Batzuek gerra egoerarekin zuzenean lotuta zeuden, eta gerra amaitzean malgutu edo kendu egin ziren. Beste batzuk matxinadaren erroekin zeuden lotuta, eta gerora ere iraun egin zuten. Lehenengoan artean, batetik bestera mugitzeko zailtasuna aipatu dezakegu. Mugitu ahal izateko baimena behar zen, eta horretan ere aukerak ez ziren berberak guztientzat Mari Carmen Urigoitiak gogorarazten digunez: *Salbokonduktoa, edo hau edo bestea... Eta gorria edo abertzalea izanez gero igartzzen zen bai, igartzzen zen.* Tomas Lopez de Letonari gaiak gertaera lazgarri bat dakarkio gogora:

Hau, Jose Mari, han bizi da, mutil zaharra. Horrek begian jo zuen narragaz, eta Durangora eroan behar. Behar zen abadeek emandako salbokondukto bat, eta ez doazela ematen. Ezin litekeela joan Durangora, ez doazela ematen. Baten batek esan ei zion: "Zelan ezin dela joan? Hartu eta eroan egin behar dugu mutila. Holan ezin da egon begi horregaz". Eroan zuten, eta ordurako begia galduta, hiru-lau egun tardatu zuten eta. Esan zieten: "Ay, si hubiera venido el primer día, le hubiéramos operado y hubiera ido todo bien, pero ahora, adiós". Begi barik geratu zen. Salbokonduktoa behar zen edonora joateko. Joder, horiek ziren jefoak, abadeak. Abadeak eta aiuntamentua. TOMAS LOPEZ DE LETONA.

Geratzeko heldu ziren debekuen artean, euskaraz hitz egiteko debekua dugu. Arlo honetan, eskolak paper garrantzitsua izan zuen, bere betekizun garrantzitsuenetariko bat Euskal Herrian euskaldunak erdalduntzea izan baitzen. Baina gure hizkuntza eskolan ez ezik kalean ere debekatu zen. Euskaraz hitz egiteak isuna jasotzeko arriskua zekarren. Herritarrek bazekiten nolako ezinikusia zioten altxatuek euskarari. Pedro Orue Errastik, artean ez zituen 8 urte beteta, baina herriko gizonak gogoratzen ditu elkarrekin berbetan matxinoak Mekoletara heldu aurreko gauean: *Erdaraz egin behar dugu berba, erdaldundu zaitez.* Bazuten motiborik:

Hemen mutututa. Edozeinek "habla cristiano", euskaraz entzun orduko. Baina guk familian euskaraz egiten genuen. Bai, bai, bai, debekatuta zegoen, joder, guardia zibilekin orduan "rigurosidade" handia zegoen. FLORIAN KAPANAGA.

Koldo Pildainen ama eta Paulina Askorbebeitia etxeko sukaldean ari ziren euskaraz, eta halako batean Espainiako himnoa entzun zen, matxinoek hiri garrantzitsuren bat hartu zutelako:

Hemen jotzen zeuden himno nazionala, plazan. Eta Luis “Tanalo” suertatu zen Kruzero aldetik etorrita, eta euskaraz entzun zituenean, eta bestean el himno nacional, bie deitu eta eskua gora altxatuta [agur faxista eginez] plazaraino ekarri zituen. KOLDO PILDAIN.

Arazoa lehenengo begiratuan dirudien baino sakonagoa da. Otxandioar guztiak ziren euskaldunak, karlistak ere bai, eta askok gainera ez zekiten gaztelaniaz³⁶³. Lourdes Kapanagak surrealizatzen jo dezakegun jazoera bat dakarkigu, aldi berean 1936ko gerrak Euskal Herrian zuen izaera bereziaren erakusgarri dena:

Santosen aita eta ama, gorri denboran, Otxandiotik bialdu egin zituzten, eta egon ziren Bilbon. Gero etorri ziren. Jende ona, e! Baina karlistak. Egun batean badio Santosen amak... Otxandion, badakizu, orain ere jendeak deiadarka deituko dio batak besteari. Eta: “Santos! Etorri bazkariten!” Presentatzen zaio bat eta:

- Señora, 5 pesetas de multa.

- ¿Ahora qué he hecho yo, pues?

- 5 pesetas de multa por no hablar cristiano.

Ez zizkion orduan kendu. Baina heldu zitzaion eta pagatu egin behar 5 pezeta. Eta orduan asko zen, e! Eta horrelakoak asko. LOURDES KAPANAGA.

Isunak ez ziren soilik euskaraz egiteagatik jartzen. Errepresioaren beste bitarteko bat ziren, kasu honetan ekonomikoa, eta zigortzeko arrazoiak askotarikoak ziren. Mateo Axpe Arrieta otxandioarrak bost ez, orduko 250 pezeta ordaindu behar izan zituen, *por asistir a una manifestación no autorizada con pretexto del entierro del capitán de gendaris Juan Agirre Lejarza, cuya multa la hará efectiva en el plazo de cuarenta y ocho horas*³⁶⁴. Ez dakigu zenbat diren, baina 1938an alkateak ezarri zituen isunak kobratzea erabaki zuen Udalak. Zergatia? Arrazaren Egunean lan egitea³⁶⁵.

Baina bidegabeak ziren legeak edo galtzaile-irabazle dikotomia muturrera eramaten zutenak aztertuta ere, azterketa hutsa hankamotz geratzen da orduko zapalkuntza giroa behar bezala adierazteko. Eskola, eliza, moralak, ideologia, berreroekin bizi beharra, irabazleek mespretxuak... Egunerokotasuna bera bihurtu daiteke itogarria. Garai-leen aldeko ez den oro markatzen duen *errepresio sozialak* ari gara³⁶⁶.

Gerrak bazirauela elizako kanpandorreko musikak gogorarazten zien Otxandioarrei. Euskal lurretan izan zein urrunagoetan, kanpaiek matxinoen garaipen bakoitza os-

363. *Cecilio Astolak ez zekien erdaraz, tutik ere ez. Manifestazio bat egon zen soldaduen, kale guztian, eta zarata handia. Esaten zuten “¡Franco sí, Rusia no! ¡Franco sí, Rusia no!” Uribarrean bizi zen Cecilio, eta buelta egin eta alde egin zituenean esan zuen: “Juanita, aditu duzu zer esaten zuten?” “Mariñaxi ta Luziano!” MARIA PILAR OLASO.*

364. Mateo Axpe Arrietaren alabak helarazitako dokumentua.

365. Otxandioko Udala Agiritegia / Udala Bilkuren Aktak / 1938-12-17.

366. AIZPURI, Mikel. “Zapalkuntza-politika gerran eta gerraren ondoren. Errepresioa, heriotza eta bortxakeria bi aldeetan”. In: ERRAZKIN AGIRREZABALA, M. eta AGIRRE-MAULEON, J. *1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*, 1. arg. Bilbao: UEU, 2009; 49-68. or.

patzen zuten, eta jarraian txapelgorriak irteten ziren manifestazioan herriko kaleetan zehar. Horrela du gomutan Jon Lasuenek³⁶⁷, baita herritar gehiagok ere:

Akordatzen naiz, “Gernika aldean ez dakit ze herri hartu dute!”, eta kanpaiak jotzen zituzten. Karlistak. Trini estankokoa eta, elizara eta... txapel gorriakaz ibiltzen ziren kalean. ANDRESA LOPEZ DE LETONA.

Frankistek okupatzen zutenean, esaterako Bartzelona, egiten zuten elizako kanpaiak jo, eta jendea bertara joan zedin, desfile bat egiteko. EMILIO DONADO.

Akordatzen naiz ni, herriren bat edo hartzen zutenean kanpaiak jotzen joaten ginen kanpandorrera (...) Eskolatik irteten eta “Cara al sol” kantatu baino ez genuen egiten. Eta eskolan ere Espainiako Historia gehiena. Zeozer ikasten genuen, baina gehiena arratsalde guztietan Historia de España, holantxe. FLORIAN KAPANAGA.

Eskola izan zen frankismoaren ikur nagusietako bat. “Espiritu nazionalen” hezteko oinarrizko tresna: “Cara al sol” abestu, Espainiako Historia landu, Francoren figurari gorazarre, gaztelera, balore kristau atzerakoiak eta beste. Gerra garai honetan, gainera, eskolan ez ziren eduki eskuindar eta espainolista sutsu teorikoak soilik lantzen. Formazio militarra ere irakasten zen, herriko plaza nagusian, jendaurrean eta egunero:

Eskola hasi zen... izango zen 38a, ez dakit. Gerra aurretik ez genuen errekreorik eta ezer. Eskolak ez zuen patiorik ez ezer. (...) Ateratzen gintuzten plazara, formazioan ipini eta instrukzioa egiten. (...) Eskolara sartu baino lehenago, paratzen ginen eskola aurrean, mutilak alde batean, formatuta, eta neskak bestean. Bakoitzak bere bandera espainola aurrean. Kantatzen genituen han “Cara al Sol” eta inon direnak. Hori eskolara sartze orduan, eta irtete orduan, goizez eta arratsaldez. Militarren moduan ibiltzen ginen. LOURDES KAPANAGA.

Con la escuela se hicieron muchas cosas. Buenas, pocas. Eskolan martxan hasi eta joaten ginen elizaraino. Eta elizan Franco gora Franco behera, Franco gora Franco behera. Holantxe ibiltzen ginen. JOSE LUIS OLASO.

Nire edadeko mutil guztiak jartzen gintuzten plazan, makila bana eman eta makila haregaz instrukzioa eragiten ziguten, aiuntamentutik pelotalekura. Luis “Tanalo”-k gidatzen zuen, txistu batez, “piii-piii ¡media vuelta!” Soldadu joan ginenerako, guk instrukzioa ikasita geneukan. Egunero egiten zen, ordubete edo bi eta gero etxera, listo. 14-16 urteko mutilak. TOMAS LOPEZ DE LETONA.

Otxandioarrek beste hamaika kontakizun dituzte bestelako gertakariekin. Baina bada go hitz bat hainbatetan aipatzen dutena gure nagusiek orduko giroaz ari zaizkigunean. *Isilik*, irakurri diogu hirutan Florian Kapanagari aurreko aipu batean³⁶⁸. *Isilik egon behar*, diosku Juan Padillak³⁶⁹. *Zu isilik! Geuk agintzen dugu orain eta!*, esan zioten Florencia Lopez de Letonari. *¡No tener más opción que callar!*, amorratzen da Miren Libe Lasuen. Eta abar:

367. Elkarrizketa. Jon Lasuen Goikolea.

368. Elkarrizketa. Floriano Kapanaga Gziz de Langarika.

369. Elkarrizketa. Juan Padilla.

Miguel Orue ipini zuten alkate, abadeen anaia, eta Gorostiza familiak ipini zuen denda. Eta kilo bat ipintzeko esan, eta 800 gramo ipini, eta “Ene, 800 bakarrik ipini dituzu eta!” “Zu, ixilik! Geuk agintzen dugu orain eta!” Holakoxe zerak. Mila gauza holakoak. FLORENCIA LOPEZ DE LETONA.

Cuando volví a Otxandio, tiempo después del bombardeo, lo peor era escuchar a los “ganadores”. Nos decían que ya sabíamos que iban a tirar las bombas, que ya lo habían puesto en los papeles que tiraron el día antes... Ante semejantes cosas, habiendo perdido en Andikona al padre, dos hermanos y tres primos, ¿no tener más opción que callar...! MIREN LIBE LASUEN GOIKOLEA³⁷⁰.

Ezin zen berba bat ere altuago egin. Hori ere ikasi genuen. Denborarekin, ikasi genuen. KOLDO PILDAIN.

Horiek okerrak ziren. Garmendia preso egon zen, Burgosen pentsatzen dut. Eta hango zerak eskatu: “Bueno, pida usted la conducta suya al pueblo”. Eskatu, eta bialdu zioten kondukta bat eginda, Don Lorentzok eta Don Pablok eginda, eta “asaltador de huertas” ipini zioten. Badakizu zergatik? Ba, jardina zeukaten horiek, eta makatzak edukitzen zituzten, eta makatzak batzuetan kanporantza, eta egunen baten makatza hartu du eta abadeak ikusi... ¡Asaltador de huertas! Hori polita, e? Gero hango jeferen batek edo esan zion: “¿Usted qué ha hecho en el pueblo, Lucio?” “Yo, nada. En el jardín del cura al pasar algún día cogí alguna pera, dos o tres o las que sean”. “Coja usted la maleta y la ropa, y márchese para casa inmediatamente”. TOMAS LOPEZ DE LETONA.

Orduan etxe guztiak hutsik egon ziren eta... Hau, Pedro Larrañaga, aguazila izan zena... Langarikaren etxea eta Langarikaren trajea jantzita, eta besteen kontra, zu! Eduki zituen traje guztiak, denak eroan zituzten, Jose Martinenak eta... denak. Hori izan zen harrapatari!. JON LASUEN.

Klaro egon zela arazorik. “Gorriak zarete zuek, gorriak zarete”, “rojos-separatistas” esaten ziguten. Guk jakin ere ez orduan zer zen rojos-separatistas. Poliziak eta ez, bertako jendeak. MARI CARMEN URIGOITIA.

Abusatu zuten bastante. Urte batzuetan abusatu zuten bastante, bai. Gero astiro-astiro normalizatu zen, baina abusatu zuten bastante. JUAN PADILLA.

Isilik egon behar. Orduko denboran isilik egon behar zen. Ostantzean... joder. Elementu ederrak egoten ziren hemen Otxandion. JUAN JOSE GARMENDIA GARMENDIA.

Testigantza gogor hauen artean lasaitasuna eta errespetua adierazten zuten beste batzuk ere heltzen zaizkigu tartekatuta. Gorri edo abertzale izanagatik arazo larririk ez zutenena, eztabaidatik pasatzen ez ziren ika-mikak, karlistak eta abertzaleak nahastuta eta giro onean zituzten koadrilak... Lourdes Kapanagaren ama, esaterako, abertzalea zen, baina ez zuen jazarpen larririk pairatu, *Baina halako piketxoa bai egon zen*³⁷¹. Jose Luis Olasok ez du abertzale-karlista arteko giro okerrik oroitzen orduko neska-mutikoen artean³⁷². Tomas Lopez de Letonaren koadrilan abertzaleen artean

370. BERAZATEGI, I. eta DOMÍNGUEZ, J. 1936 *memoria de la guerra en Euskadi*, 1. arg. Bilbao: Radio Euskadi, 2006; 237 or.

371. Elkarrizketa. Lourdes Kapanaga.

372. Elkarrizketa. Jose Luis Olaso.

karlista bakarra zegoen, Gregorio Ajuriagerra³⁷³. Ez dira hori aditzera ematen diguten bakarrak:

Batzuk ziren erreketek, eta beste batzuei gorriak esaten zitzaizkien. Hemen alde bietakoak egon ziren. Mekoletan ez zen egon hainbeste ikusezin edo... Egon zen erreparatzea edo gehien ere beldurra. Gorrien aldekoek beldurra, beste leku batzuetan pasatu zirengatik, heriotzak eta kartzelak eta... Baina Mekoletan ez. Denek egiten zuten berba. Gainera, orduan denboran egiten zen auzolana. (...) Baten bat gaixorik edo beharrak egin ezinda bazebilen, hari ere lagundu eta, bastante ondo. PEDRO ORUE.

Nik pentsatzen dut nahiko trankila izan zela dena [frankistak heltzean errepresioa]. Bai, posturik onenak hartu zituzten, baina osterantzean... Bai igartzen zen, "guk irabazi egin dugu" eta "gu gara gehien", hori bai. LOURDES KAPANAGA.

Ezin dira gure ustez horiek eta aurreko errepresiozko testigantzak berdindu. Batetik, kopuruan desoreka nabarmena dagoelako. Bestetik, lekukook umeak zirelako orduan, eta haurtzaroak gertatzen ari denarekiko ikuspegia baldintzatzen duelako. Nekez helduko ziren eurengana gurasoen arteko ezinikusiak, ideologikoak edo pertsonalagoak. Gainera, belaunaldi horretako gurasoek jarrera bera hartu zuten hainbatetan gerraren inguruan. Isiltasuna:

Orduan isilik egoten ziren gauza asko. Aitak eta amak ere, igual ez zizkiguten guri esango: "olgotu egizue umeak, ze zuek gauza hauek ez dituzue jakin behar", eta guk olgotu. Igual aitari eta amari esango zieten zeozer baten batek. Baina guk zer jakingo dugu, ba, zer esaten zieten? Ze guri aitak eta amak ez ziguten ezer esaten eta. (...) Aitak eta amak jakingo zuten gauza asko baina, igual guri esan ere ez, orduko denboretan denak ziren sekretuak eta isilik egon behar, inor enteratu ez zedin. MARI CARMEN URIGOITIA.

Dena den, ez litzateke zuzena hitzoi balore guztia kentzea ere. Errepresio errepublikanoaren atalean esan dugunak oraingo balio diezaguke. Otxandion bi aldeek erabili zuten errepresioa, baina ezin ditugu inolaz ere bata eta bestea berdindu, izaeragatik eta sakontasunagatik. Jose Luis Olasok bere oroitzapenak laburbiltzen dizkigu:

Ikusi genituen barbaridade batzuk! Batzuek dirua gura adina, beste batzuek ezer ez... Batzuek gura adina jan, eta beste batzuk goseagaz... Batzuk ederto jantzita, eta beste batzuk kaka. Holantxe zen, bai. JOSE LUIS OLASO.

Amaitzeko, ekarri ditzagun bestelako testigantza batzuk orriotara. Galtzaileek *isilik* egon behar izan zuten, bidegabekeria baten aurrean *orain guk agintzen dugu* entzun behar hamaika aldiz. Oztantasuna eta egoeraren onarpen etsia nagusitu ziren, dudarik gabe, baina beti gelditzen ziren erresistentziarako eta duintasunerako gordelekuak, txikiak izanik ere.

Egoten ziren zipi-zape batzuk beti ere, "E! Hori gorria da eta...!". "Txanberri" [Julian Garaigordobil] alkatea zen, okerra ha ere... Eta Antonio Bengoa, Antonio "Geijen", hil zen ba, mutil zaharra, nire laguna. Egunen batean, ez dakit zelan, diskusioren bat izango zuten edo, "isilik egoten ez bazara ziega barrura sartuko zaitut, e!". Okerra, bai. "Gorritzar hori!", esaten zion, "Gorritzar hori!". Horrelako zer batzuk, zipi-zape batzuk egoten ziren

373 Elkarrizketa. Tomas Lopez de Letona.

bai, tabernetan-eta diskusioak-eta... Aitzurrak, karlistak alde batera eta besteak bestera eta, bueno... TOMAS LOPEZ DE LETONA.

7 edo 8 urtean ez ziguten eman ezer [pentsiorik aita hilik egoteagatik]. Gero erreklamatu egin genuen. Justo [Pujana] zen kapitain jeneral hemen. Nik Gizarte Segurantzian lagun bat neukan, eta esan nion: "Hauxe pasatzen zait niri". "Erantzungo dizut". Mutil majoa. Handik egun bira edo deitu zidan Bilbora: "Zu, eskubidea duzue kobratzeko". Joder! Bronka bat izan nuen Fondan, Justogaz! La leche! "Txist! Papera hemen dago". Solizitatu nuen, tramitea, gero zitatu, erantzun gero, urte horretako aurrekontuak itxita zeudela, hurrengoan... Luzatu! Ha ere luzatu! Gero urte guztietan pagatzen zuten zeozer, txakur haundi batzuk. Baina eskubidea zuen hasieratik, funtzionarioa zelako. JON LASUEN.

Gero, polita izan zen... Gerra ostean Don Lorenzo eta Don Pablo abadeak ziren hementxo jefekoak. Aitak: "Mezatara joan beharko dugu..." Bueno, eta joan ginen mezatara. Mezatatik irten eta Luis "Tanalo" eta ez naiz gogoratzen bestea nor zen, holako kutxa handi batzuk zeuzkaten txapel gorriekin. Eta mezatatik irten eta txapel gorria ipini, beltza zeukatenei ha kendu eta gorria ipini. Badakizu zer asmatu zuen gure aitak? Zubira heldu ginenean bera "txapel gorri honegaz ez nauk joango ni etxera, ez!" eta harria barrura sartu eta pon! Putzura, barrura. Etxera, eta amak: "Aita, zer, txapela?" "Elizan galdu dut". "Elizan txapela galdu?" Barre. Halako baten komentatu zion zer pasatu zen eta, bale. Urteetan ez zen agertu aita mezatara. Hango Mekoletako agure guztiak, Gregorio eta Martzel eta, denak txapel gorriekin egoten ziren. Aitak, ailegatu ginenean lehengo egunean, "Zer? Hauek kaminero ipini dituzte, ala, txapel gorriekin?". Holako kontuak. TOMAS LOPEZ DE LETONA.

Domeketan, hementxe, Axperen etxe aurrean, formazioa egiten genuen, meza nagusira joateko. Goizetan, komunioa eginda zeudenak, zortzietako mezatara komulgatzen, obligatorio. Eta gero formatu hor, bandera nazionala aurrean hartu batek, eta elizara, en formación. Eta baten Bittor Urigoitiari eman zioten bandera eroateko. Eta besteak zer egin zuen? Bandera hori hartu eta bota. Mekaguen! KOLDO PILDAIN.

Hemen mutututa. Edozeinek "habla cristiano" euskaraz entzun orduko. Baina guk koadri-lan euskaraz ere beti egiten genuen. FLORIAN KAPANAGA.



Sebastian Astola eta taldekideak metrailadorearekin, Katalunian borrokan



Sebastian Astola langileen batailoian. Maroko.

... y de las J.O.N.S

... de Local
... -

OCHANDIANO

Feliciano Biziola
falangeko Otxandioko
nagusiak Bizkaiko
Aldundirako egindako
txostena, Marcos
Apodaka herritarraren
idea politikoen
inguruan

En contestación al oficio recibido de esa
Excm. Diputación, de fecha 4 del ote., declaro
que el vecino de esta, Marcos Apodaca, peón camine-
ro, por referencias que tengo por fidedignas, no
se le han conocido actuaciones antipatrióticas o con-
trarias al Movimiento Nacional, pero su filiación
ha sido de nacionalista vasco, votando siempre por
estos, sin que pueda precisar si estaba o no afiliado
a dicho partido.

Dios salve a España y guarde a V.E. muchos
años.

Ochandiano 13 de Septiembre de 1937

El Jefe Local. II año Triunfal.

Feliciano Biziola

Mateo Axpe
Arrieta
otxandioarrari
ezarritako
isuna.

ESTADO PAUZO AL ESTADO

1ª CLASE 100 PESETAS *Parte superior para entregar al interesado.*

A 49362

Corresponde a la multa de DOSCIENTAS CINCUENTA PESETAS
impuesta a MATEO AXPE ARRIETA, por asistir a una manifesta-
cion no autorizada, formada con pretexto del entierro del
Capitan de Gudarís JUAN AGUIRRE LEJARZA.

Durango 5 de Septiembre de 1939
Año de la Victoria
El Comandante puesto

[Circular stamp: GOA CIVIL, Durango, 5 de Septiembre de 1939]
[Signature]

1ª CLASE

Excmo Sr. Presidente de la Diputación de Vizcaya
Excmo Sr.

El abajo firmante Andrés Ajouria y Basaguren de 37 años de edad, estado casado y con domicilio en Ochandiano calle Carnicería, a V.E. con el mayor respeto expone:

Que, habiendo estado perseguido y expulsado durante 11 meses por las bordas rojo-separatistas, por sus ideas Tradicionalistas y por lo tanto entusiasta defensor del Glorioso Movimiento Nacional.

Suplica, de su bondad le sea concedida una plaza de peón caminero de Ochandiano, en la seguridad de que sabrá cumplir con su obligación para engrandecimiento de nuestra querida Patria.

Favor, que no duda alcanzar de la bondad de su corazón cuya vida Dios guarde muchos años.

SEGUNDO AÑO TRIUNFAL

Bilbao 17 de Agosto de 1.937

Andrés Ajouria

¡VIVA ESPAÑA! ¡SALUDO A FRANCO! ¡ARRIBA ESPAÑA!

Qualamos
R. Marilla

CERTIFICAMOS: La Oficina de Auxilio y Socorro de Ex-Procesados se complace en manifestar que la persona que suscribe la presente instancia fue compañero en nuestro tránsito por esas prisiones y es de confianza absoluta para nosotros.

Presidente Accidental



Lorenzo Orue herriko apaizak udal epailearen aurrean egindako deklarazioa, herritar baten "ideia politikoez eta propaganda abertzaleaz".

Frankistenganako atxikimendua frogatu beharra zegoen lana lortzeko.

En la villa de Ochandiano a veintiocho de Julio de mil novecientos treinta y siete, ante mí el Juez Municipal, D. Ramón Bengoa Zubero, y D. Justo Pujana Goicoechea Secretario accidental, comparece, previa citación, D. Lorenzo Orue Pujana, párroco de esta villa de Ochandiano, en virtud de mandamiento del Auditor del Ejército de Ocupación y en su nombre el Juez Militar nº 36 de Bilbao, para declarar sobre las ideas políticas y propagandas nacionalistas, que haya podido hacer el Ingeniero Director de Caminos, Dn. José Martín González de Langarica.

Manifiesta a preguntas más que desde el año 1.936 que regenta la parroquia de esta villa de Ochandiano, no ha observado en José Martín González de Langarica idea política alguna; que conoce a dicho Sr. desde muy joven, pues ha convivido con él desde que surcaban sus estudios; sin que haya notado en él inclinación por partidos políticos; que a su juicio, si hubiese querido hacer hacer propaganda nacionalista, ha tenido muy buenas ocasiones para ello, sobre todo, cuando la construcción última de las carreteras a las barriadas de Mocoleta y Olata de esta localidad, que personalmente dirigió, sin que a ningún aldeano se hiciera por parte de él indicación alguna en ese sentido; que, por último, le parece que no se le debe confundir a dicho Sr. con sus hermanos por ser completamente distinto a ellos."

Leída la presente acta e invitado al declarante a que lo hiciera por el signo, si así lo creía conveniente, se estampó en ella el sello del Juzgado Municipal y la firmó conmigo el Juez, el Declarante D. Lorenzo Orue Pujana, de una po, el Secretario accidental, Dn. Jd.

Ochandiano a 28-7-1937

AZKEN HITZA

Iragana iraganeko kontua ote? Edo orainean, gure artean presente al dugu iragana? Eta iragana orain eta hemen, gaur bizi badugu? Bizi bagaitu? Are gehiago. Eta etorkizuna iraganez beterik baletor?

Ziurrenik historiara hurbildu nahi duen edonork bere buruari egin beharreko galderak, ematen zaien erantzunaren arabera iraganera hurbiltzeko zioak eta helburuak oso ezberdinak izango baitira. Historia denbora pasa izan daiteke, jakin-min intelektual hutsa asetzeko bidea, iragana baina soilik iragana berridazteko saiakera, isildutako memoria kolektiboa berreskuratu nahia, egungo gizarte ordenaren betikotzerako edo eraldaketarako bitartekoa, etorkizun berriak eraikitzeko lanabesa eta abar luze bat.

Galderon pisua areagotu egiten da Euskal Herria eta 1936ko gerra baditugu aztergai. Ba al dugu egungo Euskal Herria, egungo Otxandio ulertzerik gerra eta bere emaitza kontutan hartu gabe? Bestela galdetuta: Egungo Otxandio berdina litzateke Gerra piztu ez balitz edo orduko galtzaileak irabazle gertatu balira? Ez dugu ze Otxandio genukeen jakiterik baina, zalantzarik gabe, beste bat litzateke.

Galderoi hamaika modu ezberdinetan erantzun zaie denboran zehar, eta otxandiotarren artean ere iritziak askotarikoak dira. Lan honek hauetariko bi behintzat entzuteko aukera eman zigun. Elkarrizketatu dugun otxandioarretako baten etxean geundelarik, grabazioaren aurretik, aiteitaren suhiak gure lanaren zentzu ezaz aritu zitzaigun. Iragana iragana dela esan zigun, eta orainaldira ekarri nahi genuen iragan hau gainera oso urruti geratzen zela, urrutiegi, eta oraingotzearen ondorio bakarra alferrikako minak berpiztea izan zitekeela. Egun batzuk beranduago, kamera itzali osteko berriketan ari ginen laurogei urteak beteak dituen amamarekin. 70. hamarkadaren bukaeraz geroztik bere semeetako bi ikusi ezinik dagoen emakumeak zera bota zigun, bere belaunaldiak 1936ko gerran eta gerraostean pairatu zuenaz, *iraganaz* finean, itauntzen geniolarik: *Eta ia noiz bukatzen den.*

1936ko uztailean matxinatu zirenak gairdiezineko bi marra gorri ezarri zituzten gerra irabaztean: Estatuaren batasuna eta kapitalismoa. Hain zuzen, ematen ari zen gizarte eraldaketak muga horiek gaindituko ote zituen beldurrez altxatu ziren armetan boterearen kontra. Horregatik matxinatu ziren, horregatik deitu zaie matxino lan honetan.

Eskuindar kontserbadoreak matxinotzat hartzea harritu egiten ditu asko. Baina, hori da gertatu zena. Militarrak, karlistak, Eliza, botere ekonomikoa eta politiko eskuindarrak hautestontzietatik sortutako botere legalaren kontra errebelatu ziren armez. Eta ez da hau gertatu den aldi bakarra.

Irakatsi diguten historian, indar ezkertiarrek izan dira beti boterearen kontra bortizkeria baliatuz matxinatu direnak. Baina eskuina eta kapitalistak, botere legala galdu

duten aldi bakanetan ere oldartu dira armen bidez. Eta ez soilik ezkerak boterea biolentziaren bidez erdietsi duen kasuetan, baita bozka bidez eskuratu duenean ere.

Bitxia benetan historiaren eta historialarien hutsunea: historian zehar errepikatu egiten diren gertaerak identifikatu, aztertu eta sailkatzeko hainbesteko zaletasuna erakusten duen zientzia izanik ere, ez da kapaza izan hain fenomeno argiaz ohartu eta hau aztergai bihurtzeko: demokrazia kapitalistetan, bide demokratikoak erabilia ekonomia politikaren zerbitzura jarri nahi izan dituzten gobernu ia guztiek indar kapitalista demokratikoek bultzaturiko estatu kolpeak pairatu dituzte. Bai kapitalismoarekin bukatu nahi zutenak, bai kapitalari muga erreformista soil batzuk jarri nahi izan zietenak ere. XX. mendeak zein hasi berri den XXI.ak adibide asko utzi dizkigute: Brasil, Guatemala, Txile, Indonesia, Iran, Estatu Espainola, Argelia, Venezuela, Palestina... Orduan EEBBetako kanpo politikaren arduradun nagusia zen Henry Kissingerrek ezin hobeto laburbildu zuen guzti hau Allenderen kontrako estatu kolpean munduko demokrazia kapitalista nagusiak izandako esku-hartzea argudiatzean: *Ez dakit zer dela eta egin behar dugun ez ikusiarena herrialde bat hango herritarren axolagabekeriaren ondorioz komunista bilakatzen dela ikusita. Kontu horiek garrantzitsuegiak dira Txileko boto emaleek euren kabuz aukera dezaten uzteko.*

Historiak erakusten digu demokrazia kapitalistetan gaindiezineko marra ez direla demokrazia eta bide demokratikoak –bide baketsuak eta bozka bidezko ordezkariak, kapitalismoa baizik. Horregatik egiten zaio gerra eraldaketa armatu “antidemokratikoari” zein eraldaketa “demokratikoari”; gerra hasiera bateko Sobietar Batasunari edo Kubari, gerra Allenderi edo Frente Popularrari. Horregatik ez zaio gerra egiten ez kapitalismo “demokratikoari” ez kapitalismo “diktatorialari”; ez Estatu Batuei, ez Saudi Arabiari.

1936ko gerra beste adibide bat dugu. Bozka bidez maioria eskuratuta heldu zen ezkerre boterera, eta armen bidez kanporatu zuen eskuin kapitalistak. Estatu Espainolaren kasuan gainera bigarren gaindiezineko marra bat gehitu behar dugu: batasun nazionalarena.

75 urte pasa dira. Hasierako galderei helduz, ba al dago, 2011. urtean, 1936ko eskuinaren matxinada ekarri zuten muga hauek gaintzeko eskubiderik? Ba al dago, gehiengo batek horrela adostuz gero, Estatuaren lurraldetasuna edo eredu ekonomikoa mugarik gabe eraldatzerik, lerro gorrien zaintzaileak matxinatu gabe? Hango edo hemengo, atzoko edo gaurko Kissingerrak, gai garrantzitsuegietan arduragabekia handiegia erakutsi dugula pentsatuko ote dutenaren beldurra izan gabe?

Eta iraganak bizi bagaitu? Eta etorkizuna iraganez beterik baletor?

Bibliografía

- A. MAIER, Klaus. Guernica 26-4-1937. *La intervención alemana en España y el caso Guernica*, 2. arg. Madril: Sedmay, 1976.
- AGUIRREGABIRIA, Josu M. eta TABERNILLA, Guillermo. *El frente de Álava. Primera parte. De la sublevación a vísperas de la batalla de Villarreal*, 1. arg. Bilbo: Ediciones Beta, 2006.
- ÁLVAREZ ROYUELA, Ricardo. *Guerra de España 1936-1939. Testimonio de un militar de la República*, 1. arg. Hondarribia: Hondarribiko Udala, 2007.
- AMILIBIA, M. DE. *Los batallones de Euskadi*. 1. arg. Donostia: Txertoa, 1978.
- AIZPURU MURUA, M. "Gerra Zibila Euskal Herrian. Bide berriak: Legutioko erasoaldia", In: *Uztaro*. 67.zbk., 2008. 33-56.
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA. *Proyecto de investigación y localización de fosas de las personas desaparecidas durante la Guerra Civil*. Eusko Jaurlaritza. Justizia, Lan eta Gizarte-Segurantzza Saila. Giza Eskubideen Zuzendaritza. 2008.
- AZKUE, K. Irrintzi. *Grito de libertad* (I. liburua), 1. arg. Bilbo: Editoriala, 2006.
- BARANDIARAN, J.M. *La guerra civil en Euskadi*, 1. arg. Bilbo: Bidasoa, 2005.
- BELDARRAIN, Pablo. *Historia crítica de la guerra en Euzkadi (1936-37)*, Bilbao: Autoedizioa, 1991.
- BERAZATEGI, I. eta DOMÍNGUEZ, J. *1936 memoria de la guerra en Euskadi*, 1. arg. Bilbo: Radio Euskadi, 2006.
- CHUECA, Josu eta FERNÁNDEZ, Luis. *Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian*, 1. arg. Donostia: Egunkaria, 1997.
- DE AMORRORTU, Sebastian eta Semeak. *Informe sobre la Guerra Civil en el País Vasco*. Diciembre, 1937, 1. arg. Buenos Aires: Buenos Aires, 1938.
- ECHEANDIA, J. *La persecución roja en el País Vasco: estanpas de martirio en los barcos y cárceles de Bilbao: memorias de un ex-cautivo*, 1. arg. Bartzelona: Fidel Rodriguez Ed., 1945.

- EGAÑA, I. ETA BESTE ZENBAIT. 1936. *Gerra zibila* (8 liburuki). 1. arg. Andoain: Aralar, 1999.
- ERRAZKIN AGIRREZABALA, M. eta AGIRRE-MAULEON, J. 1936ko *gerra Euskal Herrian: Historia eta memoria*, 1. arg. Bilbo: UEU, 2009.
- FLORES, txema eta GIL BASTERRA, Iñaki. *Araba en 1936: Guerra y represión*, 1. arg. Gasteiz: Arabera, 2006.
- FUSI, JUAN PABLO. "El País Vasco durante la guerra", in MALEFAKIS, E., *La guerra de España, 1936-1939*, 1. arg. Madril: El País, 1986. 43-50.
- GONZÁLEZ PORTILLA, M. ETA GARMENDIA, J.M. *La guerra civil en el País Vasco. Política y economía*, 1. arg. Madril: Siglo XXI, 1988.
- GUDARI GAZTEENA. *Vida y política de los gudarís*, (autoedizioa).
- HUIDOBROSO CASTAÑO, H. "La guerra civil española de 1936-1939 en Arrazua-Ubarrundia", In: *Sancho el Sabio*. 22.zbk., 93-137.
- IRAZABAL AGIRRE, Jon. *Otxandio Gerra zibilean (1936/37)*, 2. arg. Bilbo: Gerediaga Elkartea, Otxandio Uriko Udala eta Otxandioko Jai Batzordea, 2006.
- IRUJO, Manuel de. *La guerra civil en Euskadi antes del Estatuto*, 1. arg. Bilbo: Kirikiño, 2006.
- JIMÉNEZ DE ABERASTURI, J.C. *Colección documental para el estudio de la Guerra Civil en Euskadi procedente de los archivos militares franceses (1936-1937)*, 1. arg. argitaletxea: Eusko Ikaskuntza, urtea.
- JIMÉNEZ DE ABERASTURI, L. M. ETA J. C. *La guerra en Euskadi*, 1. arg. Donostia: Txertoa, 2003.
- LEZAMIZ, Julen eta TABERNILLA, Guillermo. *Saibigain, el monte de la sangre*, 1. arg. Bilbo: Sancho de Beurko Elkartea, 2002.
- LORENZO ESPINOSA, J.M., *Historia de Euskal Herria* (III. Liburukia), Tafalla: Txalaparta, 1995.
- MARTÍNEZ RUEDA, F. *Otxandio*, 1. arg. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1992.
- MENDIZABAL ELIAS, Amaia. *Azpeitiarrak Espainiako Gerran*, 1. arg. Donostia: Uzturia Kultur koordinakundea, 2006.
- NAGORE YARNOZ, Javier. *En la primera de Navarra. Memoria de un voluntario navarro en Radio Requeté de Campaña*, 1. arg. Madril: Movierecord, 1986.
- OTXANDIOKO UDALA. *Memoria de los trabajos verificados por el Ilustre Ayuntamiento de Ochandiano*. 1932.
- PRESTON, Paul, *La Guerra Civil Española*. 3. arg. Madril: Debate: Madril, 2006.
- SALABERRIA, Sebastian. *Neronek tirako nizkin*, 2. arg. Oiartzun: Sendoa, 1994; 174 or.
- SALAS LARRAZABAL, J. *Gernika*, 1. arg. Madril: Rialp, 1978; 326 or.
- SALAS LARRAZABAL, Jesús. *La guerra de España desde el aire*, 2. arg. Bartzelona: Ariel, 1972; 562 or.
- SALAS LARRAZABAL, Jesús. *Guerra aérea 1936-39* (3 liburuki), 1. arg. Madril: Instituto de Historia y Cultura Aeronáuticas, 1998.
- SANCHO DE BEURKO. *Gudarís*. 1. arg. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1977; 133 or.
- SEBASTIAN GARCÍA, Lorenzo. "La represión económica bajo el primer Gobierno Vasco. La Junta Calificadora Central (1936-1937)", In: *Vasconia: Cuaderno de Historia-Geografía*. 29. zbk. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999, 169-184.
- SHOPES, L. "Diseño de proyectos de Historia Oral y formas de entrevistar", In: *Historia, Antropología y Fuentes Orales*. 25.zbk. 2001; 133-141.

- STEER, George L. *El árbol de Gernika. Un ensayo sobre la guerra moderna*, 1. arg. Tafalla: Txalaparta, 2002.
- TALÓN, V. *Memoria de la guerra de Euzkadi de 1936* (4 liburuki), 1. arg. Barcelona: Plaza&Janes, 1989.
- TEBIB ARRUMI. *La conquista de Vizcaya*, 1. arg. Valladolid: Librería Santaren, 1938.
- TOURTIER-BONAZI, C. De. "Proposiciones de metodología", In: *Historia y Fuente Oral*, 6. zbk., 1991; 181-191.
- TUÑÓN DE LARA, Manuel. "El País Vasco durante la guerra", in MALEFAKIS, E. (arg.), *La guerra de España, 1936-1939*, Madrid: El País, 1986. 21-43 or.
- UNIVERSIDAD DE VALLADOLID. *Informe sobre la situación de las provincias vascongadas bajo el dominio rojo-separatista*, 1. arg. Valladolid: Universidad de Valladolid, 1938.
- URGOITIA, J.A. *Crónica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi Peninsular*. (IV liburuki), 1. arg. Donostia: Sendoa, 1984.

AGIRITEGIAK

Bizkaiko Foru Agiritegia
 Irargi Agiritegia
 Otxandioko Udal Agiritegia
 Centro Documental de la Memoria Histórica
 Archivo General Militar de Ávila
 Mañariako Udal Agiritegia
 Durangoko Udal Agiritegia
 Biblioteca Nacional
 Abertzaletasunaren Agiritegia
 Bilboko Udal Agiritegia
 Gasteizko Udal Agiritegia
 Euskadiko Filmategia
 Eusko Jaurlaritzako Agiritegia
 Causa General de Vizcaya/ 56. Zbk/Partido Judicial de Durango/Otxandioko Udala

PRENTSA

<i>El Liberal.</i>	<i>El Pensamiento Alavés.</i>
<i>El Nervión.</i>	<i>El Diario Vasco.</i>
<i>Noticiero Bilbaino.</i>	<i>La voz de España.</i>
<i>La Tarde.</i>	<i>Unidad.</i>
<i>Euzkadi.</i>	

INTERNET

www.requetes.com,
www.sanchodebeurko.org
www.gipuzkoa.cnt.es

ARGAZKI KREDITUAK

- Abertzaletasunaren Agiritegia: 94, 118, 119 (goian eta erdian), 120, 121 (goian eta erdian), 137, 156 (goian).
- Archivo de la Memoria Histórica: 123
- ASTOLA, Sebastian: 121 (behean), 122, 228
- Avilako Agiritegi Militarra: 157 (goian), 171
- AXPE ARRIETA, Mateoren alaba: 229 (behean)
- Biblioteca Nacional: 154, 189 (erdian eta behean), 190, 191 (behean), 192 (goian)
- Bizkaiko Foru Agiritegia: 45, 229 (goian), 230 (goian)
- Eusko Ikaskuntzaren Argazki bilduma: 39 (goian), 95 (erdian)
- Eusko Jaurlaritzako Agiritegia: 96 (behean)
- Gasteizko Udal Agiritegia: 38, 39 (behean), 40, 41, 42, 43, 44, 124, 138, 196 (goian), 197 (goian), 198 (goian), 199 (goian)
- Gerediaga Elkarte: 61 (behean), 62, 95 (goian), 119 (behean), 191 (goian)
- Irargi Agiritegia: 125, 157 (behean)
- Kapanaga, Santi: desplegablea
- Kutxa Fototeka: 95 (behean), 117, 192 (erdian eta behean), 193, 194, 196 (behean), 197 (behean), 198 (behean), 199 (behean)
- LEZAMIZ, Julen eta TABERNILLA, Guillermo. *Saibigain, el monte de la sangre*, 1. arg. Bilbo: Sancho de Beurko Elkarte, 2002: 170
- MARTINEZ BANDE: 61 (goian), 139
- Otxandioko Udala: 13, 19, 230 (behean)
- UNIVERSIDAD DE VALLADOLID. *Informe sobre la situación de las provincias vascongadas bajo el dominio rojo-separatista*, 1. arg. Valladolid: Universidad de Valladolid, 1938: 156 (behean)
- URGOITIA, J.A.: 186 (goian)